

Hego eta Iparreko Ekonomia Sozial eta Solidarioaren esperientzien sistematizazioa



www.emaus.com

aditog



Emaús Fundación Social

C/Aurrekoetxea 1, Bajo Dcha.
48006 Bilbao

Tel: 94 405 16 44

Fax: 94 405 02 70

economiasolidaria@emaus.com

www.emaus.com

www.desarrollohumanosostenible.org

*En consorcio /
Partzuergoan:*



*Colaboradores /
Laguntzaileak:*



*Financiadores /
Finantzatzaileak:*



Aitortu-EzKomertziala-Partekatu Berdin 2.5 Espainia

Sorturiko materiala, hirugarren pertsonen banatua, kopiatua eta erakutsia izan daiteke baldin eta kredituetan jatorria eta autoreztza erakusten bada. Ezin daiteke inolako etekin komertzialik atera eta eraldatzen diren materialak, benetako lanaren lizentzia berdintsupean egingo dira.

Itzulpena: Emaús Fundación Social

Diseinu eta maketazio lanak: Olatz Pradini

Inprimatzea: Gráficas Gorobe S.L.



Gidaren aurkezpena:

Oraingo honetan aurkezten den **Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Esperientziak Ipar-Hego Gida** 50 ekonomia esperientzia fitxez osatuta dago. Fitxa hauek osagai solidario sendo bat dute eta ekintza oso bariatuez osatua daude, jatorria desberdina da ere: Brasil, Argentina, Espainia eta Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE). Ekimen hauek guztiak ekonomiaren praktika alternatiboa eta solidarioak dira beraien alderdi desberdinetan, eta aurkibidean lan eremuen arabera sailkatuta daude:

1. Finantzaketa
2. Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena
3. Merkaturatzea eta elkar trukaketa (truketa)
4. Kontsumoa
5. Ekonomia solidarioaren sustapena
6. Kudeaketa partizipatiboa

Ekonomia solidarioaren sare, foro eta eztabaidetan Emaús Gizarte Fundazioaren (aurrerantzean EGF) parte hartze aktibotik eta ekonomia solidarioaren enpresen sustatzaile talde bezala duen eskarmentutik, sakontasunean egindako ikerketatik eta Ipar-Hego esperientzien elkar truketik, ekonomia solidarioaren sareak indartzeko beharrari buruz hausnartzen hasi zen. Horrela, **“Ekonomia Solidarioaren Sareak Gerturatuz Ipar-Hegoan: praktika onak elkar banatuz eta sistematizatuz”** proiektua definitu ze, Eusko Jaurlaritzako Lankidetzeta eta Garapenerako Laguntza Fondoek (FOCAD) eta Getxoko Udaletxeak (Bizkaia) finantzatua, esperientzien gida hau kokatzen delarik.

Helburu orokor bezala, proiektu honek “Iparrean eta Hegoan Ekonomia Sozial eta Solidarioaren esperientzia onen sustapena, sistematizazioa eta elkar trukaketaren bitartez, Giza Garapen Iraunkorraren Alde egitea” bilatzen du. Era berean, “Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Sareak Indartu” nahi du, Espainiakoa eta Hegoaldekoa ere, ekonomia solidarioaren erakundearen prozesuen eta esperientzien identifikazioaren bitartez. Modu honetan, Hegoaldeko (Brasil eta Argentina) eta Iparreko herrialdeen arteko ezagutzen elkar trukaketaren alde egin nahi da eta eredu ekonomiko eta sozial alternatibo bati buruzko eragina.

Zentzu honetan, esperientzien analisia eta ondorengo sistematizazioa gidaren bitartez, parte hartzeko metodologia batean elkar banatua eta eztabaidatua izan da, ondorengo ikertzaile taldearekin: Ekonomia Alternatiboa eta Solidarioaren Sarea – REAS Euskadi; HEGOA Ikerketa Zentroa; Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Latinoamerikako Ikertzaileen Sarea (RILESS). Erakunde hauek, lankidetzeta sarean ezarpenaren inguruan esperientziak dituzte, bai lokal mailan bai nazioarteko mailan, eta eragile desberdinekin. Horrez gain, erakunde hauen eremu geografikoek Ipar-Hego ikuspegi desberdinak barneratzea posible egiten dute, baina hauetako bakoitza Ekonomia Sozial eta Solidarioaren sustapenean bateratzen dira:

- **REAS Euskadi** ekonomia solidarioaren sarearen ikuspena eta esperientziaren ekarpena egiten du EAEn. Proiektu hau exekutatzeko lankidetzeta hitzarmen bat burutu da REAS Euskadi, www.economiasolidaria.com eta Emaús Gizarte Fundazioaren arteko partzuergo baten bitartez.
- **HEGOA** EAeko garapenerako lankidetzaren ikuspena barneratzen du, baita garapenarekin erlazionatutako arazoaren analisia duen eskarmentu aintzatetsia ere. www.hegoa.ehu.es



- **RILESS** ikerketa ezagutzen ekarpena egiten du ekonomia solidarioaren esparruan Hegoan. www.riless.org
- **EGF** proiektua eta CD honen elaborazio koordinatu ditu, zehazki, ekonomia solidarioaren enpresa bezala duen esperientzia emanez eta EAEn garapenerako hezkuntzan urteetan zehar egindako lanaren ekarpena. www.emaus.com

Emaús Gizarte Fundazioa eta Ekonomia Solidarioaren sustapena:

EGFtik Ekonomia Solidarioa, ekonomia bitarteko bat bezala eta ez garapen pertsonal eta komunitarioaren zerbitzuaren helburu bat bezala aldarrikatzen duen **ikuspen eta praktika** bat bezala ulertzen dugu. Pertsonen eta gure gizarte ingurunearen bizitza kalitatearen hobekuntzaren alde egiten duen tresna bat bezala. Beraz, bere erroak pentsamendu eta ekintza ekonomikoaren kontsiderazio etiko eta humanista batean hondoratzen dituen kontzepzio bat da, **pertsona eta komunitatea garapenaren erdian kokatzen ditu**, kapitalaren eta bere metaketaren gaintik, geroz eta birbanatzaileagoa eta berdina den eredu sozioekonomikoa aldarrikatzen duen bitartean.

Bere sorreratik (1994), EGFak **giza garapen iraunkor**¹ baten aldeko proiektu eta ekintzekin lan egin du eta gizarteratzeko² 7 enpresen sorrera bultzatu du, hondakinen berrerabilpena eta bidezko merkataritzaren eremuetan. Konkrétuki *Emaús S. Coop.*, *Emaús Bidasoa*, *Emaús Bidezko Merkataritza*, *Emaús Bilketa*, *Emaús M-Sur*, *Riquirraque Emaús* eta *Elkarlan Gizarte Ekonomiaren Sustapenaren sorrera bultzatu du.*

Era berean, hezkuntza eta sentsibilizatorako lana ere garatzen da interes talde desberdinei zuzendua: ekonomia solidarioko erakundeak; herri administrazioak; sindikatuak; unibertsitate eta ikerketa zentroak; sareak eta komunikabideak

Iraunkortasunerako hezkuntza saileko Ekonomia Solidarioaren ildoan, ondorengo jarduera lerroak garatzen dira:

- Pertsonen ekonomia alternatiboa, eraldatzailea eta ahalduzkoaren ikuspegi bat sustatu.
- Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ekimenak bultzatu, gizarte ekintzailetzakoaren bitartez.
- Negozio Inklusiboen ereduak sustatu, populazioaren segmentu baxuetara, enpresen balore katean diru sarrera baxuak barneratzeko.
- Ekonomia sozial eta solidarioari buruzko eztabaida eta hausnarketa guneak sortzea.
- Giza Garapen Iraunkorraren alde egiten duten gune geografiko desberdinak hedatzen diren esperientziak aztertu eta elkar trukatu.
- Aurrez aurreko prestakuntza eta lineako ikastaroak garatu.
- Hegoan eta Iparrean dauden ekonomia sozial eta solidarioaren gizarte sareak indartu edo/eta artikulatu.

¹ Giza Garapen Iraunkorra: gizakia bere arduren erdian kokatzen planteatzen du, bere gaitasunak hobetzea lehentasunezkoa kontsideratuz bere beharrak asetzeko. Ikuspuntu honetan ingurunearen dimentsioa barneratzen da, garapen ereduaren bateraezintasuna agerian jarriaz, herrialde aberatsetan munduko biztanleriaren osotasunaren beharren asetasunarekin ematen dena.

² Gizarteratzeko Enpresak (GE): azaroak 11ko 182/2008 Eusko Jaurlaritzako Dekretuaren arabera, gizarteratzeko enpresen kalifikazioa erregulatzen denaren arabera, bertara sartzeko prozedura eta bere erregistroa ezartzen da. Ikus: http://www.gizatea.net/empresas_insercion.php



Parte hartzen duen sare horietako batzuk hauek dira:

- Ekonomia Alternatiboa eta Solidarioaren Sarea (REAS)
- Euskal Herriko Gizarteratzeko Enpresen Elkarte (GIZATEA).
- Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Berreskuragailuen Espainiar Elkarte (AERESS).
- Innobasque-k bultzatutako gizarte ekintzailtzako i-taldea eta BdP negozioren i-taldea.
- Estatuko Bidezko Merkataritzako Koordinakundea.
- Euskadiko GGKEen Koordinakundea.

REAS Euskadi:

1997 urtean jaiotako sare bat da, pertsonen eta ingurunearen zerbitzura ekonomia bat sustatzen duten 46 enpresa eta gizarte erakunde taldekatzen ditu. Eskutiz Solidarioaren³ 6 printzipioekin duen konpromisotik, gizartearen eraldaketa jarraitzen duten taldekako proposamenak indartu nahi dute –giza garapen iraunkorraren ikuspuntutik-, eta zehazki, ekonomiaren eraldaketa bere alderdi desberdinetan: finantzaketa, ekoizpena, merkaturatzea eta kontsumoa.

Enpresa solidarioen sare bat bultzatzen du eta gizarte auditoria tresnak eta kalitatearen hobekuntzarako tresnak aplikatzen ditu, kontsumo arduratsua eta bidezko merkataritza eta merkataritza ekologikoa bultzatzeaz gain. Era berean, finantza baliabide etiko eta solidarioen garapena laguntzen du, herritarren sensibilizazioa bultzatzeaz gain, aldaketarako hezkuntza eta gizarte parte hartzean azpimarratuz.

Bertako, estatuko eta munduko ekonomia solidarioko beste sare batzuekin koordinatzen da, eta gizarte zibilarren barruan, gizarte eta mundu berdinago, solidarioago eta inklusiboago baten eraikuntza jarraitzen duten ekimen eta herritarren mugimendu desberdinen alde egiten du.

Reas Euskadi-k lan eremu desberdinak garatzen ditu, hauen artean:

- Herritarren sensibilizazioa eta ekonomia alternatiboa eta solidarioaren sustapena.
- Barne eta kanpo prestakuntza, ekonomia solidarioarekin erlazionatutako gaietan.
- Euskal Herriko Gizarteratzeko Enpresen Elkartearen bultzada eta sustapena.
- Gizarteratzeko enpresen eta gizarte enpresen sorrerako laguntza zerbitzuak.
- Enpresa solidarioentzat merkaturatze, hedapen eta beste zerbitzuetarako laguntza, Gizarte Katalogoaren ekimena bezala.
- Gizarte auditoria tresnen sorrera eta ezarpena.
- Finantza tresna etiko eta solidarioei laguntza eta hedapena, bereziki Banca Ética FIARE Proiektuaren bultzadan.
- Gizarte klausulen eta enplegu merkatu babestuen sustapena.
- Institutio publikoekin solasaldiam gizarteratze eta laneratze gaien, gizarte gaietan eta ekonomia sozial eta solidarioaren gaien.
- Beste entitate, mugimendu eta herritarren sare, unibertsitate eta ikerketa zentro, komunikabideekin, etab. harremanak.

³ Eskutiz Solidarioaren 6 printzipioak dira: Berdinatsuna, Enplegua, Ingurumena, Lankidetzta, Irabazi asmorik gabe eta ingurunearekin Konpromisoa. http://www.economiasolidaria.org/carta_solidaria



Bereziki, proiektu honetan REAS Euskadiren parte **hartzea gure gizarteetan ekonomia sozial eta solidarioak sustatzen dituen esperientzia desberdinen ezagutza gehiengora laguntzeko interes bereziarekin** erlazionatuta dago. hori dela eta, EGFarekin partzuergoan proiektu honetan parte hartu du, CD hau parte bat den bezala.

HEGOA Nazioarteko Garapen eta Lankidetzari buruzko Ikerketen Institutua:

Hegoa irabazi-asmorik gabeko erakundea da eta bere izaera bikoitzetik – **institutu unibertsitario** eta elkarte – **giza garapena sustatzeko lanean aritzen da**. Bere helburu orokorra pentsamendu kritiko batetik giza garapenerako eta nazioarteko lankidetzarako paradigma, modelo eta estrategiak sortzea, proposatzea, eragitea eta aplikatzea da.

Hain zuzen ere, ikuspegi hau kontuan harturik eta Institutu Unibertsitario Mixtoaren izaera oinarritzat harturik (elkarte sozial moduan eta euskal Unibertsitate publikoko institutu moduan), Hegoak bere lana sail desberdinetan egituratzen du. Modu honetan, ikerketa eta ekintza esparruak lotzen ditu paradigma berrien bilaketan.

Ikerketa, hausnarketa eta praktikaren eremuan barruan, hainbat eremutan zerbitzuak eskaintzen ditu: ikerketa eta dokumentazioa, garapenerako hezkuntza, sentsibilizazioa, prestakuntza eta gaikuntza eta aholkularitza eta laguntza teknikoa. Giza garapenaren aldeko ekarpena indartzen duen proiektu batean, inplikaturik dauden pertsona ekipoak dituzte, zehazki nazioarteko lankidetzari, gizarte, politika eta hezkuntza eragileena.

Instituzioen arteko lan bateratuaren helburu orokorra, emaitza iraunkorrak, efektiboak eta eraginkorrak lortzeko ahaleginak, giza gaitasunak eta gaitasun materialak batzea da. Espezifikoki, Hegoak proiektuaren fase honetan, marko teorikoaren definizioarekin eta ikerketaren metodologiarekin erlazionatutako emaitzei lagunduz parte hartzen du.

Ekonomia Sozial eta Solidarioko Latinoamerikar Ikertzaileek Sarea (RILESS):

Sare hau, Latinoamerikan azken hamarkadetan zehar gaineratzen ari diren ekonomia alternatiboaren formen garapenari dagokien ekintzei eta pentsamendu estrategikoari, fundamentu zientifikoa eta oinarri empiriko sendoak ematen laguntzera ahalegintzen da. Marko plural batean lan egiten duten ikertzaileen sare bat garatzea bilatzen da, proiektuen elaboraziora laguntzen, elkar trukaketak eta lankidetzak zientifikoaren forma desberdinak, diziplina anitzeko lanak erraztuz eta sustatuz, Latinoamerikan beste ekonomia bat, beste gizarte bat eta beste politika baten aldeko taldekako ekimenak indartzeko helburuarekin. European edo beste kontinenteetan baliokideak diren sareetara berezko pentsamenduarekin lotzen den sare bat, estatuarekin eta aktore kolektiboekin eta latinoamerikar gizarteetatik modu horiek bultzatzen dituzten sareekin artikulatuz – ikerketa sare bezala duen bereizgarritasunetik -.

RILESS-aren helburu zehatz batzuk hauek dira:

- Webgune bat eraiki (www.riless.org), ezagutza eta informazioa eskaintzen, ikertzaile, gizarte eta gobernuko erakunde sustatzaileak eta beste gizarte aktore eta aktore publikoentzat baliabide bezala balio dezake.



- Konpara daitezkeen azterketak edo ikerketak posible egiten dituzten marko kontzeptualak, metodologiak eta adierazleak garatu eta eztabaidatu.
- Interes komunekoa arazoak ematen dituzten gaiak identifikatu eta bateraturik, lehentasun, proiektu eta baliabide elkar banatuen agenda bat eraiki.

RILESS-ek proiektu honetan parte hartu du, Brasil eta Argentinako 25 esperientzien sistematizazioa hautatzen eta garatzen eta erabilitako ikerketa metodologiaren definizioan kolaboratuz.

Proiektuaren Ekipoa:

Proiektuaren ekipoa ondorengo pertsonekin osatua egon da:

Juan Carlos Pérez de Mendiguren eta Luis Guridi, Hegoa- UPV/EHU, Ana Iametti, REAS Euskadi, Amaia Uribe-Etxebarria, EGF, Maria Victoria Deux Marzi eta Gonzalo Vázquez Universidad Nacional General Sarmiento-ko (UNGS) ikertzaileak. Horrez gain, Además Carlos Azkunce, REAS, Maria Rubio, EGF eta UNGS-ko Ekonomia Sozialen Maisutzatik ateratako ondorengo ikertzaileak: Gerardo Aguirrezábal, Valeria Costanzo, María Candelaria Logares, Daiana Páez eta Mariela Díaz-en kolaborazioa jaso du.

Gida honen elaborazioan parte hartu duten erakunde eta pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, beraien denbora eta konfiantza eskaintzeagatik eta beraien erakundeak parez pare irekitzeagatik, ekonomia solidarioago baten bidean elkar joateko.

Azpiratu beharra daukagu, proiektuan definituriko denbora eta baliabideak direla eta, gida honetan, ekonomia solidarioko 50 esperientzia soilik aztertu ahal izan ditugula. Esperientzia interesgarri ugari, etorkizuneko beste etapa batean aztertzeke eta ezagutzeko galdituko dira.



Hego eta Iparreko
Ekonomia Sozial eta
Solidarioaren
esperientzien
sistematizazioa



1. FINANTZAKETA 12

- Banco Palmas - Brasil 12
- Coop57 S.C.C.L - Espainia 16
- Fundación Inversión y Ahorro Responsable (FIARE) - Espainia 21

2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN EKOIZPENA 27

- Agricultura Urbana Rosario - Argentina 27
- Asociación Civil Madre Tierra - Argentina 31
- Cadena Ecológica do Algodão Solidário, Justa Trama - Brasil 35
- Cadena Textil Solidaria - Argentina 39
- Centro de Investigación y Formación en Actividades Económicas Sostenible (CIFAES) - Espainia 42
- Cooperativa de Costureras Unidas Venceremos (Univens) - Brasil 48
- Cooperativa de servicios públicos, Comunidad Organizada - Argentina 51
- Cooperativa de trabajo "Unión Solidaria de Trabajadores" limitada (UST)- Argentina 54
- Eko3R S.Coop – Espainia (CAPV) 58
- El Culebrón Timbal - Argentina 63
- Emaús Fundación Social – Espainia 66
- Fábrica Sin Patrones (FASINPAT) - Argentina 72
- Federación Sartu – Espainia (EAE) 75
- Ferias Francas de Misiones - Argentina 82
- Fundació Deixalles - Espainia 86
- Fundación Gaztelan - Espainia 91
- Fundación Peñascal – Espainia (EAE) 96
- Grupo La Veloz Cooperativa – Espainia 101
- La Alameda – Asamblea Popular y Cooperativa de Trabajo "20 de diciembre" - Argentina 106
- Mercado de la Estepa "Quimey Piuké" - Argentina 110



- Mol- Matric S.C.C.L - Espainia 114
- Movimento de los Trabajadores Rurales sin Tierra (MST) - Brasil 117
- Movimento de Ocupantes e Inquilinos (MOI) - Argentina 121
- Movimento de Trabajadores Excluidos - Argentina 125
- Organización Barrial Túpac Amaru - Argentina 129
- Red Social Koopera S.Coop – Espainia (EAE) 133
- Tinko Garbiketak S.L – Espainia (EAE) 137
- Trévol la Cooperativa - Espainia 139
- Usina Catende - Brasil 144

3. MERKATURATZEA ETA ELKAR TRUKAKETA (TRUKEA) 148

- Asociación cultural Traficantes de Sueños - Espainia 148
- Asociación Kidenda – Espainia (EAE) 151
- Cooperativa Educacional Olga Cossettini Ltda. - Argentina 157
- El Trueque en Venado Tuerto “El juego de dar y recibir”- Argentina 160
- Espanica S.Coop - Espainia 164
- Fundación Aldauri - Proyecto Konekta – Espainia (EAE) 169
- Iniciativas de Economía Alternativa y Solidaria (IDEAS) - Espainia 174
- Mercado para el desarrollo y la cooperación (MERCADERCO) - Espainia 179
- Projeto Esperança/Cooesperança – Brasil 183

4. KONTSUMOA 186

- Bidezko Bidean, S.Coop. – Espainia (EAE) 186
- Birosta Bar Vegetariano - El Esqueje S.Coop - Espainia 190
- Ecogermen S. Coop de Consumo Ecológico. - Espainia 194
- La Ortiga. Cooperativa de Consumidores.- Espainia 198
- Landare. Asociación de consumidores de productos ecológicos - Espainia 202



5. EKONOMIA SOLIDARIOAREN SUSTAPENA	205
● Fórum Brasileiro de Economia Solidária – Brasil	205
● Secretaría Nacional de Economía Solidaria (SENAES) – Brasil	209
● UNISOL Brasil (União e Solidariedade das Cooperativas e Empreendimentos Solidarios do Brasil) – Brasil	213
6. KUDEAKETA PARTIZIPATIBOA	217
● Presupuesto participativo de Porto Alegre - Brasil	217



1. FINANTZAKETA



Erakundearen izena: Banco Palmas (BP)

Lan-eremua: Finantzaketa eremua - . Merkaturatzea eta elkartrukea eta Ekonomia sozial eta solidarioaren sustapena.

Lekua: Conjunto Palmeiras, Fortaleza hiriarren hegoaldera dagoen favela, Ceará estatua, Brasilgo ipar ekialdea.

Posta elektronikoa: bancopalmas@uol.com.br

Webgunea: <http://www.bancopalmas.org.br/>

Posta helbidea: Av. Val Paraíso 698, Conjunto Palmeiras. Fortaleza - Ceará - Brasil

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: Bankuko taldea osatzen duten 19 lagunetik 15 emakumeak dira. Bankua 1800 pertsonetara heltzen da.

Jarduerak hasteko urtea: 1998

Sarrera.

Banco Palmas Brasilgo ipar ekialdean, Palmeiras-eko favelan hain zuzen ere, herriarentzat sortutako finantzaketa tresna da. Ekoizpen eta kontsumorako maileguak ematen ditu tokiko prosumitzaile sare bat auzoan bertan sortzeko asmoz. 12 urtez lanean jardun ostean, funtsezko eginkizun honi beste batzuk gehituz joan dira, merkaturatze solidarioa, autokontsumoa, komunitateko hezkuntza eta komunikazioa indartzeko. Horrela, solidaritatean oinarritutako tokiko garapenerako instituzio garrantzitsua bihurtu da.

Jatorria.

Banco Palmas Palmeiras auzoaren sormenarekin estuki lotuta dago. 1973tik aurrera hiriko gobernuak kostaldeko lur sailetan bizi zen populazioa joanarazi zuen gaur egungo hiri turistikoa sortzeko. Biztanle hauek Palmeiras auzoan kokatzen joan ziren, herrialdeko beste puntu batzuetatik heldutako etorkinekin batera. Favelaren biztanle kopurua handituz joan zen (gaur egun 32.000 dira 120 hektaretan), inolako zerbitzu publikorik gabe. 1981ean *Associação de Moradores do Conjunto Palmeiras* (ASMOCONP) eratzen da. Elkarrekin 1500 bazkide biltzen ditu eta bere helburua pobrezia aurre egitea eta Palmeiras-eko biztanleen bizi-baldintzak hobetzea da. ASMOCONP Alemaniako lankidetzaren agentziarekin (GTZ) eta tokiko gobernuarekin lanean hasten da auzo urbanizatzeko, ur eta saneamendu sareak eraikitzeko eta elektrizitatea banatzeko. Plan Estrategikoa lortzeko 300 pertsonen partaidetza izan zuen tailer bat 1997an egin ondoren, Palmeiras-eko biztanleek pobrezia gainditzeko diru sarrera alternatiboak asmatzea beharrezkoa zutela identifikatzen da. Proiektua elkarrekin, eskolekin, denda jabeekin, eliz desberdinen ordezkariekin eta orokorrean jendearekin eztabaidatu ondoren, 1998an Banco Palmas sortzen dute tokiko ekoizpena, kontsumoa eta garapena sustatuko dituzten familientzako mikrokredituak eskaintzeko asmoz.

Jarduera.

Gaur egun Banco Palmas-ek Palmeiras-ko biztanleentzat duen eskaeraren barne ondorengo produktuak eta zerbitzuak daude:

Zerbitzu finantzarioak:

- Irizpide ekonomiko alternatiboek lehentasuna emanez (kapital solidarioa, ekoizpen iraunkorra, kontsumo etikoa, bidezko merkataritza), inbertsio, ekoizpen, merkataritza eta kontsumoaren barne dauden ekintza ekonomikoek babes ematen dien mikrokreditu sistema oso bat.
- Beraientzako bereziki sortutako kreditu-txartela (Palmacard), tokiko merkataritza pizteko asmoz.



1. FINANTZAKETA

- Solidaritate sareetan eta marka berdinen azpian: PalmaNatus (xaboi artisauek eta fitoterapeutikoak),
- Palmafashion (jantziak), Palmalimpe (garbiketako produktuak) lan egiten duten ekoizpen unitate txikien finantzaketa.
- *Projeto Fomento* (sustapen-bonuak): Palmas izeneko txanpon sozial baten sormena, komunitatearen diru-baliabideak sendotzeko.
- Talde-erosketak egiteko maileguak: oinarritzko otzararen produktuak erosteko.
- Palmas mikroasegurua: oraintsu sortua Zurich Seguros S.A.rekin egindako hitzarmenaren bitartez, bizi aseguruak eta istripu aseguruak eskaintzeko.

Merkaturatze-laguntzak:

- Txanpon soziala erabiltzen duten truke klubak.
- Banco Palmas Azoka eta denda solidarioa.
- Informazio sormena, trebakuntza.
- Tokiko ekoizpena eta kontsumoari buruzko inbentarioa (azken produktu eta intsumoei buruzko datuak jasoz). 1998an egin zen eta urtez urte berritzen da.
- Tokiko ekoizpen eta kontsumoa indartzen da.
- Palmatech: enpresa solidarioen kudeaketarako, sareen eta ekonomia solidarioaren bestelako tresnen sormenerako trebakuntza eta hezkuntza zentroa. Banco Palmas-en barne, material pedagogikoen eta esperientziari buruzko argitalpenen bidez sortutako ezagutzaren kudeaketa.
- Komunitate aholkularien trebakuntza: hasten dauden enpresei aholkularitza teknikoa eta laguntza emateko.

Enplegu eta autokontsumorako euskarria:

- Lan-burtsa: langile eta auzo barruko eta kanpoko enpresen arteko bitartekaritza.
- Inkubagailua: elikadura segurtasuna bermatzeko giza bazterketa edo galzori pertsonalaren arriskuan dauden emakumeei zuzendutako proiektua. Lanbide trebakuntzaz gain, elikagaien ekoizpenerako espazio bat eta ortua ere badu.
- Hiri nekazaritzarako laborategia: hiri nekazaritzari buruz taldeka ikasteko gunea, gero norberak bere etxean errepikatzen auzerarekin.

Eginkizun zehatz hauetatik aparte, *Escola Popular Cooperativa Palmas*, egunkari komunitario bat eta tokiko irrati bat daude. Horrez gain, 2003an ASMOCONP-ek Palmas Institutua sortu zuen BPren metodologia zabaltzeko eta Brasilen eta atzerrian beste banku komunitario batzuk sortzen laguntzeko sare bat osatuz. Egitasmo honetan BPK bigarren mailako banku bezala jokatu luke, banku berriei maileguak emanez eta banku-agenteen bitartez nola jokatu azalduz.



Parte-hartzaileak.

BPren funtsezko taldea 6 pertsonen osatzen dute, eta 24 langile gehiago ere badaude, horietariko 15 emakumeak direlarik. ASMOCONPek 300 bazkide ditu eta Palmas Institutoak, 30.

BPK sortutako *Fórum Socioeconômico Local*an bizilagunek eta elkarteek hartzen dute parte komunitatearen arazoak eztabaidatuz eta Bankuaren kontrola eta funtzionamenduari buruzko gogoetak eginez. Foro honetatik aparte, bizilagunak proiektu zehatzetan sartuta daude: merkatarien elkarteetan, bizilagunen asanbladetan eta kultura foroetan, adibidez.



1. FINANTZAKETA

Erakundeekin lotura.

Banco Palmas mota guztietako erakundeekin koordinatu da:

- Fortalezako udalarekin eta bere sail desberdinekin.
- Estatuko gobernu mailan, Lan eta Gizarte Ekintzarako Idazkaritzaren bitartez, baliabideak lortzen dituzte BPren kudeatzaileak eta sustatzaileak trebatu ahal izateko.
- Nazio mailan, *Sistema Nacional de Empleo* zerbitzuarekin eta Banco do Brasilekin, *Programa Nacional do Microcrédito Produtivo Orientado* – PNMPOaren bitartez.
- Unibertsitateekin: Cearáko Unibertsitate Federala eta Estatuko Unibertsitatearekin, Sao Pauloko Unibertsitatearekin, Maristen Unibertsitate Katolikoarekin eta Bahiako Unibertsitate Federalarekin. BPK aholkularitza teknikoa eskatzen die arlo desberdinei buruz (psikologia komunitarioa, familia eta generoari buruzko ikasketak, etxeko ekonomia, arkitektura eta hirigintza).
- Nazioarteko erakundeekin, besteak beste: GTZ eta ASHOKA.
- Gobernuz kanpoko erakundeekin, besteak beste:
 - Cearáko eta Brasilgo ekonomia solidariorako sareekin, informazioa eta metodologia elkarbanatzeko, trebakuntzak antolatzeako eta bestelako ekintzak koordinatzeko. Gaur egun BPK Brasilgo beste 54 banku komunitarioekin sarean egiten du lan.
 - Fortalezako auzo eta favelen federazioarekin.
 - BPK finantzatzen dituen enpresa berrien kudeaketarako lanbide trebakuntza eta tresneria ematen duten erakundeekin (*Instituto de Desenvolvimento do Trabalho* –IDT); baita kooperatibismoari eta ekonomia solidarioari lotutakoekin (*Central Única dos Trabalhadores* sindikatuaren *Agência de Desenvolvimento Solidário*) eta bankuaren kudeaketa eta plangintzarako tresnak eskaintzen dituztenekin (*Serviço Brasileiro do Apoio às Micro e Pequenas Empresas* -SEBRAE).
 - Proiektu desberdinen finantzaketa lortzeko: Coordenadora Ecumênica De Serviço, OXFAM, DED (*Deutscher Entwicklungsdienst*), Misereor eta *Inter-American Foundation* erakundeekin. Ekonomia solidarioari eta kontabilitateari buruzko aholkularitza jasotzeko: AGORA XXI-ekin.
 - Auzoko produktuen merkaturatzea egiteko: tokiko merkatarien elkarteekin.
 - Enpresa eta enpresa fundazioekin: *Walmart Institute*, *Petrobrás*, *Banco do Nordeste do Brasil*, Banco-Santander.
 - Beste herrialde batzuekin: Venezuelako estatuak esperientzia honen partaideekin mantendutako harremanen ondorioz, 3600 banku sortu ziren Venezuelan.

Lorpenak.

Banco Palmas-aren bereizgarritasuna eta garrantzia ekonomia alternatiboaren esparruko ekintza eta proiektu asko batzen dituen esperientzia izatean dautza. Proiektu guzti hauek Palmeiras-eko biztanleen ekoizpen, kontsumo eta autokontsumo zikloan eragina izan nahi duen sare baten bitartez koordinatzen dira.

Iraunkortasuna.

Bankuaren tresna guztiak elkarrekin koordinatzen dira; osagarriak direnez, tresna bakoitzaren iraunkortasuna besteengan datza. Tokiko ekoizpenerako pizgarriak (mikrokredituak, trebakuntzak, intsumoak taldeka erosi ahal izatea) merkaturatze abantailekin (azokak, dendak) eta tokiko kontsumorako erraztasunekin (kontsumo-maileguak, palmacard, sustapen-bonuak, eguneroko produktuak taldeka erosi ahal izatea) bateratzen dira. BPren kudeatzaileen iritzi, ekoizpen eta kontsumo kate osoan zehar esku hartzeak ematen dio BPri aktore desberdinak koordinatzeko ahalmena: ekoizleak, zerbitzu-emaileak, merkataria, komunitateko elkarteak eta kontsumitzaileak. Aktoreen koordinazio honek ematen dio, hain zuzen ere, BPri indarra eta horretan datza bere arrakastaren gakoa.

Gaur egun, BPren diru-zorria 175.000 dolarretan dago. Hilero egiten dituen 800 mugimenduek 3.000 dolarretako diru-sarrerara ematen diote eta horrek bere buruaren iraunkortasuna bermatzen du.



1. FINANTZAKETA

Erronka nagusiak.

- Produktorako intsumoen eta oinarrizko elikagaien zati bat komunitatetik kanpo erosten zaie enpresa kapitalistei. Posiblea eta beharrezkoa da intsumo hauen tokiko ekoizpena hedatzea. Zentzu honetan, BPren ekintza guztien ardatz den solidaritatearen kultura indartu behar da eta tokiko produktuei duten balioa eman behar zaie.
- Gero eta konplexuagoa bihurtu den BPren kudeaketa egiteko baliabide tekniko hobeak eta giza baliabide gehiago behar dira.
- Bankuak finantzatzen dituen enpresentzat zaila da baliabide teknologikoak lortzea, baina argi dago beraien kalitatean aurrera pausuak eman ahal izateko ezinbestekoak direla berrikuntza teknologikoak.
- Mailegu-zorroa handitzeari oztopoak jartzen dizkio legediak, zeinek ez duen baimentzen banku zentralak arautzen ez dituen baliabideak jasotzea. Hau dela eta, BP mailegu berrien edo nazioarteko lankidetzaren menpe dago beti.
- Esperientziaren kostu instituzionalak gora doaz zerbitzatutako familien kopurua gora doan neurrian. Kontraesan bat badirudi ere, BPren mobilizazio botereak ez dakar handituz doan eskaerari erantzuna emateko gaitasunik. ASMOCONPek eta BPk Conjunto Palmeiras-ko biztanlegoarentzat tokiko gobernu antzera funtzionatzen dute, beraien gain datozelarik favelako 32.000 biztanleen eskaerak.
- Banku honen eta beste banku herrikoien metodologia zabaltzea ere erronken artean dago, beraien arteko fluxu ekonomikoak bideratzeko sare bat eraiki dezaten.





1. FINANTZAKETA



Erakundearen izena: Coop57, SCCL

Lan-eremua: Finantzaketa arloa - Finantza zerbitzu etiko eta solidarioak.

Lekua: Bartzelona.

Posta elektronikoa: coop57@coop57.coop

Webgunea: www.coop57.coop

Posta helbidea: Méndez Núñez, 1 pral. 2a 08003 Bartzelona Tel. 93 268 29 49

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: Zerbitzuko bazkideak (ekonomia sozial eta solidarioko erakundeak): 350 Bazkide lankideak (pertsone fisikoak): 1179.

Langileak: 7 guztira. 2 langile emakumezkoak eta 5 langile gizonezkoak (hauetariko batzuk denbora partzialean).

Jarduerak hasteko urtea: 1995

Sarrera.

Coop57, ekonomian paper aktiboa hartzen dutenen eta eraldaketa sozialen alde dauden pertsonen eta erakundeen finantzazio tresna da. Aurrezte etikoa eta laguntza finantzariak, ekonomia sozialeko proiektuetara bidaltzea sustatzen duen kooperatiba bat da.

Jatorria.

1995. urtean hasi zituen Coop57-k ekintzak Katalunian, Bruguera Argitaletxeko langileen borrokatik aurrera, beren lanpostuak mantendu asmoz. Argitaletxea behin betiko itxi zenean, aspaldiko langile talde batek; euren kaleratzeengatik jasotako kalte ordainen zati batekin funts bat sortu zuten. Hau, kalitatezko lantokiak sortzeko eta bereziki eredu kooperatiboak bezalako proiektu ekonomikoak bultzatzeko sortua izan zen.

1996. urtean funts honekin, Coop57 sortu zen, zerbitzu finantzarien formula juridiko kooperatiboaren azpian. Hasiera batean, honen garapena lankidetasun kooperatiboarekin oso loturik egon zen, baina pixkanaka, oinarri soziala, ekonomia sozial eta solidarioko beste erakunde mota batzuetarantz zuzenduz joan zen. Beraien bazkideak, paraleloki hazten joan ziren.

2005. urtetik aurrera, honek beste lurraldeetan piztu zuen interesa zela eta, sareko hazkunde bat praktikan jarri zuten. Urte hartan Aragoi-ko ekonomia sozial eta solidarioko erakunde batek eta Coop57-k biak bateratuta, proiektua elkarbanatzeko erabakia hartu zuten. Eredua, egitura juridikoa eta Coop57-ren egitura teknikoa aprobeztatzean zetzan ideiak, baina lurralde bakoitzak autogestioa egin zezan utziz. Honek, "Coop57 Aragon" sortzea ekarri zuen, baina sarean garatuko zen planteamenduan oinarrituta.

Oinarri hauekin bat, gerora Coop57 Madril (2006), Coop57 Andaluzia (2008) eta Coop57 Galizia (2009) eratu ziren. Kasu guzti hauetan, Coop57 lurralde sekzio baten eraketaren arrakastaren giltza; kudeatzeko gai den eta lurraldean bertan dagoen ekonomia sozial eta solidario sare bat egotearena izan da.

Jarduera.

Coop57, ekonomian paper aktiboa hartzen duten eraldaketa sozialen alde dauden pertsonen eta erakundeen finantzazio tresna da. Hiritar modura geurea den protagonismo ekonomikoa berreskuratuz eta geure diruaren erabilera eta apustu egiten dugun gizartearen artean koherentzia gehiago egon dadin, espazioak erraztea sustatuz.



1. FINANTZAKETA

Modu honetan, baliabideak, proiektu sozial eta solidarioetara bideratzen dituen finantzak zerbitzu dituen kooperatiba bat dira. Banku etikoak dauzkaten printzipioen arabera gidatzen da, hau da: koherentzian, bateragarritasuna, parte-hartzea, solidaritatea, hausnarketa, gardentasuna eta gertutasunean oinarrituta.

Coop57-an ez daukate bezerorik, kooperatibako bazkideak, beronen jabe dira eta bazkide hauek bakarrik dute maileguaren bat jasotzeko aukera, beti ere azterketa bikoitz bat pasa ostean. Hala nola, euren proiektuen azterketa sozial eta ekonomiko baten ondoren. Kooperatibako bazkide diren elkarte eta enpresak, Batzar Nagusian parte hartzen dute eta Kontseilu Nagusian aukeratu edo parte har dezakete. Modu honetan, bertan dirua jartzen duten pertsonen ordainsariaren interesa zenbatekoa izango den aukera dezakete, arauak zein funtzionamendu izango duten aukeratuz (erakunde bat, botu bat; edozein izanik ere eginiko ekarpena), eskaintzen diren produktu motak erregula ditzakete, kredituetan eskatzen diren berme motak ere aukera ditzakete, maileguak emateko edo ez emateko beharrezkoak diren azterketak egin ditzakete; beti ere autogestionatuz.

Kooperatibak, zerbitzu finantzariak bazkideei bakarrik eskaini diezazkieke, hau da, ekonomia sozial eta solidarioko erakundeei soilik (kooperatibak, elkarteak, fundazioak, ONG-ak, etab.)

Coop57-ren eskutik laguntza jasotzen duten proiektuek, gutxienez honako kondizioak bete beharko dituzte:

- Zentzu orokorrean, helburutzat interes soziala eduki beharko dute.
- Lurraldean bertan sustraituak egon beharko dira.
- Gizarte solidarioago baten eraikuntzan lagundu beharko dute.
- Autonomia eta gestio demokratikoen irizpideen arabera funtzionatu beharko dute.
- Lanpostu egonkorrak sortu beharko dituzte.
- Soberakinak banatu egindako lanaren arabera.
- Ekonomikoki bideragarria izango den proiektu baten jabetza eduki beharko dute.
- Eskaturiko maileguaren bueltatzea egiteko gaitasun nahikoa eskaini beharko dute.

Parte-hartzaileak.

Egun, (2010.urte amaiera), Coop57-k 350 erakunde bazkide, 1179 bazkide zeinak, etikoki ekonomia sozial eta solidarioko proiektuak finantzatzeko euren aurrezkiak banakako eran jartzen dituztenak. Jarraian, lurraldeka zein eratarago dagoen antolatuz azaltzera igaroko dira:

- Coop57 Andaluzia: 22 erakunde bazkide eta 83 bazkide lankide.
- Coop57 Aragoi: 39 erakunde bazkide eta 230 bazkide lankide.
- Coop57 Katalunia: 229 erakunde bazkide eta 657 bazkide lankide.
- Coop57 Galizia: 20 erakunde bazkide eta 66 bazkide lankide.
- Coop57 Madril: 40 erakunde bazkide eta 143 bazkide lankide.

Beraien funtzionamendua horizontala da, sarean eraikia izan den egitura bat sortu dute eta ez piramide itsurako egitura bat. Alde batetik, ihardungo duten lurralde bakoitzeko errealitatea hobeto ezagutu ahal izateko egin da eta bestalde, ekonomia sozial eta solidarioarekiko gertutasunik ez galtzeko. Esate baterako, Coop57 Aragoi, Aragoiko bazkideak gestionatzen ditu, eta emango diren maileguei buruz erabakiak hartzen ditu. Hala eta guzti ere, lurralde sekzioak ez dira bakarrik aritzen, baizik eta izaera juridiko eta kriterio etiko, sozial eta ekonomiko berdin oinarrian aritzen dira lanean. Kooperatiba, honako organo orokorrez dago konposatua: erakunde bazkideen batzarra, kontseilu nagusia, Kontseilu Nagusiaren ordezkari batzordea, Koordinazio/administrazioa.





1. FINANTZAKETA

Horrez gain, Lurraldeko sekzio bakoitzak, geure organo zehatzak dituzte:

- **Sekzioko Batzarra**

- Sekzioko organo gorena da. Sekzioko Kontseilua izendatzen du.
- Urteko gestioa kontrolatzen du eta sekzioko kontuak onartzen ditu.
- Sekzioko lerro estrategikoak erabakitzen ditu eta bere lan egitasmo eta urteko aurrekontuak.
- Urtean gutxienez behin biltzen da.

- **Sekzio Kontseilua**

- Sekzioko gobernu, gestio eta ordezkapen organoa da.
- Mailegu ematea onartzen du.
- Sekzio Biltzarrarekin lan egiten duten bazkide lankideengatik aukeratuak dira bertako kideak.
- Hilero biltzen dira.

- **Gizarte Komisia**

- Coop57 tik kanpo dauden eta ezagunak diren pertsonak osatzen dute.
- Alderdi sozial eta etikotik ebaluatzen dira bazkide berrien izen emateak.
- Aurkeztutako proiektuen bideragarritasuna eta interes sozialak aztertu eta irizpidetzen dira.
- Sekzio Kontseiluari, bazkide bezala onartze edo ez onartzea gomendatzen zaio.

- **Komisio Teknikoa**

- Coop57 tik kanpo dauden eta ezagunak diren pertsonak osatzen dute.
- Alderdi tekniko ekonomikotik finantziario eskaera ebaluatzen da.
- Aurkeztutako proiektuen bideragarritasuna eta interes sozialak aztertu eta irizpidetzen dira.
- Sekzio Kontseiluari, eskatzen diren kredituen onartze edo ez onartzea gomendatzen zaio.

Lorpenak.

Bideragarritasun ekonomikoa eta etekin soziala: momentura arte, Coop57-ek ekonomia sozialeko kooperatiba, elkarte eta beste erakunde batzuei 600 mailegu baina gehiago eman dizkio. Beti, eskaera bikoitzaren azpian, hau da, ekonomia bideragarritasuna eta etekin sozialaren oinarrian. Beraien bazkideei maileguak soilik ematen dizkiete, ez diete subentziorik ezta fondo galdurako mailegurik ere. Sei urtetan, 300 proiektu baina gehiago finantzatu dituzte.

Ekonomia solidarioko praktika erreala: Kooperatiba bat baina gehiago, sare sozial bat dira. Alternatiba bat baino gehiago, errendimendu egonkorreko alternatiba sozial bat dira. Teoria bat baina gehiago, ekonomia solidarioko jarduera erreala bat da. Aldatu dezaketena adierazpide baterako balio dezakeen aldaketa sozial baten eraldaketa bat da.

Sustatzen duten **Demokrazia kooperatiboa** eta esperimentatu duten hazte prozesua, bi ezaugarri esanguratsuenak dira.

Demokrazia ekonomikoaren alorretik, gestio kooperatiboaren moduak mugimendu kooperatibistarekin erabat dator bat: parte hartzailea, errotua, autokudeatua eta erabat gardena baita. Urte hauetan guztietan, Coop57-tik, bide sozial eta modelo hau mantentzen, finkatzen eta sakontzen saiatu dira.





1. FINANTZAKETA

Coop57-ren **alderdi etikoa**, bereganatuz joan dira. Honek ez du esan nahi printzipioetan ez zegoenik, ez zeukatenik programatikoki egituratua baizik. Beraien planteamenduen gaintik zegoen eta etika beraien proiektuaren bastoia zen, baina pixkanaka joan da eraikitzen. Finantza etikoen errealitatea era sakonean ezagutu zutenean, benetako sinbiosi bat sortu zen.

Bertute bikoitza: Ekonomia sozial eta solidarioaren parte izateko aukera eduki dugu eta aldi berean honen zerbitzura egoteko aukera. Beraz, guztia azteraelikatu egiten da.

Kalitate goreneko egitura profesional bat edukitzeak, gehi bolondres taldeak, sekzio kontseiluak, gehi batzar irekiak, masa kritiko eta aktibo bat sortzen dute, zeinak abiadura hartzen duen eta zail egiten den “abentura” hau gelditzea. Are eta zailago egiten da hau gelditzea, ekipo teknikoa gaitu baita eta indar handia duen belaunaldien errelebo bat eman denean. Baita ideia eta konplizitate oso handia proiektuan denbora gehien daramaten pertsonei.

Ohiko finantza erakundeek baina sistema justu eta imajinazio gehiagokoak aplikatzen dira. Bermea pertsonala eta ondarekoa da. Bost bazkide dituen kooperatiba edo erakunderen bati mailegu bat ematen bazaio, ardura euren artean banatzen da eta bakoitzak maileguaren zati bati erantzun beharko dio, ez osotasunean. Kapital gizatiarrari ematen zaio garrantzia finantza kapitalaren gaintik. Grameen Bank (Bangladesh), ek aplikatzen duen sistemaren antzerako sistema da hau.

Erakundeekin lotura.

Parte hartzen duten erakunde eta organismoak:

- Xarxa d'Economia Solidària
- REAS- Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Sarea
- FETS-Financement Ètic i Solidari
- Fiare
- Aposta, Kooperatibismoaren Eskola
- Federació de Cooperatives de Treball de Catalunya
- Servicoop



Iraunkortasuna.

Beraien Coop57-ko errekurtsu propioak bi iturri nagusietan dute jatorri:

- Bazkide diren erakundeek ekarpenak (kooperatibak, asoziazioak, fundazioak eta ekonomia sozialeko beste erakundeak).
- Bazkide lankideek ekarpenetatik (euren aurrezkiak euren kezka etiko eta sozialen arabera kudeatzea nahi duten pertsona fisikoak).

Badakigu non doan geure dirua: Coop57-k, eduki soziala duen proiektuetan inbertitzen du eta geure dirua printzipio, arrazoi eta balore etiko eta solidario batzuek defendatu eta oso bestelakoa den finantziazioen oinarrian egotearen paradoxa erabat baztertzen dute.

Geuk aukeratzen dugu non joan behar duen geure diruak. Coop57-n aurrezkiak sartzen dituzten pertsona eta erakundeek, printzipioen erabakietan eta errekurtsuen inbertsio eta gestioen irizpideetan parte hartzen dute. Irizpide demokratiko eta era gardenean gestionatzen dituzte beraien errekurtsuak.

Elkarrekikotasuna eta interkooperazioa: bere sortze momentutik, gaur egun arte, Coop57-ko berankortasuna oso baxua da, ohiko erakunde finantzarien azpitik.



1. FINANTZAKETA

Garai honetan, finantzaturiko erakunde batzuk, zailtasunak pasa dituzte eta maileguaren ordainketari erantzun ahal izateko zailtasunak eduki dituzte. Egoera hauek, negoziatuz edo momentu kritikoetatik igaro ahal izateko ordainketa atzeratuz konpondu dira. Kontutan eduki beharra dago maileguak eskatzen dituzten erakundeak, bazkide direla eta hauek modu batean proiektuan sinetsi eta arduraz hartzen dutela. Guztiok batera, bertutezko elkargo bat osatzen dute.

Superabita edo defizita dagoenean badira truke mekanismoak ere. Modu honetan eramaten dira aurrera proiektu bateratuak eta era berean lurraldeen artean solidaritate ezartzeak. Coop57 lurralde sekzioak ere badira eta *“Coop57 bakoitza ezberdina da, oinarri sozial ezberdinak dauzka, errealitate ezberdin bat da, baina guztiok elkarrekin bizi gara”*. Sei urtetan 300 proiektu baina gehiago daramatzate finantzaturik dagoeneko.

Segurtasuna: printzipio etiko batzuek gidaturik daude finantza tresna hauek. Ahalik eta onura handiena jarraitu gabe, eta aurrezte eta mailegu seguru bat errazteko helburuarekin funtzionatzen dute, ohiko banku erakundeez ezin esan dezakegun moduan. Egiten dutenaren berri emanez, jaiotzen den konfiantza. Eta egin duten hori, bere garaian esan zutena dela erakutsiz. Segur aski, koherentzia printzipioa.

Berrikuntza eta hausnarketa: modu iraunkorrean egiten ari direnaren inguruan. Errealitatearen etengabeko azterketa eta atxikimendu eta sustraitzea. Hau izan da Coop57 asko eraberritzearen arrazoia: ez era ikusgarrian, baizik eta euri arinean eta kirrinka gehiegirik gabe. Esperientzia txiki batetik, Coop57-k ondorio orokor eta unibertsalak ateratzen jakin du. Saiatu eta funtzionatzen duela ikusten bada, orduan aurrera egin. Ez dute saiakerarik egiteko, frogatzeko eta hanka sartzeko beldurrik izan. Horregatik da gaur Coop57, batez ere, baliagarria eta fidagarria.

Erronka nagusiak.

Hazten doazen EsyS-ren finantza beharrak estali: egungo egoera ekonomikoak ez du laguntzen, baina Coop57-tik, lehendik moldatzen saiatzen gara, krisialdian era solidarioan eta ondoren era aktiboan. Jarraitu beharreko bidea krisira irauteko eta ekonomia solidarioan hazten doazen behar finantzariak eusteko egoki kokatzean datza.

Coop57-k horrela orain artean bezala jarraitzea: berdin izaten jarraitzea. Proiektua garatzen, era jasangarrian hazten, Fiare-ra loturik eta errealitate sozial eta ehundura kooperatiboan garatzen. Coop57 bertako parte baita. Baina agian partehartzean sakondu beharra dago eta bolondres diren langile taldeei nolabaiteko ordainsaria izan dezaten egin.

Pertzepzio soziala gehiago lantzea: Coop57 den bezala ezagutzera ematea. Bere potentzial guztiarekin: alternatiba erreal, serio, bideragarri eta posible den zerbaiten modura. Ez da finkatua ez dagoenik, baina irudia oraindik zeharkakoa da eta *“finantza karitatea”* puntu bat du oraindik, *“pertsona onek”* egina. Eta bidaia haratago doa: injustua den, ezberdina eta gaitoa den sistema finantzari bat baztertzea da. Horregatik, ikuspegi sozialean aurrera egin behar da eta egokituko den lerro bat bilatu behar da, konplizitatea eta hiritar guztiarekin propulsiua izango duena, ez mundu kooperatibo eta elkarrekin parte direnekin soilik.

Bere baldintza juridikokoa dela eta, beraien errekurtsioak ohiko instituzio finantzarietan bakarrik gorde ditzakete. Beraien akordioen arabera, gutxienez, errekurtsioen %15-ak modu likidoan egon beharko du, bazkideek eta bazkide lankideek eginiko ekarpenen itzultze eskariak erantzun ahal izateko.

Egun, maileguetara zuzendu ezin daitezkeen errekurtsioak, kutxa kooperatiboetan sartuta daude, zehazki *“Euskadiko Kutxa”*-an eta *“Multicaja”*-n (Kutxa kooperatiboa, *“Caja Rural Aragonesa”* eta *“Pirineos”* eta *“Caixa d’Advocats”*-en fusioen emaitza).



1. FINANTZAKETA



Erakundearen izena: Inbertsio Fundazioa eta Aurrezki Arduratsua (FIARE, Fundación Inversión y Ahorro Responsable)

Lan-eremua: Finantzaketa eremua.

Lekua: Bilbo, Euskadi. Espainia.

Posta elektronikoa: info@fiare.org

Webgunea: <http://www.proyectofiare.com/>

Posta helbidea: Santa María 9

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 8 pertsona kontratatuak Madril, Bartzelona eta Bilbon, hauetatik 6 gizonak dira eta 2 emakumeak. 1800 pertsona bazkide kolaboratzaileak eta 30 Talde Lokalak.

Jarduerak hasteko urtea: 2003

Sarrera.

FIARE proiektua, pertsona, familia eta erakundeen aurrezki bideratzea posible egiten duen finantza bitarteko tresna bat eraikitzeke sortu zen, gizartearen eraldaketa bat suposatzen duten proiektuetarantz. Diruaren eta ekintza ekonomikoaren gizarte balorea berreskuratzea bilatzen du, bidezkoagoa, gizatarrago eta iraunkorrago den mundu baten zerbitzura. FIARE Banca Éticaren euskal, estatu eta europar mailako sistema baten sorrera eta finkapen proiektu bat da, herritarrek izan dezaten hautabideetako batean osatzea eta finantza sistemaren eraldaketaren alde esanguratsuki ekitea, ekonomia solidarioaren eremuan lanean ari diren entitate haiekin bat eginez.

Jatorria.

2003 urteko azaroan, zentzu zabalean “Hirugarren Sektorea” bezala ezagutzen den 52 euskal erakundeek Fiare Fundazioa sortu zuten. Erakunde hauek deitzean, bere oinarritzko asmoa finantza entitate “desberdin” bat eraiki ahal izateko bideak aztertzea zen, Banca Ética bezala ezaguna zen korrontearekin bat eginez. Fundazioa ondoren beste erakundeak barneratuko diren hasierako nukleoa da, modu honetan, 2011 urteko urtarrilean 80 pertsona juridiko eta ehun baino erakunde gehiagok osatzen dute, Fundazioari gehitu zaizkion sarean kontutan hartzen baditugu⁴. Entitate bakoitzak itzulik beharrik gabeko 3.000 euro eman zituen abiarazteko gastuak ordaintzeko.

Horrela, europar esperientzien analisi eta bazkideek bilaketa prozesu bat hasi zen, eta Bideragarritasun Plan bat burutzeko kontratu baten sinadurarekin amaitu zen, Banca Popolare Ética-rekin, Padovan egoitza duen italiar entitate; Banku Etiko eta Alternatiboen Europar Federazioko (FEBEA)⁵ kidea.

Mugikortasun Planak operazioa kontenplatu du 2006-2011 epealdian, Banca Popolare Eticako eragileak bezala ondoren bere lizentzia propioarekin lan egingo duen Mailegu Kooperatiba bat sortzeko. Estrategia honek, finantza eskaeren gordailu eta aurreinstrukzio etiko-sozial, ingurumen eta ekonomiko finantzarioen eskaeren harrera oinarritzko ekintzak garatzen joatea posible egiten du. Aipatutako operazio horiek, behin Banca Popolare Eticak onartu dituenean, bertako balantze propioan barneratzen dira. Operazioa Banku Zentral italiarrak gainbegiratzen du, eta Espainiako Bankua operazioa eta Fiare eta Banca Popolare Etica-ren artean sinatutako eragilearen kontratua ezagutzen ditu.

⁴ Euskadiko GGKEen Koordinakundea, Pobrezia eta gizarte bazterketaren aurkako europako sarea - EAPN Euskadi -, Euskadiko gizarte ekimeneko eta esku hartzeko entitateen elkarte - Hirekin -, Harresiak Apurtuz- la Coordinadora de ONGs de Apoyo a Inmigrantes, Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte - GIZATEA -, Euskadiko eta Nafarroako Ekonomia alternatibo eta Solidarioaren sarea - REAS-.

⁵ Banca Popolare Ética-k, banca ética-ko proiektu bat finkatzen hamar urte daramatza eta bere ereduak Fiarek duen ikuspegiarekin antzekotasun garrantzitsuak aurkezten ditu. Ekimen honi buruzko zehaztasun gehiagorako, beraien web orria bisitatu daiteke: www.bancaetica.org



1. FINANTZAKETA

FIARE proiektua finantza bitartekotza proposamen bat da, gizarte eraldaketa jarraitzen duena, gizarte eragin eraldatzailea duten taldekako ekintzen finantzaketaren bitartez, gure gizartean eta mundu guztian giza garapenaren alde egiten duten proiektu sozial, ekologiko eta kulturalak lagunduz

Fiare Fundazioak Fiare S.L. sortu zuen 2005 urtean. Entitate honek Banca Popolare Ética-rekin eragile kontratua firmatzen du. Epealdi honetan zehar burututako garapen guztiak, nahiz eta Banca Popolare Ética-ren balantzearena izan, Fiare-ko bezero izatea suposatzen du zentzu zorrotzean eta Maileguaren Kooperatibaren lehen balantzean barneratua izango da. Horrela, Mailegu Kooperatiba izango denaren egitura eraikiz eta germena aurkeztuz joan ahal daiteke.

2005 urteko urrian, Fiarek bere lehen bulegoa irekitzen du Bilbon, bertatik finantzaketa eskaeren gordailu eta aurreinstrukzioen erakartze lanak garatzen ari dira. 2010 urteko amaieran, Fiarek 25 milioi euro baino gehiago jaso ditu gordailuetan eta 120 proiektu baino gehiagorentzat finantzaketa eman du, guztira 16 milioi euro baino gehiagoko balorea izanik.



Fiare Proiektuaren lurralde ezarpen estrategia.

Fiare Fundazioa, hasiera batean Fiare proiektua dinamizatzen duen plataforma da eta bere ekintza Euskal Herrian zentratzen du. Hau estatu guztian hazten eta finkatzen joan ahal izateko, proiektua Mailegu Kooperatibarantz haztea nahi duen, ahalik eta zabalena den gizarte ehun bat jasotzen duten, antzerako plataformak sortzen joatea beharrezkoa da. Lurraldeko ezarpen estrategia hau aurrera eramateko, Fiarek bi mekanismo garatu ditu. Alde batetik, Fiare SL-ek sortzen joan diren lurralde desberdinak bazkide bezala barneratzen joan da, modu honetan, 2011 urteko urtarrilean, Proiektuaren lurralde sare bazkideak hamar dira: Fiare Fundazioa, Nafarroako Ekonomia Alternatiboa eta Solidarioaren Sarea, Fiare Centro Fundazioa, Banca Etica Elkarteak Fiare Hegoa, Valentziar Fiare Xarxa Elkarteak, Fiare Proiektuari laguntza Elkarteak Euskadin, Fiare Gaztela – Leon Elkarteak, Kataluniako Fiare Proiektua Elkarteak, Fiare Galizia Elkarteak eta Fiare Kanariak Elkarteak. Beste lurralde sare batzuk beranduago sartuko dira, Gaztela-Mantxan, Errioxan, Balear Irletan edo Murtzian eraikitzen doazen germentatik abiatuz.

Fiare, SL tresna juridikoa da eta honen bitartez, proiektuak bere finantza bitartekotzen lana garatzen du, eta era berean, lurralde desberdinek beraien eraikitze gastuen kontribuzioen konpromisoak (bazkideen arteko akordio lotesle baten bitartez) onartzen dituzten lekua da. Finantza bitartekotza berak, proiektuari egonkortasun ekonomikoa ematea posible egin arte, fondoek ekarpena beharrezkoa da.



1. FINANTZAKETA

Jarduera.

Fiare Proiektua hainbat euskarritan oinarritzen da eta hauengan bere ekintzak garatzen ditu:

1. Mailegua justiziaren zerbitzura. Proiektu hau oinarritzen den lehen balorea, bere eraldaketa eta gizarteratze bokazioa da maileguaren bitartez. Modu honetan, bere finantza ekintzarako lehentasuna duten eremuak garapenerako lankidetzatza, gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea, ingurumenaren iraunkortasuna sustatzen duten proiektuak dira, hala nola, solidarioak eta eraldatzaileak diren pentsamendu eta balore sozialen sorrera eta difusioa jarraitzen duten beste zenbait ere.

2. Bitartekotza finantzarioa herritarren sareetatik. Modu honetako finantzaketa bitartekotza proiektu batek, bankuko proposamen alternatibo baten zerbitzura beraien aurrezkiak uzteko prest dauden pertsona eta entitateen parte hartze aktiboa eskatzen du. Herritarren eta bere erakundeen eskura eta zerbitzura dagoen bankuko tresna bat sortzean datza, beraz, gardentasuna eta parte hartzea bere identitate zeinuak izango diren proiektu bat.

3. Aurrezki arduratsua, parte hartzea eta gardentasuna. Un proyecto de intermediación financiera de este tipo, requiere de la participación activa de personas y entidades que estén dispuestas a poner sus ahorros al servicio de una propuesta bancaria alternativa. Se trata de crear un instrumento bancario que esté en manos y al servicio de la ciudadanía y de sus organizaciones, un proyecto, por tanto, en el que la transparencia y la participación serán sus señas de identidad.

4. Irabazirik gabeko izaera eta interes komuna. Proiektu hau bere funtsean irabazi asmorik gabekoa da: Errentagarritasunari buruzko bere ikuspegia, konbentzionalki finantza eta banku eremuan erabiltzen denaren alternatiboa da. Proiektuaren mugikortasun eraginkorra eta iraunkortasuna beharrezkoak badira ere, errentagarritasuna eta onura ekonomikoa ez da bere helburua. Horregatik, soberakin ekonomikoetatik onurak lortzeko interesa, ez da bere parte hartzaileen motibazio bakarra, ezta nagusia ere.

Printzipio hauek maileguaren ekintza bideratu dute finantza ekintzaren hasieratik, 2005 urteko urrian, eta 120 mailegu baino gehiago ematea suposatzen du 16 milioi euro baino gehiagoko balorearekin. Operazio guzti hauek web orrian zehaztuta daude (www.proyectofiare.com), eta Fiarek bere ekintza garatzen duen lau eremuetako bakar batenak dira:

- Bazterketaren aurkako borroka: gizarteratzea eta laneratzea, etxebizitzarako sarbidea...
- Pobretutako hegoaldeko garapenerako lankidetzatza eta bidezko merkataritza
- Agroekologia
- Eraldaketa Baloreetan

Nabarmendu beharra dago, Fiare-ko mailegu ekintzaren %50 baino gehiago Ekonomia Solidarioaren proiektuetara zuzentzen direla, modu honetan herritarren aurrezkiak analizatuz eremu honetara zuzendua, egun hileko 150.000 euro inguruan dauden finantza bolumenetan.

Ohiko finantza ekintzarekin batera, Fiare-k dituen beste bi ekintza eremu nabarmentzea garrantzitsua da: Alde batetik, gizarteratze prozesuetan dauden pertsonen mikrofinantza laguntza tresnak martxan jartzea, beraiekin lan egiten duten erakundeekin sortutako akordioen bitartez; eta bestetik, libreta sareen bezeroek uko egiten dituzten interesak ematen dizkieten erakundeekin akordioak, azken hauek lan egiten duten, baztertuta dauden



1. FINANTZAKETA

taldeei maileguak eskaini ahal izateko. Produktu honen funtzionamenduaren lau urte hauetan, Fiarek berrogeita hamar mila euro baino gehiago transferitu ahal izan ditu, beraien interesak kobratzera uko egin duten pertsona aurreztaileek emandakoen artean.

Parte-hartzaileak.

FIARE proiektuan hiru bide daude bertan parte hartu ahal izateko: pertsona sustatzaileak, kolaboratzaileak eta boluntarioak.

- *Pertsona sustatzaileak*, FIARE proiektuaren bultzadaren protagonistak izan nahi duten erakunde eta pertsona guztiak dira, bazkide bezala proposatu daitezke lurraldeko elkarte desberdinei. Hauek beraien denbora, baliabideak edo ekipamenduak emateko prest daude, proiektuaren sustapen eta eraikuntzarako.
- *Pertsona kolaboratzaileak*, etorkizuneko maileguaren kooperatibatik parte hartu nahi duten haiek dira, baina egun, bazkide sustatzaileak izatea suposatzen duen konpromisoa onartzeko ez daude gai. Ez dute proiektua martxan jartzearen gastuetara kontribuziorik ematen eta bere sustapenean parte hartzen dute beraien posibilitateen neurrian⁶.
- *Pertsona boluntarioak* FIAREren eraikuntzan lagundu nahi duten pertsona haiek dira, baina ezin dute kapitalaren ekarpenik egin eta beraien denboran proiektua hedatzen laguntzen dute eta lurraldetik gertuago egotea ahalbidetzen du.

Fiare Proiektuaren egitura profesionalak kontratatutako 7 pertsona ditu, haietako bi jornada erdian, Madril, Bartzelona eta Bilboko bulegoetan. Profesional egitura honekin batera, lurraldeko sareak osatzen dituzten erakundeen kideengatik, ez ordaindutako moduan onartuak diren hainbat erantzukizun desberdin daude. Modu honetan, Proiektuak finantzatzeko dauden proiektuen, ebaluazio etiko sozial hamar talde ditu, hauek talde profesionalaren egitura aske bat osatzen dute. Era berean, lurraldeetako hamar ordezkari daude, hauek proiektuaren estatuko Junta osatzen dute, baita Fiare Fundazioak liberatutako bi pertsona ere, bere garapenaren buru izateko. Pertsona hauekin batera, bazkide kolaboratzaileak⁷ bertako taldeen inguruan biltzen dira aldizka, hauetatik egun Espainia guztian hogeita hamar baino gehiago daude.

Lorpenak.

Fiare, aurrezki eta mailegu ekintza guztiz desberdina den modu batean garatzen duen alternatiba ekonomikoaren proiektu bat da. Baina hori baino askoz gehiago da. Gizarte zibilarren pertsona eta erakundearen sare zabal baten oinarrian eraikitzen den, herri agregazio proposamen bat da. Egundak baino erakunde sustatzaile gehiago dira proiektuari juridikoki lotu direnak, lurraldeko bederatzi sare eta sare sektorial baten bitartez, estatuko lurralde guztitik hedatuz. Bere sendotasun handiena ezagutzen, baliabideen eta gaitasunen elkar trukaketan duen sareen sare bat da, testuinguru kooperatibo mamitsu batean erakunde sustatzaile guzti hauek eskaintzen dituzte eta enpresa edo instituzional inbertitzaileetara ez jotzean, bere autonomiari kalterik egin gabe iraunkortasun ekonomikoaren puntura iristea posible egin du. Bere gizarte oinarria, estatu guztian bi milioi euro baino gehiagoko balorea hartzen duten, gizarte parte hartzeak harpidetu dituzten mila zortziehun pertsona eta erakunde baino gehiagok osatzen dute.

Fiare alternatiba ekonomikoa da, irabazi asmorik gabeko izaera duen ekimen bat delako, bere propietate egituraren itzulera ekonomikoan interesa duten inbertitzaileak ez dituztelako. Ordainsarien mailak, ekonomia solidarioko enpresen ohiko mugetan aurkitzen dira, bere eskalaren ratioa 1:2ra mugatuz.

⁶ Pertsona fisikoek kapital sozialean 300 eurotik aurrerako ekarpenak egin ditzakete eta pertsona juridikoek aldiz, 600 eurotik aurrerako ekarpenak.
⁷ 2010 urte amaieran, mila eta zortziehun baino gehiago.



1. FINANTZAKETA

Era berean, finantza operatiboak aukerazko elementu garrantzitsuak aurkezten ditu, hauen artean nabarmendu behar direnak:

- Laguntzarako finantzaketa eremuen murrizketa gizarte birsorkuntza proiektuen maileguaren bitartez.
- Diruaren zirkuitu osoaren informazio garden bat, beraien webean finantzatutako proiektu guztien zerrenda osoa eskainiz.
- Bereziki ahulak diren pertsona eta erakundeen finantza bitartekotzara bideratuta sortutako interesa zuzentzeko aukera eskaintzen duten aurrezki produktuak, tradiziozko bankuan maileguaren bere eskubidearenganako errekonozimendua ezin lortu dezaketenak.

Finantza operatiboaz haratago, Fiare-ko egitura propioak gizarte oinarriaren parte hartze handiagoa bilatzen du, pertsonak eta erakundeak proiektuari itsatsita mantentzea bilatzen duten bertako talde eta lurraldeko sareetan artikulatuz.

Fiare, azken batean, justiziaren zerbitzura mailegua jartzen saiatzen den tresna bat da, bere finantza ekintza bideratzen saiatzen dena, bidezkoagoak diren gizarteak eraikitzen eta finantza bazterketaren biktimen eskubidea onartzen saiatzen diren erakunde haiei maileguaren bitartez laguntzeko.

Erakundeekin lotura.

Fiare proiektuak Ekonomia Solidarioako Sareekin harreman bikoitza mantentzen du. Lehenik eta behin, mugimendu honen barruan kokatzen da beste proposamen bat gehiago bezala, alternatiba multzo guztiarekin lerrokatua finantza tresna bat bezala eginez. Era berean, Fiare Proiektuaren lurralde sarea Euskadi, Fiare Fundazioaren inguruan antolatua, REAS Euskadiko kidea da eta bere ekintzen garapenean aktiboki parte hartzen du. Estatu mailan, Fiare estatuko REASeko kidea da eta bere zuzendaritza-batzordean parte hartzen du.

Bigarren batean, ekonomia solidarioaren sareek Fiare proiektua eraikitzen den euskarrietako bat osatzen dute, modu honetan, Ekonomia Solidarioaren lurraldeko sare desberdinak beraien lurralde eremuetan proiektua garatzeko konpromisoa onartzen dute. REAS Euskadiko erakunde gehienak Fiare Fundazioko kideak dira eta gizarte kapitalaren bilketak aktiboki parte hartzen dute. REAS Euskadi bera Fiare Fundazioko Batzorde Betearazlearen kidea da, lehendakariordetzako postu bat betetzen du.



Beste gizarte erakundeekin duen lotura, bere fundazio arrazoiertako bat da. FIARE parte hartzen duen gizarte eraldaketa sare batzuk ondorengoak dira:

- REAS, Ekonomia Alternatiboa eta Solidarioaren Sarea.
- COOP 57, Finantza zerbitzuen kooperatiba, REASeko kide ere eta mundu solidario baten aldeko Carta Emprender-aren printzipioekin adeitsua. Horrez gain, FIAREk duen zeharkako bazkide bakarra da, beraz, elkar aberasten diren proiektuak dira.
- FEBEA, Banku Etiko eta Alternatiboen Europar Federazioa, Bruselan egoitza izanik.
- INAISE, Ekonomia Sozialean Inbertitzaileen Nazioarteko elkarte. Hasiera batean europar taldea, orain mundukoa, finantza alternatiboen munduan lanean ari diren bazkide kopuru handi bat taldekatzen du.
- SPAINSIF, Sozialki Arduratsua den Inbertsio Espainia Foroa. 2009 urtean sortua finantza, gizarte, sindikatu, etab. entitateen eskutik.



1. FINANTZAKETA

Iraunkortasuna.

Fiare eraikuntzan aktiboki parte hartzeko moduak anitzak dira. Funtsean eduki ekonomikoa duen proiektu bat izatean, zehazki ekintza ekonomiko horretatik bertatik sortzen diren baldintzatzaile multzo bat dago bere iraunkortasunerako. Une hauetan, garrantzitsuena proiektuari lotuta dagoen gizarte ehunaren berrindartzea da, bai erakundearen ikuspuntutik bai ikuspuntu pertsonaletik. Fiarek izan dezakeen gizarte kapitalaren bolumena, bere iraunkortasunerako aukeren baldintza kritiko bat da etorkizunera begira. Hori dela eta, parte hartzeak izenpetzea proiektuari laguntzen ari zaizkien modu garbietako bat da.

Kapitalaren izenpetzen honek proiektuaren gune bertan barneratzen du pertsona bazkidea, eta bere parte hartzeak puntu horretatik aurrera modu desberdinetan garatu daiteke. Fiarek duen artikulazio estrategia propioagatik oso garrantzitsua den bat, pertsona bazkideen ezarpenean parte hartzea da bertako taldeetan. Dagoeneko aktiboki lanean ari diren bertako hogeita hamar lokal baino gehiago dira.

Aurrezki bezero bezala lan egitea, interesen lagapenak batez ere urrakortasun handia duten testuinguruetan Fiare-k mailegu ekintza aurrera eramatea posible egiten duten produktu haiekin, parte hartzeko beste moduetako bat da. Sare libreta deitzen dugun aurrezki produktu hau, egun lau pertsona aurreztaileetatik batek izenpetzen du.

Azkenik, Fiarek terminoaren zentzu kapitalistan ez dela hazten gogoraraztea merezi du. Ez da inbertsio handiekin ezartzen, ezta hazkunde horretara zuzenduta dagoen marketing estrategia bat garatzen. Fiare zirkulu zentrokideen strategi baten bitartez ezartzen doa, inplikaturik dauden pertsona eta erakundeek proiektuaz egiten duten preskripzio positiboa ematen dion egiazkotasunaren oinarri baten gainean. Fiare ezagutzera ematea, askotan ukiezina den ekarpen bat da, baina bere finkapenerako ezinbestekoa.

2011 urtea, proiektuarentzat galerarik gabe aurrekontutako lehen ekitaldia izan da. Ekintzak eragile bezala suposatzen duen bitartekotza marjinaren itzulera soilak, proiektuaren egitura gastuak betetzeko nahikoa da. Eraikitze gastuen faseak, pertsona eta enpresa eragileen aldetik egindako milioi euro baino gehiagoko ordainketa solidarioarekin egina, finantza bitartekotza proiektu bat eraiki du. Proiektu honek kapital sozial bat du, eta beraiek egindako inbertsioagatik itzulera ekonomiko bat lortzera interesatuta dauden inbertitzaile edo mailegu-emaleen eskutik ez baldintzatua.

Erronka nagusiak.

FIARE proiektuaren hainbat erronka lau talde nagusietan bildu daitezke:

- *Gizarte kapitala.* Kanpaina eta pertsonen eta erakundeen agregazioa finkatzea.
- *Proiektuaren lurraldeko garapena.* FIAREko egitura politikoa amaitu, sortzen ari diren lurraldekoen ezarpenarekin batera (Errioxa, Gaztela-Mantxa, Balear Irlak, Murtzia).
- *Herri administrazioak.* Herri Administrazioen aldetik iraunkortasun irizpideak barneratzeko geroz eta handiagoa duten kezkak, eraldaketa finantzaketan aldeko adierazpen instituzionalen korrante bat sortu dute. Helburuetako bat ekintza zehatzen bitartez joera hau defendatzea da.
- *Finantzazioa.* Erakunde eta familien aurrezkiaren sustapenean azken urtean izandako hazkundeak, eraldaketa proiektuetako finantzaketara bideratu behar diren baliabide batzuk izatea posible egin dute. Horretako, egituraren gehiago hasteko beharrik gabe gizarte ehun gehiagora iristea posible egiten duen erakundeen sareekin akordioak landu nahi ditugu.



Erakundearen izena: Rosario-ko Hiri Nekazaritza Programa

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena - Ekonomia Sozial eta Solidarioaren sustapena, produkzio, transformazio eta merkaturatzeari dagokionez.

Lekua: Rosario hiria, Santa Fe probintzia, Argentina.

Posta elektronikoa: agr_urb@rosario.gov.ar; cepar@arnet.com.ar

Webgunea: http://www.rosario.gov.ar/sitio/desarrollo_social/empleo/agricul.jsp

Posta helbidea: Buenos Aires 638 Cuarto Piso, Rosario, Santa Fe, CP: 2000, Argentina

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: ortuzaintzari ekiten dioten 400 lagun inguru, hiriko agroindustria sozialetatik datozen langile taldeak, sustatzaileak eta antolatzaileak.

Jarduerak hasteko urtea: 2002

Sarrera.

Rosario-ko Hiri Nekazaritza Programak (AU) familia eta komunitate-ortuetatik edo hiriko inizatiba sozialetatik ateratzen diren produktu ekologikoen produkzioa, transformazioa eta merkaturatzea barne ditu. Programa honen bidez gizarteratzea, pobrezia ekiditzea eta hiri ingurugiroa hobetzea bermatzen da,aldi berean geldirik zeuden hiri eta hiri-inguruko espazioen erabilera proposatuz. AUa Rosarion 1980ko hamarkadatik egiten bada ere, 2002an gorakada nabarmena lortzen du gaur arte martxan dagoen Hiri Nekazaritza Programaren hasiera dela eta.

Jatorria.

1970ko hamarkadan, Argentinan ezarritako politika neoliberalen ondorioz, Rosario-ko hirian desindustrializazio prozesu bat gertatzen da, landa-girotik heldutako etorkin kopurua handitzen da eta hiri-inguruan pobrezian bizi diren populazio multzoak finkatzen dira. 1980ko hamarkadan, marjinalizazio prozesu honi aurre egiteko, autokontsumora zuzendutako baratzak agertzen hasten dira. Geroztik, Rosario-ko AUren garapenean ondoren aipatzen diren etapak izan dira: (i) 1987 eta 1990en artean *Talde Baratz Komunitario baten "protoeredua"* sortzen da, pertsona protagonistek antolatuta; (ii) 1990tik 1997ra lehenengo *instituzionalizazio ahalegina* egiten da, non instituzio desberdinak bateratzen diren, garrantzi handikoa izanez Produkzio Agroekologikoen Ikasketa Zentroaren (hemendik aurrera, CEPAR) parte hartzea; (iii) 1998tik 2001era *eredu agroekologikoaren eraikitze* epe bat bizi da, zeinetan AU probintziako beste esperientzia batzuekin lotzen den eta, azkenik, (iv) 2002tik gaur egunera, AU politika publiko bezala *indartu eta instituzionalizatu* egiten da.

Jarduera.

AUak jarduera multzo zabal baten garapena proposatzen du, 4 ataletan banatuta:

- **Lehen mailako produkzioa** (ortuariak, landare usaintsuak eta apaingarriak). Produkzioa ortu txiki (etxeetan), ertain edo handietan (ortu-parkeetan, 2 eta 5 Ha. arteko eremu handiko landetan), egiten da. Ortu handiak banakako ustiapenetan antolatzen dira, 500 eta 1.000 m² ortuzain bakoitzeko. Ortuzain hauek azpiegiturak ez ezik (hesiak, ureztatze sistemak, deposituak...), asistentzia teknikoa eta trebakuntza aukerak ere elkarrekin banatzen dituzte;
- **Transformazioa** hiriko agroindustria sozialen eremuan: gaur egun ortuariak prozesatzeko 2003an zabaldutako instalazioak dirau, zeinetan ortuariak aukeratu, ebaki eta ontziratzen diren, eta baita, 2005tik hona, landare usaintsuetan oinarritutako kosmetiko naturalak ekoizteko agroindustria.



- Merkaturatzea (azokak, etxeetara bidaltzen diren otzarak, etxez-etxeke salmentak)
- Aurreko hiru ataletan ortuetara dedikatzen diren lagunek daukate funtsezko betebeharra, baina badago 4. atal bat, esperientziaren kudeaketa parte hartzaile eta demokratikoarena (produktuei prezioa ipintzea, tailerrak koordinatu eta aurrera eramatea, etb.) non PAU eta CEPAREko partaideek berebiziko garrantzia duten.

Gainera, garrantzitsua da azpimarratzea AUren ihardueren %65a emakumeek egiten dutela, euren baitira prozesu produktiboaren eta azoketan egiten den salmentaren arduradunak. Gizonentzat, maiz, AUa jarduera osagarri edo aldiriko bat da zeinetara dedikatzen diren, batez ere, langabezia aurkitzen dituztenean euren buruak.

Parte-hartzaileak.

- Ortuzain taldea da AUren protagonista. Taldearen gehiengoa herrialdearen iparraldeko probintzietatik dator, baina badaude jatorrizko komunitateen ordezkariak ere, lehengo kulturetara lotutako ohiturak mantendu eta bultzatzen dituztenak eta baita Rosario-tik hurbil dauden beste hiri batzuetan merkataritzarako laborantzan lan egiten duten pertsonak ere. Orokorrean, gizarte zaurkortasunean bizi den populazio heterogeneo bati buruz ari gara, alde batetik pobrezia estrukturala pairatzen duen sektore bat daukagu eta, bestetik, pobretutako klase altuago batetik datorren sektorea, baita arazo sozialak dituzten familiak (adikzioak, biolentzia), zeinetan emakumeen parte hartzea nabarmena den eta lan merkatu formaletik baztertutako gizonak edo bazterketa arriskuan dauden gazteak ere aurkitzen ditugun.
- Kontsumitzaileei dagokienez, salmentara zuzendutako produkzioa batez ere Rosario-ko gunean bizi den klase altu eta ertainak erosten du eta, neurri txikiago baten, ortuetatik hurbil bizi den populazioak. 2008an, kontsumo arduratsua bultzatzeko eta jarduera berriak proposatzeko, “*Vida Verde*” izeneko *kontsumitzaileen sarea* sortu zen. Sare hau, gaur, 250 pertsona kontsumitzaileek osatzen dute.

Erakundeekin lotura.

PAUa hasieratik jaso izan du 3 erakunde garrantzitsuen babesa: Rosario-ko Udaletxea (lekuko gobernua), Pro-Huerta (INTA, nazioko gobernua) eta CEPAR (GKE). Hiru erakunde hauek zuzendaritza politikoa eta aholku teknikoa eskaintzeaz gain, baliabideen kudeaketa, formakuntza eta antolaketan ere lagundu izan diote. Gainera, PAUak eremu akademikoaren babesa izan du (Rosario-ko Unibertsitatetik) eta, 2002az geroztik, nazioarteko erakundeekin laguntza ere: Italiar Lankidetzarako Institutuak (ICEI), Kanadako Ikerketa eta Garapenerako Institutuak (IDRC) eta Garapen Jasangarriaren Sustapenerako Organizazioak (IPES) esperientzia honen nazioarteko zabalketa ahalbidetu dute.

Horrez gain, MAELA - Amerika Latina eta Karibeko Agroekologia Mugimenduaren partaidea da eta Argentinako beste MAELA partaideekin kontaktuan dago.



Lorpenak.

Esperientziaren lehenengo urteetan, gizartean zeuden beharrei aurre eginez, AUak lan handia egin zuen pobreziaaren aurka, elikadura segurtasuna bermatzeko zaurkortasun egoeran zeuden familien artean, kudeaketa parte hartzailea proposatzen zuten praktiken sustapenaren bitartez familiak gizarteratzeko eta inizatiba produktiboen bidez diru sarrerak sortzeko. Esperientzia indartu ahala, auzoen paisaia hobetuz joan zen eta



geldirik zeuden eremuen berreskuratzea hasi zen. AUren eginkizunen garrantzia neurtzeko ondorengo dimentsioak erabil daitezke:

- Merkaturatze eta elkartruckerako guneak sortu eta mantentzea, bai finkoak (6 azoka desberdin astero, etxez-etxe salmentak, Azoka Agroekologikoa) bai etxeetara bidalitako otzaren bitartez.
- Produktuen kalitate zigiluen hedapena; printzipio agroekologikoen arabera, ekoizpen eta transformazio praktika egokiak bermatzen dituzten ziurtagiriak eta marka instituzionalak: “Economía Solidaria”-k laborantza praktika onak ziurtatzen ditu eta “Rosario Natural” sigiluak kosmetikoen kalitate naturala.
- 2 Hiriko Agroindustria Sozialen instalazioa, baratzetan ekoiztutakoari balioa gehitzeko eta, bide batez, lanpostuak sortzeko. Urtero ekoiztutako 50.000 kilo ortuari eta 2.000 kilo landare usaintsuetatik, 3.000 kilo mermeladak, kontserbak, kremak, txanpuak eta bainurako gelak egiteko erabiltzen dira.
- 5 Ortu-parkeen instalazioari esker, eraiki ezineko espazioen jabe eta erakunde publikoekin egindako hitzarmenen bitartez, eremu produktiboen ziurtapenean aurrera pausuak eman dira, 67 Ha. berreskuratu edo zaindu izan dira (19 eremu ekoizpenari eta 48 eremu aisialdi eta kirolari zuzenduta).
- Urtero Hiri Nekazaritzaren Astearen ospakizuna, beste esperientzia latinoamerikarrak edo argentinarrak ezagutzeko eta lotuneak sortzeko aukera.
- Emakume ortuzainen ahalduntzea, AUren bitartez lortzen dituzten diru sarreraren kontrola dutelako eta gizarteratze maila indartsuago batera heltzen direlako.
- Tokiko gobernuak egindako AUren instituzionalizazioa eta arautzea politika publikotzat hartuta, PAUaren bitartez.

Iraunkortasuna.

AUren jasagarritasuna Rosarion 4 ikuspegitik aztertu dezakegu:

- Finantzazkoa: Ortuain taldearen finantziario ahalmena nahiko txikia izanik, hasieratik beharrezkoa izan da azpiegitura eta produkzio-ondasunak indartzea, berrinbertsioa ahalbideratuko zuten produkzio eta salmenta maila helduz.
- Sozial eta Ekonomikoa: Herri xumea azoka sisteman sartzeak, bere lanaren balorazioa hobetu du beste gizarte-ataletan eta autoestimazioa ere gehitu dio. Azoka espazioak ortuari ekoizpena hirigunera ekartzea lortu zuen eta honek pertzepzio aldaketa bat ekarri zuen bai hiritarengan bai ortuzainengan, aurrez aurreko topaketak ahalbidetuz eta produktuen anonimizitatea akabatuz.
- Kulturala: Ortuainen gehiengoa herrialdearen iparraldeko hirietatik dator; han lehengo kulturak gordetzen dira eta jakituria herrikoia baloratu, berreskuratu eta partekatzen da, laborantza sistemei dagokienez ere bai.
- Ingurugirokoa: Agroekologia hautatu da ekoizpen teknologiatzat kanpoko intsumoetara lotuta ez egotearren eta lekuko baliabideak erabiltzearren (ongarriak zaborretatik lortuz etb.), gainera geldirik edo hondatuta zeuden espazioak errekuiperatzeko ahalegina ere egin da.





Erronka nagusiak.

Esperientzia honen erronka garrantzitsuenak ondoko ardatzen inguruan koka ditzakegu:

- Kudeaketa estrategiak eta antolaketa: tailerren bitartez trebakuntzak egiten ari dira Rosario-ko Ortuzainen Sarearekin aurrera egiteko parte hartzailea modu baten eta sarearen beharrianetara hoberen moldatzen den figura juridikoa topatzeko.
- Legeak eta araudia: lanean ari dira udal administrazioaren, erosketetan euren produkzioaren salmenta gune bat zabaltzeko eta haur eskola adineko umeak egunero jateko erabiltzen dituzten Crecer Zentroen hornikuntza lortzeko. Horrez gain, izena eman dute Familia Nekazarien Erregistro Nazionalean eta prozesua amaitzerakoan jubilazio eta gizarte-ekintzarako hautagai bihurtuko dira.
- Merkaturatzea: Oraindik Rosarioko Udalaren ardurapean jarraitzen dute azoken antolaketa eta garraioarekin lotutako jarduerak, baina baratzen kudeaketan sartuta dagoen pertsonalak ardura hori har dezan ahaleginak egiten ari dira. Familia Nekazarien Erregistroan egonez gero, salmenta agiriak egin ahal izango dituzte, horrela merkaturatze gune berrietara heltzeko aukerak zabalduko zaizkielarik.
- Produkzioaren eskala eta jarraipena: (administrazioaren, jatetxeen...) eskaerak betetzeko, urtean zehar ondo banatutako eta neurtutako ekoizpen bat bermatzeko ahaleginak egiten ari dira.
- Finantziazioa: gaur egun, intsumoak erosteko eskudiru nahikoa eta kreditu sistemetara heltzera lagunduko dien finantziazio maila duina lortzen saiatzen ari dira.



Erakundearen izena: Asociación civil Madre Tierra.

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena - herritarrentzako habitata eraikitzea.

Lekua: Moróngo Udalaren egoitza. Ekintzak Buenos Aireseko Metropoli Eskualdeko mendebaldeko barrutian.

Posta elektronikoa: madretierra@madretierra.org.ar

Webgunea: www.madretierra.org.ar

Posta helbidea: Concejal García 827/831, Morón, Buenos Aires, Argentina. **Esperientzia osatzen duten kide kopurua:** 22 lagun.

Jarduerak hasteko urtea: 1985

Sarrera.

Madre Tierra elkarteak Buenos Aires Handiko mendebaldeko barrutiko herritarren habitata garatzen diharduen erakundea da. Bizilagunen eta komunitateen arteko elkartasun-loturak sendotzea da bere helburua, eta auzoen antolakuntza bultzatzen du horretarako.

Barrutiko gizon eta emakumeen parte-hartzea sustatzea da bere helburu nagusia: haien historia, identitatea eta antolatzeke duten gaitasuna errekonozitu eta baloratzen dituzte, eskubide ekonomiko, kultural eta politikoak gauzatzeko borrokan aurrera egiteko asmoz. Etxe propiorik ez duten edo oso baldintza kaskarretan bizi diren pertsonen lurrak eta etxebizitza eskuratzen laguntzen die Madre Tierra elkarteak, hobeto bizi ahal izateko habitata egokiagoa sortzearen denen artean.

Horretarako, era askotako erakunde ugariarekin du erlazioa elkarteak, eta herritarren habitataren arazoa lantzen duten gizarte-erakundeen eta udal- eta nazio-mailako gobernuen artean sareak eta hartu-emanerako espazioak sortzea bultzatzen du. Hasiera-hasieratik habitata-politikak eta etxebizitza herrikoiak garatzeko politikak diseinatzen eta gauzatzen lan egin du Madre Tierrak. Dena den, beste gizarte-erakunde batzuek ez bezala, Madre Tierrak ez du inolako loturarik estatuarekin.

Jatorria.

Elkarteak 1985ean sortu zen, Buenos Aires Handiko mendebaldeko eskualdea astindu zuten eurite handiek eragindako ondorio larriak erantzuteko. Hondamendi natural hark agerian utzi zituen Buenos Aires Handiko mendebaldeko barrutiko auzo askok ekipamendu eta azpiegituretan zituzten hutsuneak, garraio-arazoak eta etxebizitza-eskasia.

Egoera ikusita, uholdeek kaltetutako familiei babesa eta laguntza ematea erabaki zuten Cáritas Moróneko kolaboratzaile batzuek. Horretarako, sektore herrikoiaren lur- eta etxebizitza-arazoekin eta habitatarekin zerikusia zuten gaitz arduratuko zen elkarte zibil bat eratzea erabaki zuten.

Orduz geroztik areagotu egin dira Buenos Aireseko Metropoli Eskualdeko etxebizitza-arazoak (ez hondamendi meteorologikoen ondorioz, hiru hamarkadatan jasandako politika neoliberalen ondorioz baizik) eta jendeak gero eta arazo handiagoak ditu etxebizitza eta lurrak eskuratzeko. Egoera horren erdian, parte-hartzean oinarritutako erantzun politiko komunitarioen bila jarraitzen du Madre Tierrak.



Jarduera.

Madre Tierrak hiri-esparruko habitat-proiektuak sustatzen eta garatzen egiten du lan, gehienbat. Elkarteak egitasmo hauek bultzatzen ditu, zehazki:

- Zerbitzuz hornitutako lursailak: Lur-puskatan banatu gabeko lursailak erosi edo dohaintzan jasotzen ditu Madre Tierrak Buenos Aires Handiko mendebaldeko barrutian, gero lursailok banatu eta oinarrizko zerbitzuak instalatzeko bertan: ura, argindarra, isurbideak eta oinarrizko ekipamenduen eremuak. Lur-puskak eskatzen dituzten familien artean banatzen dira oso prezio baxuetan eta ordaintzeko erraztasunak emanez. Madre Tierrako kideentzat "esperientzia mistoa" da honakoa: hainbat eragilek esku hartzen dute bertan, haien parte-hartzerik gabe ezinezkoa izango litzateke eta zerbitzuz hornitutako lursail hauek garatzea. Elkarteak lursailak bilatu, lur-puskak prestatzeko beharrezko azpiegitura-lanak kudeatu eta lanok egin egiten ditu; laguntza tekniko, soziala, administratiboa eta legala ematen dien familiei; eta auzo-antolakuntza laguntzen eta indartzen du. Familiek, bestalde, konpromiso sendoa erakutsi behar dute proiektuarekin, emandako lursailera joan behar dute bizitzera, etxebizitza eraiki behar dute han, antolakuntza-bilera eta -batzarretan aktiboki parte hartu behar dute, eta barrutia garatzeko auzo-elkarte bat antolatu behar dute bizilagunekin. Udal-gobernuak prozesua arautuz, abandonatutako lursailak emanez edo utziz eta familiei egokitu zaien lursailetan finkatzen lagunduz esku hartzen du. Zenbait kasutan, irabazi asmorik gabeko erakundeek eta partikularrek uzten dituzte lursailak.
- Txabola-auzoetako lana: Madre Tierrak laguntza eta babes tekniko ematen du lurraren jabetza erregularizatzeko ekintzak garatzen dituzten komunitate-prozesuetan, lursailak zatitu eta familien izenean inskribatzeko prozesuetan eta auzuneak hobetzeko prozesuetan. Horretarako, edateko ur-sareak eta euri-urak isurtzeko sareak instalatu, komunitate-bilguneak eta haurtzaindegiak eraiki eta bidezidorrak egiten ditu, besteak beste. Era berean, etxebizitzak hobetzen ditu, auzo-batzordeak kudeatutako txandakako funtsen bidez.
- Etxebizitzaren hobekuntza: horixe da beste lan-ardatz garrantzitsu bat, eta txandakako funtsen esperientzia solidarioen bidez garatzen da. Hasieran diru-kopuru txiki batzuk ematen zaizkie auzo-elkarteei, eta haiek modu autonomoan kudeatzen dituzte diru horiek. Madre Tierrak eraikuntzarako behar duten laguntza tekniko eta bestelako laguntza soziala ematen die taldeoi. Gaur egun hemeretzi talde daude lanean, horietako batzuek hamar urte daramatzate lanean gutxienez, eta beren kudeaketa onari esker hasierako kapitala hirukoiztu eta inbertsioetarako erabili dute.
- Trebakuntza eta prestakuntza: trebakuntza- eta prestakuntza-jardueren bidez bizilagunak mobilizatzea eta biziko diren auzo edo barrutia eraikitzeko proiektu komunera erakartzea lortu nahi da. Horretarako, gai askori (hiriko eta herrialdeko historia, emakumeen auto-estimua...) buruzko tailerrak eta etxebizitzak auto-eraikitzeko ikastaroak antolatzen ditu Madre Tierra elkarteak. Era berean, komunitate-lana bultzatzen du auzoetan, aldiro-aldiro bilerak antolatuz. Bilera horietan bizilagun guztiek eta ekintza-taldeek parte hartzen dute, auzoko arazoei aurre egiteko, trebakuntza-tailerrak prestatzeko eta aisialdiko jarduerak antolatzeko. Jarduera horien bidez familiak eta komunitateak konprometitu nahi ditu elkarteak, denen artean gizarte bidezkoa eta ekitatiboa sortzeko.





Parte-hartzaileak.

Elkartea 22 profesional eta teknikarik osatzen dute guztira: gizarte-langileak, arkitektoak, eraikuntzako ofizialak, kontularitzako arduradunak, talde juridikoko kideak, trebatzaileak eta komunikazio-langileak dira gehienak. Lantalde hau hainbat arlotan antolatzen da: lurraldeko ekintza-arloa, administrazio-arloa, komunikazio-arloa, trebakuntza-arloa eta ekintza politikoko arloa.

Elkartearen jardueren hartzaileak etxebizitza-arazoak dituzten familiak izaten dira gehienbat. Etxebizitza-arazoon jatorria era askotakoa izan daiteke: lurra eskuratzeko arazoak, etxebizitza propioa izateko arazoak, habitat osasuntsua izateko arazoak, etab. Dena den, familia hauek ez dira elkartearen ekintzen onuradunak besterik gabe, komunitatea antolatzeko eta auzoak eraikitzekeo prozesuetako parte-hartzaile aktiboak izaten baitira.

Erakundeekin lotura.

Sortu zenetik, Madre Tierrak lotura izan du Eliza katolikoko erakundeekin. Elkartek berak dioenez, lotura hori ez da instituzionala, fedeari eta ideologiari dagokiona baizik: pobreenekin konprometitu dagoen Elizaren espiritua zabaldu nahi dutenekin bat datoz.

Era berean, gizarte-erakundeen eta gobernu nazionalaren arteko hartu-emanak sustatzen dituzte, herritarren habitata hobetzeko politika publikoak bultzatzeko asmoz. Zentzu horretan, Habitat Legea onarrarazteko proiektuetan parte hartzen dute 2003tik.



Buenos Aires Probintziako Lurzoru, Azpiegitura eta Etxebizitza arloko Antolakundearen Foroa (FOTIVBA) helburu horrekin sortu zen, hain zuzen ere. Madre Tierra foro horretako kide da, eta azterketa, gogoeta, eztabaida eta proposamen kolektiboak egiten dituzte bertan, sektore publikoaren eta gizarte zibilaren artean habitat-politiketan eragina izango duten espazio bat egituratzeko; barrutian eragina duten arazoak konpontzeko zeresana duten eragileen parte-hartzea bermatzeko; espazio horretan diharduten beste eragileen parte-hartzea sustatzeko; gaur egungo etxebizitza-arazoak eztabaidatzeko; gaur egungo politikak aintzat hartzen ez dituzten gaien agenda proposatzeko eta beharrezko politiken aplikazioaren jarraipena egingo duen indar sozial bat eratzekeo.

Argentinako Hiri Erreformaren aldeko Mugimendua da Madre Tierrak bultzatu duen beste egitura bat. Oinarriko eta auzoetako era askotako erakundeetako, irabazi asmorik gabeko erakundeetako, kooperatibetako eta unibertsitate publikoetako ordezkariak osatutako espazio kolektibo eta plurala da mugimendu hori. Azkenik, beren proiektuak eta funtzionamendu-gastuak finantzatzen dituzten nazioarteko lankidetzako agentziekin ere erlazioa dauka Madre Tierrak.

Lorpenak.

Madre Tierrak garatzen dituen proiektuen bidez jatorri askotako arazoei erantzun nahi zaie, familien, auzuneen, txabola-auzoen, komunitate osoaren, udal-gobernuen... eskaerei, alegia. 2010 urte amaierarako zerbitzuz hornitutako hamabi lur-puska amaituak zeuzkan elkartek. Madre Tierraren lanari esker beren etxebizitza propioa izatea lortu duten 2.570 familia bizi dira auzo horietan, eta orain eraikitzen ari diren beste hiru auzotan.

Urte hauetan guztietan, beste lorpen hauek izan ditu antolakundeak:

- 86 txabola-auzo informali laguntza eta aholkularitza ematea.
- Zerbitzuz hornitutako 15 lursail garatzea, beren bizimodu familiarra garatzeko eta beren etxebizitza eraikitzekeo lur-puska izatekeo aukera emanez 2.700 laguni.



- Aholkua eman zaie 1.850etik gora familiari txandakako funtsen bidez beren etxebizitzak hobetzeko. Esperientzia hau garatzeko hemeretzi talde sortzea lortu da.
- 1.000 familia baino gehiagori edateko ura ematen dieten hemezortzi ur-sare egin dira.
- 30 komunitate-zentro eta auzoak hobetzeko hamabi proiektu gauzatu dira.

Aipatutako lorpenez gain, bizilagunek oso balorazio ona egiten dute Madre Tierraren esperientziari buruz haien lana funtsezkoa izan baita auzoa garatzeko eta bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko. Parte hartzeko esperientziak eta auto-antolakuntza ere oso ondo baloratzen dituzte auzoetako bizilagunek, arazo eta behar komunak kudeatzeko tresna berri hori oso eraginkorra izan baitzaie. Emakumeek bizi izandako garapena aipatzen dute bereziki, beren auto-estimua handitzea, beren jakintzak berreskuratu eta baloratzea, jakintza berriak barneratzea eta komunitatearen antolakuntzan parte hartzea lortu baitute landutako proiektuei esker.

Iraunkortasuna.

Madre Tierrako kideek diotenez, mende laurdenetik gora lanean jardun ahal izateko habitat- eta etxebizitza-arloan lan egiten duten eragileekin erlazionatu behar izan dute. Unearen eta helburuaren arabera, hainbat eratako loturak eratu ditu Madre Tierrak bizilagunekin, familiekin, auzo osoekin, sektore publikoko erakunde eta organismoekin, gizarte-erakundeekin, kanpoko lankidetzeta-agentziekin...

Madre Tierraren iraupenean bereziki eragin izan duen erakunde bat Alemaniako MISEREOR agentzia izan da. Hasieratik izan dute ondoan beren proiektuak finantzatzuz eta lagunduz, eta Madre Tierrako profesional-taldearen soldatak ordainduz.

Udal-gobernuen eta beste gizarte-eragile batzuen arteko elkarlanari esker Madre Tierrak Buenos Aireseko Metropoli Barrutiko biztanleen habitata eta bizi-baldintzak hobetzeko duen konpromisoa bultzatzen eta sendotzen duten erakundearen sarea osatu da halaber.

Azkenik, Madre Tierra osatzen dutenentzat “proiektu herrikoia” deritzotenaren barruan kokatzen da beren elkarteak. Horri esker, erakundearen oinarriak sendotu egin dira kideek konpartitutako printzipio eta baloreetan oinarrituta, hain zuzen.

Erronka nagusiak.

Gorago esan dugunez, komunitatearen antolakuntza bultzatzea da Madre Tierraren lanaren azken helburua. Hori dela eta, bizilagunek auzoa hobetzen eta beren eraikuntza-proiektuak garatzen parte hartu dezatela da elkartearen erronka handienetako bat.

Bestalde, azken urteotan aldaketa eta birdefinizio garrantzitsua jasan ditu Madre Tierrak, herritarrentzako habitata eta etxebizitzak garatzeko politika publikoetan parte hartzen duen erakunde gisa aurkeztearen ondorioz. Hala, bere jarduerak eta proiektuak garatzen jarraitzeaz gain, gizarte-erakundearen eta udal- eta nazio-mailako gobernuen arteko hartu-emanaren sustatzen duen eragileetako bat bihurtu da, politiken diseinu eta kudeaketan parte hartzearekin batera.

Herritarrentzako habitataren arazoari dagokionez, Madre Tierrak honako erronka hauek nabarmendu ditu:

- Habitat-sareak eta esparru herrikoia berreraikitzea.
- Lurra eta etxebizitza aldarrikatzen zuten borroka berrindartzea, etxebizitzaren funtzio sozialari dagokionez bereziki.
- Eragile ugari biltzen dituzten espazioak eraiki eta sendotzea, landa-ingurune erakundeak eta sindikatuak barne hartuta.
- Azkenik, beren ekintzen eraginkortasuna indartzearren, hiri-lurrak eskuratzeko politika publikoak ugartu beharra dagoela eta indarrean dauden lege eta arauak eta hiri-lurrak kudeatzeko eredua aldatu behar direla uste du Madre Tierra elkarteak.





Erakundearen izena: Cadeia Ecológica do Algodão Solidário

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena, merkaturatzea eta elkartrukea.

Lekua: Esperientzia honek estatu desberdinetako erakundeak biltzen ditu: Ceará, Minas de Gerais, Santa Catarina, Rondônia eta Rio Grande do Sul.

Posta elektronikoa: justatrama@justatrama.com.br, justatrama@gmail.com

Webgunea: www.justatrama.com.br

Posta helbidea: Rua Affonso Paulo Feijo 501, Sarandi auzoa, Porto Alegre, Rio Grande do Sul. CEP: 91140-070.

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: enpresa ekintzetan bazkide tutako 700 lagun.

Jarduerak hasteko urtea: 2005

Sarrera.

Cadeia Ecológica do Algodão Solidário ehunaren ekoizpen katean zehar diharduten elkarte-enpresa autokudeatuen ekintzak koordinatzeko egindako esperientzia bat da. Enpresa hauek Brasilgo 5 estatu desberdinetan kokatuta daude, betiere Ekonomia Solidarioaren esparruan lanean. Lau langile kooperatibetan eta hezkuntza eta kulturaren garapenerako elkarte baten barne dauden 700 pertsona baino gehiagok osotzen dute.

Kotoi kate osoa hartzen du esperientzia honek, ereintzatik hasi eta kotoiz egindako jantziak, poltsak, jostailuak eta osagarriak josi arte. Ekoizpen guztia era ekologikoan egiten da eta herrialdeko garapen ekonomiko iraunkorra bilatzen du esperientziak, ingurugiroa zainduz eta solidaritatearen printzipioa mantenduz.

Jatorria.

Kotoi katean sartuta dauden enpresa jarduera hauen arteko lehenengo batzarrak UNISOLekin izandako harremanetatik atera ziren (UNISOL irabazi-nahirik gabeko elkarte bat da, zeinetan 700 kooperatiba eta enpresa ekintza solidario sartuta dauden. Ikusi dossierra.)

2005eko Munduko Gizarte Foroan 36 enpresa jardueren artean egindako lehenengo proiektu bateratuak foroan banatu ziren poltsak prestatu zituen. Esperientzia honetan parte hartu zuten 6 jarduerak ideiarekin jarraitu nahi izan zuten eta horrela modu organiko eta solidarioan ekoiztutako kotoiaren katea eraikitzekeo proiektuak aurrera egin zuen (urte batzuk geroago jantziak josi behar zituen enpresetako bat katetik atera zen).

Justa Trama marka 2005eko urrian eratu zen, Rio de Janeiroko Cantagalo komunitatean. 2007an *Cooperativa Central Justa Trama* zabaldu zuten, bigarren mailako erakunde honek esperientzia osoari ekoiztu eta merkaturatzeko legezko identitate bat eman ziezaion.

Jarduera.

Kate hau kotoiaren ehun-industrian zehar egin beharreko ekintza ekonomiko guztiak betetzen dituzten enpresaz osoturik dago:

- Cearáko estatuan erein eta batzen da kotoia, teknika agroekologikoen bidez –alde batetik, agrotokorik gabe eta izurriteen kontrolerako ez pertsoneri ez ingurugiroari kalterik egiten ez dieten produktu naturalak erabiliz eta bestalde, lurzorua eta uraren kontserbazioa zainduz.



- Hurrengo pausua kotoia hari eta ehun bihurtzea da; hau Minas Gerais estatuko COOPERTEXTIL enpresan egiten da.
- Jantzien diseinua eta josketa Brasilgo zenbait estatutan egiten da. Santa Catarina estatuko Fio Nobre kooperatiba artisau xehetasunekin egindako jantzien, trikoteko jantzien eta poltsen arduraduna da.
- Rio Grande do Sul estatuko UNIVENS (ikus gidan) kooperatiba gizon eta emakumezkoentzat segida handian ekoizten diren jantzien arduraduna da.
- Jantziak apaintzen dituzten haziak Açaí kooperatibako kideek batzen dituzte Amazonian eta beraiek dira bestelako apaingarrien hornitzaile ere: egurrezko botoiak, eskumuturrekoak, belarritakoak, uhalak...
- Horrez gain, Açaí-n Justa Tramak erabiltzen dituen tinturak tindagai naturalak erabiliz prestatzen dituzte.

Parte-hartzaileak.

Justa Trama esperientziaren barruan dauden pertsonak lanbide anitzetan diharduten gizon eta emakumeak dira: nekazaritza, irukintza, ehungintza, jantzigintza, broderia eta serigrafia, artisautza eta hazi bilketa. Enpresa jardueretan antolatuta daude eta kotoi katearen etapa guztiak betetzen dituzte: ereintzatik hasi, bilketatik pasa eta azken produktuaren fabrikaziora heldu arte. Enpresa jardueren deskribapen labur bat dator jarraian:

- *Associação de Desenvolvimento Educacional e Cultural de Tauá* (ADEC) elkarte kotoi agroekologikoaren ekoizpenaz eta merkaturatzeaz arduratzen da. Emakume artisauak eratu zuten 1986an eta gaur egun gutxi gora behera 300 nekazarik osotzen dute, Ceará estatuko herri desberdinetan banatuta: Tauá (egoitza nagusia) Quixadá, Choro, Massapé, Canindé, Sobral, Forquilha, Santana do Acaraú eta Parambú. 1993. urteaz geroztik, ikuspuntu agroekologiko batetik abiatuz, familia nekazaritza sustatzen saiatzen dira.
- *Cooperativa de Produção Textil de Pará de Minas* (COOPERTEXTIL) 1988an eratu zen Minas Gerais-eko fabrika batek itxi ondoren, bere langileek kooperatiba bat sortzea erabaki zutenean. Hariak eta ehunak egiteko makinak eta etxe bat alokatuz hasi ziren. Bere 289 kideetatik %60 emakumeak dira.
- *Cooperativa de Costureiras Unidas Venceremos* (UNIVENS) (Esperientzia hau dossierran ikusgarri dago), 1996an eratu zen Porto Alegreko Sarandí auzoko emakume talde batek lanbide eta diru sarrera alternatiboak sortzeko zuen beharragatik. 26 emakume bazkidek osotzen dute. Gizonezko eta emakumezkoentzat jantziak josten dituzte eta serigrafia eta broderia zerbitzuak barneratzea lortu zuten.
- Fio Nobre kooperatiba Santa Catarina estatuko Itajaí herriko mikroenpresa batetik sortu zen 1986an. 2007an kooperatiba bihurtu zen eta 20 bazkide ditu. Hariak eta kordelak ekoizten dituzte.
- *Cooperativa de Trabalho dos Artesãos do Estado de Rondônia*, COOPERATIVA AÇAÍ, Rondônia-ko estatuako hiriburuan, Porto Velho hirian, kokatzen da. 2001ean sortu zen eta 70 bazkide ditu. Saskigintza eta marketeriaz gain, koko eta haziekin ere lan egiten dute.





Erakundeekin lotura.

Cadeia Ecológica do Algodão Solidário kateak mota askotako nazioarteko eta nazio barruko erakunde publiko eta pribatuen laguntza jaso du.

- Nazio barruko erakunde aipagarrienak ondorengoak dira: *Central de Cooperativas e Empreendimentos Solidários* (UNISOL BRASIL); *Centro de Pesquisa e Assessoria* (ESPLAR); *Fundação Banco do Brasil* (FBB); *Fórum Brasileiro de Economia Solidária*; *Secretaria Nacional da Economia Solidária do Ministério do Trabalho e Emprego* eta *Serviço Brasileiro de Apoio às Micro e Pequenas Empresas*.
- Justa Tramarekin harremanak izan dituzten nazio arteko erakundeen artean batzuk aipatzekotan: *Associação de Cooperação Internacional Nord-Sud* (CONOSUD – España) eta Italiako NEXUS – CGIL; *Istituto Sindacale per la Cooperazione allo Sviluppo* (ISCOS CISL); eta *Fair Società Cooperativa Sociale*.

Lorpenak.

Justa Tramak kotoiaren ekoizpen kate osoa bere baitan hartzen du, ereintzatik ehuna jantzi bihurtu arte. Brasilgo 5 estatu desberdinetan kokatutako 6 elkarte ekimen autokudeatuk osotzen dute, guztira 700 langile baino gehiago batuz.

Azken urteotan Justa Tramak ekoiztutako produktuak **dibertsifikatu** egin dira, gaur egun batez ere ondorengoak ekoizten dituztelarik: gizon eta emakumezkoentzako jantziak, unisex kamisetak, umeentzako jantziak, osagarriak, eta oihalez egindako jostailuak, txotxongiloak, animalien irudiko panpinak eta sabaitik zintzilikatze mugikariak. Markaren helburua ingurugiroaz arduratzen diren bezeroak dira, produktu organikoak eta ekonomia solidarioaren bitartez ekoiztutako produktuak kontsumitzeari balioa atxikitzen diotenak.



Justa Tramako kideen iritziz, printzipio hauek defendatzen dituzten milaka pertsona daude. Orain arte, barne merkaturako eskaera poliki-poliki handituz joan da. Laster produktuak esportatzea da beraien asmoa, atzerrian mota honetako produktu eta ideientzat merkatu beta zabala dagoela uste baitute.

Justa Tramako produktu bat erostean, kontsumitzaileak autokudeaketan eta solidaritatean oinarritutako eta guztiok barne hartzen gaituen “beste ekonomia baten” eraikuntzaren alde egiten du. Hau dela eta, esperientziaren lorpenak hedatu egiten dira bezero berri batek era agroekologikoan eta taldeka egindako jantzi bat aukeratzen duen bakoitzean, ohiko jantziekin konparatuz dituen desberdintasunez jabetzen baldin bada behintzat.

Iraunkortasun a.

Justa Trama kotoizko produktuen ekoizpen eta merkaturatzean ziharduten ekonomia sozial eta solidarioeko enpresa ekimenek osatu zuten sarea da. Ezaugarri honek maila desberdinen arteko bitartekariak ezabatzea dakar berekin, Justa Tramako kideen iritziz irudi hori ezabatuz gero enpresa-ekimen bakoitzaren etekina handituko litzateke produktuaren azken prezioa igo gabe. Horrez gain, bitartekariak ezartzen dituzten harreman asimetrikoak baztertzean, kate osoan zehar “bidezko prezioak” mantendu daitezke, “kapitalisten neurritz gaineko etekinak” ez direlako atera behar. Beraz, katean parte hartzearen abantailarik nagusia, kideen iritziz, “pareko bezala negoziatu ahal izatea da; helburu berdinak lortu nahi dituzten eta batera hazi nahi duten pertsona eta erakundeen artean”.

Bestalde, produktuen prezioak finkatzeko erak ekimen bakoitzaren iraunkortasuna bermatzen du, katearen ingurumenarekiko helburuak eta helburu sozialak kontutan izateaz gain, ekimen partaideak eta Justa Trama marka indartzeko diru-zorro baten sormena aurreikusten duelako.



COOPERTEXTIL kooperatiban dagoen emakume bazkidetako batek Justa Traman parte hartzeak kooperatibaren produkzioa kaltetu baino sendotu egiten duela dio. Justa Tramarentzat ekoizteak diru-sarrerak ziurtatzen dizkie urte osoan zehar, baita udan ere, kooperatibaren salmenta neurriak beherakada nabarmena izaten duenean.

Horrez gain, Justa Traman parte hartzeak kooperatibako langileen bizi baldintzak hobetzen ditu, ez baitituzte agrotokoen erabilerarekin lotutako osasun arazorik izaten. Langileena ez ezik, gizarte osoaren osasunerako komenigarria da, kotoiaren laborantzak sortarazi ditzakeen kalteak murrizten direlako.

Erronka nagusiak.

Justa Tramaren ekoizpena nahiko handia bada ere, bere partaideek askoz gehiago ekoiztu eta merkaturatu dezaketela uste dute. Horretarako beharko luketena hau izanik:



- **Kotoi agroekologikoaren ekoizpena handitzea.** Kutsakorrek ez diren metodoekin eta sare solidario autokudeatu batetan parte hartzearekin ados dauden nekazari berriak topatzea da erronka hau gainditzeko oztopo nagusia.
- Beste erronka garrantzitsu bat **tinturak egiteko eta koloreak finkatzeko prozesu naturalak garatzea** da, horrela %100 organikoak diren kolorezko jantziak ekoiztu ahal izateko. Helburu hau lortzeko Rondôniako kooperatibako kideek tindagai naturalei buruzko ikerketak egiten ari dira.





Erakundearen izena: Ehun-Kate Solidarioa (Cadena Textil Solidaria, hemendik aurrera, CTS).

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena - merkaturatzea eta elkartrukea.

Lekua: Kostalde argentinarra (Chaco eta Corrientes-eko landa eremuak) eta Buenos Aires probintziako hiriak (Pigüé eta La Plata).

Posta elektronikoa: info@cadenatextil.com

Webgunea: <http://www.cadenatextil.com>

Posta helbidea: Calle 44 1728 La Plata, Buenos Aires, Argentina.

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: kotoia ekoizten duten eta ehuna egiten duten 250 familia onuratsen dira esperientzia honetaz. Katearen barne Kostaldeko Kooperatiba Agroekologikoa (*Cooperativa Agroecológica del Litoral*), Pigüé Ehun Kooperatiba (*Cooperativa Textil Pigüé*), Beste Merkatu bat Hegoaldera Elkarte Zibila (*Asociación Civil Otro Mercado al Sur*) eta *Altro Mercado S.A.* daude.

Jarduerak hasteko urtea: 2007

Sarrera.

Ehun-Kate Solidarioa ekonomia sozial eta solidariorik abiatuta, kotoi katean zehar bidezko merkataritza eta garapen jasagarria bultzatzen duen esperientzia bat da. Autokudeaketan oinarritutako enpresek egindako produkzio kate baten adibidea da, kotoiaren transformaziora zuzenduta, kotoia lehenengo ehun eta gero jantzi bihurtuz. Nekazari kooperatiba agroekologiko batek, langileriak berreskuratutako enpresa batek eta bi GKEk osatzen dute. Bere helburua kotoi agroekologikoz egindako jantzien ekoizpena, merkaturatzea eta esportazioa da.

Jatorria.

Ehun-kate Solidarioa *Otro Mercado al Sur* inizatibatik ateratzen da, Argentinako kotoi ekoizle txikien zailtasun berriak kontutan hartzen dituen produkzio hautabide bat bilatu nahian. Aipatutako zailtasun berri hauek kotoi merkatuaren eraldapenean dautza: soja laborantzak kotoia baztertu zuelako, kotoiaren prezioa jaitsi zelako, produkzio eskalak handitu zirelako, Estatu Batuetan kotoi produkzioak diru laguntzak jaso zituelako, hazi transgenikoak eta agrotokikoak erabiltzen hasi zirelako ekoizpen-kostuak murrizteko... Esperientzia honek garapen jasagarriaren perspektiba mantendu nahi du kotoiaren produkzio katean zehar lan integral bat aurrera eramateko.

Jarduera.

CTSaren eginkizunik garrantzitsuena **kotoiaren produkzio katean dauden aktore guztien artikulazioa** lortzea da.

Jarduera ekonomikoa kotoiaren eraldaketa fase desberdinekin parekatuta dator, ekoizpen, banaketa eta kontsumoaren arabera:

- Kotoiaren laborantza eta ekoizpena Chaco eta Corrientes-eko nekazari txikien esku dago; nekazari hauek *Cooperativa Agroecológica del Litoral*-an bilduta daude.
- Gero, kotoiaren ezpurutasunak garbitu eta pakak egin behar dira.
- Jarraian, lehengaia Buenos Aires probintziaren hego-ekialdera dagoen Pigüé hirira eraman behar da. Han, Pigüé Ehun Kooperatibak, langileriak berreskuratutako enpresa batek (begiratu FASINPAT eta UST fitxak), ehuna egiten du eta ingurugiroa errespetatzen duten tinturekin kolorea ematen dio. Jantziak josteko badaude Pigüé-ko emakumeak batzen dituzten lantegi kooperatibo txikiak.
- Merkatu solidarioen barne jantzien salmenta eta esportazioa egiteko *Otro Mercado al Sur* eta *Altromercato* daude.



Fairtrade zigilua daukan kotoiarekin egiten dira produktu guztiak, Bidezko Merkataritzaren printzipioak produkzio kate osoan zehar errespetatzen direlarik. (begiratu www.fairtrade.net)

Parte-hartzaileak.

Esperientzia honen aktorerik garrantzitsuenak bere barne dauden elkarte sozioekonomikoak dira.

- Kostaldeko Kooperatiba Agroekologikoa (*Cooperativa Agroecológica del Litoral*) kotoi agroekologikoa ongarri ez pestizidarik gabe ekoizten duten nekazari txikiak biltzen ditu. Kooperatiba honek europar bidezko merkataritzarako Fair Trade Label Organization (FLO)-ren ziurtagiria lortu du eta ziurtagiri organikoa lortzeko bidean dago. Kooperatiba honen barne dauden kotoi ekoizleak ziurtagiri hauek dituzten Argentinako bakarrak dira.
- Pigüé Ehun Kooperatiba (*Cooperativa Textil Pigüé*) 2005. urtean hasi zen lanean. Bere langileriak berreskuratutako enpresa bat da, aurretik Gatic taldea zela jabe. Gaur egun, bere 110 bazkideek kudeatzen dute. Jantzigintza, garbiketa, tindategi, eta puntuz egindako ehunen lantegiak dauzka.
- Beste Merkatu bat Hegoaldera (*Otro Mercado al Sur*) irabazi asmorik gabeko elkarte soziala, 2004ean La Plata-n (Buenos Aires probintziako hiriburuan) ezarrita, CTSren eragilea da. Bere betebeharren barne, aholkularitza teknikorako eta trebakuntzak egiteko baliabideen kudeaketa dago eta baita ingurugiroa zaintzeko eta bidezko produkzio prozesu arduratsuak lortzeko araudiak indarrean jar daitezzen begiratzen du. Bere misioa Argentinan bidezko merkataritza bultzatzea da, aldi berean Iparraldean merkatuak eta eskaera handituz. World Fair Trade Organization (WFTO) erakundearen bidezko merkataritzarako irizpideak jarraitzen ditu.
- *Altromercato S.A.* Ehun-Kate Solidarioaren produktuen merkaturatzeaz arduratzen den enpresa argentinarra da. *CTM Altromercato SCRL* Italian egoitza duen irabazi asmorik gabeko partzuergoaren barne dago. Partzuergo hau bidezko merkataritzako produktuen inportatzaile nagusia da Italian eta munduko bigarrena, 300 salmenta puntu desberdin eta 130 kooperatiba bazkide dituelarik.

Erakundeekin lotura.

CTSak irabazinahirik ez duten gobernuz kanpoko erakunde anitzekin lotuta dago, hala nola: Consorzio CTM Altromercato (Italia); Levi Strauss Foundation (EEUU); Levi Strauss & CO. (EEUU); Belgian Technical Cooperation BTC-FTC, Fair Trade Center (Bélgica); Associazione Chico Mendes Onlus (Italia), Fondazione San Zeno (Italia); Coop. Mandacarú (Italia); Microcredit Coop (Italia); FAO (Naciones Unidas); Provincia di Bolzano (Italia); Regione Lombardia (Italia); Fondazione Cariplo (Italia) eta Fundación Avina (Argentina).

Levi Strauss Fundazioak, izan ere, esperientzia bere hastapenetatik lagundu du, eta Levi's Eco lerroa CTSak ekoizten du.

Argentinan Langileen Kooperatibak CTSari eskatzen dio erosketak egiteko poltsa ekologiko eta birziklagarrien produkzioa.

Lorpenak.

CTSak lekuko aktoreak bata bestearekin lotzea eta merkatuak zabaltzea lortu zuen, nazioarteko eta nazio barneko eragina izatera helduz.

Esperientzia honen berezitasun aipagarriena kotoiaren produkzio eta balorazio katea era sozial, etiko eta jasangarri baten ulertzean datza. Ekonomia soziala, bidezko merkataritza eta agroekologia lotzen dituen esperientzia bakarra da Argentinan.





CTSak kotoiaren katean sartuta zeuden baina elkarrekiko harremanik ez zuten aktoreak bateratzea lortu zuen, lankidetzeta eta koordinazioan oinarritutako proposamen baten bidez. Era honetan, partekatzen zuten arazoak zeintzuk ziren ikusi ahal izan zuten eta esperientziei mesede egingo zieten konponbide bateratuak bilatu.

Iraunkortasuna.

Levi's bezeroen artean izanda (esan bezala Eco lerroaz hornitzen baitute Levi's), CTSak beti izan ditu produkzio aginduak jarraian. Jarraipen hau ziurtatzeko, *Otro Mercado al Sur* elkarteak ehun merkatuko beste marka batzuen eskaerak lortzen saiatzen da, betiere konpromiso soziala gordetzen duten lerroen produkzioarako.

Elkarrekin duten hitzarmenaren barne, Levi's Fundazioak trebakuntzak eskaini izan ditu CTSko ehun langileriarentzat eta bere *know-how*a ere partekatzen saiatu da jantzien kalitate mailak behar bezalakoak izan daitezen produktuen merkaturatzea egiteko.

Kotoi ekoizleen nekazari taldeari dagokionez, CTSak merkaturatzearen euren produkzioak lortuko lukeena baino prezio altuago bat ziurtatzen die, produkzio guneak denboran zehar jasagarriak izan daitezen. Bestalde, praktika agroekologikoen landan bertan existitzen diren baliabideen erabilpenaren alde egiten dute, kanpoko intsumoen dependentzia txikituz, eta, aldi berean, ingurugiroaren babesa bultzatzen dute, metodo naturalak erabiliz eta produktu agrokimikoak saihestuz. Horrela, ekonomia soziala, agroekologia eta bidezko merkataritzaren perspektibak bateratzen dituen esperientzia honek praktika jasagarrietan oinarritutako garapen prozesuak defendatzen ditu.



Erronka nagusiak.

- Esperientzia honen erronken artean nagusienetako bat Amerika Latina-ko herrialdeetan ezarritako garapen eta hazkunde ekonomikoaren ereduari aurre egitea da. Eredu honetan, sistema ekonomikoa berriz primario bihurtu da: sojaren laborantza da etekin ekonomikorik handiena ematen duen aukera, ingurugiroan daukan eraginari jaramonik egin gabe. CTSaren esperientziak irautzen duen, beharrezkoa da kotoi ekoizleek etekin ekonomikoa ateratzea, horrela kotoia aukera on bat izan dadin. Hau lortzeko, lehen aipatu bezala, Altromercato elkarteak merkaturatzea baino altuagoa den prezio bat ziurtatzen die.
- Bestalde, esperientzia hau kontsumitzaileen nahien menpe dago, batik batik iparraldeko kontsumitzaileen sentsibilizatuaren menpe. Hau dela eta, CTSa gero eta lan gehiago egiten ari da kontsumitzaileen kontzientziaziorako, barneratu dezaten norainoko garrantzia daukan jantzi ekologiko bat aukeratzeak, batez ere ingurugiroarekiko kontuz egina bada eta langileen lan egoera zaintzen bada prozesu osoan zehar (nekazarietatik hasi, jostunengana eta dendetara heldu arte).



Erakundearen izena: Jarduera Ekonomiko Jasangarrien Ikerketa eta Trebakuntzarako Zentroa (CIFAES - Centro de Investigación y Formación en Actividades Económicas Sostenible).

Proiektuaren izena: Amayuelas de Abajo udalerrri ekologikoa

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena. (ekimen integrala)

Lekua: Amayuelas de Abajo, Palentzia, Espainia.

Posta elektronikoa: amayuelas@nodo50.org

Webgunea: www.amayuelas.es

Posta helbidea: C/ Plaza de la Iglesia s/n C.P.: 34420 Amayuelas de Abajo Tel.: 979 15 41 61

Esperientzia osatzen duten kide kopurua:

Elkartekideak: 35 gizon eta 40 emakume

Zuzendaritza-batzordeko kideak:8

Langileak: 6

Boluntarioak: 5

Jarduerak hasteko urtea: 1994

Sarrera.

Amayuelas de Abajo (Palentzia) eko-udalerrian lurraldearen kudeaketa integrala lanpostu berdeak sortzeko eta langileak lanpostuotarako trebatzeko esparru ezin hobea bihurtu da. Garapen jasangarria, ekologia eta gizarte-aurrerapena errealitate ukigarria dira Amayuelas herrian, eta horri esker bere "aurrerapen"-ideia eta ekonomia suntsitzailea garatu duen egungo gizarte tekno-zientifikoaren oinarri diren mitoak txikitzea lortu du herriak.

Landa-ingurune biziaren alde konprometituta dagoen jendea bizi da herrian, gizarteak landa-munduari bizkarra emanda bizitzerik ez duela eta herriak abandonatzea arduragabekeria hutsa dela uste duen jendea, alegia.

Jatorria.

Palentziako Tierra de Campos eskualde naturalaren erdi-erdian kokatuta dagoen Amayuelas de Abajo herriak udalerrri ekologikoa izan nahi du. Jarduera ekonomiko jasangarrien ikerketa eta trebakuntzarako zentro bat jarri da martxan han, proiektua dinamizatzeko. Proiektu honen bidez beren kabuz errentagarriak diren eta aberastasun integrala sortzen duten ekimen sozioekonomiko txikiak garatzen dira. Ekimen horiek erreferenteak izan daitezke beste batzuentzat, eta eragina izan dezake hirirako migrazio-prozesuek kaltetutako eskualdeko herrietan ere.

Espainiako Estatu osoko ehunka herrik bezala, herriko jendea Amayuelas de Abajo uzten joan zen pixkanaka. 1971n izaera juridikoa galdu zuen (udal gisa desagertu zen) eta San Cebrián de Camposeko Udalaren barruan sartu zen.

Zerealaren monolaborantzan espezializatutako nekazaritza industrializatuan teknologia berriak aplikatzen eta erabiltzen hastearekin batera, herriko biztanleria landuna izugarri murriztu zen. Joera hori areagotu egin zen geroago Europar Batasunean sartzean eta Nekazaritzako Politika Bateratua aplikatzean. Zerbitzu publikoak emateari uzten eta lurrik gabeko nekazariak eta nekazari txikiak herrietatik alde egiten joan ziren, eta horrek herri haien erabateko gainbehera ekarri zuen.

1990eko hamarkada hasieraz geroztik, Tierra de Campos eskualdeko kultur eta nekazaritza-mugimenduan zebilen pertsona-talde batek herri txiki honetan lan egiteko konpromisoa hartu zuen, garai batean izan zuen bizitza



itzultzeko asmoz. Herrian erabili gabe zeuden baliabideak aprobetxatuz, eta natur ingurumenarekiko errespetu osoz jokatzuz, jarduera ekonomiko, sozial eta produktibo txikiak sortzea izan zen talde haren erronka nagusia. Horrelaxe sortu zen udalerrri ekologikoaren ideia, norantz jo nahi zuten aditzera eman eta definitzeko kontzeptu gisa.

Orain arte egindako ibilbideari esker eraikinak eta espazio publikoak berreskuratu eta udaleko gutxieneko azpiegiturak (hondakin-uren kudeaketa, hustubideak, edateko ura, kaleen konponketa, kontzejuko gela) eraiki dituzte eta nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa garatzen hasi dira, nekazaritzarekin eta turismoarekin lotutako enpresa txikiak sortzeaz gain.

Bi data garrantzitsu aipatu behar ditugu proiektua sendotzeko bidean: 1999an hamar etxebizitza bioklimatiko eraiki ziren, biztanle berriei herrian finkatzeko aukera emanaz. 2004an landa-inguruneke lehen unibertsitatea sortzen zen: "Paulo Freire" unibertsitatea.

Amayelasek biztanle-taldetxo bat dauka gaur egun, beren lan- eta bizi-proiektuekin, eta "herri txiki hauetan bizitzeak merezi duela" sentitzeaz harro daudenak.

Jarduera.

Jarduera Ekonomiko Jasangarrien Ikerketa eta Trebakuntzarako Zentroa (CIFAES) irabazi asmorik gabeko elkarte da haien tresna nagusia: landa-garapen integral, jasangarri eta solidarioa bultzatzen duten ekimen eta proiektuak bideratzeko aukera ematen die zentroak.

CIFAESen lan-dinamikari esker, lan-ekimen txiki batzuk jarri dira martxan, hiri-ingurunetik etorritako gazte batzuk finkatu dira herrian, herri-mailako zerbitzu komunitario berritzaileak sortu dira, lurak lantzeko eta ganadua gobernatzeko bestelako ereduak garatzen dira elikagai osasungarriak ekoizteko, eta hainbat ikerketa-ildo zabaldu dira: lurrarekin egindako eraikuntza, hiri-hondakinen kudeaketa integrala eta bertako hazi eta arrazen berreskurapena, nekazaritzako elikagaien transnazionalak bioaniztasunean inposatzen ari diren monopolioari eta pribatizazioari aurre egiteko asmoz.

Martxan dauden zenbait ekoizpen proiektu:

- **Ostatua eta okindegia:**

XVII. mendeko antzinako etxetzar batean dago ostatua, eta jatorrizko elementuetatik ahal izan diren guztiak gorde ditu. Oso leku goxo eta atsegina da: 32 plaza, lan egiteko gelak, ehun bat laguntzentzako bi jangela eta patio estali bat dauzka.

Menuak eta gosariak proiektuari lotutako nekazariak ekoiztutako produktu ekologikoekin (baratza, oilaskoa eta arkumea, ogia, opilak, etab.) egiten dira gehienbat. Janaria ostatuko sukaldean prestatzen dute, etxeko betiko moduan. Ostatu hartzeko eta jangela erabiltzeko erreserba egin behar da aurrea.

Egur-labe bat egin zuten ostatuan, eta han egosten dute ogia artisauen erara, bazkari-zerbitzua osatzeko. Aire-zulodun labea da, hiru metroko diametroa du eta adobezko ganga. Okindegi honetan ogia egiteko prozesuko urrats guztiak egiten dira: garia irindu (harrizko errotan), galbahetu, oreka egin...



- **Saski eko-logikoa (erantzukizun sozialdun elikagaiak):**

Saski eko-logikoaren ekimena Amayuelas de Abajoko **CEDAZO** izeneko **ekonomia sozialeko ekimenari** lotutako ekoizle-talde bati bururatu zitzaion. Talde horretako kideek oilaskoa, arkumea, txahala, zerealak, ekiloreak, barazkiak eta ogia ekoizten dituzte. Hegaztientzako hiltegia eta jatetxe txiki bat daukate, halaber. Amayuelasen jarduerak egiten dituzten taldeentzat irekitzen da jatetxea. Palentziako Kontsumo Sarean parte hartzen dute, gainera, ekoizle eta kontsumitzaile gisa.

“Sare eko-logikoa - erantzukizun sozialdun elikagaiak” ekimenaren bidez ez dituzte kontsumitzaile-sareak ordezkatu nahi, indartu eta osatu baizik, itunak eratzeko beste tresna bat gehiago eskainiz.

- **Las Barrializas lursaile:**

Hamabi hektareako Las Barrializas lursailean arkume eta oilasko ekologikoak ekoizten dituzte. Amayuelas inguruko zenbait kontsumo-talderen eta ostatuaren beharrak asetzera bideratutako dago hango ekoizpena.

- **Las Gavelas:**

Las Gavelas lursailean ere nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa garatzen dituzte. Oilaskoa, arkumea eta barazkiak ekoizten dituzte, lursailak dituen lau hektareetan. Hango ekoizpena ere ostatuaren eta hainbat kontsumitzaile-talderen beharrak asetzera bideratzen da.



- **Turismo arduratsua:**

“Las Amayuelas” ostatuak azpiegitura egokia dauka Amayuelas de Abajora egun batzuetan atsedean hartzera joan nahi dutenentzat, landa-inguruneko unibertsitateak antolatutako jardueretan parte hartu nahi dutenentzat nahiz herriko lan-esperientziak bertatik bertara ezagutu nahi dituztenentzat. Ostatuan bestelako turismo-eredua garatzen dute: ingurunearekiko, kulturarekiko eta han bizi direnekiko erabateko errespetua erakutsiz egiten baitituzte jarduera guztiak.

- **Hegazti-hiltegia:**

Amayuelasen eta inguruko herrietan hazitako oilasko ekologikoak eramaten dituzte eta horri esker herrietako gazteak bertan jartzen dira bizitzen, hegazti-hazkuntza ekologikoa garatuz.

Parte-hartzaileak

Era askotako jendea dago taldean: nekazariak, abeltzainak, elikagai osasungarri eta ekologikoen ekoizleak, eragile komunitarioak, etab.

Herrian lantzen diren jarduera sozioekonomikoak garatzeko hainbat formula erabiltzen dituzte (kooperatiba, SL, autonomoak, irabazi asmorik gabeko elkarteak, etab.), unean uneko eta sektore bakoitzaren beharren arabera. Zentralismo ekonomikoa baztertzea eta dibertsifikazioaren alde egitea da ideia nagusia eta horrek konpromiso pertsonal handiagoa hartzeko aukera ematen du martxan jartzen diren proiektu guztietan. Dibertsifikazio horri jarraiki, proiektu guztiak koordinatu, topatu eta bateratzeko espazioak sortzen dira. Nolanahi ere, CIFAES izan da, irabazi asmorik gabeko elkarteak den aldetik, proiektu orokorra dinamizatu eta haren zainketa ideologikoa bermatu duena.



Proiektuan era askotara parte hartzeko aukera dago: ekimen berriak proposatuz, heziketa-eskaintzetan parte hartuz, bertako hazi eta arrazak eskuratzeko iturriak eskainiz, sortzen diren ikerketa-batzordeetan lagunduz edo, besterik gabe, herriko ostatua erabiliz eta natur inguruneaz gozatuz.

Lorpenak.

Gaur egun esan dezakegu CIFAES benetako tresna bat izan dela biztaleriaren beherakada handi bat gertatu den lurralde baztertu batean dinamizazio sozioekonomikoa gauzatzeko; aldi berean, esperientziak efektu biderkatzaile ikaragarri bat izan du, Tierra de Campos (Palentzia), eskualdearen ezaugarri antzekoak dituzten eskualdeetan.

Desarrollismoaren ondorio negatiboak jasan dituen ingurune batean bizitza sortzea posible dela erakutsi ahal izatea izan da esperientzia honen lorpen ik garrantzitsuen. Erdigunean pertsonak eta haien ekosistema eta ez dirua jartzen duten bestelako garapen-ereduak martxan jarrita lortu da hori guztia.

La cosecha del esfuerzo realizado:

-Ekoizpen-proiektuak: Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa, turismo arduratsua, ekodenda, hegaztien hiltegia, bioeraikuntza, eguzki-energia, ogi-ekoizpena, hondakin-uren kudeaketa.

-Ikerketa-proiektuak: bertako haziak berreskuratu eta mantentzea, belazeak basa-espezieekin berreskuratzea, bertako arrazak berreskuratu eta mantentzea, lurrarekin egindako eraikuntza, hondakin-uren kudeaketa.

-Heziketa-proiektuak: Paul Freire landa-inguruneko unibertsitatea, biztanle berriak, nekazaritik nekazarira, karrera-amaierako lana bertan egin duten unibertsitate-ikasleak.

-Zertzelada metodologiko batzuk: hasierako taldea ekoizpenaren abenturarekin hasi zen lanean. Hainbat galdea sortu zitzaizkien: Nola ekoitzi inguruko baliabideak hondatu gabe? Nola sortu aberastasun-iturri berriak Ama Lurraren bidaideak izanik? Ikaskuntza kolektiboko prozesu bat hasi zen orduan, eta eskualdeko zaharren "know how"aren ahozko transmisioa eta sena oso garrantzitsuak dira heziketarako material didaktiko gisa.

- Ekoizpen-prozesuan sortzen ziren arazoei erantzuten joatea zen hasierako **helburua**. Lurreko baliabideen erabilera zuzen eta zilegizkoa eginez gero ekoizpenak ematen dituen aukera guztiak berraurkitzen joan nahi zuten. Gauza asko eta asko ikasi zituzten horrela: lurra eta ura kutsatzen ez zuten elikagai osasungarriak ekoizten, eguzkiak eta aireak energia sortzeko eskaintzen dituzten aukera ugariak, kontsumo-gizarteak alferrik erabiltzen eta botatzen dituen baliabide piloa birziklatzen eta erabiltzen; ongarri naturala egiten hondakin organikoak konpostatuz, labore industrialak ureztatzen (paper-orea egiteko makalak) hondakin-urak aprobeztatuz, ondare historiko-artistikoa birgaitzen eta etxebizitza berriak eraikitzen herri-arkitekturako teknikak erabiliz, edota bertako ekoizpenari balio erantsia ematen dioten enpresa txiki eta ertainak sortzen.
- **Enplegua, biztanleak bertan errotzeko bidea.** Politika desarrollistek baztertuta utzi zituzten testuinguruetan lanpostuak sortzeko aukerak daude orain. Eskala txikiko ekoizpen-sistemek lana sortzen dute eta jendeak bere herrian bizi-kalitate handiarekin bizitzen jarraitzea ahalbidetzen duten baliabideak eskaintzen dituzte. Emaizak ezin dira erakundeek finkatutako parametroen arabera neurtu, bestelako irizpideak hartu behar dira kontuan prozesu batek lurraldean bizitza sortzen ote duen ebaluatzeko garaian. Hala, CIFAESen iritziz, hizpide dugun proiektuak hainbat arrakasta izan ditu, zailtasunak zailtasun: hogeitaz bi biztanle berri finkatu dira herrian, lanpostu autonomoak sortu dira, aldi baterako enplegu handia dago nekazaritzako eginbeharren arabera, zeharkako lanpostu asko sortu dira, heziketa-prozesuren baten bidez proiektu hau errepikatu den beste herri batzuetan, adibidez.



- **Ikerketa:** Ekoizpen-praktikaren bidez lortutako emaitzekin harreman zuzenean egoteak ikertzeko aukera ematen du. Proiektuan parte hartzen duten pertsonak behin eta berriz kontrastatutako proba ugari bidez egiten da ikerketa, eta horrek arazo asko konpontzen eta galdera berriei erantzuten laguntzen du. Landa-ingurunea eta kalea nekazari, artzain, hegaztiazain, okin eta abarrentzako laborategiak bihurtzen dira. Eta horrek aukera sorta amaigabea zabaltzen du. Hona hemen ikuspegi metodologiko honen zenbait adibide:
 - Eskualdean baserriak eraikitzeke **buztina** erabiltzeari utzi zioten. Dena den, gaur egun argi ikusi da etxebizitza osasungarriagoak eraikitzeke propietate ugari dituela material horrek. Teknologia berriak aplikatuz, buztina erabili liteke berriro ere, arkitektura herrikoia zena sustatuz horrela.
 - Beste adibide bat:** Ibertako hazi-espezie eta landare-barietate gehienak espezie hibridoekin ordezkatu dira, aurrekoak ez direlako oso lehiakorrek nekazaritza industrialean. Amayuelasen ordea bertako haziak landatzen dituzte orain, eta horrek mesede egiten die bioaniztasunari eta nekazaritza biologiko jasangarriari, ekosistemak mantentzeaz gain. Inguruko herrietako nekazari konbentzionalak eszeptiko samar zeuden, bio” nekazaritzak etorkizuneko aukerak dauzkala eta izurrite eta gaixotasunak tratamendu natural-naturalekin kontrolatu daitezkeela ikusteko aukera izan dute.
 - Heziketa-esparrua:** Prozesu hau osatu eta gero ikusi denez, prozesua bera baliagarria izan da heziketa-prozesu gisa eta heziketa-prozesuak herri txikiotako mikrogarapen ekonomiko eta sozialarekin uztartzeko baliabide gisa. Horixe izan da prozesuaren aurkikuntza handienetakoa. Horri esker, proiektuan parte hartzen duten pertsonak etengabeko ikaskuntza-prozesu batean murgilduta bizi direneko espazio bizia da Amayuelas, eta erantzun logikoak ematen dizkio produktibismoaren logikak “marjinalizat” jotzen dituen espazioetan bizi diren gizakiek dituzten beharrei.

Horrekin batera, CIFAESen bidez, komunitatearen eskaintzak gurutzatzen direneko heziketa/prestakuntza-esparrua bihurtu da Amayuelas. Heziketa- eta gizarte-arloko ondasun bat sortu du herriak, eta ondasun hori beste espazio instituzionalizatuago batzuek asebetetzen ez dituzten hutsuneak estaltzeko eduki pedagogiko onena dela ikusi da: garia, esnea, ogia... nola ekoizten diren dakiten haurrek dagokien balioa ematen eta haiek ekoizten dituzten pertsonekin (nekazariak) eta ingurunearekin (lurra) erlazionatzen ikasten dute. Gazteek unibertsitatean ikasitako ezagutza teknikoak kontrastatzeko lekua aurkitzen dute Amayuelasen, eta eskola porrota izan duten gaztetxoek ostalaritza-sektorean lana aurkitzeko trebakuntza praktikoa eta espezifikoa (sukalde-laguntzaile gisa, esate baterako) eskuratzen dute hemen. Lurraldea, hango jarduerak eta hura kudeatzen duten pertsonak trebakuntza herrien garapen jasangarriaren zerbitzura dagoen tresna bihurtzeko baliabide pedagogiko onena izan daitezkeela erakusten dute adibide hauek, besteak beste.



Erronka nagusiak.

Garatu nahi dituzten printzipioak:

- Ekoizle eta kontsumitzaileen SAREA indartzea eta itunak eratzeko kultura hedatzea ELIKADURA-BURUJABETZAREN helburu estrategikoa lortze herri-mailan, baina ikuspegi global batekin. Horrela bakarrik lortu daiteke elikagaiak salgai hutsa ez izatea.



- “Jatekoarekin jolasik ez” kontzeptua eta jatekoak gizaki guztiek eskuratu dezaketen ondasuna izan behar duela defendatzea. “Erantzukizun sozialdun elikagaien” printzipioarekin bat etorritik ekoiztutako janaria banatzea bakarrik. Horixe da bere aurkezpen-txartela (etiketa), eta printzipio hauek ditu:
 1. Eskala txikiko nekazaritza, herrietan bizi diren nekazariekin.
 2. Energia-kostu gutxiko (etiketa ekologikoa izan ala ez) eta modu naturalean ekoiztutako laborantza.
 3. Nekazaritza produktiboa (ez produktibista), garatzen deneko ingurunea zaintzen duena, bide batez.
 4. Lanpostu duinak sortzea, gizakirik esplotatu gabe.
 5. Bertako, garaiko eta gertuko merkatuetako elikagaiak.
 6. Ekoizpenaren benetako kostuak asetzen dituzte eta merkatu konbentzionaleko jokoan sartzen ez diren prezioak.
 7. Kontsumitzaileek parte hartzea bai prezioak finkatzeko garaian bai ekoizpen-lekuen kudeaketa kontrolatzeko garaian.

Erakundeekin lotura.

Plataforma Rural, Vía Campesina, Palentziako eta Valladolideko kontsumo-sarea, Escuelas Campesinas eskolak, Red de Semillas sarea, Colectivos de Acción Solidaria taldeak, Resistencia Campesina, Europako Nekazarien Koordinadora (CPE).

Iraunkortasuna.

Nekazaritza jasagarria, etengabeko praktika gisa:

Proiektuak era askotako zailtasunak ditu: ekonomikoak, lan-zama handia, langileen segidarik eza, udaleko zenbait bizilagunen ezin ulertua, Administrazio publikoaren boikota, etab. Baina, era berean, poz handia ematen digu zenbait proiektu oztoporik gabe aurrera egiten ikusteak.

Jasotako babesei dagokienez, LEADER I eta II programako laguntza jaso dugu (kobratzeko atzerapenak dakartzan finantzazio-arazo guztiekin), baina, dena den, ekarpen pribatuak izan dira oinarri ekonomiko nagusia. Bazkide askoren parte-hartze txikien bidez eta enpresek beraiek egindako jardueren bidez jaso dira ekarpenok.

Zenbatzen oso zailak diren, baina, zalantzarik gabe, berebiziko garrantzia duten bestelako laguntzak ere jaso dituzte. Ingurutik bertatik nahiz nazioartetik etorrita, beren ideia, lan, kulturartekotasun eta informazioarekin lagundu duten pertsona, kolektibo, erakunde eta sareekin izandako harremanaz ari gara.

Mahai baten inguruan pentsatu eta gero martxan jarria izan den proiektua ez izateak balio erantsia ematen dio Amayuelasi, izan ere, gauzak guztiz bestela egin baitira: zailtasun zehatz batzuei erantzun beharrak ekarri du halako eta halako jarduerak egitea eta gero egindako lana berrikusi eta gogoeta horretatik plan berriak proposatzea. Proiektu honek ez luke “bideragarritasun-azterketa” burutsurik jasango seguruenik, baina, halere, egia da ezin konta ahala kaxoi daudela egin gabeko ideia bideragarriez beteta. Garrantzitsuena martxan jartzea dela uste dute herrian, bidea ibiliaren ibiliaz egiten dela, lortu nahi dena argi izanez gero.

Ingurumenari eta nekazaritzari lotutako kulturaren errotutako oinarri zientifiko bati jarraiki, natur baliabideak beste modu batera ekoizten eta kudeatzen saiatzen dira: hondakin solido eta likidoak bilduz, nekazaritza- eta abeltzaintza-ekoizpen tradizionalak ekologiko bihurtuz, bertako hazi eta arrazak berreskuratuz, energia berriztagarriak erabiliz, autokontsumora iristen ahaleginduz eta soberakinak merkaturatuz... Hori guztia zenbait aurrerapen teknologikori muzin egin gabe.



Erakundearen izena: Cooperativa de costureiras Unidas Venceremos (UNIVENS)

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena.

Lekua: Porto Alegre, Ríó Grande do Sul, Brasilgo hegoaldea

Posta elektronikoa: cooperativaunivens@ig.com.br

Posta helbidea: Rua Affonso Paulo Feijo 501, barrio Sarandi, Porto Alegre, Rio Grande do Sul. CEP: 91140-070.

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 26 (24 emakume eta 2 gizon)

Jarduerak hasteko urtea: 1996

Sarrera.

Unidas Venceremos (UNIVENS) jostunen kooperatiba Porto Alegreko aurrekontu parte hartzaileetan sartuta zeuden bizilagun talde batek sortutako elkarte-lan solidarioan oinarritutako esperientzia bat da (dossierrean ikus daiteke Porto Alegreko aurrekontu parte hartzaileen fitxa).

Bere lana sindikatu, elkarte sozial, eskola eta ekonomia solidarioko foro eta espazioetan zabalduz, merkaturatze-lotune egonkorak eraikitzea lortu zuen UNIVENSEk, kamiseta eta serigrafien produkzioa nabarmenki handituz. Gainera, hasieran eginkizun sozial bezala egiten zuen elikagaien prestaketa azkenean kooperatibaren beste ekintza ekonomiko bat bilakatu zen.

Urte askoz etengabe lanean aritu ondoren, UNIVENS kooperatiba herrialdeko erreferentziazko ekimen sozioekonomiko bihurtu da: beste ekimen solidario askorekin batera lan egiten du eta Brasilgo ekonomia solidarioaren esparruan zeresanik badauka.

Jatorria.

UNIVENS Porto Alegreko periferian dagoen auzo bateko bizilagunek osatzen dute. Emakume hauek taldeka konpondu nahi izan zuten denek zeukatzen arazoa: ordaindutako lanpostu finko bat izatea. Langabeziari eta ekintza irregularren bitartez lortutako diru-sarrera eskasei alternatiba bat bilatzeko, Conceição ospitalearen jantzigintza beharrak betetzeko aurkeztu zuten beraien burua. Hautagai izateko legalki aintzatetsiak behar zuten izan eta horrexegatik hain zuzen eratu zuten kooperatiba.

Ez ziren hautatuak izan ospitalearen jostun izateko, baina elikagaien hornitzaile gisa ere aukera zeukatela ikusi zutenean, kooperatibaren hasierako ekintza eremua zabaldu eta "multimixtura" izeneko elikadura-osagarri bat ekoizten hasi ziren. Honi esker, ospitalearen hornitzailetzat hartu zituzten.

Jarduera.

UNIVENS kooperatibak 3 ekintza ekonomiko desberdin egiten ditu: jantzigintza, serigrafia eta sukaldaritza. Funtsezko ekintza emakume eta gizonezkoentzat kamisetak enkarguz eta segida handietan egitea da. Horrez gain, banderak, poltsak, kapelak, txakurren oinetakoak, estatuko *Centrais de Abastecimento* - CEASako langileen txalekoak eta bestelako enpresen uniformeak egiten dituzte. Beraien jantzi-produkzioaren bezerorik garrantzitsuenak elkarte sozial, kultural eta politikoak, sindikatuak, eskolak eta klubak dira.



Serigrafia eta broderia zerbitzuak barnean hartu zituztenetik, ehun produktu horiek pertsonalizatzeko gai dira, erakundearen izenak, leloak edo irudiak gehituz.



Azkenik, aipatutako ospitalerako elikagaiekin arrakasta izan zutenez, janarien prestakuntzan jarraitzea erabaki zuten eta ekitaldietan eskaintzeko gatzdun gailetak, aperitiboak eta pastelak egiten hasi ziren.

Parte-hartzaileak.

Esperientzia honen parte hartzaile gehienak Porto Alegreko iparraldean dagoen Sarandi auzoko *Vila Nossa Senhora Aparecida*-ko emakumeak dira. Kooperatibarekin hasi ziren emakumeak auzoko aurrekontu parte hartzaileetan eta Vilaren garapenerako zenbait inizatibetan sartuta zeuden. Beraietariko batek ere ez zeukan lanpostu finkorik, beraz, lan eta diru sarrerak lortzeko zuten beharra batera konpontzea erabaki zuten.



Gaur egun kooperatibak 26 bazkide biltzen ditu, horietariko bi gizonak direlarik. Taldean adin desberdinetako pertsonak daude, 18 eta 70 urte-tartean denak. Kide guztiek auzoan bizitzen jarraitzen dute.

Erakundeekin lotura.

Azken urteotan kooperatiba guztiz murgildu da Brasilgo ekonomia solidarioaren eremuan, gero eta erakunde eta elkarte gehiagorekin harremanak izaten joan den neurrian. Esan bezala, UNIVENSEn jatorria Porto Alegreko partaidetza aurrekontuekin lotuta dago eta hasieratik izan du lotune estua auzoko eta herrialdeko garapen komunitarioarekin. Halaber, ekonomia solidarioarako hiriko eta estatuko foroetan partaide da eta Brasil osoko ekonomia solidarioarako foroan Rio Grande do Sul estatuaren ordezkari bezala dago (ikus mesedez dossierrean dagoen *Foro Brasileiro de Economia Solidária* – FBESen fitxa). 700 erakunde sozial eta solidario bateratzen dituen kooperatiba eta enpresa ekimenen zentrolean ere badaude (begiratu UNISOLEn fitxa dossierrean).

Munduko Gizarte Foroaren antolaketan parte hartu zutenez, kooperatibak egin ditu, beste enpresa ekimen batzuekin batera, Porto Alegren ospatutako foroetan banatu ziren poltsak eta kamisetak. Eskaera honi aurre egiteko UNIVENSEk ehungintza sektoreko beste 5 ekimenekin lankidetzat hitzarmen bat sinatu zuen eta hortik atera zen *Justa Trama* ehun kate solidarioa (fitxa dossier honetan ikusgarri ere).

Gaur egun *Justa Trama* kotoi ekologikoz egindako jantziak ekoizten dituen bigarren mailako kooperatiba bat bihurtu da. Bere ekintzek kotoiaren kate-maila guztiak barnean hartzen dituzte eta Brasilgo estatu desberdinetan dauden 5 enpresen esku daude: kotoia Ceará hazten da, irundegiak eta ehundegiak Minas Gerais daude, jantziak Rio Grande do Sul eta Santa Catarinan egiten dira eta osagarriak Amazoniako ekoizleek hornitzen dituzte.

Bestalde, ekintza produktiboen hasiera eta garapenari dagokionez, UNIVENSEk Conceição ospitaleko teknikarien aholkularitza jaso zuen “multimixtura”ren ekoizpenerako, IOCHPE-k (lehen Massey Ferguson enpresak) makinak eman zizkion, CAMP hezkuntza popularrerako zentruak bestelako ekipoak erosteko diru laguntza eman zion, Caritas Regionalaren eta Fundazio Luteranoaren laguntza ere jaso zuen. Horrez gain, *Secretaria Municipal da Produção, Indústria e Comércio* -SMIC udal idazkaritzak





jantzigintza eta serigrafia arloetan lanbide trebakuntza kurtsoak ahalbideratu zituen. Kooperatibak tokiko garapena sustatzeko egindako ekarpenen artean hezkuntza popularra praktikatzen duen eskola baten sorrera ere aipatu behar da. Azken urteotan UNIVENS *Nova Geração* zentro sozialarekin ari izan da lanean eta *Nova Geração* kooperatiba sortu dute hezkuntza zerbitzuak eskaintzeko. Komunitateko edozein ume eta elkarteetako bazkide diren pertsonen seme-alabak joan daitezke 2 eta 10 urte-tarteko umeak onartzen dituen eskola honetara.

Lorpenak.

Kooperatiba herrialdeko ekimen sozioekonomiko erreferente bat bilakatu da, oso zabala eta askotarikoa den bezero-zorroa irabazi duelarik.

Erreserba moduan aurreztutako eta kooperatibak irabazitako diruei esker, 2005ean beraien lokala izatea lortu zuten. Bertan leku nahikoa zuten tresneria eta makinentzat eta baita intsumoen eta amaitutako produktuen stockak gordetzeko ere. Honek prozesu produktiboa askoz arinagoa izatea ahalbideratu zuen. Langile guztientzat lekua egotea beste abantaila bat zen, horrela denek partekatzen zuten ordutegia antola zezaketen eta batera egin zezaketen lan (lehen, ordea, emakume asko etxetik lan egitera behartuta zeuden). Azkenik, positibotzat jo zuten bezeroenganako eta hornitzaileenganako garatu zezaketen harreman berria, nahi izanez gero hurbiletik eta zuzenean ikus zitzaketelako produktuak.

Urte beran (2005) Munduko Gizarte Foroarentzat poltsak eta kamisetak ekoizten eta hornitzen hasi ziren. Geroztik, kooperatibak sindikatu eta mugimendu sozial anitzen hornitzaile bezala jarraitu du, hau bihurtu delarik bere “merkatu-txoko” berezia.

Iraunkortasuna.

Urte batzuez lan neketsua egin ostean, kooperatibak alde batera utzi zuen hasierako à façon ekoizpen metodoa, non bezeroek hornitzen zituzten lanerako intsumoak, eta gero eta bezero finko gehiago izatea lortu zuten. Horri esker, kooperatibak nolabaiteko egonkortasuna lortu zuen eta bai bere diru-sarreraren bai kooperatibisten erretiroen aurreikuspen bat edukitzera heldu zen. Erakundearen iraunkortasuna bermatzen duen aurrerapauso hau bere jantzien kalitateari zor diote, baina baita langileek, talde identitatea inoiz galdu gabe eta printzipio kooperatibo eta solidarioak jarraituz, epemugak mantentzeko hartu duten kontu handiari eta kontaktuak eta elkarlanak egiteko erakutsi duten trebetasunari ere.



UNIVENSen barne-antolaketari dagokionez, Partaidetza Aurrekontuen tokiko foroan ikasitako dinamika demokratiko eta parte hartzaileek kooperatibaren baitan autokudeaketa praktiken erabilpena erraztu dute. Izan ere, emakumeek aurretiaz bizi izandako esperientzia horri esker, beraien konpromisoa handiagoa izan zen eta eztabaidatzeko momentuetan askatasunez iritzia emateko eta argudiatzeko kemena zuten.

Erronka nagusiak.

UNIVENSEko kideek diotenez, esperientziaren hasieran aurkitutako erronka nagusien artean funtzio administratiboak eta kudeaketa egin ahal izateko ikasi behar izan zuten guztia dago. Ardura horiek bereganatzeko garaian kide guztien arteko elkarriketa luzeak mantendu zituzten, denon partaidetza eta proiektu autokudeatuarekiko konpromisoa argi geratu arte.

Bestalde, ekonomia solidarioko beste erakunde askok bezala, zailtasunak dauzkate inbertsioetarako finantzaketa lortzeko orduan. Hau dela eta, identifikatutako erronken artean ekonomia solidarioko ekimen guztiei zabal daitekeen bat dago: erakunde mailegu-emaeleen eta gizarte osoaren konfiantza irabaztea.



Erakundearen izena: *Comunidad Organizada* zerbitzu publikoen kooperatiba
Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena - Azpiegitura zerbitzuen hornikuntza.
Lekua: Moreno. Buenos Aireseko periferia. Kokaleku ezegonkor eta prekarioen eremua – Argentina.
Posta elektronikoa: comunidadorganizada@yahoo.com.ar
Posta helbidea: Av. Derqui 6669 Moreno, Argentina, C.P.1744
Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 41 erakunde sozial.
Jarduerak hasteko urtea: 2001

Sarrera.

Comunidad Organizada 41 erakundez osatutako sare bat da Buenos Aireseko periferiaren ipar mendebaldera. Erakunde hauek helburuak, ekintzak eta funtzioak koordinatzen dituzte beraien artean tokiko biztanleen bizi kalitatea hobetzeko asmoz. Beraien helburuetariko bat auzoetako azpiegitura eta zerbitzu komunitarioak indartzea da, proiektuen bitartez. Lehenengo proiektua Morenoko Cuartel Quinton dauden 5 auzotan gas naturalaren banaketa zabaltzeko eta gas instalazioak 4000 familien etxeetan ipintzeko egin zen. Erakunde honek hiritarren partaidetza sustatzeko espazio alternatiboak eratu nahi ditu, bide horretatik abiatuz identifikatu eta asetu ahal izateko estatuak ez merkatuak betetzen ez dituzten beharrak.

Jatorria.

Comunidad Organizada pobrezia nagusi den Buenos Aireseko periferian dagoen herrietariko baten bizitza kalitatea hobetzeko sortu zen. 1990.eko hamarkadan eta mende honen hasieran eremu honen funtsezko ezaugarria langabezia, etxebizitza prekarioa eta eskola-uzte tasa altuak ziren.

Testuinguru honetan, gizarte zibiletik erakunderen batzuk atera dira populazioaren bizitzan eragina duten arazoetan lan egiteko. *Comunidad Organizada* inizatiba bereziki deigarria da eremu zehatz batetan, populazio berberaren alde diharduten 40 erakunderen ahaleginak eta baliabideak koordinatzen dituelako. *Comunidad Organizada*ren barne oinarriko elkarteak, eskolak, kooperatibak, fundazioak, kirol klubak, elizak, kultura elkarteak eta abar daude.

Jatorrizko ideia *El Colmenar* elkarte eta *Pro Vivienda Social* fundazioaren deialditik atera zen. Hauek izan ziren erakunde sustatzaileak, komunitateko erakunde txikiagoei deialdia luzatu eta lanean estuago hasteko proposamena egin zutenak.

Jarduera.

Sarearen helburua partaidetza espazioak zabaltzea da gabezia dauden auzoetako pertsonen bizimodua hobetzeko proiektu komunitarioen bidez. Helburu honekin egindako lehenengo saioa *Cuartel Quinto*ko bost auzotan gas naturalaren banaketa hobetzeko eta zabaltzeko asmoa zuen proiektua izan zen. Kudeaketa sozialean oinarritutako eredu honen asmo orokorra baliabide ekonomiko eskaseko komunitateei zerbitzu publikoak heldu araztea da.

Erakundeak auzokide guztiak deitu zituen proiektuaren azalpena emateko eta partaidetza eskatzeko. Aldi berean, komunikaziorako bide iraunkorrak zabaltzeko, lanen bilakaeraz eta erakundearen ekintzez informatzeko.



Guzti hau ahalbideratzeko aktore publiko eta pribatuak lotzen zituen fideikomiso bat sortu zen.

Lan honen bitartez gas banaketarako 70.000 metro hodi baino gehiago eraiki ziren. Eremu horretan bizi diren 4.500 familietatik, 2.786k badute gaur egun gas naturala beraien etxeetan.

2001. urtean inizatiba honek Banku Mundialaren “Development Marketplace” lehiaketan pobrezia-erabileraren gutxipenarekin erlazionatutako ideia berritzaileen saria jaso zuen. Sari hau esperientziaren finantziatorako erabili zen.

Parte-hartzaileak.

Comunidad Organizada lehendik lanean zebiltzan elkarte sozialen bilgune bat da. Erakunde bakoitzak bere egitura, helburu eta eginkizunak ditu. Bi erataria har daiteke parte bilgunean, erakunde bakoitzaren konpromisoaren arabera:

- “kide” diren erakundeek *Comunidad Organizada*ren proiektu eta ekintzekin konpromiso handia hartuta daukate;
- “atxikitutako” erakundeek proiektu batzuk laguntzen dituzte baina ez daude espazioan erabat sartuta.



Nahiz eta, lehen esan bezala, El Colmenar elkarte⁸ eta Pro Vivienda Social fundazioa⁹ izan *Comunidad Organizada*ren erakunde sustatzaileak, badaude erakunde guztientzako zabalik dauden erabaki-espazioak ere.

Erakundeekin lotura.

Comunidad Organizada Moreno, José C. Paz, San Miguel eta Malvina Argentinarreko erakunde desberdinek bultzatzen duten *Movimiento por la Carta Popular*-aren barne dago. Mugimendu honen asmoa demokrazia parte hartzailea lortzea da, auzoetako biztanle eta instituzioen arteko elkarrizketa sustatzea benetako beharrak zeintzuk diren identifikatzeko eta beraien asebetetzeko modu egokiak bilatzeko. Mugimenduaren helburuen artean auzokideak lan publikoen diseinuan, gauzatzean eta kontrolean murgiltzea da. Iniziatiba politiko honen bitartez baliabideen erabilpena hiritarren irizpideen arabera zuzentzeko aukera dago, demokrazia parte hartzailearen mekanismoak ezartzea lortzen bada.

Gas naturalaren banaketarako lanak bermatzeko *Fideicomiso Redes Solidarias* diru zorroa eratu zen, *Gas Natural BAN* enpresa, *Desarrollo Social de la Nación* ministerioa, Buenos Aires probintziako gobernua, Morenoko udala, Banku Mundiala eta FONCAP-aren¹⁰ artean.

⁸ Elkarte hau 1990. hamarkadaren erdialdera sortu zen Morenoko gunea Cuartel Quinto bezalako urruneko auzoekin lotzen zuen garraio publiko ezaren arazoa konpontzeko. Beste garraio enpresak ez bezala, elkarte honek ez du irabazi-nahirik eta hasieratik, komunitate proiektuen garapenera lotu du bere baliabideen kudeaketa, *nización y gestión de recursos*.

⁹ Pro Vivienda Social fundazioa 1992an sortutako irabazi-nahirik gabeko erakunde bat da. Bere helburua diru-sarrerak eskaseko sektoreen etxebizitzak eta bizi-baldintzak hobetzea da, auzokideen ahalmenak indartzeko egiten dituzten proiektuen bitartez finantziarioa eta aholkularitza eskaintzen dutelarik.

¹⁰ FONCAP (Fondo de Capital Social) erakunde publiko-pribatu bat da zeinen eginkizuna Argentinan mikrofinantziak sustatzea den. Horretarako, ekonomikoki ahul dauden mikroenpresari edota ekoizle txikien esku zerbitzu mikrofinantzarioak ipintzen ditu, bitarteko erakundeak erabiliz baliabide, jakiturien eta ahalmenen transferentzia egiteko.



Lorpenak.

Gas naturala etxean edukitzea lortu duten 2.786 familien onura zuzenaz aparte, azpiegitura lan honek eragin onuragarria izan zuen bertan enpresa inizatibak zeuzkaten guztiengan. Alde batetik, lanpostuak sortu zituen iturgin, igeltsero eta estaldurak egiten dituztenentzat, besteak beste. Bestalde, ekoizpen kostuak beheratu zitzaizkien janariak prestatzen dituzten mikroenpresariei eta beraien produktuen ekoizpenean (zeramika, pizza, ogia...) gasa erabiltzen dituztenei.

Sasoi honetan lortutako emaitza positiboez gain, badaude auzoko familien antolakuntzari eta antolakuntzaren sendotzeari esker egin ahal izan diren proiektu berriak, hala nola kaleen seinaleztapena, edateko uraren zerbitzuarena eta estolden sareena.

Esperientzia hau oso positibotzat jo dute beste auzo batzuetan antzerako praktikak egin nahi dituzten erakundeek ere.

Iraunkortasuna.

*Comunidad Organizada*k gauzatutako esperientzia komunitatearen antolaketa ahalmenaren garapena bideratzen du, bere beharrak definitu eta estatuak ez merkatuak ematen ez dizkien erantzunak asmatzeko. Hortik abiatuz, demokrazia partizibatiboaren tresnen bitartez, elkarrekin sozialak eta biztanleak tokiko garapen prozesuen euskarri bihurtzen dira.

Erakunde honek konfiantza, elkar babesa eta etengabeko komunikazioa ditu printzipio gisa bere funtzionamendurako; izan ere, printzipio horiek ematen diote esperientziari iraunkortasuna. Esperientzia gidatzen duten baloreak gardentasuna, solidaritatea eta denok barnean hartzen dituen partaidetza dira. Partaideen iritziz, balore hauen erabilpenari esker erabakiak hartzeko uneetan mekanismo eraginkorrak topatzea eta martxan ipintzea lortu dute.

Erronka nagusiak.

*Comunidad Organizada*ren erronkak komunitateak berak adierazten dituen itxaropenekin lotuta daude. Oro har, *Cuartel Quinto*ko biztanleen bizi-kalitatea igotzeko posibilitatearekin lotuta daude eta, zehazki, gas sarearen hedapenarekin eta bestelako azpiegituren lorpenarekin dute zerikusia (estoldak, edateko ura, argiztapena, kaleen galtzadatzea...).

Bestalde, *Comunidad Organizada*k zailtasunak dauzka barne dituen erakundeen partaidetza dela eta. Hauetariko batzuk ez dute inolaz ere parte hartzen, beste batzuk noizbehinka bakarrik. Horrexegatik, *Comunidad Organizada*ren egungo erronka garrantzitsuenen artean elkarrekin konpromisoa sendotzea dago.



Erakundearen izena: “Unión Solidaria de Trabajadores” lan-kooperatiba mugatua.

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena.

Lekua: Buenos Aireseko (Argentina) Metropoli Eskualdeko periferia.

Posta elektronikoa: comunicacionust@gmail.com

Webgunea: <http://unionsolidariadetrabajadores.com/>

Posta helbidea: Ortega y San Vicente S/N° Villa Dominico, Avellaneda, Provincia de Buenos Aires. Argentina.

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 97 langile.

Jarduerak hasteko urtea: 2003

Sarrera.

Unión Solidaria de Trabajadores (UST) kooperatiba langileek berreskuratutako enpresa bat da. 2003az geroztik lan autogestionatuko eta komunitate-garapeneko esperientzia aberatsa ari da garatzen, lehen lan egiten zuten enpresa kapitalista itxi eta gero langileek ekoizpen-jarduerak (lursail handi baten mantenua eta hiri-hondakinen tratamendu eta kudeaketa) berriz ere martxa jarri eta gero. Urteotan lanpostuak berreskuratzea lortu dute eta lanpostu berriak sortu dituzte komunitateko gazteentzat. Horrekin batera, era askotako jarduera eta zerbitzu sozialak antolatu dituzte auzoa garatzen laguntzeko, esperientzia honen alderdi berezi eta berritzaileena izanik hori.

Jatorria.

UST kooperatiba 2003an sortu zen, Argentinako talde ekonomiko handienak (Techint) 140 langileko (gizonak denak) enpresa bat ixtea erabaki zuenean. Buenos Aires Hiriko eta Buenos Aires Handiko hegoaldeko barruti handi batean sortutako hiri-hondakin solidoak jaso, transferitu eta kudeatzeaz arduratzen zen enpresa hori. Langileen ordezkarien batzordea buru zutela, enpresaren lurak okupatzea erabaki zuten berrogei lagunek, eta auzoko familia askoren laguntzarekin poliziaren errepresioari eta handik botatzeko ahaleginei aurre egitea lortu zuten. “Unión Solidaria de Trabajadores” lan-kooperatiba mugatua eratu zuten berehala. Formula juridiko hori erabiliz, eta 24 urteko esperientzia oinarritzat hartuta, beren zerbitzuak eskaini zizkieten CEAMSEri, Villa Domínico izeneko hondakinak kudeatzeko zentroaz arduratzen zen Estatuaren sozietateari. Hilabeteetako borroka eta gero, urtebeteko kontratua sinatu zuten CEAMSEk eta kooperatibak, hondakinak kudeatzeko zentroa itxi ondoreneko mantenu-lanak egiteko, Villa Domínico ingurumen-komplexua garatzeko asmoz. Orduz geroztik, kooperatibak lanean jardun du, oso emaitza onekin gainera: USTrengan jarritako konfiantza berritu du CEAMSEk eta zerbitzu gehiago kontratatu dizkio, hazten jarraitzeko aukera emanaz horrela.

Jarduera.

Kooperatibaren jarduera ekonomiko nagusia, diru-sarrerarik gehien ematen diona, ingeniariaritzaren sanitarioko zerbitzua eta berdeguneak sortu eta mantentzeko zerbitzua dira. Langile espezializatu eta trebatuak dauzka lan horiek egiteko.

Dena den, halako zerbitzuak eskaintzeaz gain erakundea kokatuta dagoen herriaren eta auzoaren garapen komunitarioan laguntzen duten era askotako proiektu eta jardueretan parte hartzen du kooperatibak etengabe.



Antolatutako jarduera horien artean honako hauek aipatu ditzakegu:

- Kirol anitzeko estadio bat eraiki dute. Bertan kultur arloko (musika-, plastika- eta dantza-tailerrak, besteak beste) eta kirol-arloko jarduerak (futbola, gimnastika, eskubaloia, boleibola) antolatzen dira, eta auzoko ehunka hurrek, gaztek eta helduk parte hartzen dute.
- Helduentzako batxilergo herrikoia antolatu dute, eta gaur egun ehundik gora ikasle dabilta lehen eta bigarren zikloetan.
- Banketxe sozial bat sortu dute, Banquito Popular de la Buena Fe izenekoa, Argentinako Gizarte Garapenerako Ministerioarekin elkarlanean. Mailegu txikiak ematen ditu banketxeak bermerik eskatu gabe, eta gehienbat auzoko emakumeek bultzatutako 50 ekimen produktibo bultzatu dituzte.
- Erabiltzen ez diren lursailak berreskuratu dituzte nekazaritza ekologikoko proiektu bat martxan jarri eta auzoa baratzeko produktuez hornitzeko.
- Etxebizitzak hobetu eta eraiki dituzte etxebizitza-arazoak dituzten auzoko familientzat. Kooperatibako zenbait kide “El Hornero” etxebizitza-kooperatibako bazkide dira, komunitateko kideekin batera.
- 60 gaztetxo eta 36 heldu eskolaratzen eta lan-mundurutzen lagundu dute “Envi3n” eta “Argentina Trabaja” programa publikoen bidez. Ikasketak amaitzen dituztela ziurtatzea eta auzoetako azpiegiturak hobetzeko jarduerak egitea dira programa horien helburu nagusiak.
- *Pluma cooperativa* egunkaria kaleratzen dute eta irrati-programa bat egiten dute Universidad Tecnol3gica Nacional irratian.
- Horrez gain, lehen arretarako osasun-areto baten eta janari-denda herrikoi baten eraikuntza bukatzeaz daukate. Instalazio horiekin auzoko biztanleen beharrei erantzuteko asmoa daukate.

Jarduera gehienak beste erakunde sozial batzuekin, gobernu-erakundeekin (udalekoak, probintziakoak eta nazionalak) eta auzoko bizilagunekin elkarlanean egiten dira.

Era berean, langileek berreskuratutako beste enpresa batzuekin koordinatzen ditu bere jarduerak USTk eta Langile Autogestionatuen Elkarte Nazionala (ANTA) sortzen lagundu du CTA sindikatuaren barruan.

Parte-hartzaileak.

- Gaur egun 97 lagunek osatzen dute kooperatiba: 57 elkarteko kideak dira eta beste 40 “bazkide izateko hautagaiak”. Behin betiko bazkide izaera eskuratu aurretik hautagai figura sortzea erabaki dute, USTk bultzatzen duen lanarekiko eta proiektu komunitarioarekiko konpromisoa erakutsi dezaten hautagaiak proba-aldian dauden bitartean.



- Elkarteko kide guztietatik **bi bakarrik dira emakumezkoak** (zerbitzuen adar honetako lan-taldeak eratzeko inertiaren eta herentziaren ondorioz).
- Kooperatibako bazkide gehienek aurreko enpresan lan egiten zuten eta esperientzia eta ezagutza sakona dute enpresaren jardura nagusia behar bezala egiteko.



- UST kooperatibak bazkideen batzarrak aukeratutako administrazio-kontseilu bat dauka. Kontseiluko kide asko aurreko langileen ordezkarien batzordeko kideak dira, eta beste batzuk geroago proiektuarekin bat egin duten langileak.
- Jarduera komunitarioetan kooperatibako kide ez izan arren, bazkide gisa parte hartzen duen jendea ibiltzen da: batxilergo herrikoiko irakasleak, adibidez. Azkenean, kooperatibako “eskubide osoko bazkideak” baino askoz gehiago dira esperientzia zabal honetan parte hartzen dutenak.

Erakundeekin lotura.

Kooperatiba honentzat lehentasunezkoa da beste erakunde batzuekin elkarlanean jardutea. Koordinazio, egituratze eta eraikuntza kolektiboko lanak hainbat arlotan egiten dira:

- Autogestioa eta kooperatibismoa: kooperatibak erakunde hauetan parte hartzen du aktiboki: ANTAN (USTko presidentea langile autogestionatuen sindikatu horretako idazkari nagusia da), Lan Kooperatiben Federazioan eta ekonomia sozial eta solidarioko herri- eta estatu-mailako hainbat saretan.
- Komunitateko antolakundeak: Wilde Este-ko Auzo Erakundeen Mahaian eta auzoko Eskola Sarean parte hartzen du kooperatibak eta ekimen horiek sustatzen ditu.
- Kudeaketa sozialeko eskolen eta hezitzaile herrikoien sarean parte hartzen du, halaber, Arbolito batxilergoaren bidez eta batxilergoetako eztabaida-guneen bidez.
- Estatuarekin: “langile autogestionatu” kategoria errekonozitzen dituzten legeen alde egiten du lan: udal-gobernuarekin harremanetan dago lan-programa batzuk eta garapen soziala lantzeko, eta programa nazional batzuetan ere parte hartzen du.



Lorpenak.

Esperientzia honen eragin eta garrantzia baloratzeko, elkarren osagarri diren hainbat alderdi hartu behar ditugu kontuan:

- Hondakinak tratatu eta gero kudeatzeko lursaila mantentzeko eta atontzeko lanek (betelan sanitarioen bidez) eskualdeko ingurumena leheneratzen laguntzen dute.
- Langileen antolaketa autogestionatuari esker lehen zeuzkaten lanpostuei eutsi eta berriak sortu ahal izan zituzten, lan-baldintzak hainbat alorretan hobetzearekin batera: laneko segurtasunean, langileek ekoizpen-prozesuan parte hartzeari dagokionez...
- Antolatzen dituen ekimen komunitario ugarien bidez haur, gazte eta helduen gizarteratzea, eskolaratzea eta lan-munduratzea sustatzen du USTk, auzoko familien bizi-maila modu integralean hobetu eta komunitatearen batasuna sendotzearekin batera.
- Langile autogestionatuen mugimendu sozial gisa eratzeko dakarren bultzada eta aitzindaritzari esker, pertsona guztientzako bizimodu egokia bermatuko duen ekonomia alternatiboa eraikitzen laguntzen du USTk.



Iraunkortasuna.

Villa Domínico ingurumen-konplexua mantendu eta garatzeagatik CEMASE¹¹ enpresa publikoari emandako zerbitzuen kobrantzan jasotakoa da egitasmo honen finantza- eta diru-iturri nagusia. Hainbat urtetarako kontratuak negoziatzen ditu USTk enpresa horrekin, eta behar izanez gero baldintzak birnegoziatu egin ditzakete urtero. Azken negoziazioetan gero eta konfiantza handiagoa lortu da alde bien artean, eta epe luzeagorako kontratuetan pentsatzen hasi dira, betelan sanitarioan egindako lan onagatik, batetik, eta, bestetik, CEAMSEk asko baloratzen duelako kooperatibak egindako lanari esker lortutako garapen komunitarioa eta auzoko bizitzak eta han bizi diren familien bizimoduak izandako hobekuntza.

Epe luzerako proiektu bat sortu du kooperatibak, auzoarekiko harremana izanik proiektu horren oinarri nagusia. Auzoko biztanleen babesa oso garrantzitsua izan zen langileek lursaila okupatu zutenean, bota nahi zituztenean tinko eutsi zutenean eta, oraindik diru-sarrerarik sortu ez eta lanean berriz hasi zireneko aurreko hilabeteetan. Jasotako babes hori guztia auzoari itzuli nahi dio USTk eta horregatik konpromiso sendoa du auzotarren bizimodua hobetzeko. Auzoarekin duten lotura eta konpromiso sendo horrek eragina dauka, bestalde, kooperatibak dituen beste erlazio batzuetan. CEAMSEz gain, udal-gobernuak ere errekonozitu eta bereziki baloratzen du kooperatibak egiten duen lana eta, hori dela eta, USTrekin batera jarduten du azpiegiturak jartzeko eta programak aplikatzeko garaian.

ANTA elkarteko beste enpresa autogestionatu batzuen laguntza (elkarrekikoa) eta CTA sindikatuko kide izatea ere garrantzitsua izan da, krisi-garaietan haien babesa jaso baitute.

Azkenik, bizitako esperientziari jarraiki, jasandako oztopo eta gatazka-garaietan langileen artean egondako batasuna izan da proiektuaren euskarri nagusia, kooperatibako kideen iritziz.

Erronka nagusiak.

- Azken urteotan CEAMSErekiko lotura asko hobetu bada ere eta kontratu berriak indar handiagoko posizio batetik negoziatu baziren ere, ezin dugu ahaztu USTren jarraipen ekonomikoa zerbitzuak emateko kontratu horri lotuta dagoela, bete-betean. Hori dela eta, irauteko aukerak sendotzeko baldintzak garatu beharra duela ikusi du kooperatibak eta horretarako sendotu eta hedatu egin behar ditu auzoarekin eta beste eragile sozial eta politikoekin dituen loturak.
- Barne-mailan, kooperatibako administrazio-batzordeko kideek nolabaiteko kezka adierazi dute langileek ez dutelako berdin parte hartzen kudeaketa-lanetan eta proiektu komunitarioetan. Halako proiektu eta jardueretan parte hartzean langileek gaitasun eta perfil berriak garatzen dituzte, eta horrek aberastasun pertsonal eta profesional handia dakar batzuentzat, nahiz eta beste batzuen artean nolabaiteko errezeloak eragin. Batzuen eta besteen arteko desberdintasun horien ondorioz, langile batzuek beren lanaldia luzatu eta "lanaldi normalean" egokituko litzaizkiekeenak baino zeregin gehiago egiten dituzte; beste batzuek, aldiz, ordutegi normala betetzen dute eta une edo proiektu puntualekin baino ez dira konprometitzen.
- Maila nazional-makroan: gainerako enpresa berreskuratu eta lan-kooperatibekin batera, hainbat eskari egiten ditu USTk: lege-aldaketak langile autogestionatuen berezitasuna errekonozitua izan dadin, estaldura handiagoa gizarte-segurantzian eta berme zabalagoak esperientzia hauek iraupena izan dezaten.

¹¹ Buenos Aireseko Metropoli Areako hondakin solidoak garraiatu, tratatu eta kudeatzeaz arduratzen den enpresa. <http://ceamse.gov.ar>



Erakundearen izena: Eko3R, S.Coop

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena.

Lekua: Arrasate-Mondragón, Gipuzkoa. Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) Espainia.

Posta elektronikoa: info@eko3r.com

Webgunea: <http://www.eko3r.com/>

Posta helbidea: San Andres 18, 20500 Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 10 pertsona (5 emakume eta 5 gizon).

Jarduerak hasteko urtea: Enpresa 2009 urteko maiatzak 18an sortu zen, hala ere, 2010 urteko hasieran hasi zen produktua merkaturatzen eta zerbitzua eskaintzen.

Sarrera.

EKO3R lan elkartuko kooperatiba misto¹² bat da, Fagor Taldearen kooperatiba bat, era berean, Mondragon Korporazioaren (MCC) kide. Erabilitako etxeko olioaren bilketa zerbitzu osoa eskaintzen dute. Zerbitzuaren bitartez, inguruko etxe guztietara iristen saiatzen dira, etxeko olioaren birziklatzea errazteko; oso kutsakorren eta agure gizartean maiz aurkitzen den hondakina. Murriztu, berrerabili eta birziklatu (3R) olio-hondakinak biodieselean edo beste produktu berri batzuetan eraldatuz, beti ere garapen iraunkorra eta ingurumenaren zaintzarekin kolaboratzeko helburuarekin. Etxeko olioaren birziklatzeak gure natura ingurunearen kutsadura ekiditen laguntzen du, kontutan izan behar da *“etxe batean batezbesteko hilero litro bat olio botatzen dela kalkulatzen da, 1000 litro ur kutsatzera iritsiz”*.

Jatorria.

Lan elkartuko kooperatiba misto bat da, Fagor Taldearen kooperatiba bat, era berean, Mondragon Korporazioaren (MCC) kide.

Proiektua duela bost urte inguru jaio zen Arrasate-Mondragonen. Hasierako fasea bezala, Mondragon Unibertsitateako (MU) eta udaletxeko proiektu bateratu bat bezala hasi zen eta ikasleek ikasketa amaierarako proiektu bat bezala planteatu zen; etxeko olio erabiliaren bilketa aurrera eramateko modurik egokiena zehaztu behar zuten. Proiektuaren bitartez, etxe guztietan bilketa egiteko ontzi zehatz bat banatzea beharrezkoa zela egiaztatu zen, eta makina berezi baten beharra ere izango zela. Modu honetan, Arrasateko udaletxea eta unibertsitatearen artean, ontzien eta eduki-ontzien prototipo bat sortu zituzten (hasiera batean eskuz) eta orotara 7 eduki-ontzi jarri ziren. Esperientzi pilotu hau azken hiru urte eta erditan martxan izan eta prozesu guztian zehar Saiolan-en laguntza izan du (Mondragoiko Enpresen eta Berrikuntzaren Zentroa) www.saiolan.com

Esperientzia pilotuak izandako harrera onaren aurrean, bigarren fase bezala merkatuaren ikerketa bat egitea erabaki genuen, honek proiektuaren viabilitatea baieztatu zuen eta 2009 urteko maiatzak 18an, Mondragon Taldea eta Fagorrekin enpresa kooperatiba batean bihurtzea (constituir) erabaki genuen. Esperientzia pilotuan burututako frogaren bitartez, ontzia arinki (ligeramente) aldatu da eta izaera industrialeko bilketarako makina bat diseinatzea lortu da.

¹² Kooperatiba mistoa; 1. Bazkideak dituzten kooperatibak dira, beraien boto eskubidea Batzar Nagusian, modu eskusibo edo lehentasunez zehaztu ahal izango da, estatutuek ezarritako baldintzetan emandako kapitalaren arabera. Titulu edo "anotaciones en cuenta" bitartez ordezkatua izango da eta alde sozialak botoarekin izendatuko dira, balore-merkatuaren legealdi erregulatuarekin baita. Gutxienez 100eko botuen 51 Estatutuek definitzen duten proportzioan esleituak zaie bazkideei, beraien boto eskubidea Lege honen 26 artikuluan zehaztuta dagoen bezala.



Jarduera.

Etxeko olio erabiliaren bilketa zerbitzu osoa eskaintzen dute. Beraien sistema berritzaile eta eksklusiboa hainbat herritan arrakastatsu ezarri eta garatu da, etxe guztietara iritsiz etxeko olioaren birziklatzea errazteko; oso kutsagarria den eta gure gizartean egunean dagoen hondakin bat. Murriztu, berrerabili eta birziklatu (3R) olio hondakinak biodiesela edo beste produktu berri batzuetan eraldatuz (taladrinak, industrial itxurako olioak, xaboia eta beste produktuak), beti ere garapen iraunkorra eta ingurumenaren babesaren alde egiteko helburuarekin.

- **Etxeko olioaren birziklatzea** ingurumeneko eragina minimizatzeko formula bezala.
- Etxeko olioaren birziklatze sistema baten ezarpena, sortutako hondakinen birziklatze, bilketa eta kudeaketa prozesuaren euskarri bezala.

Eko3r zerbitzuaren bizitza zikloa:

Bezero-herriek arduradun bat dute, birziklatze prozesu guztian zehar aldikako moduan aholkatu eta informatzeko helburuarekin. Kooperatiba eta herrien artean komunikazioa bermatzen da.

Hasiera batean, herri bakoitzaren beharren ikerketa pertsonalizatu burutzen dute, eta ondoren, eduki-ontziak jartzen dituzte kokapen egokienetan.

Ondoren, etxe bakoitzean olio erabilia uzteko ontziak banatuko dira. Etxe bakoitzean pote bat dagoenean, hauek olio erabilia biltzeko erabiltzen dira. Ontzia betetzen denean, zerbitzuaren erabiltzaileek, ontzia makinan (eduki-ontzia) uzten dute, unean bertan beste ontzi huts eta garbi bat jasoz.

Ezarrita duten sistemak, makinak betetze puntutik gertu dauden telematikoki adierazten diete. Ohar hauek jasotzen dituztenean, olio ontziak jasotzen dituzte eta azterketa eta mantenu lanak egiteaz arduratzen dira.

Eskaintzen dituzten zerbitzuak:

- Herri bakoitzaren beharrei egokitutako ikerketa bat egitea: eduki-ontzien kopuru eta kokalekua.
- Eduki-ontzien instalakuntza.
- Ontzi espezifikoaren banaketa atez ate.
- Ontzi betearen bilketa eta pote hutsen birjartzea.
- Eduki-ontzia garbi mantendu kanpotik eta barnetik.
- Prebentzio- eta zuzentze-mantenua.
- Gure bezero-herriei aldikako txostenak bidaltzea.
- Bezeroarentzat arreta zerbitzua.
- Eduki-ontzia herriko sinbolo edo anagramekin pertsonalizatzeko aukera.
- Web-extranetaren bitartez informazioa jasotzeko aukera.
- Herriei aholkularitza sentsibilizaio kanpaina edo informazioaren elaborazioari dagokionez.
- Administrazio-tramiteekin laguntza.



Parte-hartzaileak.

- Eko3r-ko langile bazkideak: 7 (3 emakume eta 4 gizon)
- Bazkide kolaboratzaileak: Mondragon inbertsioak eta Fagor S.Coop
- Botoa duten gizarte atalak: Mondragon berrikuntza eta Fagor S.Coop



Lan elkartuko kooperatiba misto bat dira, Fagor Taldearen baitan eta MCC Taldearen barruan dago. %51ko parte hartzea dute 7 bazkide dira, gainontzekoa Fagor-ek du %49.

- **Non daude?**

- Gipuzkoa:** Deba Garaia Eskualdea (Arrasate, Elgeta, Aretxabaleta, Leintz-Gatzaga, Oñati, Eskoriatza, Bergara, Antzuola).

- Araba:** Aramaio, Artziniega.

- Bizkaia:** Iurreta, Gueñes, Garai, Mañaria, Balmaseda, Izurtza, Zaldibar, Berriz, etab.

- Cataluña:** Gelida, San Cebriá, Argentona, etab.

- **Laguntza erakundeak eta Interes Taldeak:**

Baina, interes orokorreko baloreak sustatzea bezalako hain intentsoa den lanak, helburu publiko oso zehatzak kontutan hartzea inplikatzeko du; birziklatzearen prestatzaile, influentziatzaile eta motibatzaileak bezala kolaboratzen dute. Harremana eta erlazioa mantzentzen dugu hainbat ekologista taldeekin (Ekologistak martxan/Ecologistas en acción, Greenpeace, Berdeak-European Greens, WWF-Adena, Lurraren Lagunak, Ekologia eta garapena, SEO-Birdlife, ingurumeneko elkarteak, auzoko elkarteak, kontsumitzaile elkarteak, emakume, jubilatuek, ikasle eta unibertsitari elkarteak, iraunkortasunaren aldeko enpresen elkarteak, olio fabrikatzaileen elkarteak, etab.)

Lorpenak.

- **Murriztu, berrerabili eta birziklatu:** 2010 urtean bitartean 40.500 litro inguru jaso dira (10 herrien artean)

- Arazketan aurreztutako ura:** 40.407.000 litro

- Arazketan aurreztutako energia:** 787.831kw

- Aurrezki ekonomikoa arazketa:** 101.017euro

- **Ontzia beraien alderdi gakoetako bat da,** are gehiago, beraien gotorlekuetako bat da. Beste bilketa sistema batzuk, etxeko olioaren uzteko mota guztietako ontziak onartzen dituzte. Hala ere, material bakoitzaren garbitze prozesua desberdina da, beraz, kasu gehienetan ez da beharrezko garbitasun maila lortzen ontziaren ondorengo birziklatzerako. Erabiltzaileek ontzia behin eta berriz berrerabiltzen dute eta, gutxi gora-behera 4-5 urtetan, birziklatu egiten da materiala bigarren mailako lehengai bihurtuz, ontzi berri bat sortzeko. Modu honetan, ontzi baten bizitza amaiera beste baten hasierarekin ziklikoki erlazionatzen da. Horrez gain, beraien ontziak olioaren bilketan eraginkortasuna %100 lortzen du, ontzian botatzen den olio guztia berreskuratzen baita.

- **Berrikuntza eta hobekuntza jarraia:** biztanleentzat eta udaletxeentzat zerbitzu osoa eskaintzen dute. Birziklatzearen alderdi guztiak kudeatzeaz arduratzen dira: ontzien banaketa, olioaren bilketa, eduki-ontzien mantenua, ontzien birjartzea eta hondakinaren kudeaketa. Produktua eta zerbitzuaren eta birziklatzearen, bere fase guztietan, hobekuntza jarraia bilaketan ezaugarritzen dira.

- **Berziklatutako oliotik lortutako biodiesel:** erabilitako olio litro bakoitzeko biodiesel litro bat lortzen da, honek ingurumenean sortzen duen eragina, petroliotik eratortzen den dieselak sortzen duena baino askoz txikiagoa da. Ondorioz, eragin bikoitza lortzen da: alde batek hondakin kutsakorren bolumena murrizten da eta bestetik, ingurumenaren alde egiten da, sufre konposatuen emisioak gutxiengoak dituen energia iturri baten ekarpena eginez.



Erronka nagusiak.

Gizartea geroz eta kontzientzia gehiago hartzen ari da erabilitako etxeko olioaren birziklatzea egiazko behar bat dela. Erabilitako olioetatik sortutako hondakina, egun, hirietako uren kutsaduraren zergati nagusia da, kontrolik gabeko isurtzearen ondorio zuzena da. Dinamika orokorrak zera erakusten dute, erabilitako etxeko olioaren hustubideetatik gure herrietako estolderia sarera isurtzen da, gure etxe, hiri eta herrietako hoditerian buxadurak eta usain txarrak sortuz. Adibide bezala, biztanle batek urteko 20 litro olio kontsumitzen ditu. Litro horietako 4 bota egiten dira eta ekintza honen efektuak sortzen du:

- Ingurumenari eraso garrantzitsua.
- Hondakin uren arazketan zailtasunaren areagotzea.
- Muga hondakin uren berrerabilpenean.
- Estolderia sistemen mantenurako kostu altua.
- Araztegi estazioen kostu altua.

Kooperatibaren helburuetako bat herrietan, nazio-mailan, enpresaren presentzia areagotzea da.

Erakundeekin lotura.

Herri administrazioekin, ikerketa zentroekin, ekologista elkarteekin, finantza erakundeekin, etab. lotura mantentzen dugu. Kutzarekin akordio bat sinatu dugu etxeko olio erabiliaren birziklapena bultzatzeko Gipuzkoako lurraldean. Erakunde honek, olioaren bilketa sistema bat ezartzea erabakitzen duten Mankomunitate eta Herrieholokularitza eta laguntza ekonomikoa eskainiko die. Akordio honen arrakastaren ondoren, Eko3r-ek beste erakundeekin harremanak mantentzen ditu lurralde eta komunitateetan, estatuko beste herrietan barneratu eta garatzeko.

Iraunkortasuna.

Garapen Iraunkorrek denari eta denoi eragiten dio. Horretarako, sortzen ditugun hondakinaren kudeaketa zuzenagatik velatzea ezinbestekoa da, horien artean erabilitako etxeko olio hondakina. Beraz, ingurumenaren zaintza herritar guztien konpromisoa izan behar du.

Ingurumenaren iraunkortasuna: baliabide naturalak mugatuak dituen mundu batean bizi gara, etorkizunari aurre egitea behartzen gaitu, orain arte bizi izan dugun modu desberdin batean. Gure bizitza estiloak arazo bat sortzen du, baliabideen kontsumoa egungo erritmoetara ez dela iraunkorra aldarrikatuz, giza garapena ekiditen.



Arazo honen aurrean, Eko3r-ek gizartearen behar bati erantzuna ematen dio, gizarte erantzukizuna mantenduz, gure planetaren zaintza eta babesa izanik. Azken finean, guztion betebeharra eta konpromisoa da sortzen ditugun hondakinak ongi kudeatzeko legezko beharra betetzea.

Etxeko olio oso kutsakorra den hondakina da eta giza garapena konpromezuan jartzen du, beraz, ongizatea, bizitza kalitatearen hobekuntza ekiditen.



Etxeko olioaren birziklatzearen ingurumenaren onurak asko dira:

- Uraren guztiz kutsagarria den hondakin baten ezabapena: etxeko olio litro 1ek 1000 litro ur kutsatzen ditu.
- Ur araztuaren berrerabilpena eta hondakin-uren arazketan merkatzea.
- Saneamendu sistemen narriadura eta butxaketan murrizketa.
- Osasunarentzat kaltegarriak diren mikroorganismoen ugaltze probabilitatea txikiagotzea.
- Kanpoarekin dagoen menpekotasun energetikoaren murrizketa.

Eko3R Sozialki arduratsua den enpresa¹³ bat da. Enpresa ekintzara gehien lotuak dauden gure helburuz gain, gure lankide, hornitzaileei, gure familiei eta ingurumenari onurak ematen dizkiete..

Iraunkortasun ekonomikoa:

Entitate autonomiko eta nazional desberdinekin lankidetza akordioekin lan egiten da.

¹³ Enpresa Sozialki Arduratsua: produktiboagoa izaten laguntzen dioten baloreetan oinarritzen den, gizarte, ekonomia eta ingurumen errealitatearen erreferente diren arau eta printzipio multzo batekin betetzen duen enpresa bat da.



Erakundearen izena: El Culebrón Timbal.

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena.

Lekua: Buenos Aires Handiaren ipar-mendebaldea. San Miguel, Malvinas Argentinas, Moreno eta José C. Paz udalak bereziki.

Posta elektronikoa: comunicacion@culebrontimbal.com.ar; info@culebrontimbal.com.ar

Webgunea: <http://www.culebrontimbal.com.ar>

Posta helbidea: Predio La Huella, Ruta 24 (ex 197) eta Baigorria, Parada Pascualone, Cuartel V, Moreno

Jarduerak hasteko urtea: 1997

Sarrera.

Buenos Aires Handiko auzoetan kulturako, komunitate-antolakuntzako eta komunikazioko bestelako eredu bat garatzeko asmoz diharduen produkzio-etxe komunitario bat dauka Culebrón Timbalek. Elkarte honek ekintzak antolatzen ditu hainbat erakunde sozialekin batera eta gazteak eta gaztetxoak komunikazio sozialean eta kultur ekoizpenean trebatzeko proiektu autogestionatua bultzatzen du.

Kulturaren, politikaren eta elkartasunaren arteko erlazioa lantzen dute, aberastasunaren banaketari eta gizarte-eraldaketari buruzko eztabaidan sektore herrikoien artean aukera gehiago sortzeko asmoz.

Jatorria.

Culebrón Timbal 1997an sortu zuten artista, komunikatzaile eta irakasle batzuek, musika, antzerkia, lan grafikoak eta komikiak biltzen zituen arte-talde bat eratuz.

Hasierako talde hori kultur lana egiteko proposamen bat garatzen hasi zen Buenos Aires Handiko udaletan; inguru hartako gazteen arazo sozialei aurre egiteko metodologia bat garatu zuten, halaber. Buenos Aires Handiko kultur zirkuitu solidarioak zabaltzen eta sendotzen saiatzen diren lanak ekoizten dituen erakunde soziala bihurtu zen horrela Culebrón Timbal elkarte.

Jarduera.

Hasiera-hasieratik, gazteak eta gaztetxoak kulturarekin eta komunikazioarekin erlazionatutako lanbideetan trebatzeko jarduerak antolatu ditu elkarteak. Hona hemen jarduera horietako batzuk: komunikazio komunitarioko ikastaroak, "Aguante la Cultura"ko jarduerak¹⁴, Teatro Popular Juvenil (gazteen antzerki herrikoia) antzerki-taldearen sorkuntza...

1999an, arte herrikoirako eskola zabaldu zuten, antzerkia, aste eszenikoetako eszenografia eta plastika, ikus-entzunezkoen ekoizpena, murgak eta musika-ekoizpena irakasteko gazte zein helduei. Gaur egun, 200 bat gazte dabilta eskola horretan, eta eskolako musika-tailerrean Moreno eta José C. Pazeko auzotako berrogeita hamarretik gora gazte ikasten dute abesten eta gitarra eta teklatura jotzen.

Mila inguru kultur sustatzaile eta auzo-komunikatzaile trebatu dituzte orain arte, eta sustatzaile eta komunikatzaile horiek Kultura Solidarioko Sarean parte hartzen dute. Sare horrek kultur ekitaldiak antolatzen ditu José C. Paz, Moreno, San Miguel, Malvinas Argentinas eta Tigre barrutietako bizilagun eta komunitate-erakundeentzat.

¹⁴ "Aguante la Cultura" izeneko ekitaldiak kalean egiten dira, plaza edo espazio publiko irekietan; komunitateko erakundeek eszenatoki bat jartzen dute inguruko artistentzat (musika, dantza, antzerkia, ballet folklorikoak, etab.) egun batez edo bi irauten duten jaialdi hauetan. Irrati bat egoten da martxan, auzoko erakundeen azoka antolatzen dute (bakoitzak bere "stand" a muntatu behar du, auzoan egiten duen lanari buruzko irudi eta grafikoekin), karpa bat jartzen dute gai berezietan buruzko tailerrak egiteko (prebentzioa, hezkuntza-alorrean, osasunean, etxebizitzan, enplegu-alorrean, auzoak hobetzeko ekimenetan herri-erakundeek izandako esperientzia arrakastatsuak...), etab.<0> Horrekin batera, haurrentzako jolasak antolatzen dituzte eta kirol-proposamenak eta ekonomia solidarioko ekimenak (trukea, indioen artisaulanen salmenta, haur-jangelen buffeta...) egiten dituzte. "Aguante la Cultura" guztiak komunitateko erakundeekin batera antolatzen dira, auzo bakoitzarentzat garrantzitsuak diren gaien inguruan. Jaialdiaren aurretik doako tailer irekiak egiten dituzte auzoko bizilagunekin eta hainbat gairi buruzko hastapenak irakasten dira bertan (grafikoak, irratia, bideoa, murga, zeramika, elektrizitatea, elkartasun-lana, etab.). (Iturria: <http://www.culebrontimbal.com.ar>).



Gainera, komunikazio komunitarioko gune bat koordinatu eta bultzatzen du Culebrón Timbalek. Plurimedio horrek atal hauek ditu: La Posta Regional (www.lapostaregional.com.ar) egitasmoa, La Posta Regional izeneko aldizkari grafikoa ateratzen duena aldiro; FM La Posta izeneko irrati hezitzaile eta komunitarioa; eta komunikazio-gaietan trebatzeko eta ekoizpen integralerako zentroa, ikuspegi kultural eta komunitarioa duena, eta zinema, antzerkia, folklorea, murgak, ekitaldi publikoak eta jaialdiak antolatzen dituena.

Parte-hartzaileak.

Era askotako jendeak parte hartzen du esperientzia honetan. Militante sozial eta kulturalak daude, komunikatzaileak, artistak, musikariak eta kolektiboarekin bat eginez joan diren auzoetako gazteak. El Culebrónen ezaugarriak direla eta zaila da esatea zenbat jende ibiltzen den elkartean.

Erakundeekin lotura.

Comunidad Organizada en Cuartel Veko kidea da (ikus dossierra). Posta Regionaleko argitalpen-batzordeko kidea da, halaber, El Colmenar eta Primavera mutualekin batera eta ProVivienda Social, Defensores del Chaco eta Labranza fundazioak, Servicio Paz y Justicia (SERPAJ) erakundearen iparraldeko atala, "El Surco" nekazaritza-eskola, Alternativa 3, "Abriendo caminos" elkartasun-sarea eta Centro de Apoyo Legal Comunitario (CALC) zentroa ekimenetan parte hartzen du.

- Koordinazioa dauka gobernuz kanpoko erakunde hauekin: Asociación Civil Madre Tierra (informazio gehiago dossierrean), Crear Vale la Pena fundazioa, Avina fundazioa, Labranza fundazioa...
- Lotura dauka unibertsitate nazional hauekin: Universidad de General Sarmiento (UNGS), Universidad de Luján (UNLU), Universidad de Quilmes (UNQUI), Universidad de San Martín (UNSAM), Universidad de La Matanza (UNLAM), Universidad de Buenos Aires (UBA) eta Universidad de Palermo(UP).
- Gainera, jaialdi eta ekitaldi komunitarioak antolatzen ditu auzo-elkarteekin eta kultur elkarteekin batera.
- Arterako eta Gizarte Eraldaketarako Metropoli Sareko kide da, beste kultur erakunde eta talde batzuekin batera, hala nola, Catalinas Sur taldea, Circuito Cultural Barracas eta Crear Vale la Pena fundazioa.
- Era berean, harremana dauka lan komunitarioan diharduten erregioko beste erakunde batzuekin: Quilmes, San Isidro, Morón, Merlo eta Morenoko gotzaindegiekin, eta Buenos Aires probintziako eliza eta erakunde ekumenikoekin eta kooperatiba eta mutualekin.



Lorpenak.

Gazteak eta gaztetxoak komunikazio- eta kultur arloko lanbideetan trebatzeaz gain, "La Posta Regional" izeneko plurimedioa jarri zuen martxan elkarteak. Culebrón Timbalek azpimarratzen duenez, ez da multimedio bat, komunikazio komunitariorako plurimedio bat baizik. Bere kudeaketa plurala da plurimedio horren berezitasun nagusia: bizilagunak, gazteak, erakunde sozialetako, eskoletako eta osasun-etxeetako ordezkariak aldiro elkartzen dira eta denen artean kudeatzen duten FM irratiak, Canal 3eko La Posta TV, La Posta Regional Cruce Derqui hamaboskaria eta La Posta berri-agentzia.



2004an sortutako FM La Posta irratia nabarmendu behar dugu. Herri Gutunaren aldeko Mugimenduak eta Auzoen Kultur Karabanak bultzatuta sortu baitzen. (Ikus komunitate antolatuaren dossierra). Sare horrek bultzatzen duen mezu nagusia da parte-hartzean oinarritutako demokrazia indartu beharra dagoela, eta ez ordezkapenean oinarritutakoa bakarrik.

Iraunkortasuna.

Elkartek bultzatzen dituen jarduera eta elkarlan ugariak dira esperientzia honek denboran irauteko duen bermerik sendoena. Era berean, auzo-sareak indartzeko eta kideak eta sustatzaileak trebatu eta gaitzeko lanarekin batera, komunikazio herrikoirako estrategia integrala lantzen dute, martxan jarri duten plurimedioaren bidez. Horrez gain, espazio publikoetan kultur zirkuitu solidarioak sortzeari eta zabaltzeari esker hedatuz eta haziz doa esperientzia hau. Kultur ekitaldi solidarioak egin ahal izateko, Culebrón Timbalek autobus bat erosi zuen 1999an: soinu-ekipoa eta eszenatoki ibiltaria ditu autobusak, eta "El carromato" izenez ezagutzen da. Sare sozialak sortzeko eta zabaltzeko funtsezko elementua da kolektiboa. Beste erakunde sozial eta kultural batzuekin batera ekitaldi eta jaialdiak antolatzeko aukera ematen die, ekipoak eta eszenatokiak kontratatu behar izan gabe, eta horrek asko murrizten ditu antolakuntza-kostuak.

Maila lokalean errotutako antolakundeen parte-hartzeak, bestalde, auzoaren identitate kulturala sendotzen eta indartzen laguntzen du. El Culebrón Timbaleko parte-hartzaileentzat oso garrantzitsua da antolakuntza-eredu hau, parte-hartzean oinarritutako demokrazia-prozesuak indartzeari dagokionez.



Erronka nagusiak.

Elkarteko kideek adierazitakoaren arabera, hauek dira datozen urteotan antolakundeak izango dituen erronka nagusiak:

- Gogoeta, trebakuntza eta eztabaida lantzeko guneak sortzea, Buenos Aires Handiko arazo estetiko, kultural eta sozialez jarduteko, eta, bide batez, herri-kulturarekin zerikusia duten politika publikoak definitu eta diseinatzeko, gune horietatik.
- Buenos Aires Handiko artistak, auzoetako hedabideak, kultur etxeak eta antolakunde sozialak harremanetan jartzeko sare solidarioak eratzea, denen artean proiektu komunak landu eta politika komunitario publiko zein estatalak garatzeko.
- Kulturari buruzko ikerketa-lerroak bultzatzea, El Culebrón Timbal osatzen duten lan-taldeetako kideen esparru teorikoa sendotu eta berritzeko eta ekintzarako estrategia berriak eta eraginkorragoak aplikatzeko.



Erakundearen izena: Emaús Gizarte Fundazioa

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena - kudeaketa parte hartzailea

Lekua: Donostia - San Sebastián. Gipuzkoa. Euskadiko Autonomia Erkidegoa (EAE) Espainia.

Posta elektronikoa: fundacion@emaus.com

Webgunea: www.emaus.com

Posta helbidea: Gurutzegi 16 (Belartza Industrialdea) 20018 Donostia-San Sebastián.

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 204 pertsoa

Jarduerak hasteko urtea: 1980

Sarrera.

EMAÚS GIZARTE FUNDAZIOA izaera sozial, laikoa eta irabazi asmorik gabeko erakundea da, Nazioarteko Emaúsi¹⁵ lotua dago eta bere **helburuak** dira:

- Beharrean, baztertuta edo baztertuak izateko arriskua duten pertsona et ataldeen bizi baldintzak hobetzea, gizarteratze eta laneratze prozesuak bultzatu zeta ahalik eta autonomia mailarik handiena sustatuz.
- Gizartea sentibilizatzea, justizia, pobrezia eta garapen arazoaren arrazoen, inplikazio eta irtenbide posibleen berri izan dezan.

Jatorria.

980ko udan, gazte talde batek, Nazioarteko Emaús mugimenduaren filosofian oinarrituz, Errenterian (Gipuzkoan) landa-lan bat hasi izuen altzari zaharra keta arropak bilduz, mundu guztian zehar Emaús-eko ehunka taldek egiten zuten modu berdinean. Helburua, lurraldean talde egonkor eta iraunkor baten sorrerarako oinarriak finkatze azen. Hori horrela, urte bereko azaroak 1ean, egun den Emaús Gizarte Fundazioa taldeak bere ibilera hasi zuen. 1983 urteko ekainean Emaús taldea Donostiara aldatzen da, erortzeko zorian zegoen garai bateko erietxe batera eta lan asko egin behar izan zuten guztia garbitzeko. Bizitzeko beste modu bat erakusteko borrokatzen duten gizon eta emakumeen lantokian bihurtzen da, beste batzuei balio ez dietenak berrerabiliz eta guztien artean partekatuz.

Bizipenen 30 urte...une batzuk gogoratzuz:

- Hasiera batean soziala eta produktiboa (berrerabilpena) batera lantzen ziren Elkartearen bitartez.
- 1986ko abenduak 20an Emaúsek Donostiako Konstituzio Plazan Estatu guztiko Bidezko Merkataritzako lehen denda irekitzen du, ekimen baten aitzindaria bihurtuz.
- 1990 urteko irailean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, Emaúsek lehen gaikako bilketa hasiko du, ikastetxe, bulego eta zentro ofizialetatik eratorritako paper eta kartoiaren bilketa. Birziklatzea modu ofizial batean kontutan hartzen hasten da eta Emaúsek enpresa ikuspegia barneratzen hasten da.
- 1994ko apirila. Emaús denbora laburrean asko hasi da eta bere egitura ez dago egokitua garai berrietara. **Fundazio eta Kooperatiba bat irekitzen dira**, hondakinen kudeaketarako gizarte arloa eta enpresa arloa dibertsifikatuz eta horrela bi sailak atzeraelikatuz.

¹⁵ Nazioarteko Emaús: <http://www.emmaus-international.org/index.php?lang=spanish>



- 1998 urteaz geroztik, alde batetik Bizkaian ezartzen da eta 2000 urtean zehar, lurralde izaera izatea uzten eta Madril eta Asturiasen kokatzen da beste gizarte proiektu batzuekin, lurralde hauetan enpresa bana sortuz. Aurrerago Vigon (Galizian) ezartzen da eta 2009 urtean bi EkoCenter¹⁶ berrien irekiera ematen da: bat Irunen eta bestea Avilesen (Asturiasen).

Jarduera.

Egun, Emaús Gizarte Fundazioa Taldeak giza garapen iraunkorra sustatzea bilatzen du, gizarte programa eta proiektuen garapenetik, ekonomia solidarioko enpresen sorrera eta iraunkortasunerako hezkuntza proiektuak, **3 lan arloetan:**

- **Esku hartze gizarte-lan arloa:**
 - Gizarteratzeko programak:** laguntza eta esku hartze psiko-sozial zerbitzuak, eta harrera zerbitzuak (iraupen labur eta luzekoak) eta gizarteratze ostatuak.
 - Laneratzeko programak:** helburua bazterketa egoeran edo arrisku egoeran dauden taldeen enpleagarritasun maila hobetu, ondorengo bitartez: Gizarteratzeko ibilbide pertsonalizatua; prestakuntza zerbitzuak, trebakuntza eta enplegurako orientazioa; lanpostuan norbanako laguntza.
- **Enpresa solidarioen Arloa:** enpresa hauen kudeaketaren hasierako helburua, bereziki baztertuak dauden taldeetako pertsonen enpleagarritasun gabezia indize altuak aurkezten dituztelako, lan arruntean sartzeko aukera gutxiago dituzten pertsonen enplegu aukera bat eskaintzea da. Izaera sozial eta solidarioko enpresak dira, irabazi asmorik gabekoak, gizarteratzeko eta laneratzeko formula bezala, eta Gizarteratzeko Enpresa (GE) formatupean sortzen dira. Zehazki, ondorengo ekintza produktiboen lerroak garatzen dituzte:
 - Hiri Hondakin Solidoen Kudeaketa:** inguruko pertsonen emandako produktuen bilketa etxez etxe: bereziki altzariak, arropa, gauzak eta liburuak.
 - RAEE's Kudeaketa (Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak):** Kudeaketa Sistema Integratuekin egindako akordio bitartez eta Aldi Baterako Biltegi Zentro bezala dugun gure kalifikazioaren bitartez.
 - Bidezko Merkataritza:** bidezko merkataritzako produktuen salmenta beraien salmenta gune guztietan eta hainbat sentsibilizazio ekintzetan.
 - Ehun-produktuen elaborazioa** (poltsak, diruzorroak...) berrerabilitako iragarki banderatzat abiatuz.
 - Laguntza tekniko berreskurapena eta banaketa menpekotasuna duten pertsonentzat** (gurpildun aukiak, ohe artikulatuak, garabiak...)
- **Iraunkortasunerako Hezkuntza eta Lankidetzak:** misioan beraien helburuak jasotzen dira eta horietako bat "Gizartea sentsibilizatzea, justizia, pobrezia eta garapenaren zergati, inplikazio eta arazoaren aurrean irtenbide posibleei buruz". Helburu honekin, ikastetxe, unibertsitate, enpresa, herri administrazio, gizarte erakunde eta oro har biztanleriari zuzendutako programa eta proiektuak garatzen dituzte, gizartea Giza Garapen jasangarriago baterantz sentsibilizatzeko asmoz, ikuspegi orokor batetik, Hegoaldeko herrialdeen egoera berdinean barneratuz. Garatzen dituzten gai nagusiak hauek dira: ekonomia solidarioa, gizarte sustapena, ingurumena, GEK, kontsumo arduratsua, bidezko merkataritza, elikadura burujabetza.



¹⁶ Ekocenter: 2005ean, Gipuzkoako lehenengo EkoCenter-a zabaldu zen. Bertan, hondakinen berrerabilera egiteaz gain, ingurumenaren inguruko hezkuntza lantzen da hondakinen prebentzioa sustatzeko asmoz. Esperientzia honek agerian utzi du, berrerabilera, garapen iraunkorra bultzatzeko benetako formula, eraginkor eta solidario bat dela.



Parte-hartzaileak.

Emaús Gizarte Fundazioa taldea hainbat erakundeez osatuta dago:

- **Emaús Gizarte Fundazioa:** erakunde matrizea da eta gizarteratze eta laneratze eta hezkuntza programak garatzeaz gain, ekonomia solidarioaren ekimenen sorrera sustatzen du. Osatzen duten pertsona kopurua 120 dira. (33 gizon eta 87 emakume).
- **Emaús Bidasoa SLU:** es una empresa de inserción constituida en 1998 con el apoyo de la agencia detoki-garapenerako agentziaren laguntzarekin 1998 urtean sortutako gizarteratzeko enpresa bat da eta tamaina handikoa keta ehunen berreskuratze eta ondorengo salmentan jarduten du Bidasoa eskualdean. Entitatean 31 pertsonak jarduten dute lanean (18 gizon eta 13 emakume).
- **Elkar Lan Gizarte Ekonomiaren Sustapena SLU:** 1997 urtean sortutako entitatea da, bere helburua merkataritza eta lan kooperatiba eta sozietateen eta auto-enplegurako ekimenen sustapena eta sorrera da. 8 pertsonak osatzen dute (3 gizon eta 5 emakume).
- **Emaús Bidezko Merkataritza:** 2004 urtean sortutako gizarteratzeko enpresa eta bidezko merkataritza produktuen salmentara zuzendua, 3 emakumez osatuta dago.
- **Riquirraque Emaús:** gizarteratzerako enpresa hau 2002 urtean sartu zen taldera eta tamaina handikoak eta ehunen berreskuratzean eta ondorengo salmentan jarduten du Asturiaseko eskualdean. Enpresa honetan 15 pertsona ari dira lanean (9 emakume eta 6 gizon).

Guztira, taldea 177 pertsonaz osatuta dago; 5 pertsonaz osatutako zuzendaritza talde bat egonez eta 15 pertsonaz osatutako koordinazio batzorde bat. Zuzendaritza batzordea fundazioaren eta bere enpresa parte hartzaileen eguneroko kudeaketaz arduratzen da. Koordinaziorako batzordearen helburua, entitatearen oinarriko alderdiak bultzatzea eta buru izatea da, taldearen ildo estrategikoak eraiki eta antolakuntza eredu bultzatu eta dinamizatu lan eremu guztietan.



Lorpenak.

Oso zaila da EGFaren bezalako hain desberdina den esperientzia baten lorpena aztertzea. Horretarako, hainbat alderdi desberdintzen saiatuko gara, gutxienez, esperientzia beraren eraginaren ikuspen zabal bat lortzea:

- **Pertsonen ahalduntzea:** gizarte proiektuen bitartez pertsonen bizitza kalitatea hobetzen dute, eskubideen ikuspegitik lan eginez. Emaúsen funtsezko alderdi bat beraien proiektuetatik inor baztertzeko ez dutela da, pertsonen ahalduntzea bilatuz. Beraien hogeita hamar urteko bizitzan milaka pertsonekin lan egin dute, beraien gizarteratzea lortzeko bitartekoak ematen saiatuz.
- **Berrerabilpen ekintzen dibertsifikazioa:** eraginkortasuna hobetzen lan egiten dute, irudimenezko modu batean lan eginez eta ahal duten baliabide guztiak berrerabiliz, beraien ekintzek sortzen duten ingurumenaren eraginak murriztuz. EGFaren 30 urteko eskarmentuan zehar, 10 milioi objektu baino gehiago saltzea eta beraz, berrerabiltzea lortu dute.

-**Enpresa eraginkortasuna:** enpresa alternatiba errentagarriak sortzen dituzte ekonomia solidariotik, bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzat lanpostu kopuru gehiena sortzeko enprededoreak eta berritzaileak izanez. Une honetan beraien enpresetan profil hori duten 76 pertsona daude.



-Osatzen duten **gizartea eta interes talde desberdinak sentsibilizatzen dituzte**, ikastetxe, unibertsitate, herri administrazio, enpresak eta gizarte entitateetan lan eginez; beraien inguruko gainontzeko entitateekin sarean egindako lana indartuz. Hezkuntza lanean, ikastetxeetako 30.000 ikasleekin lan egitera iritsi dira.

- **Berrikuntza eta aldaketetara egokitasuna:** entitate berritzaile bat dira eta ingurunearen eboluzioaren arabera aldatzen eta hazten jakin dute, ez horregatik baloreetan oinarrituz utzi gabe, interesetan izan ordez. Ikuspegi orokorra barneratu dute baina tokian ekiten, giza garapen iraunkorraren ikuspegi guztiak landu zeta beti pertsonak kontutan hartuz. Eta hori horrela, lan egiten dugun eremuetan erreferente batean bihurtu gara, bai gizarte zibilarentzat bai herri administrazioarentzat.

Erronka nagusiak.

Arlo bakoitzean, ekintzaren mantenurako, aurre egin behar dieten **erronka** nagusiak ondorengoak dira:

- **Gizarte mailan:** gizarte zerbitzuen prestazioan sarrera, beraien gizarte ereduetatik oso urrun dauden enpresen aldetik (sozialaren privatizazioa), eskakizunak gehitzea AAPPen eskutik zerbitzuak hitzartzeko orduan eta AAPP-ek gizarte programetara bideratzen dituzten baliabide ekonomikoen murrizketa.
- **Enpresa mailan:** produktu berriak oso prezio baxuetan iristek berrerabilitako produktuen salmenta zailtasunean gainezka egiten du, ziurtagiri, kalifikazio, baimen, lizentziatarako administrazio konplexutasuna, finkatze prozesu luzeak beharrezkoak izatea.
- **Hezkuntza mailan:** gizartea sentsibilizatzeko zailtasuna, jasotzen dituen hamaika mezuen ondorioz, eta geroz eta finantzazio gutxiago izaten da mota honetako ekintzentzat.

Baina, barne mailan beste erronka batzuk ere badituzte, beraien artean ondorengoak aipa daitezke:

- **Kide izatearen sena:** Emaús Gizarte Fundazioa osatzen duten pertsonen inplikazioa lantzeko beharra, beraien esperientziaren ezagutza eta parte hartzea sustatuz.
- **Barne eta kanpo komunikazioa hobetzea** bereziki, erakundeko ikuspegiaren alderdietan eta Emaús mugimenduaren kide bezala dituen baloreen alderdietan eraginez.. Emaús Gizarte Fundazioak egiten duen lan guztia hedatzea lortu.
- Beraien ekintzen **eraldatze gaitasuna handitzea** eta aldarrikatze eta mobilizazio gaitasuna.
- Aurrera eramaten dituzten ekintza guztietan ahalduntzea landu eta zeharkako alderdiak barneratu (aniztasuna).





Erakundeekin lotura.

Gainontzeko gizarte erakundeekin koordinatzea, erakunde bezala dituzten helburuak lortzeko funtsezkoa dela ulertzen dute. Lantzen dituzten gai desberdinen koordinakunde eta plataformetan parte hartzen dute. Administrazioak garatzen dituen hainbat mahai edo kontseiluetan izateaz gain:

Ekonomia Solidarioa	Ekonomia Alternatiboa eta Solidarioaren Sarea (REAS), Euskal Herriko (GIZATEA) eta Asturiaseko (ADEIPA) gizarteratze enpresen Elkarte (GIZATEA), Irungo Udaletxeko enpleguaren aldeko ituna (Gipuzkoa).
Ingurumena	Donostia –San Sebastián Udaletxeko Ingurumenaren Aholkularitza Kontseilua (CAMA), Gipuzkoa.
Gizarte Sustapena	Donostiako Udaletxeko Gizarte Kontseilua eta Gipuzkoako gizarte erakundeen koordinakundean (SARGI). EAPN Galizia eta EAPN Asturias, Gizarte Sarea Galizia Hegoa. Enplegu mahaia Madril erdigunea, Leganes eta Fuenlabrada, Leganeseko etxerik gabeko pertsonen Plataforma, Madrilgo Komunitateko bazterketaren Behatokia. Aviles Udaletxeko Immigrazioko bertako taldea. Incorpora programaren Asturias Sarea, pertsonen salerosketaren aurkako Sare Astur galegoa.
Kontsumo arduratsua	CAMA-ren kontsumo mahaia.
GEK	Gipuzkoako GEKren bultzatzaileak eta AAPPeen GEren Behatokian parte hartzen dute.
Bidezko Merkataritza	Donostiako bidezko merkataritza taldeko, Euskadiko bidezko merkataritza taldeko eta Bidezko Merkataritzako Estatuko Koordinakundeko kide dira.
Elikadura Subiranotasuna	Herrietako Elikadura Burujabetzaren aldeko Alianza (ASAP-Euskadi) eta Nekazal Plataformako kide dira.
Beste parte hartzeak	Madril erdigunea, Leganes eta Fuenlabradako enplegu mahaia, Leganeseko etxerik gabeko pertsonen Plataforma, Madrilgo Komunitateko bazterketaren Behatokia. Innobasque: Gizarte Erantzukizuna, "Emprendizaje Social" eta Piramidearen Oinarriaren bere lan-taldetan. Aviles Udaletxeko herritarren Parte hartze Kontseilua Leganeseko boluntariotzako Plataformaren kide dira. "Aviles iraunkorrago"aren partenariadoan daude.

Iraunkortasuna.

Aipatzea beharrezkoa da, nahiz eta juridikoki Fundazio bat izan, fondoak ematen dizkieten erakunderik ez dutela, eta fundazioaren patronatua osatzen duten pertsonak talde bertako langileak direla. Horrez gain, Emaúsen edozein lan egiteko kontratatutako pertsonen bitartez egitea aukeratu dute, ez boluntariotza bitartez, aukerako modu bat bezala aurkezteak, garatzen dituzten ekintza produktiboak (enpresa mailan edo gizarte programa-proiektu mailan) kontratatutako pertsonekin egitea eskatzen dietela ulertzen dute.

Taldearen iraunkortasun ekonomikoa aztertzeko beharrezkoa da alde soziala (fundazioa) eta enpresen atala desberdintzea.



EGF, bere programa eta proiektuen garapenerako, finantzaketa publikoaren menpe dago. Hain zuzen ere, egoitza programak (ISLA , PORTUENEA eta BITARTEAN) Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Alduendiek finantzatzen dituzte hitzarmenen bitartez. Soziorabial arloan garatzen dituzten gainontzeko proiektuak Herri Administrazio desberdinek finantzatzen dituzte (lurralde eta herri Gobernuek), GAZTELUTXO (Errenteria) zentroaren kasua izan ezik, lehiaketa bitartez izan zen, eta beraien erakundea izan zen lehiaketara aurkeztu zen gizarte erakunde bakarra.

Hezkuntza eta lankidetzaren sailari dagokionez, garatzen diren proiektu guztiak beraien inguruko administrazio desberdinetako finantzaketa publikoaren bitartez egiten dute.

Enpresen kasuan, kasu desberdinak bereizi ditzakegu:

- **Emaús Bidasoa, Emaús Bidezko MERkataritza:** Euskal Herrian kokatuta dauden gizarteratzeko enpresak izatean, bazterketa egoeran edo bazterketa arrisku egoeran dauden pertsonak kontratatzeagatik finantzaketa jasotzen dute. Horrez gain, Emaús Bidasoaren kasuan, inguruko mankomunitate batean ehunen bilketarako lehiaketa bat irabazi du. Gainontzeko finantzaketa, ekintza arruntetik lortzen dute, berreskurapena Emaús Bidasoaren kasua eta bidezko merkataritzako produktuen salmenta Emaús Bidezko Merkataritzaren kasuan.
- **Riquirraque Emaús:** nahiz eta gizarteratzeko enpresa bat izan ez du finantzaketa berezirik lortzen, eta bere diru-sarrerak berreskuratze ekintzatik eratortzen dira eta bere inguruko hondakinen kudeaketako erakunde arduradunaren eskutik lortutako diru-laguntza batetik.

Aipatu beharra dago, EGF irabazi asmorik gabeko erakunde bat dela eta irabazi ekonomiko guztiak erakundea berarentzat zuzentzen direla, parte hartzaileen artean banaketarik egin gabe.



Erakundearen izena: FASINPAT- Fábrica sin Patronos, Buruzagirik gabeko Fabrika

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena.

Lekua: Ciudad de Neuquén, Provincia de Neuquén, Patagonia Argentina.

Posta elektronikoa: ventas@ceramicafasinpat.com.ar

Webgunea: <http://www.ceramicafasinpat.com.ar/> ; www.obrerosdezanon.org

Posta helbidea: Ruta 7 Km. 7 - Parque Industrial - Neuquén Casilla Correo 655 - C.P. 8300

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 470 langile

Jarduerak hasteko urtea: 2002

Sarrera.

FASINPAT (lehen Zanón S.A) Argentinako Neuquén-eko probintzian ezarritako zeramika eta portzelana ekoizpenerako enpresa bat da. Enpresa hau langileriak berreskuratu zuen 2001ean, lehenengo jabeak itxurazko porrot bat antzestu ondoren. FASINPATek bere kontra egindako neurri judizialak eta irtenarazteak eutsi izan ditu eta Argentinako berreskuratutako fabrikarik handiena bilakatu. Okupazio ostean berriztatutako enpresa-ahaleginari esker produkzioa igo du, merkatu berriak lortu ditu eta langile talde garrantzitsu baten soldata duinak mantendu ditu. Gainera, Argentinako berreskuratutako enpresen artean, nolabaiteko ikonoa bihurtu da.

Jatorria.

Zanón enpresa 1980an jaio zen eta azken argentinar diktatura (1976-1983) eta 90. hamarkadako politika neoliberalen babespean hazi zen. 1998 urtean enpresaren jabeak hustuketa prozesu luze bat hasi zuen estrategia aldaketa baten ondorioz. Jabeak ekoizpena portzelanara zuzendu nahi zuen, betiko zeramika baino etekin handiagoa emango ziolakoan, baina horretarako lanpostu kopurua asko murriztu behar zuen. Enpresak lanaren intentsifikazio bat ezartzen hasia zen barne errepresio eta mehatxuekin, soldaten atzerapenarekin eta langileen kaleratzearekin, gainera instalazioak ez zituen zaintzen eta laneko segurtasun neurriak eta tresnak ere ez zituen mantentzen.

Lehenengo erantzuna lan-eskubideen defentsan atera zen langile talde batek eman zuen. Talde honek fabrikako Barne Batzorde Sindikala berreskuratzea erabaki zuen, ordura arte enpresaren buruzagien menpe zegoena. Baina egoera jasanezinezkoa bihurtu zen 22 urteko langile bat hil zenean lan-istripu saihegarri baten ondorioz, urtero gutxienez behin gertatzen ohi zenez.

2001eko azken hilabeteetan iruzurrezko porrota eta jabeak nahita egindako hustuketa konprobatzen da. 2002ko martxoan langileek fabrika okupatzen dute.

Lehenengo urteetan langile taldea irtenarazteko zenbait saialdi egon ziren eta langileek horiei egin behar izan zieten aurre eta baita euren kontrako bestelako akzio judizialei ere, baina indartsuak zirenez eta herrialde osoan zehar zeuzkaten lagunengandik are indar handiagoak jasotzen zituztenez, fabrikako langileek produkzioa berpiztea lortu zuten.

Esperientziaren hastapenetatik, Argentinako beste berreskuratutako enpresengandik bereiziz, langileriak fabrikaren estatizazioa proposatu zuen, langileen kontrolpean egin beharrekoa eta oraindik lortu ez dena. Helburu hau ez da erraza, enpresaren ondare guztiak Estatuak erostea suposatzen baitu. 2004ean FASINPAT kooperatiba sortu zuten euren aktibitate ekonomikoak nolabaiteko figura legala izan zezan.



2009ko abuztuan Neuquén probintziako gobernuak desjabetu beharreko ondareen gaineko eskubide guztiak FASINPAT Lan Kooperatiba mugatuari transferitzeko baimena eman zuen (2656 lege zbkia.), baina oraindik ez da prozesua burutu.

Jarduera.

- Funtsezko jarduera portzelana eta zeramika tradizionalaren produkzioa da. Produkzio prozesuak lehengaiaren ehotzetik hasi eta konpaktazioa, lehorketa, hauts egitea, diseinua, ekoizpena, egosketa eta baldosen paketatzea ditu barne. Berreskuratzea gertatu zenetik, FASINPATek tokiko kontsumora egokitzen diren diseinu berriak asmatu ditu.
- 10 urteko langile kudeaketan zehar beste jarduera batzuk gehitu dira: hileroko eskolei, ospitaleei eta zenbait gizarte erakundeei, zeramikak dohain ematen zaizkie, irratsaio bat antolatu dute eta baita nazio barruan banatzen den hileroko aldizkari bat; honez gain, antzerki talde bat eta helduentzat lehen eta bigarren hezkuntzako eskola bat sortu dute.
- Aldi berean, ez dituzte ahaztu aldarrikapen eginkizunak eta etengabe parte hartzen dute nazioarteko eta nazio barruko bileretan, esperientzia zabalduz, beste enpresa berreskuratutako lagunduz eta bestelako aldarrikapen herrikoien alde eginez.

Parte-hartzaileak.

Gaur egun Zanón-en porrotaren garaian lan egiten zuen talde osoak fabriketan lanean dabil eta, gainera, lanpostuen eskakizun teknikoaren arabera eta asanbladan adostutako beste irizpide batzuen arabera, pertsona berriak sartzen hasi dira. Lanpostu batzuk okupazioan lagundu zuten mugimendu politikoetatik datozen pertsonak bete dituzte (MTD; Polo Obrero, Mov. Teresa Vive), beste batzuk maputxe eta pertsona ahal-urrien elkarteetako pertsonak hartu dituzte eta azken lanpostu batzuk lehenengo lan esperientzia irabazten ari diren gazteentzat dira.



Erakundeekin lotura.

Berreskuratzea gertatu zenetik, FASINPATek ahalegin handia jarri du, difusio kanpaina zuzenen bitartez, komunitateko beste erakunde batzuekin (langabezian dauden mugimenduekin etab.) lotzeko. Hau beti baloratu izan da faktore positibotzat enpresaren onarpenerako, okupazio aukeraren legitimitatea defendatzeko eta urte hauetan zehar langileen kudeaketarekin jarraitzeko.

FASINPATek lotuneak mantentzen ditu Comahue-ko Unibertsitatearekin (Comahue Neuquén eta alboko Río Negro probintziak hartzen dituen lurraldea da), Buenos Aires-eko Ekonomia eta Zientzia Zehatzen Fakultatearekin eta berreskuratze prozesuan aholkulari izan zen eta etengabe laguntzen dien INTI-arekin (*Instituto Nacional de Tecnología Industrial*).

Bestalde, FASINPAT Neuquén Probintziako Zeramikarien Sindikatuan eta Argentinaren Langileen Zentralean (CTA) dago. Gainera, tokiko gobernuarekin eta alderdi politikoaren legegileekin negoziazio mahaietan parte hartzen du, berreskuratutako enpresen sustapenarekin lotuta dauden lege-proposamenen alde jotzeko.



Lorpenak.

- Argentinako berreskuratutako enpresarik handiena da.
- Ikuspuntu ekonomikotik konkurrentzia-abantaila garrantzitsuak dauzka, bere kokapena dela eta, lehengaietara erraztasunez lortzen dituelako.
- Errentagarritasun altua dauka, portzelana oso konpetitiboa baita merkatu nazionalean eta nazioartekoan ere.
- Produkzioa eta lanpostuak handitzeko ahalmena dauka. Gaur eguneko produkzioa hirukoiztu dezakeela kalkulatu da 260 lagun jabetu ziren fabrikaz eta 2007an 470 ziren (lanpostu totalak 700era heldu daitezkeelarik).
- Nazioarteko ikur bihurtu da. 10 urteko ibilbidearekin, oraindik borrokatzeko gogo handiak dituzte. Esperientzia mantendu eta zabaltzeko, langileek komunikazioa era oso argi eta burutsu baten erabili dute. Hainbat film egin dira esperientziari buruz eta mundu osoan zehar hedatu ahal izan da, Caritas Argentina eta atzerriko beste zinemagile batzuei esker.

Iraunkortasuna.

- Frogatutako eta gaur egun arte mantendutako konkurrentzia- eta merkatu- abantailak izan ditu
- berreskurapen prozesua hasi zutenetik
- Oso esperientzia ezaguna da eta publiko zabalaren onarpenaz gain, tokiko komunitatearen euskarria
- ere badu.
 - Ekonomia alternatibako sare nazional eta nazioartekoetan parte hartzen du.
 - Produkzioa etengabe hobetzen duten ekarpenak jasotzen ditu kide dituen instituzio teknologiko eta zientifikoengandik, eta baita unibertsitateengandik ere.

Erronka nagusiak.

- FASINPATen egoera legala oraindik konpontzeaz dago. Langileen kontrolpean desjabetza eta estatizazioa egiteko proposamena ez dute denek onartu. Hiru lege-proposamen aurkeztu dira momentu desberdinetan baina ez dira Kongresu Nazionalean eztabaidatu. FASINPATeko langile taldeak bere kontrolpean egin nahi du estatizazioa, horrek ekarriko lukeelako fabrika onura publikotzat aitortzea eta Estatuaren tresna bihurtzea etxebizitza herrikoia eta erainkuntza-lan publikoen hornitzaile bihurtuz. Aukera honek badauka langileek ezagutzen duten eragozpen garrantzitsu bat: merkatuko konkurrentziak ezaugarri hauek dituen enpresa bati sortzen dizkion arazoak.
- Bere funtzionamendua dela eta, zailtasunak ditu FASINPATek ekoizpen-kostuak (gasa, elektrizitatea) beheratuko lituzketen eta beste enpresek erabiltzen dituzten diru laguntzak lortzeko.





Erakundearen izena: SARTU FEDERAZIOA

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena, gizarteratze enpresen bidez.

Lekua: Durango, Donostia, Bilbo eta Gasteiz. EAE, Espainia.

Posta elektronikoa: informacion@sartu.org

Webgunea: www.sartu.org

Posta helbidea:

- Zabaltzen elkarte (Sartu Durango): Murueta-torre, 8 behea, F-G. - 48200 Durango
- Erroak elkarte (Sartu Donostia): Bizkaia pasealekua 15-16, behea. - 20010 Donostia
- Gaztaroa elkarte (Sartu Bilbo): Bailen, 5 sotoa ezk. - 48003 Bilbo
- Sartu Araba elkarte: Errege atea 20 behea - 01001 Gasteiz

Esperientzia osatzen duten kide kopurua:

- Zabaltzen elkarte (Sartu Durango): 31 emakume eta 8 gizon
- Erroak elkarte (Sartu Donostia): 37 emakume eta 12 gizon
- Gaztaroa elkarte (Sartu Bilbo): 32 emakume eta 11 gizon
- Sartu Araba elkarte: 31 emakume eta 10 gizon

Jarduerak hasteko urtea: 1988

Sarrera.

Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, gizarte-zerbitzuen alorrean diharduten irabazi asmorik gabeko lau elkarte osatutako federazioa da Sartu. Bilbon, Donostian, Durangon eta Gasteizen egiten du lan federazioak. Lau elkarteak 1988an hasi ziren lanean ikuspegi berari jarraiki, eta 1990ean bat egin zuten aterki moduko erakunde juridiko batean: Sartu Federazioan hain zuzen. Kudeaketa pribatua duen arren, komunitate-zerbitzuen sare orokorreko beste zerbitzu publiko bat bezalakoa da Sartu, eta sare hura osatzen eta laguntzen egiten du lan.

Jatorria.

Sartu Federazioa 1988an sortu zen pertsonak eta ingurune integratzaileak sustatzeko, bazterketa sortzen duten egoeretan aktiboki esku hartuz. Helburu hori lortzeko pertsona eta taldeen ondoan egon da hogeitau urtean, heziketa- eta prestakuntza-proiektuak garatzen, gizarteratze-enpresak sustatzen eta gure xedearen helburua gauzatzen laguntzen duten sare eta ekimenetan parte hartzen.

Hau da Sarturen *xedea*: Pertsonen gizarteratzen laguntzea, beharrezko aldaketak sustatuz eskatzen duten pertsonengan eta gizartean bertan, komunitate integratzaileak sortzearen.

Hau da Sarturen *ikuspegia*:

- Erakunde profesional, independente, plural eta solidarioa izatea, gure xedearekin bat etorritik.
- Gizarteratzearen alorrean erreferentzia izateko desabantaila soziala dutenentzat eta gure helburua lortzen lagundu diezaguketen gainerako eragileentzat.
- Inguruko eragileekin sarean lan egiten duen erakundea izatea, ezagutza sortu eta partekatzea eta alternatiba berritzaileak proposatzea.



Sartun lan egiten duten pertsonen *baloreak* hauek dira: Zintzotasuna, eraginkortasuna, aukera-berdintasuna, elkartasuna, lankidetzeta, pertsonetikiko errespetua eta enpatia.

Eusko Jaurlaritzak droga-mendekotasunaren alorrean lan egiten zuten lau erakundeei proposatutako programa batetik sortu zen Sartu Federazioa, sortu zen garaian arazo sozial larria baitzen droga, heroina-kontsumoari zegokionez bereziki. Programa hark ez zuen inolako irudi juridikorik. Beren birgaitze-prozesua egina zuten pertsoneri zuzendutako zerbitzu bat sortu zen orduan, pertsona haiei lan-munduratzeko laguntzeko. Horretarako, artatu egin behar ziren, haien curriculumak identifikatu beharra zegoen eta enpresekin harremanetan jartzeko zerbitzu bat behar zen, pertsona haientzat lanpostuak bilatzeko, Eusko Jaurlaritzan oraindik indarrean dagoen tresna baten bidez: droga-mendekoak kontratatzeko laguntza.

1990eko hamarkadan, hasierako oinarrizko eskema aldatu zen, kanpo- eta barru-mailako hainbat ebaluazio egin eta gero. Programatik ateratzen zen jendeak prestakuntza behar zuen, eta horrekin batera droga-mendekoei atxikitako estigma dela eta halako jendea enpresetan txertatzea lortzeko zailtasunak zeuden. Garai berean, Pobreziaren Aurkako Plana jarri zen martxan EAEn, eta borroka horri erantzunez oinarrizko errenta eratu zen. Oinarrizko errentarekiko mendekotasunik ez sortzeko, independentzia ekonomika bultzatzeko prozesuak garatzen hasi ziren, lanerako prestakuntza eta lanerako bitartekaritza oinarritzat hartuta. Gizarte-heziketako arlo bat ere sortu zen, eta lan-ibilbide pertsonalizatuak lantzen hasi ziren. Donostian, Durangon, Bilbon eta Gasteizen lan egiten zuten lau erakundeek garatzen zuten programa hari egitura juridikoa emateko beharra sortu zen, eta Sartu Federazioa eratu zen horrela 1990ean.

Geroago, lan-munduratzeko arazoez gain arazo sozial bat ikusi zen, zenbait pertsonak lana eskuratzeko zailtasun handiagoak baitzituzten beren ikasketa-maila gorabehera. Hala, esperientzia ekonomiko txikiak sortzen hasi zen Sartu, hasiera batean eraikuntza-sektorean. Enpresa haiek laneko sozietate mugatuak ziren, gutxieneko kapitala onargarria zelako, batetik, eta erantzukizuna mugatzen zuelako, bestetik. Era horretan, Gaztelaneko eta Emaúseko (*ikusi dossierrean Emaús Fundación Social*) jendearekin zituen harremanak estutu eta enpresak lanean hasi ziren, ekonomia sozial eta solidarioa oinarritzat hartuta. Sartuk ingurune horretan lan egiteaz gain erabaki eta esku hartu nahi zuen. Beste ekonomia-eredu bat lantzen hasi zen orduan, ekonomia sozial eta solidarioaren eredia, komunitatearen garapena helburu izanik pertsonen gizarteratzearen alde egiteko asmoz.



Zentzu horretan, Lan Erabilgarri eta Beharrezkorako Txertaketa (ITUN, Equal 2002-2004ren barruan) proiektua inflexio-puntu bat izan zen Sarturentzat. Lau erakunde hauek partzuergoan garatu zuten proiektua: Cáritas, Agiantza, Peñascal Fundazioa eta Sartu. Lana sortzeko hogeitaz gizarteratze-enpresa sortzea zen proiektuaren helburua, eta parte-hartzaile hauek izan zituen: EAEko hiru aldundiak, Eusko Jaurlaritza, EUEDEL, ELA eta LAB sindikatuak, Deustuko Unibertsitatea, EHU, REAS, EAPN eta BBK, Kutxa, Vital eta Euskadiko Kutxa.

Azkenik, Sartu Federazioak indar handiz bultzatu ditu gizarte-heziketako eta komunitate-garapenerako programak.



Jarduera.

Sartu Federazioak sustatzen dituen lan-arloen helburuak hauek dira:

- Pertsonekin lan egitea, beren gizarte-ingurunean hobeto kokatzen lagunduko dieten aldaketak sustatzeko, haien gaitasun pertsonalak eta dituzten baliabideak garatzen lagunduz.
- Ingurunearekin lan egitea pertsonak eta gizarteak bat egiteko aukera berriak sortzeko, bai gizartean, oro har, bai lan-ingurunean, bereziki.

Hala, arlo ugartan lan egiten du Sartuk: gizarte-zerbitzuetan, enpleguan eta komunitate-garapenean, orientazio-zerbitzuekin batera, prestakuntza-arloan... Enplegu-programak, komunitatearen garapena, enpresen sustapena, bitartekaritza, aholkularitza soziala, etab. lantzen ditugu arlo horietan.

Lanerako prestakuntza:

Sartu Federazioak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, tartean lanerako prestakuntza (Eusko Jaurlaritzarekin eta INEMekin batera). Gizarte-politikaren alorrean ere zerbitzuak eskaintzen ditu.

Etengabeko ikaskuntza-ren filosofian oinarrituta lantzen dute prestakuntza Sartu-n. Horri jarraiki, denboran zehar etengabe lantzen joaten diren jardueren bidez lantzen dira prestakuntza-prozesuak, pertsonen behar eta aukeretatik abiatuta betiere. Zentzu horretan, Sartu gizarte-zerbitzuek, osasun-zerbitzuek eta elkarte-mugimenduak lanerako ibilbideak modu koordinatuan garatzeko tresna egokia izatearekin batera, prestakuntza-ekintza sorta zabal, malgu eta egokitua eskaintzen die Sortuk desabantaila sozialak bizi dituzten pertsoneri bereziki. Era honetako jardueren bidez gaitasun pertsonal eta teknikoaren kopurua eta maila hobetu nahi da. Pertsonak ikasteko eta lanerako behar dituzten gaitasun, trebetasun, jakintza, ezagutza, jarrera eta jokamoldeak dira gaitasun horien adierazleak.

Prestakuntza-ekintzen bidez hainbat alderdi lantzen dira: enpleagarritasuna areagotzen laguntzen duten lanbideen ikaskuntza teknikoa (lanerako lanbide-prestakuntza), lanean hasi aurretiko trebetasunak lantzen eta gaitasun sozial eta pertsonalak hobetzea lehenesten duten ekintzak (prestakuntza sozio-pertsonala), zehar-lerroa diren beste gai batzuen (teknologiaren ikaskuntza eta aplikazioa, laneko arriskuen prebentzioa, ingurumenerako sentsibilizazioa, lan- eta gizarte-informazioa, lanbideetarako alfabetatze teknikoa...) ikaskuntza. Prestakuntza-ekintzak lantzearekin batera, ikasleek benetako lan-esperientzia izaten dute aldi berean, bai lana eta prestakuntza uztartzen diren faseetan ikasleak kontratatzen dituzten programen bidez, bai prestakuntzari lotutako sektore bateko enpresa baten praktika-aldiak eginez.

Aholkularitza soziala:

- Erakundeentzako aholkularitza: Trebakuntza-beharren azterketa, profesionalen trebakuntza, erakundearen plan estrategikoak, proiektuak diseinatu eta martxan jartzea, ebaluazioa...
- Azterketa eta ikerketa sozialak: Ikerketa aplikatua, diagnostiko eta planak, ikerketa, parte-hartzean oinarritutako ekintzak, ekintzarekin erlazionaturako ikerketak...
- Berrikuntza: Jarduera, ekintza eta programa berritzaileak garatzea garapen komunitarioan eta gizarteratzearen esparruan.
- Sistematizazioa: Proiektuen garapenerako jardunbideak berreskuratu, aztertu eta ikastea.



Lan-munduratzeko eta gizarteratzeko arreta eta laguntza:

Pertsonei gizarteratzeko beren ibilbide propioa prestatzen eta martxan jartzen laguntzea da eginkizun nagusia, gizarte-bazterketa edo desabantaila soziala jasateko arriskuan dauden pertsonei begira, bereziki. Arlo honetako jarduera guztiak hainbat programaren bidez egituratzen dira:

- Arreta, orientazioa eta bidean laguntzea: pertsonei orientazioaren, informazioaren eta bidean laguntzearen bidez lan-munduratzeko eta gizarteratzeko laguntzeko proiektu, programa eta zerbitzuak.
- Inklusio-zerbitzuak: pertsonei bidean laguntzearen eta ingurunean eragitearen bidez egindako lan pertsonalizatuan oinarrituta, udaletako gizarteratze-zerbitzuak garatzea helburutzat duten proiektu, programa eta zerbitzuak.
- Bitartekaritza sozialeko zerbitzuak: gatazkak kudeatzeko eta bizikidetzat hartu-emanak eta komunikazioa garatzeko prozesuetan laguntzera bideratutako proiektuak.

Prestakuntza sozial eta pertsonala:

Eskakizun-maila apaleko prestakuntza-espazio malgu hau bazterketa larria jasaten duten eta lan-munduratzeko nahiz gizarteratzeko beren ibilbidean laguntza emozionala eta heziketarako laguntza jaso nahiz motibazioa indartu behar duten pertsonei zuzentzen zaie.

Balore alternatibo, solidario eta arduratsuetan oinarritutako ekonomiaren sustapena:

Maila pertsonalean, eta behar den heinean, lan-munduratzeko lortu arte egindako urrats guztietan orientazioa eta laguntza eman beharra dago. Lan-ildo horri jarraiki, lanpostua lortzeko eta hari eusteko laguntza- eta tutoretza-ekintzak egiten dira.

Enpresekin egindako lanari dagokionez, enpresa-testuinguruaren eta gizarte-testuinguruaren arteko zubi-lana egin beharra dago, parte-hartzeko aukerak eta pertsonak uztartzeko aukerak emanez, lan proaktibo baten bidez. Enpresek beren gertuko ingurunearekiko konpromisoa hartu dezatela bultzatzen du Sartuk, eta lankidetzarako guneak eta enpresen erantzukizun soziala garatzeko guneak eskaintzen ditu horretarako. Era berean, lanpostu eta zereginen benetako beharretara egokitutako gaitasun profesionaletan oinarritutako langileen kudeaketak dituen alde onez konbentzitu nahi ditu enpresak, horren bidez langileetan egindako inbertsioa bermatzeko epe ertain-luzean langileek beren lanpostuarekin garatutako identifikazioari eta garapen profesionalari atxikitako asmo eta nahiak asetzeari esker.

Bestalde, lanean bestelako egitura solidarioagoak probatu daitezkeela eta probatu behar direla uste du Sartuk, eta jarduera hauek sustatzen ditu horretarako:

- Lan-merkatu arruntean eta enpresen erantzukizun sozialean esku hartzea.
- Aurrerago enpresa bat edo lanposturen bat sortu litekeen lan-merkatuetan eta merkatu-nitxoetan oinarritutako lan-esperientziak bultzatzea.
- Enpresak sortzen laguntzea.
- Enpresak sortzea. Sartu Federazioak honako enpresa hauen sustapenean parte hartzen du:
 - ADIR, irisgarritasunean espezializatutako enpresa
 - Aholku Taldea, SL, aholkularitza-zerbitzua
 - Amuitz Margotu Berria SL, estaldurak, etxe barruko dekorazioa, fatxada eta kanpoaldean zaharberritzea, dekoraziorako eta industriarako margoak.
 - Amuitz Berrikuntzak SL, erreforma osoak, gremioen koordinazioa, iturgintza-lanak.
 - Keima, SL EI, animazioa, aisialdia eta astialdia.
 - Kriketa, SL, oihalen serigrafia.



- Bilekomen Oraintxe, SL EI, eko-mezularitza urgentea.
- Bizitzen Fundazioa, adinekoentzako zerbitzuak.
- Gizarline, SLL EI, telekomunikazio komunitarioa.
- Sokaire, SL EI, garbiketa-zerbitzuak.
- Txukunberri Garbiketak SL EI, garbiketa-zerbitzuak, ostalaritza...
- Euskal Postal Red, posta-zerbitzu pribatua.

Dinamizazioa eta garapen komunitarioa:

Gizarteratzea desabantaila soziala jasaten duenaren pertsonarengan eta pertsona horrek bazterketa eragin duen gizarte-taldearen aldaketa, baina, oroz gain, bien artean sortzen den erlazioaren aldaketa dakarren prozesu gisa ulertzen du Sartuk. Ikuspegi horri jarraiki, bi aldagai nagusitan oinarritzen dugu gizarteratzea: pertsonen autonomia eta gizartean parte-hartzea.

Logika horri jarraiki, “gizarteratze”-ereduaren eta “bazterketaren aurkako borroka” egiteko ereduaren artean mugitzen da interbentzioa, lortu nahi den helbururako jardueren aukera, egokiera eta egokitasunaren arabera:

- *Gizarteratzearen* logikaren arabera lan egiten da pertsonaren gaitasun pertsonal eta profesionalen maila handitzeko helburuz egiten diren interbentzioetan, halakoetan normalizazioa lortu nahi baita lan-merkatuarearen bidez.
- *Bazterketaren aurkako borrokaren* logikaren arabera lan egiten da gizartean nolabaiteko inpaktua lortu nahi duten ekintzak egiten ditugunean.

Azkenik, Sartu Fundazioak proiektu eta lan-talde askotan parte hartzen du. Honako hauek nabarmendu ditzakegu:

SENDOTU proiektua. Gizon-emakumeen arteko berdintasuna, gizarteratzea eta enpleagarritasuna sustatzea da proiektu honen helburua. Peñasal Fundazioak eta Sartu Fundazioak bultzatzen dute Sendotu proiektua, Europako Gizarte Funtsaren finantzazioaz lagunduta, EAEn.

Emakumeen jabekuntza-taldea. Emakumeen hainbat prozesuen inguruko esperientziak trukatzeko eta ikaskuntza bultzatzea da talde honen helburua. Beren negozioak martxan jarri dituzten maila sozioekonomiko apaleko pertsonen arteko esperientzia-trukaketa bultzatzen da hemen, eta horretarako bilerak antolatzen dira Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako emakumezko ekintzaileen artean.

Osasun mentaleko taldea. Gizarteak arazo horri osasun-alorretik erantzuten badio ere, ez zaio arazo horri lotutako arazo sozialari erantzuten. EAPNn lan talde bat sortu zen horretarako, eta Peñasal Fundazioarekin eta Bizitegirekin ere horretan gabiltza. Administrazio publikoarekin eta erakundeekin ere lan egiteko asmoa daukagu, bestalde.

Parte-hartzaileak.

Sortuko langileek Bilboko, Donostiako, Durango eta Gasteizko bulegoetan egiten dute lan. Lan-arlo bakoitzak arloko arduradun bat dauka, eta hamabostean behin bilerak egiten dituzte.

Elkarte bakoitzeko langileei dagokienez, urtean hiruzpalau bilera egiten dira, aurrekontuak eta ekintza-planak aztertzeko. Gaikako lan-taldeak eta arazo zehatzetarako taldeak ere antolatzen dira tarteka.



Parte hartzeko erabilitako mekanismoari dagokionez, hiru organoz osatutako talde estrategiko gisa dihardute. Osoko bilkuran lau elkarteetako zuzendariak, arloetako arduradunak eta elkarte bakoitzeko langileen ordezkari batek parte hartzen dute. Bilkura estrategikoa urtean bitan elkartzen da memoria, kontuak, jardueren proiektua eta aurrekontua onartzeko. Horrez gain, gai estrategikoak ere aztertzen dira bileran, plan estrategikoa, antolaketa-eredua, xedea edo beste edozein gai berraztertzeko, adibidez. Aurreko atalez gain, batzorde iraunkor bat eta kudeaketa-batzorde bat daukate. Kudeaketa-batzordeak osoko bilkurak agindutakoa betetzen duela zaintzeaz arduratzen da batzorde iraunkorra. Nabarmentzekoa da, bestalde, xedea, ideia-oinarria eta plan estrategikoa berrikusten ari direla orain, erakunde barruan egiten ari diren parte-hartzean oinarritutako prozesu baten bidez.

Lorpenak.

Lehenik eta behin, alor sozialaren eta ekonomikoaren giltzarri izatea lortu du Sartuk: Sartu erreferentziatzko erakundea da gizarte-politikan eta politika ekonomikoetan.

Bigarrenik, zerbitzu-sorta zabala garatu du hainbat erakunderekin adostuta. Sare-lana eta lurraldean egindako lana funtsezko osagaiak dira Sarturen lanean. Zentzu horretan, EAE osoan lan egiten du Sartuk bere lau elkarten bidez, eta talde- eta sare-lana egitea ahalbidetzen dio horrek. Maila lokalari dagokionez, Bilboko Sartu eta San Frantzisko auzoan egindako lana horren eredu bikainak ditugu. Azkenik, Sartu lan egiten duten pertsonen konpromiso sendoa azpimarratu behar dugu, baloreetatik eta haietan oinarrituta lan egiten duten aldetik.

Iraunkortasuna.

Administrazio publikoari eskainitako ondasun eta zerbitzuak dira Sarturen diru-iturri nagusia. Gaur egun, Sartuk hainbat programa dauka Eusko Jaurlaritzako sail hauekin: Justizia, Enplegua eta Gizarte Gaiak, Hezkuntza eta Ingurumena. Sartu EAEko finantza-etxeekin lan egin du bereziki, baina Espainiako Estatura eta Europara ere hedatzen ari da pixkanaka.

Finantzazioari dagokionez, diru-laguntzen mende ez dauden proiektu propioak mantentzea da beraien arazoetako bat. Eta gaur egun horixe ari dira aztertzen, finantzazio-iturriak dibertsifikatzearen.

Erakundeekin lotura.

Sartuk gure gizarteko sare eta erakunde askotan parte hartzen du, konpromiso handiz. Adibidez:

- REAS Euskadi, EAEko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Sarea. Sartuko zuzendaritza-batzordean parte hartzen du.
- Gizatea, EAEko Gizarteratze Enpresen Elkarte. Sartu presidentzian dago eta mintzakidetzan lan handia eginez parte hartzen du.
- EAPN Euskadi, EAEko Pobreziaren Aurkako Sarea.
- Sargi, Gipuzkoako interbentzio sozialeko erakundearen plataforma.
- FIARE, banka etikoko proiektua.
- UNAD, Droga-mendekoei Laguntzeko Elkarten Batasuna.
- Innobasque, EAEko Berrikuntza Agentzia.
- ZERBIKAS, ikaskuntza eta zerbitzu solidarioa.
- CEBS, Espainiako Gizarte Ongizaterako Batzordea.
- Durangaldeko gizarteratzearen aldeko foroa (erakunde sozial, publiko eta pribatuekiko koordinazioaren hobekuntza).
- Aldauri Fundazioa (Bilbo Zaharraren, San Frantziskoren eta Zabalaren dinamizazioa).



Erronka nagusiak.

- *Gizarteratze-enpresak.* Gizarteratze-enpresak eta enpresa finalistak mantentzea eta ugaritzea da gure erronketako bat. Sartuk ehun pertsonentzako lana sortzen du, gizarteratze-enpresetatik kanpo. Zentzu horretan, beste erakunde batzuekin indarrak bildu eta gogoeta bateratua egin eta gero gizarteratze-enpresak elkarrekin batera sortzea izan liteke beste erronka bat.
- *Zerbitzuak modernizatzea gizartearen eskariei jarraiki.* Sarturen zerbitzuak egokitzea, gizartearen egungo aldaketak kontuan hartuta. Immigrazioak pisu handia dauka eta zerbitzuei buruz gogoeta egitea eta zerbitzuok hobetzea eskatzen du horrek, eskariari erantzuteko. Era berean, kulturartekotasunaren gaia txertatu behar dugu erakundearen barruan, eta horren adibide bat dugu erakundearen barruan garatutako bizikidetz-plana.
- *Gaiak zehar-lerro gisa lantzea erakundearen barruan.* Sartuk lantzen dituen gaietako batzuk hauek dira: pertsona guztientzako diseinu-eskakizunak betetzen dituen erakundea izatea, hau da, pertsona guztiek erabili ahal izatea zerbitzuak, haien arazo pertsonalak edozein direla ere; genero-berdintasuna ere lantzen dugu, erabiltzaileen %65 emakumezkoak izan daitezen, eta horretarako ikastaro-eskaintza berrikusten dugu, esate baterako. Era berean, gogoeta egiten ari gara orain hizkuntz normalizazioari buruz eta laneko arriskuen prebentzioari buruz.



Erakundearen izena: Ferias Francas de Misiones

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena eta merkaturatzea

Lekua: Misiones-eko probintzia, Argentinaren Republikaren iparrekialdean

Posta elektronikoa: crpmamcf@hotmail.com (Movimiento Agrario Misionero)

Webgunea: <http://ferias-francas-misiones.globered.com/>

Posta helbidea: Leandro N. Alem 1148, Oberá, CP: 3360, Misiones

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: ekoizpena eta merkaturatzea probintziaren puntu desberdinetan ezarritako 50 azoka baino gehiagoren inguruan antolatzen diren gutxigorabeherako 2500 familiek egiten dute.

Jarduerak hasteko urtea: 1995

Sarrera.

Misiones-eko Azoka Irekiak (*Ferias Francas de Misiones*) espazio publikoetan ezartzen diren eta ekoizle txiek mantentzen dituzten tokiko azokak dira. Beraietan familia ekoizleak astean behin edo birritan elkartzen dira kontsumitzaileei modu zuzen baten euren baserrietako elikagai eszedentea heldu arazteko. 1995etik gaur egunera arte, esperientziak ekoizpen prozeduran ez ezik, Misiones-eko familien iraupen eta bizi baldintzetan ere eragin handia izan du, bai familia ekoizle bai kontsumitzaileetan. Aldi berean, lotuneak sortzea edota sendotzea ahalbidetu du, taldeka eraikitako ekoizpen eta merkaturatze eredu alternatibo berri bati buruzko eztabaidarako espazioa indartuz.

Jatorria.

1970. hamarkadatik aurrera, Misiones-eko nekazari familiek betidaniko laborantza batzuen (mate belarra, tea, tabakoa) prezioen jaitsiera eta sektore publikoaren babes-eza igartzen hasi zuten. Egoera hau larritu egin zen 1990. hamarkadan ezarritako politika neoliberalen ondorioz. Politika hauek aldaketak ekarri zituzten probintziako eredu produktibora eta baso-ustiapenen hedaketa zela eta, lurren okupazio eta balorazioaren gaineko gatazkak areagotu zituzten. Honen eragina nabarmena izan zen ekoizle txiki eta ertainen jardueretan, bazterketa eta pobrezia egoerak biderkatu ziren eta familia askok hiriburuetara joan behar izan zuten. Testuinguru honetan, tokiko pertsona eta erakunde ekoizleak Misiones-eko Nekazal Mugimenduarekin (*Movimiento Agrario Misionero* – MAM) eta erakunde publiko eta programa nazional eta probintziarrekin batera, Azoka Irekien sorrera bultzatzen dute. Lehenengoa Oberá-n egiten da 1995ean.

Jarduera.

Azoka Irekien ekintza nagusia ekoizpena da eta gero, inguruetan, eszedentearen merkaturatze zuzena. Ekoizpena azokak ezartzen diren herrietatik hurbil dauden familia baserrietan egiten da batik bat –emakumeen eta gazteen lanari esker. Salmenta-postuetan emakumeak aurkitzen ditugu batez ere, baserriko produktu anitzak saltzen: barazkiak, arrautzak, fruituak, esnea eta esnekiak, ogia, haragi freskoa, ozpinetan ipinitako barazkiak, kontserbak, gozokiak, mate belarra, belar usaintsuak, loreak eta eskulanak besteak beste.

Hala ere, ekoizle eta merkatarien ekintzak harago doaz eta ekoizle eta kontsumitzaileen bizi kalitatean eragina duten jarduerak barne hartzen ditu: eskaintako produktuen kontrol bromatologikoak (hauek egin ahal izateko merkatariek trebakuntza jasotzen dute udal osasun autoritateen bitartez); ekoizpena bereziki zuzendutako mikrokreditu programetan parte hartzea; merkatarien taldearentzat sortutako obra sozialaren kudeaketa;



microcréditos destinados exclusivamente a la producción; la creación y gestión de una obra social para el colectivo medikuntza naturalari buruzko jakiturien berreskuratzea eta ekoizleentzat zein ingurugiroarentzat ekoizpen prozedura osasuntsuago baten sustapena. Gainera, azoka batzuek Estatuko erakundeek hornitzaile dira eta gastronomia-zerbitzuak eskaintzen dituzte inguruko azoken jaiak daudenean edo urteroko azoken jaiak ospatzen denean.

Era berean, beste nekazal edo ekoizle txikien elkarteekin, jatorrizko komunitateekin, eliz taldeekin, ingurugiroa defendatzen dutenekin edo aholku teknikoa ematen duten elkarteekin ekintza bateratuak proposatzen dituzte eta Foros de la Tierra bezalako espazioak sustatzen dituzte Misiones-eko garapen sozio-ekonomikoaren ereduari buruzko eztabaida piztea helburutzat dutenak.

Parte-hartzaileak.

Azoka Irekiak gutxi gorabehera 2500 familia merkatariek osatzen dituzte, probintziako 50 puntu desberdinetan banaturik. Orokorrean, azokak txikiak izaten dira, 20 merkatarik baino gutxiagokoak, gehiengo bat emakumeak. Soilik 3 azoka, 50tik gorako azoken artean, heltzen dira 40 merkatariz osatuta egotera. Merkatarien artean badaude ohizko laborantzara dedikatzen diren ustiapen txikiak (25 hektarearainoko lur sailak).

Badaude euren azoken administrazioan aktiboki parte hartzen duten merkatarik familiaren taldeak. Azoka bakoitzak Azoka Irekien Elkarteak (*Asociación de Ferias Francas - AFF*) ordezkatzen duen Zuzendaritza-Batzorde bat dauka. Batzorde honek barne araudia betearazten du eta bere baitan bakoitzaren funtzioak eta betebeharrak, elkarbizitzarako arauak, funtzionamendu egunak eta produktuen prezioak zehazten dira, produktuen kontserbaziorako neurriei buruzko erabakiak hartzeaz gain.



Erakundeekiko loturak.

Azoken inguruan sare bat eraikitzen joan da eta bere barne ondorengo elkarteak daude: Misiones-eko Nekazal Mugimendua (MAM), merkatarien interesen defentsarako instituzio publiko eta pribatuen aurrean lan egiten duen Azoka Irekien Elkarteak (AFF); minifundioen ahalmenak indartzeko trebakuntza, aholkularitza teknikoa eta finantziarioa eskaintzen duen Nekazal eta Abeltzaintzarako Programa Soziala (*Programa Social Agropecuario - PSA*); agroekologia zabaltzen saiatzen den Misiones-eko Nekazaritza Organikorako Sarea (*Red de Agricultura Orgánica de Misiones - RAOM*) eta beste erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean garapen proiektuak egiten dituen Giza Garapen eta Sustapenerako Institutua (*Instituto de Desarrollo y Promoción Humana -INDES*).



Lorpenak.

Azoka Irekien kide izan diren aktore eta instituzioen artean sortutako egiturak ekoizle txikien ekonomiari on egin dio, populazioaren parte hartzea, antolaketa eta trebakuntza ahalbideratu baititu, familia merkatariengan eta azokak ospatzen diren herrietako populazioarengan eragin kultural eta sozioekonomiko nabarmena izan duelarik, hurrengo puntuei dagokienez:

- landa eremuetako eta hirietako populazioaren arteko loturaren aldaketa, nekazal munduaren birbalarizazio bat lortuz hiritarren aldetik, harreman zuzen baten bidez nekazal produktuen eta prozesuen garrantziaz jabetzen diren neurrian;
- nekazarien artean familia barneko eginkizun eta harremanen birdefinizioa, gazteak eta emakumeak espazio produktiboan arduradun bihurtzen diren neurrian familia espazioan ere euren funtzioak berrikusten baitituzte;
- familien bizi baldintzetan aldaketa garrantzitsuen lorpena, bere elikaduran eta osasunean eragin positiboa izanez;
- euren eginkizunak dibertsifikatzeko beharraz konturatuz, nekazarien artean proposamenak eta inizatibak agertu izan dira, hala nola ekoizle taldeak, agroindustriak edo turismorako landetxeak;
- tokiko jakituria berreskuratzeko laguntza eta bultzadarekin batera, ekoizle taldearen konpromisoa lekuko baliabideen defentsan;
- 2010eko ekainean ateratako lege batek merkatarien jarduerak sustatzeko azoka esparruei buruzko araudi bat eta erregistro probintzial bat ezartzen ditu.

Iraunkortasuna.

Nahiz eta Azoka Irekien eragin ekonomikoa zenbatzea zaila izan, bere izateak, berez, ondorio nabarmenak dauzka ekoizpen primarioan eta azoketako partaideengan. Alor desberdinetan islatzen diren aldaketa anitzak ekarri dituzte: produkzioan, lan egiteko eran, etekinetan eta euren erabilpenean, adibidez. Gainera, ondorioak izan dituzte eremu soziokulturalean ere, hala nola, parte hartzeko eran, jardueren antolaketa eta kudeaketa demokratikoan, sare sozialen sormenean eta tokiko garapeneko aktore berrien agertzean edo indartean.



Oro har, esperientziaren iraunkortasuna handitzen doala suposatzen da, azoken eta trebakuntzen bidez merkatariak euren produktuei gehitutako balio bat atxikitzea lortu baitute, transformazioaren bitartez, baserriko produkzioa dibertsifikaziora zabalduz eta belaunaldiz belaunaldi pasatako jakituria, ohiturak eta teknologiak berriz aintzat hartuz. Aldi berean, pertsonen arteko loturak indartu dira eta harremanetarako modu berriak sustatu dira, bai etxe barruan bai etxetik kanpo. Kontsumitzaileei dagokienez, kalitate handiagoko produktuak eskuratzeko aukera eman zaie, esperientzian parte hartu nahi izan dutenen dietak hobetuz.

Erronka nagusiak.

Esperientziaren erronka nagusiak ondorengo puntuekin lotuta daude:

- Etxerako ekoizpenetik artisau-ekoizpenerantz pasatzeko osasun neurriak: hotz-katea, kalitate kontrolak eta ekoizpen espazioen egokitasuna gehiago zaindu beharko lirateke eta, era berean, agrokimikoen erabilpena produkzioarako bertan behera utzi beharko litzateke.
- Agrotoxikoekin egindako produkzioaren amaiera, familia asko ez badira ere, badaude oraindik osasunarentzat eta ingurugiroarentzat kaltegarriak diren praktikak egiten dituztenak.



- Azoka Irekiek funtsezko bi euskarri dituzte: ekoizpena eta kontsumoa. Gehien landu izan dena lehenengoa da, baina kontsumoarekin zerikusia duen guztia garatzea ere komenigarria da (proposamen batzuk kontsumitzaile elkarleen edo kooperatiben sorrerari buruzkoak dira).
- Produkzioaren jarraipena ziurtatzea, urtaroetan zehar, gero eta familia kontsumitzaile gehiago hornitu ahal izateko.
- Kasu batzuetan, baserri eta azoken arteko distantzia 30 eta 40 kilometroen artekoa da. Eragozpen honi behin betiko konponbide bat eman behar zaio, orain arte estrategia desberdinak erabili izan baitira: garraio pribatu bat taldeka alokatzetik garraio publikoekin hitzarmenak egitera.



Erakundearen izena: Deixalles Fundazioa

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena.

Lekua: Palma (Mallorca, Balear Uharteak), Espainia.

Posta elektronikoa: fundaciodeixalles@deixalles.org

Webgunea: www.deixalles.org

Posta helbidea: Son Gibert 8A 07008 Palma de Mallorca Tel 971 479211

Esperientzia osatzen duten kide kopurua:

-PATRONATUko kideak: 5

-Langileak: 267

-Boluntarioak: 20

Jarduerak hasteko urtea: 1986

Sarrera.

Deixalles Fundazioa irabazi asmorik gabeko erakundea da. 1986an sortu zen, Mallorcako Gotzaindegiko Gizarte Ekintzarako ordezkartzaren eta Mallorcako Enpresa Txiki eta Ertainen Federazioaren (PIMEM) ekimenez.

Ekonomia solidarioaren printzipioak jarraitzen ditu Fundazioak eta gizarte bidezkoagoa eta jasangarriagoa eraikitzea da bere helburua. Bazterketa-egoeran dauden edo gelditzeko arriskuan dauden Balear Uhateetako pertsonen lan-munduratzeko eta gizarteratzen laguntzen die, gehienbat hondakinekin eta ingurumenaren hobekuntzarekin zerikusia duten jardueren bidez.

Jatorria.

Deixalles Fundazioa irabazi asmorik gabeko erakundea da. 1986an sortu zen, Mallorcako Gotzaindegiko Gizarte Ekintzarako ordezkartzaren eta Mallorcako Enpresa Txiki eta Ertainen Federazioaren (PIMEM) ekimenez. Giza errealitate guztiak bezala, gure uhartean une jakin batean izandako gorabehera batzuen ondorioz sortu zen Deixalles Fundazioa. Gorabehera horietako bakar bat ez litzateke aski izango gaur egun dugun egoerara iristeko, baina hainbaten baturak egungo egoera ekarri digu.

Mallorca, hasi ziren lekua...

Mallorcako gizartea bere historia osoan zehar ezagutu gabeko ongizate-maila batera iritsia zen urte batzuk lehenago. Baina, aldi berean, Palman ireki berriak ziren udal-zerbitzuen sareko ongizate-zerbitzuetako itxarongelak jendez betetzen hasi ziren marjinazio eta pobrezia handiaren ondorioz. Lehen mailako arreta-zerbitzuak eta Cáritaseko gizarteratze-tailerrak, adibidez, ez ziren aski zegoen eskariari erantzuteko. Palmak bizi izandako aurrerapenaren ondorioz, hondakinak (hozkaileak, sukaldeak, altzariak...) ikusten ziren nonahi barreiatuta. Aldi berean, administrazio publikoak gero eta arduratsuago jokatzen zuten hondakinen kudeaketarekin.

Enpresa txiki eta ertainak izan ziren oparoaldi ekonomikoaren protagonistetako batzuk. Enpresa haiek antolatzen eta garatzen hasi ziren eta haien buruzagi zuhur eta buruargiak konturatu ziren ezin zutela alderdi sozial eta solidarioa beren eginkizunetik kanpo utzi. Orduan ere ongintzan oinarritutako ikuspegi paternalista garatzen zen oraindik: pobreak aberatsen mahaitik eroritako papurrekin elikatu behar zireneko ideian oinarritzen zen ikuspegi hori.



Mallorcako Elizak, Cáritasek bereziki, ibilbide luzea zeukan zailtasunak zituzten kolektiboek laguntzen, eta erantzun berri eta kreatiboen beharra azpimarratu zuen. Mallorcako Eliza katolikoak izandako kontzientziario hori urte haietan egin ziren hiru urteko elizbarrutiko biltzarretan ikusi zen. Egoera zailenean daudenentzako arretan hobeto parte hartzeko eta gizarte zibilarekin batera jarduteko gizarte-ekintzako taldeak sortzera bultzatu zituzten parrokiak. Jendea eta eraikinak jarri zituen Elizak.

Deixalles-ek ekimen sorta zabala biltzen zuen. Garai hartan gizartean oraindik errorik bota gabe egon arren, urteen buruan asko handitu dira ekimenok: hondakinak berreskuratu eta birziklatzea, lana denontzat, monitore motibatuak, ingurumenari lotutako kontzientzia eta kaltetuen beraien parte-hartzea dira ekimen horietako batzuk.

Arazo larri bati erantzun berriak emateko ilusioak lotzen zituen parrokia, elkarte eta komentuen sare bat eratzen joan zen pixkanaka. Eguneroko hizkeran gutxi erabilitako hitza da “deixalles”, baina ingurumen- eta gizarte-arazoei lotutako errealitate berri bat izendatzeko marka iradokitzailea bihurtu zen. Pixkanaka gure kausarekin bat egiten joan ziren bidelagun berriak, enpresak, erakundeak eta administrazio publikoak, eta haiei esker egungo egoerara iritsi gara.

2010eko otsailean, proiektu kolektiboagoa bihurtu zen Deixalles Fundazioa: Associació Amics de Deixalles elkarteak eta, Fundazioan gutxienez urtebete lanean eman eta gero, bazkideak izan nahi eta beren lanaren jabe izan daitezkeen Fundazioko langileek osatutako elkarteak patronatu bat eratu zuten. Patronatua eratu zuten erakundeek hasitako bideari jarraitzea erabaki dute eta aholku-batzorde bat osatu dute, horretarako.

Jarduera.

Deixalles Fundazioak zazpi ordezkari dazka: Mallorcan sei (Palma, Sóller, Felanitx, Llevant, Calvia eta Inca) eta Eivissan beste bat. Denen artean osatzen duten jarduera- eta tailer-sareari esker lanerako gaitasunak eta gaitasun pertsonalak ikasten dituzte parte-hartzaileek. Gaitasunok oso tresna garrantzitsuak dira gero gizarteratze-prozesuetan.



Esparru ekonomikoari lotutako lan-munduratzeko ekimenak dira fundazioaren beste bizkarrezurretako bat:

- **Hondakinak Kudeatzeko Zerbitzuak:** Mallorcako Kontseiluaren hondakinak aukeratu eta tratatzeko instalazioetan egiten dira jarduera horiek, eta Tirme eta MacInsular enpresek kudeatzen dituzte, administrazio emakida baten bidez.
- **Teula:** garbiketa-lanak egiteko proiektua. Bulegoak eta lokalak mantentzeko zerbitzuak, lokalak martxan jartzeko zerbitzuak, obra amaierako zerbitzuak... ematen dituzte, kalitate-irizpideak eta ingurumen-irizpideak kontuan hartuta.

Hauek dira enpresaren helburu nagusiak:

- La inserción socio-laboral de personas en riesgo de exclusión (colectivos parados de larga duración, inmigrantes, personas en condiciones de pobreza, etc.).
- El fomento del comercio justo y la economía solidaria.
- La recogida, reutilización y reciclaje de residuos voluminosos (electrodomésticos, muebles, etc.).
- La divulgación de las problemáticas ambientales y las buenas prácticas (educación ambiental)



Parte-hartzaileak.

Langileak: 267

Boluntarioak: 20

Patronatua: lau emakume eta gizon bat.

Lorpenak.

Deixalles Fundazioaren bereizgarrietako bat bere lana gizartearekin uztartzeko duen ahalmena da. **Ingurumengaitan inguruko gizartearekin bat garatzeko gaitasuna** da bere ezaugarri garrantzitsuenetakoa: bere lanari esker, birziklatzea eta berrerabilpena oso hedatuta daude gaur egun Mallorcan.

Harreman hori Fundazioaren oinarriko printzipioari lotutako premisetatik etorri da. Hauek dira printzipio horiek: **ingurumena**, hondakin solido eta handiei arreta berezia emanez, eta **egoera kaskarrean dauden sektoretako pertsonen lan/munduratzeta eta gizarteratzea**, ingurumenean esku hartzeko funtsezko elementu gisa. Lankidetzan jarduteko ahalmen hori gure historiaren ezaugarria izan da, eta beti saiatu lankidetzan horretan osagai pasiboak ez izaten, osagai aktibo eta dinamikoak baizik. Argi esatearren, proposamenak eta alternatibak proposatzen ditugu beti bizi eta jarduten dugun testuinguru eta egoeretan.

Jasotako sariak:

- 1994ko martxoan “Dinero-2002ko enpresaburuak” saria jaso zuen Fundazioak, ingurumena babesteko gehien lan egin duten erakundeetako bat izateagatik. Dinero, ocio y negocio aldizkariak ematen du sari hori.
- 2001eko otsailean, Enpresa Ekimenerako Ramon Lull saria jaso zuen Deixalles Fundazioak. Balear Uharteetako gobernuak ematen du sari hori.
- 2002ko irailean Mallorca, Eivissa eta Formentarako Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberaren ohorezko diploma jaso genuen, Ingurumenaren Kudeaketa kategorian.
- 2009ko irailean, Mallorcako Kontseiluaren urteko Elkartasun saria jaso genuen.

Erronka nagusiak.

Helburu hauek lortzeko egiten du lan Deixallosek:

- Mundu solidarioa eraikitzen saiatzea.
- Berdintasuna bezalako irizpideak bilatu eta lantzea, erakundeko protagonista guztien (langileak, patrioiak, Mallorcako komunitatea, etab.) interesak modu orekatuan asebetetzen saiatuz.
- Lanpostu berriak bilatu eta aurkitzea, egonkorrak izan daitezen saiatuz, egoera kaskarrean dauden sektoreen integrazioa bultzatzeko asmoz.
- Ingurumena kaltetzen ez duten ekintza, produktu eta metodoak bultzatzea.
- Lehiaren ordean lankidetzan bultzatzea, erakundearen barruan eta kanpoan.
- Ingurumenarekiko konprometitzea, ingurune sozialean txertatuta.
- Beste erakunde batzuekin batera jardutea, arazoak konpontzeko formulak bilatzeko, eta ingurune sozialaren parte-hartzearekin.
- Aurreko guztiaz gain, argi daukagu irabaziak lortzeak ez duela helburu bat izan bere horretan: soberakin guztiek langileak bizi diren eta lan egiten duten ingurunean txertatzeko erabili behar dira.

Fundazioaren nortasuna definitzen duten eta definitu izan duten printzipio dira horiek. Aurrera egiteko bidean aurkitutako tresna baten modukoak dira printzipiook: etengabe egokitzen doaz, etengabe eraikitzen eta eboluzionatzen, eta horri esker sendotu egiten dira erakundearen indarguneak eta besteekin lan egiteko joera.



Fundazioak bizi izandako hogeit hamar urteak ez dira elkarri lotutako ekintza-kate bat bakarrik, Fundazioaren historia betetzen joan din “leialtasun”-sorta baten modura aztertu edo interpretatu behar dira ekintza horiek.

Erakundeekin lotura.

Ekimen alternatiboek eta elkarrekintzak elementu abstraktu eta orokorrak ezin dutela izan ikasi zuten denborarekin, hau da, beren nortasun berezia izan behar zutela eta beren bidea egiteko izaera bereizlea eta identifikatzailea markatu behar zutela. Ekonomia solidarioarekin bat etorri lan egiten dute, beste autonomia-erkidego batzuetako eta Europako erakundeekin batera. Horren adibide da “**Mundu solidario baten alde ekiten**” izeneko **Ekonomia Solidarioaren Gutunaren** lanketa.

Ekonomia solidarioaren printzipioak jarraitzen ditu Fundazioak eta gizarte bidezkoagoa eta jasangarriagoa eraikitzen laguntzea da bere helburua. Bazterketa-egoeran dauden edo gelditzeko arriskuan dauden Balear Uhateetako pertsonen lan-munduratzeko eta gizarteratzen laguntzen die, gehienbat hondakinekin eta ingurumenaren hobekuntzarekin zerikusia duten jardueren bidez.



Deixalles Fundazioak bultzatutako ekimen solidarioak garatzen diren ingurune sozialean txertatzen dira bete-betean, “Ingurunearekiko konpromisoa” printzipioari jarraiki. Hori dela eta, lankidetzan jarduten du Mallorcako antzeko arazoak lantzen dituzten beste erakunde batzuekin batera eta sareetan parte hartzen du, elkartasun-esperezia zehatzek bestelako eredu sozioekonomiko bat sortzeko bide bakarra hori dela ulertuta.

Ildo horri jarraiki, ekintza hauek antolatzen ditu Fundazioak:

- Caixa Colonyako Aurrezpen Etikorako Batzordean parte hartzen du. Deixalles Fundazioa batzorde horretako kide da, Mallorcako Elizbarrutiko Cáritasekin eta Guillen Cifre de Colonya Fundazioarekin batera.
- Bestalde, enpresaren kudeaketa etikorako zentro batean ere (Eticentre) parte hartzen du Fundazioak.
- Parte hartzen du, halaber, udal-mailako Agenda 21etan eta Mallorcako Kontseiluaren barruan udaletako Agenda 21ei oniritzia emateaz arduratzen den aholku-batzordean.
- Balear Uharteetako Lankidetzako Kontseiluko kide da. Gizarte Arazoetarako Saileko aholku-batzordea da Kontseilu hori, eta Balear Uharteetan lankidetzan parte hartzeko gune bakarra da.

Sare hauetan ere parte hartzen dute:

- **Balearretako Ekonomia Alternatiba eta Solidarioaren Sarean (REAS Balearrak)**. REASeko zuzendaritza-batzordean dago Fundazioa eta hango lan-batzordeetan parte hartzen du. Balearretako REASen ordezkaria da Estatuko REASen.
- **AERESS – Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Berreskuratzailen Espainiako Elkarte**.
- REAS Balearrak-eko kide den aldetik, **EAPN Balearrak-eko eta Balear Uharteetako Hirugarren Sektor**eko kide da.



Iraunkortasuna.

Fundazioaren lana ez da ingurumenera eta gizarte-esparrura mugatzen, jarduera ekonomiko produktiboa ere lantzen du eta. Bestela, ezingo luke jardun guztiz jasangarria izan. Hauek dira Fundazioaren jarduera-ardatzak:



Gizarte-ardatza: lan-munduratzeko zailtasunak dituztenei gure gizartean garapen integrala izateko tresna bat aurkitzera bideratutako ekintzak jasotzen dira hemen.

Ongizate-gizarte modernoak jendea baztertzen du bere maila sozial eta ekonomikoa dela medio. Gizartean baztertuta gelditzeko arriskuan bizi direnak dira Deialles Fundazioaren arretagune nagusia: lan-munduratzeko eta gizarteratzeko eta garapen integrala lortzeko lanpostu duina lortzen laguntzen diete.

Ingurumen-ardatza: ingurumen-arloan egiten dituzten jarduerak sartzen dira hemen: hondakin handien

- berrerabilera, ontziak aukeratzeko planten kudeaketa, hondakin handien eta obra-hondakinen planta, lorezaintza ekologikoa, uharren garbiketa...

Gure gizartearen ongizatea parametro askoren bidez neurtu dezakegu, eta sortzen den hondakin-maila da parametro horietako bat. Gure gizarteak hondakin asko sortzen ditu eta material eta objektu asko baztertzen ditu. Gizartearen eros-ahalmenaren adierazle da hori. Hondakinak eta objektu erabiliak Deialles Fundazioaren lan-tresna nagusiak dira. Haiek bildu, sailkatu eta berreskuratuz lanpostu duinak

- sortzen dituzte.

Ardatz ekonomikoa: Fundazioak ingurumenari eta gizarteari lotutako helburuak kudeatu eta koordinatzeko bultzatzen duen politikak definitzen du ardatz hau. Ekonomia sozial eta alternatiboaren printzipioekin bat datorren eredu ekonomikoa da guk bultzatzen dutena.

Gizarte bidezkoago eta solidarioagoa eraikitzen laguntzeko helburu argiarekin garatzen dute beraien jarduera, egoera kaskarrean dauden kolektiboak integratzen lagunduz eta garapen jasangarria ahalbidetzen duten jarduerak abian jarriaz.





Erakundearen izena: GAZTELAN Fundazioa

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena - gizarteratzea eta laneratzea.

Lekua: Iruña. Nafarroa. Espainia.

Posta elektronikoa: gaztelan@reasnet.com

Webgunea: <http://www.gaztelan.org/>

Posta helbidea: Probintziak 6, behea 31014 Iruña, Espainia.

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 18 emakume eta 3 gizon.

Jarduerak hasteko urtea: 1987

Sarrera.

Gaztelan Fundazioaren helburuen artean, gizarte bazterketaren zergati eta ondorioei aurre egitea dago, hala nola, ekonomia solidario bat sustatzea, bertan pertsonak izan daitezen zati eta helburu. 1981 urteaz gerotik lanean ari da, bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gizarteratze eta laneratzearen sustapenerako tresnen sorreraren bitartez.

Jatorria.

1981 urtean, atzeraldi eta langabeziaren testuinguru sozioekonomiko baten barruan, pertsona talde batek beraien indarrak batzea erabaki zuten lan alternatiben bilaketan. Hemendik, Txantreako Tailer-Eskola sortzen da, iturgintza, soldadura eta ibilgailuen konponketa, haize-sorgailuak eta etxeko-trenak elektrikoen prestakuntza eta lan proiektu bat, Nafarroako Gobernua keta Hezkuntza Ministerioak ezagutua. Beranduago, bi kooperatiba sortuz iren, bat haize-sorgailuei buruz eta bestea iturgintzari buruzkoa, baita gazteentzako Enpleguaren Sustapenerako Zentro bat ere.

Gaztelan (gazte enplegua) Elkarte bezala 1987 urtean sortzen da eta aurreko eskarmentuen testigua jasotzen du, enpleguaren sustapenerako zerbitzuei dagokionez. 1995 urtean Fundazioen Erregistroan inskribatu zen, interes sozialekoa deklaratu zuen Nafarroako Gobernuak. Bere misioa, bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gizartean barneratzea erraztea da, laneratzearen bitartez eta ekonomia solidario baten garapenean laguntzearen bitartez, bertan pertsonak ekonomiaren alde aktiboa eta helburua izango direlarik.

Beraien Tresna Hoberena: Eredu Global eta Integrala

esperientzia luze baten emaitza bezala enpleguaren sustapenean; egun, barneraketaren fase guztiak dituen eredu bat garatzen ari dira, estaldura eskaintzen bai erabiltzaileen tipologia desberdinei bai laneratze prozesu pertsonal bakarraren fase desberdinei, momentu bakoitzeko behar pertsonal eta gizarte beharretara etengabe egokituz. Zentzu honetan, onartutako ereduak artikulatutako zerbitzu eta ekintza integralen zirkuitu bat bezala funtzionatzen du; egoera pertsonalen heterogeneotasunak, egoera desberdinei eta momentu pertsonalei egokitzen zaien barneraketa ibilbideak ezartzeko beharrera eramaten gaitu. Elementu gakoak hainbat alderdietatik pasatzen dira: orientazio pertsonalizatua, bitartekotza, aurre-lan prestakuntza, lan prestakuntza, laguntza eta jarraipena lanpostuan, inplikaturik dauden entitate guztiekin koordinazio etengabea eta helburu bezala, lan merkatu normalizatura sarrera.



Jarduera.

Helburu hauek lortzeko hainbat ekintza garatzen dituzte eremu desberdinetan: harrera, lanerako orientazioa, gizarte-lan informazioa, lanerako bitartekotza, enplegu eta auto-enplegurako ekimenen aholkularitza, enpresa propioen sorrera eta finkapena, prestakuntza, laguntza prozesuak, kalitatearen kudeaketarekin konpromisoa, koordinazioa eta lana sareetan, gizarte sensibilizazioa, genero berdintasuna sustatu, ikerketa eta proposamenak.

Produktu eta zerbitzuak:

- Ekonomia Solidarioko Baliabideen Zentroa
- Enplegurako Baliabideen Gida (www.guianavarra.org)
- Gizarteratze eta laneratzea (aholkularitza zerbitzua)
- Auto-enplegurako aholkularitza
- Prestakuntza
- Gizarte-ehunaren indartzea
- Etxez etxeko laguntza: "Transforma"

Parte-hartzaileak.

Gaztelan Fundazioaren lana, desberdintasun, prekarietate, zaurkortasun, gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonengana zuzentzen da, emakumeei arreta berezia eskainiz. Taldeen artean, etorkinak, gutxiengo etnikoak, 40 urtetik gorako pertsonak, familia guraso bakarrak (amarekin), oinarrizko errentaren hartzaileak, minusbaliotasunak dituztenak, iraupen luzeko langabetuak, alkohola eta droga-menpekotasun arazoak dituztenak.

Zerbitzu desberdinak, barne eta kanpo bezeroak eta oro har gizartearen prestazioagatik zuzenean edo zeharka eragina izan duten gizarte talde guztiak barneratzen ditugu, beraiek guztiek gure ekintza biraka dabilen ardatza baitira.

Lorpenak.

Bere hasierako garaian, Gaztelaneko ekintza ardatza nagusiak hauek izan ziren: prestakuntza, taldekako antenen instalaziorako landa lan baten bitartez, hondakinen bilketarako enpresa baten sorrera eta enpleguaren bilaketa Lan Poltsa baten bitartez.

1990 urtean bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arreta eta gizarte ekimenen sustapena sistematizatzen da enpresa solidarioen bitartez: Beire Aterpetxea (1988), Liebres Baserría (1991), Osasuneko Ergile Komunitarioen Programa emakume ijito bitartekariekin (1992) eta Oraintxe bizikelta-mezularitza (1994). 1995 urtean lehenengo Enplegu Agentzia ezarri genuen, pribatua, irabazi asmorik gabekoa, Nafarroako INEMek baimendua.

1996 urtean Horizon europar programarekin, Biciclos sortu zen, bizikleten konponketarako enpresa. 1998an Aranzadi ekintza hasi zen, Naturaren Ikasgela bat. Urte berean Miluce sortu zen, Iruñeko Udaletxearen Etxez Etxeko Arreta Zerbitzuaren %50a lehiaketa publikoaren esleipenarekin. 1999 urtean, Integra europar ekimenaren esparruaren barruan, eraikuntzan eta igeltserotzan prestakuntzaren II Circle proiektua sustatzen da, eta 2000 urtean Artelan enpresa izatera pasa zen. 1998 eta 1999 urteetan Europar Proiektu Pilotu bat exekutatu dugu, kaltetuak dauden taldeentzat aztarnategi berrietan enpleguaren sorreran saiakuntzak eginez. 2000 urtean 4Vientos garbiketen enpresa sortzen da ere.



2001 urtean Nafarroako Emakumearen Institutuko Optima Programan parte hartzea hasi zuten emakume eta gizonen arteko Aukera berdintasun Plan bat burutzeko, eta Gaztempresa Programan barneratu ziren gazteen eta kaltetuen taldeetan enplegua sustatzeko.

2002 urtean, Transforma enpresa sortzen da, Etxez Etxeko Arretarako Zerbitzuen enpresa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuagatik Gizarteratze-Laneratze Zentroa bezala ezagutua. Equal Ekimen Komunitarioaren Técnica Proiektuan parte hartzen dute emakumeei zuzenduriko enplegu ekintzak garatzeko, emakumeen presentzia eskasa den ekonomiako suspertzen ari den sektoreetan, eta Casco Antiguo-Rochapea Enplegurako Zentroa sortzen da, Urban Proiektuaren esparruan.

2003 urtean, Casas Amigas enpresak sortzen dira, Haurren arretarako, eta Dosalcubo “Teknologia Berriak eta Gizarte Komunikazioa”. Horrez gain, “Enpresen Gizarte Erantzukizuna Nafarroan” interneteko atari bat jarri zen martxan eta gizarte bazterketa prebenitzeko eta aurre egiteko neurri bezala, informazioaren eta komunikazioaren teknologietara sartzeko RedConecta Rochapea Zentroa hasi zen. Urtearen amaieran Fundazioari EFQM kalitatearen brontzezko zigilua eman zitzaion.

2005 urtean Empléate (Equal II Ekimena) programan parte hartzen da, bertan 16 entitateek sarean egiten dute lan, beraien negozio propioak eraikitzeke zailtasun gehien dituzten talde haien enpresa ekimenari lagunduz.

2006 urtean Nafarroako Gobernuak bultzatutako “IKTetara hurbildu” programaren martxan jartzean eta funtzionamenduan parte hartzen da, bere helburua IKTak gutxien ezagutzen dituzten taldeei hurbiltzea da. Horrez gain, “La Caixa” Gizarte Ekintzaren lankidetzarekin okupazioaren sustapenerako proiektua hasten da Nafarroan.

Azkenik, Gaztelan Fundazioak enpresak behin finkatu direnean askatasuna lor dezaten jarraitzen duela azpimarratzea garrantzitsua da, nahi zeta fundazioko filosofia mantendu eta Gaztelan-ekin harreman iraunkor bat mantendu.

Erakundeekin lotura.

Sarean lan egiten duen eta modu koordinatuan lan egiten duen erakundeen artean ondorengoak aurkitzen dira:

- *REAS NAFARROA “Ekonomia Alternatiboa eta Solidarioaren Sarea”*
2003 urteko abenduak 12an REAS NAFARROA sortu zen, Gaztelan Fundazioak entitate fundatzaile bezala parte hartzen du, beste 34 entitate eta enpresekin batera. Era berean, sare hau REAS – Sareen Sarearekin uztartzen da eta Gaztelan Zuzendaritza Batzordean parte hartzen du REAS-eko Idazkaritza bere gain hartuz.
- *Pobreziaren aurkako Borrokarako Nafarroako Sarea.*
1994 urtean sortua, 23 gizarte entitate taldekatzen ditu, hauen artean Gaztelan Fundazioa egonez. Bere helburua, bazterketaren aurkako borrokan indarrak bateratzea da.
- *EGE Foroa Nafarroa*
2005 urtean sortua, 56 entitate publiko, pribatu eta enpresa taldekatzen ditu eta Ingurumenaren Baliabideen Zentroa Fundazioa, Nafarroako Herri Unibertsitateko Enpresen Kudeaketa Saila eta Gaztelan Fundazioaren artean koordinatzen da.



Gaztelan ANEL-Lanerako Enpresen Nafarroako Elkarte- bezalako beste erakundeekin erlazionatzen da, bazkide izanik. Era berean, koordinatzen da:

- Iruñeko Udaletxeko Auzoko Unitateak
- Iruñeko Udaletxeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak Emakumearen Arretarako Zerbitzua
- Osasun Zentroak eta Osasun Mentaleko Zentroak
- Antox Elkarte
- Nuevo futuro Elkarte
- Zuria Eguneko Zentroa
- Presondegiko Gizarte Zerbitzuak Proyecto Hombre Fundazioa
- Lagun Etxea
- Iruñeko Cáritas Diocesana
- Secretariado General Gitano Fundazioa
- Santa Lucía Fundazioa
- Nafarroako Herri Unibertsitateko Gizarte Lana Saila
- Lizarrako Udaletxea
- Antsoain, Berriozar eta Tafallako Udaletxeak
- Empléate Proiektuaren Garapen Taldea: AMEDNA, Iruñeko Udaletxea, Nafarroako Caja Rural , Cámara Navarra, CEDERNA GARALUR, CEIN, CEN, EDER Partzuergoa, Universidad Fundazioa, Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutua, Nafarroako Berdintasunerako Institutua, Nafarroako Enplegu Zerbitzua, TEDER, TRACASA
- Enplegu Poltsen Sarea: UGT, Gurutz Gorria, Nafarroako Mutuen Elkarte, Iruñeko Udaletxeko Garapenerako Agentzia eta ACCEDER.
- Konekta Sarea: Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren aurkako Borrokarako Nafarroako Sarea, REAS, Rochapea auzoko entitateak eta Boluntariorza Elkarteak



Era berean, entitatearen konpromisoa ez da tokiko garapenera mugatzen, beraien enpresetan Ekonomia Solidarioaz hitz egiten dutenean, eraiki nahi duten gizarte motarekin zein erantzukizun duten galdetzea sortzen da eta bertako eta nazioarteko inguruarekin zein konplizitate, konpromiso eta lankidetzaren posizioa duten galdetzea sortzen da. Kezka honetatik Solidaritate Fondo bat eraiki zen, enpresen eta Zerbitzu Zentralen ekarpenekin. Fondo honek Brasilgo ekonomia solidarioko kooperatiba bat lagundu du 300.000 euroko mailegu solidario baten bitartez, Italia, Frantzia eta Espainiako ekonomia solidarioko sareen artean mankomunatua. Era berean, mantendu beharreko lankidetzaren irizpideak adostu asmoz, eztabaida eta prestakuntza barne topaketak burutu ziren.



Iraunkortasuna.

Beraien finantzaketa erakunde publiko eta pribatuetatik dator. Erakunde publikoak ondorengoak dira: Nafarroako Gobernua, Gizarte Ongizateko Nafarroako Institutua, Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Europako Gizarte Funtsa, Iruñeko Udaletxea. Erakunde pribatuak aldiz: Caja Navarra Fundazioa, “La Caixa” Fundazioa, Caja Madrid Gizartekintza, Gaztempresa, Euskadiko Kutxaren Gizarte Lana Nafarroan eta Esplai Fundazioa. Bestalde, gure enpresak merkatuan autofinantzatzen dira ekoizten dituzten ondasunen edo ematen dituzten zerbitzuen bitartez. Horrez gain, mailegu solidarioak sustatzen eta hauetara jotzen dute, era berean, Banca Ética-ko Fiare proiektuan inplikatuak egonez.

Erronka nagusiak.

2011-2014 urteetarako Gaztelan taldeak adostutako plan estrategikoaren helburuen artean, ondorengoak aurkitzen dira:

- Propioak diren bi enpresa berri sortu.
- Ekonomia solidarioko beste hamabost enpresen sorrera lagundu.
- Pertsona erabiltzaileen enplegarritasuna hobetu, gizarteratze eta laneratze ibilbideetan laguntzaren bitartez.
- Pertsona erabiltzaileen parte hartzea sustatu.
- Beste erakundeekin itunak eta hitzarmenak ezarri.
- Ikerketa talde bat sortu eta gizarteratze eta laneratze aukera berrien sorrera.



Erakundearen izena: Peñasal Fundazioa

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena, lanbide-prestakuntzako ibilbideak eta enpresa sozialen sustapena.

Lekua: Bilbo, Espainia.

Posta elektronikoa: info@fundacionpenasal.com

Webgunea: www.fundacionpenasal.com

Posta helbidea: Belategi plaza 1 • 48002 Bilbo

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 155 lagun, 107 emakume eta 48 gizon.

Jarduerak hasteko urtea: 1983

Sarrera.

Peñasal Fundazioa Peñasal lantegi-eskolatik sortu zen. Lantegi txiki horretan ikastun gutxi batzuk zebiltzan garai batean eta Elizbarrutiko Cáritasen laguntza jasotzen zuten, langabe gazteei lan-munduratzeko. Ekimen hura gero eta handiagoa bihurtu zen, eta azkenean fundazioa eratu zen, lanari esparru juridiko-legal egokiagoa ematearren.

Jatorria.

Peñasal Fundazioa 1983an sortu zen, Bilboko Peñasal auzoan. 1983ko uholdeen eraginez, harrobian lan egiten zuten auzoko familia asko lanik gabe gelditu ziren, auzoa txiki-txiki eginda zutela uholdeen ondorioz. Testuinguru horretan, Peñascaleko parrokia (eskolapioen esku) familiekin lan egiten hasi zen.

Bi mailatan lan egin zuten: lana eta laneko esperientzia berriak eskuratzen, berehalako trebakuntza emanez inolako heziketa-egiturarik gabe, hainbat alorretan ikastun jardunez (iturgintzan, klimatizazioan eta metal-arloan), familia-ingurunearen barruan baliabide berriak sortzeko asmoz, batetik, eta, bestetik, uholdeen ondoren auzoa leheneratzeko lanak eginez. Jendeak lanbide bat ikastearekin batera, auzoaren garapen komunitarioan eta birgaitzean parte hartzen zuen, horrela. Nabarmentzekoa da han sortu zen belaunaldien arteko batasuna eta familien barruan partekatutako esperientziak.

Peñasal Fundazioa Peñasal lantegi-eskolatik sortu zen. Lantegi txiki batean hasi ziren lanean, ikastun gutxi batzuekin, eta Elizbarrutiko Cáritasen laguntza jasotzen zuten, langabe gazteei lan-munduratzeko. Ekimen hura gero eta handiagoa bihurtu zen, eta azkenean fundazioa eratu zen, lanari esparru juridiko-legal egokiagoa ematearren.

Hauxe zen Peñasal Fundazioaren xedea eta helburu nagusia: lanpostu egonkorra lortzeko garaian aukera emango zien lanbideetan prestakuntza-gabezia handiak zituzten pertsonak trebatzea. Ikasleek lan-munduratu ahal izateko behar besteko trebakuntza lortzea ez ezik, gizarte-ingurunean txertatzeko prestakuntza, erantzukizuna eta elkartasuna ere landu nahi izan dituzte beti.



Peñascal Fundazioak hezkuntza integrala lantzen du, bizimodu autonomia garatzeko eta lan-ingurune gero eta lehiakorrago eta espezializatuago batean txertatzeko gai diren pertsonak trebatzeko asmoz. Hori dela eta, lanbide-heziketa ematen dute, batetik, eta erantzukizun-ohiturak lantzen dituzte, bestetik, lan-munduko, gizarteko eta arlo pertsonaleko arazoei aurre egiten ikas dezaten. Azkenik, lankideekiko elkartasuna eta lankidetzeta sustatzea ere beraien helburu nagusietako bat da.

Hori guztia beraien heziketa-proiektuan jaso dute, helburu zehatz eta neurgarriekin, eta metodologia berritzaile batekin. Hogei urteotan osatuz eta sendotuz joan diren proiektu horren oinarritzko zutabeak hauek dira:

- *Eraginkortasuna*

Fundaziora datorren gazte bakoitzaren arazoei erantzunez, egunetik egunera lortzen dituzten aurrerapenak ebaluatzeko beharrezko heldutasuna hartzen joaten dira, eta horri esker ikastaroak ez uztea lortzen da, lan-munduratzeko ikastaroen kasuan izan ezik.

- *Lehiakortasuna*

Ikastetxe tradizionaletan, eta hezkuntza-munduan oro har, zaila da lehiakortasuna, berrikuntza, aldaketa eta produktibitatea bezalako kontzeptuak lantzea. Peñascal Fundazioan, ordea, kontzeptu horien alderdi positiboak hartu eta errealitatera eramaten saiatzen gara.

- *Abangoardiako teknologia*

Aldaketa teknologiko azkarrei lotuta bizi den merkatu geroz eta lehiakorrago honetan, Peñascal Fundazioa heziketa eraginkor eta kalitatezkoa ematen saiatzen da etengabe. Hori dela eta, enpresetan erabiltzen diren teknika aurreratuenak lantzen dituzte tailerreko programazio eta praktikan, enprekin harreman zuzena izanik, lantokietara bisitak eginez etengabe, esperientziak eta programazioak trukatu, azoka profesionaletara joanez...

Arreta handia ematen diote pedagogia eguneratzen joateari, eta etengabe berrikusten ditugu gure lan-materialak eta programazioak.

- *Eskakizun-maila*

Ondo egindako lana eskatzea da Peñascal Fundazioaren prestakuntza-jardueren ezaugarrietako bat, horrela beraien burua etengabe hobetzen eta helburuak lortzen joateko nahia txertatzeko ikasleen artean.

- *Etengabeko prestakuntza*

Lan-merkatuan sartzeko helburua betetzeko, beren lanbideari dagozkion azken teknologiak erabiltzen irakatsi behar diete ikasleei.



Jarduera.

Prestakuntzaren alorrean, lanbidea ikasteaz gain derrigorrezko titulu batzuk eskuratu behar dituzte ikasleek, beren lan-ibilbide osoan zehar ahalik eta curriculum-egokitzapenik onena izan dezaten, ezagutza-maila handiagoa duten eta langileentzat eta haien familiarentzat ordainsari handiagoa duten lanpostuak eskuratzeko. Prestakuntza integrala ematen dute, beraz: ikasleak trebatzeaz gain, lan-munduratzeko ere laguntzen diete.



Enpleguaren alorrean, sare bat osatu dute eta laguntza eta bitartekaritza eskaintzen diete ikasleei lanpostu bat lortzeko. Lanpostuan laguntza emateko prozesuak garatzen dituzte, beraz, jendea bere lanean errotzen joan dadin. Azken lau urteotan ikasleen artean antzemandako oinarrizko behar batzuei erantzuten hasi behar dutela ikusi dute, halaber.

Peñascal Fundazioa gizarteratze-enpresak sustatzen dituen erakundea da eta, hori dela eta, sortutako enpresak jarduera ekonomikoko proiektuak izan daitezten eta lan-merkatuko arauen arabera jardun daitezten saiatu dira. Enpresa horiek zerbait ekoizti edo zerbitzu bat ematen dute, beraz, eta beste edozein enpresa bezala lehiakorrak eta errentagarriak izaten saiatzen dira, baina lan-munduratzeko arazoak daukatenei sistema sozio-ekonomikoan txertatzeko aukera eskaintzen diete, pertsona horiek trebatu eta lana lortzen lagunduz, beharrezkoak ikusten diren zenbait ekintza eta jardueraren bidez.

Interbentzio sozialeko aldagaia ere lantzen dute beraien lanean. Peñascal Fundazioak historikoki izan duen eginkizuna aldatzea ekarri du, enplegura eta lanpostu on bat lortzera bideratuta baitzegoen beraien interbentzio soziala. Baina, heziketa-esparruak, enplegu-esparruak, bitartekaritza-esparruak eta esparru sozialak ez badute aldi berean funtzionatzen ezinezkoa da interbentzio arrakastatsurik egitea.

Eskakizun-maila handiko dinamika bat sortzea da beraien helburua. Lehen beren familiarekin bizi ziren eta ikasketa-porrota izan zuten ikasleak etortzen zitzaizkien. Orduan, porrota izan zuenari lanbide-heziketa ematen zitzaion, lanbide arautu bat irakasten zitzaion edo familiaren bidezko esperientziaren transmisioaren bidez irakasten zitzaion.



Egoera aldatu egin da, eta gaur egungo gazte askok ez dute haiek babestuko dituen sare sozial nahikorik. Era berean, gaur egun ezagutza ez da aski lana lortzeko, pertsona irregularren egoera izanik horren adibide bat. Horren ondorioz, beraien interbentzioak diziplina eta dimentsio asko biltzen ditu eta oso konplexua da. Horrek sistema askorekin modu koordinatuan lan egitea eskatzen du. Era berean, gero eta beharrezkoago da baliabide propioekin jardun beharrean lan-esparrua, zerbitzuak, garapen soziala eta jardun-esparru osoa partekatzea. Eta sarean lan egitea ere, noski.

Parte-hartzaileak.

Sektore profesionaletako taldeen bidez antolatzen dira. Talde horiek langileen jardueren plangintzan eta garapenean parte hartzea bultzatzen dute.

Era berean, sektore guztien koordinadora orokor bat daukate. Taldeetan sortzen diren proposamen eta ekimenak koordinadora horrek garatzen ditu, eta proposamenok beste taldeetara zabaltzen ditu, sortzen doazen beharren arabera interbentzio soziala eguneratzen joatearekin batera.

Bestalde, gai zehatzetarako zeharkako taldeak daude. Talde guztiek parte hartzen dute taldeotan jarduera berriak proposatzeko helburuarekin.



Lorpenak.

Peñasal Fundazioak hiru gai nagusirengatik nahi du errekonozitua eta ezagutua izan:

- Lehenik eta behin, eragile askoren (publiko nahiz pribatuak) modu koordinatuan lan egiteagatik.
- Bigarrenik, lana sortzeko arlo pribatuan jarduteagatik, hau da, enprekin aritzeagatik lan-munduratzeko ibilbideak diseinatzeko.
- Hirugarrenik, talde-dinamiken barruan, baina pertsoneri egokitutako banakako ibilbide eta metodologiak erabiltzen dituztelako. Pertsona bakoitzak bere erritmoa daukala jakiteak beren garapenaren protagonista izatea ahalbidetzen du.

Peñascalentzat oso garrantzitsuak dira helduarorantz joateko prozesu integralak (hasi heziketarekin eta lan-mundura iritsi arte), eta pertsonak gizartean benetan integratzeko tresnarik garrantzitsuenetako bat lana dela ulertzen dute.

Peñascalek gizarteratzean eta lan-munduratzean izan duen lorpenik garrantzitsuena lan-munduratzeko enpresak sustatzea eta gaur egungoa bezalako merkatu gorabeheratsuan erroak botatzea izan da.

Hona hemen Peñasal Fundazioak gaur egun sustatzen dituen lan-munduratzeko enpresak:

- Zurtek, SL, egur-egituren ingeniaritza, diseinu, fabrikazio eta muntaketa
- Iturritek, SL, iturgintza, berokuntza, gas eta klimatizazioko proiektu eta instalazioak
- Servicios de Hostelería Peñasal, SL, jatetxe eta kafetegia
- Izarza, SL, jatetxe eta kafetegia
- Or-Konpon Taberna, SL, taberna eta kafetegia

Era berean, sari eta aipamen hauek jaso ditu Peñasal Fundazioak:

- Gizarte Zerbitzuen Utopia saria, Adin Txikikoen Arloan.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuekin kolaboratzen duten erakunde pribatuen erregistroan inskribatuta dago Peñasal.
- Erabilera publikoko erakunde izendatua dago.
- LANBIDEREkin (EAEko Enplegu Zerbitzua) kolaboratzen duen zentro izendatua dago.



Erakundeekin lotura.

Peñasal Fundazioarentzat funtsezkoa da pertsonekin lan egiten duten gizarte-eragile guztiekin modu koordinatuan lan egitea. Oso garrantzitsua da baliabideak partekatzea proiektu komunak egiteko eta beste esperientzietatik ikastea. Beste erakunde batzuekin egiten dute lan, beraz, baina ez parte hartzen duten sare kopuru luzea izateko, beraiekin proiektua partekatzen duten pertsonekin lan sendoagoa, osoagoa eta integratzaileagoa egiteko aukera ematen dietelako baizik.

Erakundeak sare eta plataforma hauetan parte hartzen du: REAS Euskadi, Gizatea, EAPN Euskadi, Sargi, Hirekin, Hemen...



Iraunkortasuna.

Peñascal Fundazioak laguntza publikoak jasotzen ditu: bere baliabideen %65 inguru iturri horretatik datoz. Gainerako kopuruari dagokionez, %30 guk beraiek sortua izaten saiatzen dira, enpresei eskainitako ondasun eta zerbitzuen bidez.

Fundazioak sustatzen dituen enpresek proiektu sozialetara bideratzen diren baliabideak sortzen dituzte. Proiektu auto-jasangarria lortu nahi dute, bai indibidualki bai talde osoari dagokionez, eta horretarako trebakuntza eta ekoizpena uztartzen dute beraien fundazioaren jarduera-eredu gisa.

Enplegu- eta prestakuntza-programek baliabide ekonomikoa sortzen dituzte erakundeetan, erabiltzaileei benetako lan-esperientziak eskaintzearekin batera, lanean diharduten bitartean lanerako funtsezko gaitasunak bereganatzen dituzte eta. Baliabide horiek diru-sarrerak sortzeaz gain, diru-laguntzen kobrantzak diruzaintzan eragiten dituen tentsioak arintzen laguntzen dute, finantzazio-epeak askoz laburragoak baitira.



Era berean, gure lanbide-heziketako ereduak gero eta onarpen handiagoa eta harrera zabalagoa dauka unibertsitateaz bestelako ibilbidea egin nahi dutenentzat. Hezkuntza-programetan finkatutako helburuak lortzen laguntzen duten kalitate handiko hezkuntza-estiloa bultzatze da, beraz, Peñascal Fundazioaren egitekoa, hezkuntzak aurrekontu publikoentzat jasangarria izan behar dueneko ikuspegia kontuan hartuta betiere.

Erronka nagusiak.

Barneko erronkez gain (egonkortasuna, iraunkortasuna eta etengabe aldatzen ari den ingurune baterako egokitzapena), etorkizunerako erronka hauek ditu Peñascal Fundazioak:

- Laneko egonkortasuna lortzea; prestakuntza-ibilbideak, interbentzio soziala eta lan-munduratzeko enpresak tresna gisa erabiltzea egoera kaskarrean daudenei arrakastaz gizarteratzen laguntzeko.
- Proiektu pilotu berritzaileak garatzea interbentzio sozialaren esparruan, gurean egoera irregularrean bizi diren beste herrialde batzuetako pertsonen gizarteratze eta lan-munduan eraginkortasunez txertatzen laguntzeko.
- Gurera datozen enpleagarritasun-espazio berrietara iristen lehenak izan daitezkeen prestatzea beraien antolakundea. Gizartearen eta lanaren ikuspegitik etengabe berritzen joatea, beharrik handiena dutenei etorkizunerako aukera berriak eskaini ahal izan diezaieten sortzen diren lan-nitxo berrietan.
- Sarean lan egitea, lan-nitxo berrietarako kualifikazio berriak sortzea lortzeko eta gaitasunak berehala errekonozitzeko, laster onartuko den Bizi Osorako Ikaskuntzaren Legea benetan aplikatzen laguntzeko.
- Lan-munduratzeko eta gizarteratzeko enpresa berriak sustatzea edo ildo berritzaileak bultzatzea dagoeneko lanean dauden halako enpresetan, lanpostu berriak sortu ditzaten.



Erakundearen izena: La Veloz Kooperatiba Taldea

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena.

- **LA VELOZ EKOMEZULARITZA:** Mezularitza, Garraioa eta Logistika Zerbitzuak

- **NABATA AHOIKULARITZA:** Aholkularitza eta enpresa kudeaketa ekonomia sozial eta solidarioko entitateentzat.

- **RECICLETA DENDA-TAILERRA:** Bizikleta eta osagarrien denda eta konponketa tailerra.

Lekua: Zaragoza, Aragoi.

Posta elektronikoa: grupolaveloz@grupolaveloz.com

Webgunea: <http://www.grupolaveloz.com/>

Posta helbidea: Mayoral Kalea 9, 2. lokala. PK 50.003 Zaragoza.

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: Guztira **29** pertsona dira, hauetatik **6** emakumeak dira eta **23** gizonak. Kooperatibako bazkide diren 18 pertsonetatik, 4 emakumeak dira.

Jarduerak hasteko urtea: 1993

Sarrera.

Grupo la Veloz, 1993 urtetik ekonomikoki bideragarriak, ekologikoki iraunkorrak eta sozialki bidezkoak diren proiektuak eraiki eta sustatzen diharduen lan elkartuaren kooperatiba bat da.

Kooperatibak taldekatzen dituen ekintza sozioekonomikoak hauek dira:

- LA VELOZ Ekomezularitza.
- NABATA Aholkularitza.
- RECICLETA Denda-Tailerra.

Jatorria.

1992 urtearen amaieran La Veloz-en sorrera laguntzen duten hainbat faktorek bat egiten dute. Enpleguaren desazelerazio hazkundeak, Bartzelonako olinpiaden ondoren emana, komunikabideei gazteentzako auto-enplegua eta ingurumenari buruzko ideiak eta proposamenak jaurtitzera bultzatzen die. Telebistako programa batean enpresa berrien funtzionamendua aurkezten da Europa eta Estatu Batuetako hainbat lekuetan, hauen artean gutun-azal eta paketeak daramatzen bizikleta mezularitza agertzen da, New York-eko auto pilaketan artean. Ia denbora berdinean, Bartzelonako kooperatiben kongresu batean, Trèvol mezularitzak enpresa kooperatiba baten aldeko apustua egitea erabaki zuen, Bartzelona hirian ingurumenaren erantzukizuna hartuz, banaketaren hautabide bezala bizikletak erabiliz.

Proiektua hasteko Gizarte Zibilaren eredu juridikoa hautatzen da, azkarrena izateagatik eta hasierako inbertsio gutxiago eskatzeagatik, nahiz eta hasierako kideen irizpideak, elkartzearen jatorria izateagatik, kooperaziozko eredurantz jotzen dute beraien ingurumenaren eta gizarte erantzukizunak onartuz. Finantzaketa Germinal-en bitartez lortzen da, mailegu bat irekitzen duen inprenta eta papertegi bat, honekin bulegoko materiala erosteko aukera eman zuen. Ekimenak, proiektuaren gertuko pertsonak egindako ekarpen ekonomikoa ere izan zuen, mailegu solidarioen moduan bezala egindako ekarpenak.

Mezulariek beraien eskarmentu pertsonaletatik ekarri zituzten kontzeptuak eta egunerako praktikak, aurretik beraien elkartze-eremuetan garatuak izan zirenak. Taldekako erabaki hartzea eta gizarte eta ingurumenaren erantzukizuna barneratzen dituen elkartze-kultura hau, lanaren eta enpresaren ikusmolde kolektibista batean



egituratu eta forma hartzen du. Hilabeteak aurrera joan ahala, proiektuaren hiru gako edo hanketan espresatzen amaitzen da: autokudeaketa horizontala, enpresa errentagarritasuna eta gizarte proiektzioa. Modu honetan, La Veloz-eko protagonista handia kohesionatu, osatu eta proiektatzen da: giza faktorea.

Jarduera.

a. LA VELOZ EKOMEZULARITZA.

Eskualdeko, Nazioko eta Nazioarteko Mezularitza eta Garraio Urgentea

- 10h: Bere bidalketaren hurrengo lanegunean goizeko 10ak baino lehen emateko bermea duen zerbitzua.
- 14h: Bere bidalketaren hurrengo lanegunean 14ak baino lehen emateko bermea duen zerbitzua.
- 24h: Bere bidalketaren hurrengo lanegunean arratsaldeko 19ak baino lehen emateko bermea duen zerbitzua.

Mezularitza, Garraio Urgentea eta Bertako Banaketa

- Berehalakoa: Bizikleta/moto hiri barneko zerbitzua, eko gunean ordu 1ean eta hiri gunean 2 orduko jasotze eta entrega bermearekin.
- Urgentea: Bizikleta/moto/furgoneta hiri barneko zerbitzua, eko, hiri eta metropolitarrak guneeetan entrega bermearekin.
- Banaketa: Bizikleta/moto/furgoneta hiri barneko zerbitzua, eko, hiri eta metropolitarrak guneeetan, bere bidalketaren hurrengo lanegunean 10, 14 edo 19ak baino lehenago entrega bermearekin.

Banaketa eta Logistika Gizarte Merkatuentzat

Entitateak eta gizarte enpresen beharrak asetzeko bereziki diseinatutako zerbitzua da, bere produktuen kate logistikoaren kudeaketa eraginkor baterako beharrezkoak diren prozesu guztiak biltzen dituen zerbitzua da, azken pertsona kontsumitzailearengana heldu arte. LA VELOZ Logistikak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: hornikuntza, garraioa, produktuen harrera, biltegiatzea, stock eta eskarien kudeaketa, enbalatzea, manipulazioa, etiketatua eta banaketa.



Egun, jatorria nekazaritza ekologikoa duten produktuak banatzen dituzte Zaragozan, hiriko hainbat puntu berdeetan.

b. NABATA AHOLKULARITZA

Nabatak, lan, kontabilitate eta fiskalitate arloetan kudeaketa eta aholkularitza zerbitzu profesionalak eskaintzen ditu, baita aholkularitza eta prestakuntza zerbitzuak enpresa eta entitateentzat.

Nagusiki Enpresa Sozial eta Solidarioetako entitate eta enpresetara zuzenduak daude (kooperatibak, lan elkarteak, elkarteak, fundazioak, gizarteratze enpresak, autonomoak, etab.) eta beraien helburu nagusia entitate hauen garapena, hazkundea eta ga

c. RECICLETA

Bizikleten eta osagarrien salmenta eta konponketara zuzendua, hirirako eta zikloturismorako bizikletetan berezitua. Horrez gain, hainbat ekintza (ikastetxeetan, kirol-ekintzak, ingurumenezkoak, turistikoa, sentsibilitatezkoak, bide heziketazkoak, etab.) burutzen dituzte, bizikleta garraio bide merkea, osasuntsua, dibertigarria eta ez kutsagarria bezala sustatuz.



Parte-hartzaileak.

Parte hartzea irekia da Taldean lanera sartzen diren pertsona guztientzat, nahiz eta ez izan kooperatibako bazkide. Taldea osatzen duten 29 pertsonetatik, 18 kooperatibako bazkide dira. Lan unitate batzarrak daude, batzar orokorrak, eta pertsona bazkideen batzarrak daude, nahiz eta azken hauek oso urriak izan, batzar gehienak irekiak direlako eta bertan bazkideak zein ez diren pertsonak parte har dezaketelako. Hasiera batean, guztiek zer esana dute, beraien ahotsa eta botoa kontutan hartuz, adostasunik egon ezean, orduan bazkideek egingo lukete bozka adostasunaren 3/4 kontutan hartuz.

Lehen parte hartzea derrigorrezkoa zen pertsona guztientzat, bazkideak izan ala ez. Orain, pertsona bakoitzak sartzen denean bere parte hartze gradua jartzea erabaki dugu. Oro har, gehien parte hartzen duten pertsonak bazkideak eta bazkidegaiak dira. Boluntarioki kooperatibarekin laneko lotura baino ez izatea erabakitzen duten pertsonak, gutxienez urtean ospatzen diren bi batzarretan parte hartu behar dute, kooperatibaren ibilbideaz informatu eta hartzen doazen erabakiez informatzeko helburuarekin.

Lorpenak.

Proiektu bat martxan jarri nahi duen jende askorentzat “adibide” bat dira, erreferente bat dira ez zer egiten dutenaren arabera, baizik nola egiten dutenaren arabera.

Grupo La Veloz Kooperatiba taldearen garrantzia, daramatzaten 17 urte baino gehiagotan autokudeatutako proiektuarekin bizirautea da; enplegu duinarekin, parte hartze eta demokrazia zuzena eta urtero modu konstantean haziz. Hazkunde etengabeaz hitz egiten dutenena, derrigorrez ez dira ari diru sarreren kopurua edo lanean dauden pertsona kopuruari buruz, bai ordea, ekonomia solidarioa bultzatzen dituzten, proiektu eta ekintzen garapen eta ezarpenari buruz. Garrantzia hor dagoela uste dute.

Proiektu hau martxan jarri zuten hasiera bertatik, kooperatibak lan esparru bat soilik izan behar ez zuela uste zuten. Horrez gain, kooperatibak proiektuak babesteko eta sareetan, plataformetan, taldeetan, etab. parte hartzeko duen gaitasuna aprobetxatzea ere bilatzen dute. Hori kooperatibak bideratzen dituen baliabideekin lortzen da, baina baita plataforma, taldeetan, etab. boluntarioki lan egiten duten pertsonen konpromisoarekin ere, hori gabe kooperatibak ezingo bailuke guztia estali.

Erakundeekin lotura.

La Veloz Kooperatiba taldetik parte hartze aktibo eta ko-arduratsu baten aldeko apustua egiten dute. Orain, kooperatibako baliabide eta langileekin (erantzukizun eta lanekin erlazionatuak) parte hartzen ari dira ondorengo sareetan:

- Finantziario Solidaria Elkarte, 1999 urtean martxan jarri zen eta bere helburu nagusia finantza etikoak eta solidarioei buruzko sentsibilizazioa da. Egun, elkartearen Zuzendaritza Batzordean bi pertsonak parte hartzen dute.
- 2003 urtetik COOP57 Aragón-en (Finantza Zerbitzu Etiko eta Solidarioen Kooperatiba) ere parte hartzen dute, ideia sortu zenetik eta 2005 urtean martxan jarri zelarik. La Veloz Taldeko pertsona bat dago estatuko Kontseilu Errektorean eta Aragoiko Sekzio Kontseiluan parte hartuz, eta beste bi pertsona gehiago Komisio Teknikoaren lankidetzan.
- Era berean, La Veloz Taldea Aragoiko Ekonomia Alternatiba eta Solidarioko Sarean (REAS Aragoi) parte hartzen du. Grupo La Veloz taldeak Aragoi Sare honetako presidentzia eta du bere gain eta estatuko Sarean ordezkari du, kooperatibako pertsona baten bitartez, beste bi pertsonekin batera, bis areetako komisiotan lan egiten dute. Horrez gain, REAS Aragoiko Gizarte Merkatuan eta estatu mailako REAS Sarean Sareko komisiotan daude.



Ekintza bereziak sare edo plataforma hauetan dituzte. Beste zenbaitetan ere parte hartzen dute, azken hauek lotura eta lan gutxiago eskatzen dute.

Iraunkortasuna.

Proiektuaren auto-kudeaketa:

Ekintza ekonomikoaren dibertsifikazio aguretzat oso garrantzitsua eta aberasgarria gertatzen ari da:

- Alde batetik, pertsonen jarraipen handiago bat posible egiten du proiektuan, lanpostuen, lanen, funtzioen eta kooperatiba barneko erantzukizunen txandatzeez bitartez.
- Era berean, pertsonen balio-aniztasuna errazten du taldearen barruan eta palanka-efektu pertsonal posibleak minimizatzen ditu.
- Eta nola ez, ekintzaren sektore zehatz batean barne krisi posible bat hobeto jasaten laguntzen diete.

litzateke. Sektore honetako ekintzaren jaitsiera %30 eta 60 artean zenbatzen da, portzentaje antzekoekin enpleguaren suntsipenari dagokionez. Beraiek, noski ez daude krisi egoeratik kanpo, baina beraien ekintzen dibertsifikazioak, nahiz eta garraio sektorean izan, portzentaje hauek oso baxuak izatea egin dute. Momentu honetan, beraien garraio sekzioak gainontzeko ekintzak baino gehiago sufritzen ari da, baina oro har, kooperatibak bere eragina asko murriztu ahal izan du, gainontzeko ekintzen aurrera egite onari esker.

Ekintza bakoitzaren autokudeaketa:

Kooperatibako Autokudeaketa lortzerako bidean aurrera egiteko, guretzat oso garrantzitsua da burutzen dituzten ekintzak ekonomikoki bideragarriak izatea beraien kabuz, diru-laguntza publiko edo pribatuen menpekotasunik gabe, eta oreka ekonomiko hau ez izatea autonomia eta erabaki hartzeko gaitasuna galtzeagatik, berdinen edo antzekoen arteko harremanen bitartez izatea baizik.

Sarreretan bezero espezifiko baten menpekotasun altua badugu, arriskuan egon gaitzake krisian sartzen bada edo hornitzailez aldatzea erabakitzen badu, egoera berri honek modu atzerazinean eragin diezaguke.



Ekintza guztietan, bezeroko diru sarreraren pisua orekatua dago. Ez dago bezerorik fakturazio orokorraren %5-10 baino gehiago suposatzen duenik. Modu honetan kudeatzeak bere konplexutasunak baditu, baina beraiantzat oso garrantzitsua da ekintzak, eta beraz, sortzen duten enplegua, bezero bakar batetik %100 menpeko ez izatea, publikoa izan (administrazioa bezala) edo nahiz enpresa pribatu bat izan. Bezero baten desagertzea edo galera posible baten aurrean izan dezakegun eragin ekonomiko eta enpleguko eragina, logikoki askoz txikiagoa da, adibidez, gure diru sarreraren eta sortutako enpleguen %90 bezero zehatz baten borondate eta martxa onaren menpeko izan dezakeena baino.

Autokudeaketa ekonomikoa eta finantzieroa:

17 urte hauetan Kooperatibak sortutako etekin ekonomikoak, Reserva Obligatorio y Voluntario Fondoen diru-hornidurara bideratuak izan dira nagusiki. Koltxoi moduko honek, neurri handi batean onurak EZ banatzeko politikatik sortuak, ekitaldi baten itxiera negatiboaren aurrean edo ekintzaren une bateko jaitsiera baten aurrean maniobra-marjina batzuk izatea posible egiten du. Maniobra-marjina hauek zailtasun egoera baten aurrean neurri zorrotzak presazko modu batean ez hartzera lagun diezaiakete, kolpe hori leuntzeko koltxoi bat izango balute, epe motzean itzuli ahal izango lukete.



Enpresaren kapital nagusia giza kapitala da, hau da, proiektu hau osatzen duten pertsonak. Baina honek ez du alde batera utzi behar ezta bateraezina izan behar duenik, enpresak bere beharretara eta pertsonen aukera errealetara egokitutako kapital ekonomiko batez hornitzearen beharreakin. Baliabide propioak (kapital soziala, ekarpenak, erreserbak...) geroz eta handiagoak diren bitartean, kanpotik lortu beharra izatea txikiagoa da.

Finantza gaian, oinarritzkoa den beste alderdi bat dago, banketxeek eta kutxek enpresei ezartzen dizkieten murrizketen aurrean, egun garrantzia gehiago hartzen duena, krisia larriagotuz: maileguetara sarrera.

La Veloz-ek ezin izan zuen bankuko kreditua lortu ahal izan proiektua martxan jartzeko 93 urtean. Aragoiko pertsona eta talde desberdinek proiektu eta ilusioan konfiantza jarri zuten eta ekintza hasteko beharrezkoak ziren baliabideak utzi zizkieten.

Geroztik, kooperaziozko proiektu batek eskusiboki ohiko bankuko finantzaketen menpeko izan behar ez duela pentsatu izan dute beti eta elkarren artean kooperatu behar zutela taldekako tresnak garatzeko, ekonomia solidarioaren eskutan, honen zerbitzura zeudenak kontutan hartuta. Coop57 Aragón-el aurrera eramandako finantzaketa etiko eta solidarioa, ekonomia solidarioaren zerbitzura dagoen finantzaketa tresnaren adibide argia da, krisi garai hauetan gehiago, beraiena den bezalako entitateei baliabideak emateko hornitua dago, krisiari hobeto aurre egiteko.

Erronka nagusiak.

Hiru urte hauen ondoren, krisia jasan eta dituzten enplegua eta ekintzak gorenean mantentzen saiatuz, urte honetarako duten erronka nagusia lanpostuen mantenua eta ekintza ekonomikoen iraunkortasuna izaten jarraitzen du, garraioaren kasuan azken sei urteetan arrastaka daramagun arazo bat dela kontutan hartzen badugu.

Garraioaren ekintzarekin, egun urte honetarako ekintza ildo berrien ezarpenean ari dira lanean, ondorengoak bezala: etxez etxeko elikagaien garraioa eta Gizarte Merkatuaren garapenerako logistika integrala.



Beste erronketako bat, ekonomia solidarioko, proiektuen sorrera, garapena eta finkatzeagatik apustu egiten jarraitzea da eta sarea beraien laguntzaren bitartez hazten joatea.



Erakundearen izena: La Alameda – Asamblea Popular y Cooperativa de Trabajo “20 de diciembre” Herri Asanblada eta Lan Kooperatiba
Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena - merkaturatzea eta elkartrukea.
Lekua: Parque Avellaneda, Ciudad de Buenos Aires
Posta elektronikoa: contacto@mundoalameda.com.ar
Webgunea: <http://www.mundoalameda.com.ar/>; <http://laalameda.wordpress.com/>
Posta helbidea: Directorio 3715, barrio Parque Avellaneda, Ciudad de Buenos Aires.
Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 40 kidek aktiboki parte hartzen dute erakundearen ekintzetan. 14 jostunek (emakumezkoak eta gizonezkoak) “Mundo Alameda” eta “No Chains” nazioarteko marken diseinuetan lan egiten dute.
Jarduerak hasteko urtea: 2004

Sarrera.

20 de Diciembre-La Alameda Lan kooperatibak ehun jantzien ekoizpen solidarioa egiten du. Ekimen honen helburu nagusia langileentzat lan baldintza onak lortzea eta ehun-gaien kontsumo arduratsua sustatzea da. Boliviatik Buenos Aires-eko hirira etorritako langileen semi-esklabutza egoerari aurre egiteko jaio zen, lehenengo jostunen kooperatiba eta gero “Mundo Alameda” marka sortuz. Hasieratik, ekintza produktiboak esperientzian garrantzi handia duen lan baldintzen hobekuntzarako aldarrikatze lanarekin lotuta egon dira, ez soilik ehun sektorearen barne baizik eta beste produkzio sektore batzuetan ere.

Jatorria.

Jostunen kooperatiba 2002an Buenos Aires-eko auzo desberdinetan sortutako bizilagunen asanblada mugimenduekin batera jaio zen, krisi soziopolitiko eta ekonomikoari aurre egiteko. 20 de Diciembre Asanblada jantoki komunitario batekin hasi zen. Bestelako iharduerak antolatu zituen auzoko beste arazo batzuei erantzuna emateko eta, orokorrean, kultura sustatzeko. Behin Boliviako etorkin taldeekin harremanak hasita, lantegi klandestinoetako lan baldintzak ezagutu zituzten. Lantegi hauek ehun-sektoreko kate maila prekario bat osotzen dute, zeinetan jantzi marka handiek eurek saltzen dituzten produktuen josketarako subkontratazioa prezio oso baxuetan egiten duten. Lanaldi bikoitzetan eta lan segurtasun edota gizarte-segurantzarik gabe, langileen gehiengo bat bere familiekin lantegietan bertan bizitzen geratzen da, esklabutzarekin antza handia duten XXI. mendeko egoeretan. La Alameda, behin jakinaren gainean, Argentinako Giza Eskubideen Elkartearekin eta Herriaren Defendatzailearekin lantegi hauek eta euren praktikak salatzen hasi zen.

2004ean Nazioko Gizarte Garapenerako Ministeriotik diru laguntzak jaso zituzten, Manos a la Obra Plan Nazionalaren barne 5 ekimen produktibo martxan jartzeko: okindegi bat, ehun jantzigintza lantegi bat, artisautza lantegi bat, “parrilla” jatetxe bat eta fotokopiak egiteko denda bat. Jantzigintza lantegia da, guztien artean, ekimenik indartsuena, erakundeak eremu honetan egin baititu ekintzarik gehien, “Mundo Alameda” izeneko marka sortuz.

2005ean Langile Jostunen Batasuna (*Unión de Trabajadores Costureros* -UTC) sortzea erabakitzen dute, betidanik gremio honetan zegoen sindikatua (*Sindicato Obrero de la Industria del Vestido y Afines* -SOIVA) oposatuz, patronalarekin bateratuta eta korrupzioan sartuta zeudela argudiatuz.



2009an, Asia hego ekialdeko kooperatiba elkarteekin lanean hasi eta gero, La Alameda eta “Dignity Returns” Bangkok, Tailandia-ko kooperatibek “No chains” izeneko marka berria sortu zuten, esklabu lanarekin amaitzeko borrokan diharduten elkarrekin sare berdin batean sartzen hasteko asmoz.

Jarduera.

- “Mundo Alameda” marka egiten duen jostunen kooperatiba. Kotoizko jantzietan espezializaturik, diseinu, inprimazio, ebaketa eta jorsketa egiten dute, bai puntuko ehunetan bai ehun lauetan. Merkaturatzea zuzenean egiten da, interneten bidez, eta Buenos Aires hiriko gunen desberdinetan ospatzen diren azoka solidarioetan.
- “No chains” proiektua: kamiseta estanpatuen ekoizpena, atzerriko bidezko merkataritzako dendetan saltzeko.
- Lan baldintza duinak aldarrikatzeko ahaleginak, akzio nazionaletan eta nazioartekoetan parte hartuz, eta esklabu lanaren ezaugarriak zeintzuk diren zabalduz.
- Alameda Fundazioaren bitartez, ehungintza enpresa handien, lantegi klandestinoen, esklabu lanaren eta pertsona trafikoa kontrako etengabeko salaketak epaitegietan.
- Dohainezko aholkularitza lan eskubideei eta migrazio legediari buruz.
- La Alameda-ren “beso sindikala” den UTCaren bitartez, jantzigintza fabrika eta lantegietan sekzioak eta delegatuak lortzea, delegatuei trebakuntza eskaintzea eta aldizkari bat kaleratzea.
- “20 de Diciembre” Asanbladaren barne, egunero komunitate jantokiko zerbitzua eskaintzen da, gaur egun Buenos Aires hiriko gobernuarekin koordinatuta.
- Ekimenen garapena: ehun inprimaketa lantegia, okindegia eta sukaldaritza, fotokopia gunea, artisautza lantegia (zeramika eta jatorrizko ehundegia) eta herri liburutegia.
- Jantzien Erakusketa Zentroa: La Alameda Buenos Aires-eko gobernuak INTIren ardurapean jarritako ekimen honetan parte hartzen du. Lan kooperatiba anitz kokatzen dira egoitza berdinean eta funtsezko helburua esklabu lanik gabeko lantegiek arauak onartzen dituzten markentzat lan egin dezaten eta Estatuaren eskaera bereziak ere bete dezaten da (adibidez, eskola publikoentzako amantalak edo Buenos Aires hiriko kartoi biltzaileentzat uniformeak). Egoitzan 100 langileentzat lekua dago eta gaur egun 5 kooperatiba funtzionatzen dute, euren artean La Alameda-ko 10 pertsonen osotzen duten “1 de Julio” Kooperatiba. Jantzi finak egiten dituzte: kamisetak, alkandorak eta soinekoak.



Parte-hartzaileak.

En el marco de la Alameda participan un conjunto de organizaciones que nuclean las diferentes áreas de trabajo: Asamblea 20 de Diciembre, Fundación Alameda, UTC, emprendimientos asociativos. En estas organizaciones se distribuyen militantes de las distintas actividades, inmigrantes que provienen de Bolivia, grupos en situación de desempleo de los talleres clandestinos, y colectivo de trabajadores en los distintos emprendimientos.



Erakundeekin lotura.

- Beste herrialde batzuetako, batez ere hego Ameriketako eta Asia hego ekialdeko kooperatibekin hedapen eta trebakuntza topaketak egiten dituzte eta nazioarteko marka bat sortu dute ere.
- Nazioarteko Migrazio Erakundearekin (Organización Internacional de Migraciones) batera, UTCren delegatu eta langileentzat legea eta lanari buruzko trebakuntzak antolatu zituzten.
- Aldarrikatze borrokan Argentinako Giza Eskubideen Elkartearekin, Buenos Aires-eko kartoi biltzaileak batzen dituen Baztertutako Langileen Mugimenduarekin (Movimiento de Trabajadores Excluidos), Herriaren Defendatzailearekin eta Cromañón-eko biktimen familiekin lan egiten dute.
- Ehungintza sareak sortzeko proiektuetan: INTIrekin, Buenos Aires hiriko gobernuarekin eta Jantzien Erakusketa Zentroan dauden ehungintza kooperatibekin dihardute.

Lorpenak.

1. Alameda Fundazioa eta ehungintza kooperatiba sendotu egin dira lan esklaboaren kontra lan egiten duten erakunde gisa. Arazo hau plazaratu dute komunikabideen bitartez eta komunitatearen onarpena lortu dute gai honi buruz duten ezagutzagatik.

2. UTCren lanaren bitartez lan eskubideekin arduratuta dauden delegatu sindikalak ezartzea lortu dute. Gainera, ehungintza enpresa handiengandik konpromiso zehatzak atera dira (gabonsariak, kalte-ordainketak, kaleratu eta geroko langileen berronespenak, soldaten igoerak, eta abar).

3. “Mundo Alameda” eta “No Chains” markei esker, aldarrikatze lana jantzien ekoizpen kooperatiboarekin lotuta etorri da: marka hauen merkaturatzean lan solidarioa eta kontsumo arduratsuaren baloreak defendatzen dira.

4. INTI eta erakunde judizialekin batera ekonomia sozial eta solidariorako baliabideen jabetzerako esperientzia interesgarri bat burutu dute, lantegi klandestinoetatik ateratako makinak berrerabilpena dela eta. Badago koordinaziorako eremu zabal bat ehungintza makinak konfiskatzen dituzten erakunde judizialen eta legez gordailuzain den INTIren artean. Institutu hau makinak berreskuratzeko prest agertu zen eta baita josteta kooperatibak batuko zituen jantzigintza guneei heldu arazteko ere.



Iraunkortasuna.

- Bere ekintzen osotasuna, arlo desberdinetan: ekonomikoa, produktiboa, politikoa, gremioarena, nazionala eta globala.
- Arazo berdinarekin kontra lan egiten duten erakunde eta sare nazional eta nazioartekoekin lotuneak mantentzea eta indartzea.



- Estatuarekin koordinatzeko ahalmena. Gaiari buruz egindako lanagatik eta aldarrikatze eta produkzio ekintzen bidez lortutako emaitzengatik estatu-baliabideak lortzerik badute (Buenos Aires hiriko gobernuarengandik edo INTIrengandik) bateratutako proiektuak aurrera eramateko. Denbora pasa ahala argituko denez, bere iraunkortasuna gehitu egiten da ekintzetarako Estatuaren babesa duen neurrian, Estatuak berak egin eta arautu beharko lukeenari buruzko zentzu kritikoa galtzen ez badu behintzat.
- Konpondu nahi duen eremuan paraleloki egiten duen ekintza sindikalak ere bere iraunkortasuna handitzen du borrokari gorputza ematen diolako eta erakundea gizartearen ikusmiran kokatzen duelako, gaia ezagutarazten duen bitartean. Gainera, gero eta langile eta ordezkari sindikal gehiagorekin euren grina partekatzen dute. Langileek gaiari buruzko legeak eta arazoak ezagutzeak iraunkortasuna ematen dio, informazioan oinarritutako benetako sentsibilizazioa hazten baita.
- La Alamedak ekonomia sozial eta solidarioaren barne dauden esperientzientzako iraunkortasun orokorrerako baldintzak sortuz doa, produktu baten atzean ezkutatuta etor daitekeen lan esklaboari buruzko (eta oro har, lan baldintza okerreari buruzko) kontzientzia hedatzen baitoa. Honek kontsumo arduratsu eta bidezko merkataritzari lotutako praktikak eta sareak indartzen ditu eta esperientzia hauen iraunkortasunerako laguntzen du, ez bakarrik mikro-merkatal iraunkortasunari dagokionez baizik eta eraikin makro-politiko bezala.

Erronka nagusiak.

- Esperientzia eta “Mundo Alameda” eta “No chains” marka bateratuak ondo finkatzea. Problematika ezagutarazteaz gain, beharrezkoa da produktuak dibertsifikatzea eta merkaturatze bide berriak aurkitzea.
- Marka handien kontrako borrokari eta akzio sindikalari sakontasuna ematea. Mintzaide politiko egokiak aurkitzea merkatu honen gainean araudi berriak sortarazteko. Enpresa handien kontrako epaitegi auziak gizartearen ikusmiran ipintzeak jantzien kontsumo arduratsua sustatzeari legitimitatea emango dio.
- Bere ekintzen (ekintza produktibo, politiko eta komunikatiboan) konplexutasuna eta osotasuna mantentzea, bai mikro bai makro mailan.





Erakundearen izena: “Quimey Piuké” Estepako Azoka

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena, merkaturatzea eta elkartrukea.

Lekua: Dina Huapi eta Río Negro probintziako Hegoaldeko Eskualdeko beste herri batzuk, Argentinan Patagonia

Posta elektronikoa: info@mercadodelaestepa.com.ar

Webgunea: www.mercadodelaestepa.com.ar

Posta helbidea: Rutas 23 eta 40, Dina Huapi, Río Negro probintzia, Argentina.

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 260 familia (aktiboki parte hartzen dutenen %90a baino gehiago emakumeak direlarik)

Jarduerak hasteko urtea: 1999

Sarrera.

“Quimey Piuké” (“bihotz ona” maputxeraz) Estepako Azoka Patagonia urruneko eskualde baztertu bateko artisau eta ekoizleak batzen dituen erakundea da. Pertsona hauek lankidetzan oinarritzen dira eta produktuak kontsumitzaileari zuzenean eskaintzen dizkiote, Ekonomia Soziala eta Bidezko Merkataritzaren irizpideak jarraituz.

Erakunde honen helburua jatorrizko kultura berreskuratzea da, lehengo artisau produkzio tekniken balore positiboak gaur egun aprobetxatuz. Urtez urte ekoiztutako produktuen kalitatea eta kantitatea handitua doa. Era berean, salmentak eta egindako jarduerak ere hazi dira. Surcos Patagónicos Elkarte Zibilak Azokaren antolaketan laguntzen du, alderdi komertzialak, produktiboak eta kulturalak sustatuz, azken finean bazkideen eta beraien familien bizi-kalitatea jaioterrian bertan hobetu ahal izateko.

Jatorria.

Eskualde honen biztanleriak dituen arazoei aurre egiteko jaio zen esperientzia hau. Iraupen egoeran landa eremuan bizi diren familiez ari gara, zeinentzako zaila den osasun zerbitzuetara edo hurbilen dituzten hirietara heltzea, bideak nahikoa hondatuta daudelako, neguan batez ere. Nekazaritza eta abeltzaintza artilearen monoprodukzioan datza, egituraren mugaketa garrantzitsuekin eta geroz eta baliabide naturalen degradazio nabarmenagoarekin. Honi bere funtsezko produktuaren, eraldaketa industrialik gabeko artile hutsaren prezioaren beherakada historikoa eta lana aurkitzeko dauden aukera murrizak gehitzen badizkiogu, hirietarantz zuzentzen den migrazioaren arrazoiak aurrean ditugu.

Testuinguru honetan, 1999 urtean azoka bat sortzen da Dina Huapi herrian, inguruko ekoizleen bilera eta koordinaziorako lehen esperientzia bihurtzen da. 2000 urtean jatorri eta formazio desberdinetako pertsona multzo batek Surcos Patagónicos Elkarte Zibila eratzen du, tokiko artisau produktuen garapena eta merkaturatzea sustatzeko asmoz. 2001 urtean lur sail bat lortzen dute eta Azokaren eraikuntza hasten da, emarietan eta erakunde publiko eta pribatuen laguntzan oinarrituta. Bitartean, Surcos Patagónicos bi estatu-erakundeekin hitzarmen batera heltzen da: Nekazal eta Abeltzaintza Programa Soziala (Programa Social Agropecuario -PSA) eta Nekazal eta Abeltzaintza Teknologiarako Institutu Nazionalarekin (Instituto Nacional de Tecnología Agropecuaria -INTA). Hitzarmenaren helburua Azoka proiektuan parte hartuko duten tokiko artisau eta ekoizle taldeen prestakuntzan lan egitea da. Aldi berean, esperientziaren bazkideak eskualdeko eta nazioko azoka eta erakusketa desberdinetan parte hartzen hasten dira. 2003 urtean Azoka zabaltzen da eta merkaturatze bateratua formalki hasten da salmenta puntu zehatz batetan ordura arte sortutako taldeek ekoiztutako produktu eta



artisautzarekin. Behin Azoka martxan dagoenean, Ekonomia Solidarioa, Bidezko Merkataritza, Elkarleen antolaketa eta atal tekniko-produktiboei buruzko trebakuntza programekin jarraitzen da. Azken urteotan erakundea sendotu da: pertsona berriak bazkide bihurtu dira eta artisau talde produktiboen kopurua hazi da, salmentak handituz eta herrialdean zehar azoka eta erakusketetan geroz eta gehiago parte hartuz, ondorioz, egun eskualde eta nazio mailan duen eragin-boterea lortuz.

Parte-hartzaileak.

Azokan eskualde honetan lehen aipatutako egoera latzetan bizi diren 260 familia baino gehiagok parte hartzen dute. Eskualdean ohikoak diren jarduera ekonomikoen eragileak dira eta, betiko jakituria eta teknikak erabiliz, artisau ekoizpenean ere sartuta daude beraien egoera ekonomikoa hobetzeko asmoz. Bazkideen %93a emakumeak dira. Emakume hauentzat esperientzian parte hartzeak eragin positibo bat du, hauek etxetik ateratzen direlako eta inguru kultural eta sozial honetan hain sarritan existitzen den isolamendua gainditzen dutelako.

Jarduera.

Estepako Azokaren funtsezko ekintza **patagoniar estepa eta bere komunitateen ezaugarri eta materialekin egindako artisautza produktuak modu bateratu batean saltzea da**. Eskaintzen ziren produktuen dibertsitatea handituz joan zen esperientzia eta jatorri desberdinak zituzten pertsonen etorrerarekin. Gaur egun saltzen diren produktuak ondoko hauek dira: irundako artilea, ehundegiko produktuak –landuak edo landugabekoak-, puntuz egindako ehunak, kakorraz-lanak, makramea, maletak, larruak eta quillangoak (larruz egindako estalkiak), larruzko, zeramikazko, zurezko eta harri-orezko artisautza, platerak, labanak, mate belarrak, gozokiak, likoreak, chutney kontserbak, elikagai ketuak, sasoiko fruituak, eztiak eta fardoak, besteak beste. Ezin dira produktu industrializatuak saldu ezta birsalmentarik egin ere.

- **Salmenta gunea:** jendearentzat aste osoan zehar zabalik dago, artisau eta ekoizle talde desberdinek txandaka hartzen dute dendaren ardura. Bazkideek betebeharrak guztietan aktiboki hartzen dute parte (salmentan, lokalaren garbiketa eta mantentzean, erakusketa eta azoketarako ordezkari izatean, etab). Bezeroak batez ere, turista nazionalak edo atzerritarak dira, nahiko normala denez Barilochetik 20 kilometrora dagoen bidegurutze batetan. Artisauek ipintzen diete prezioa beraien produktuei. Salmenta bakoitzaren %10 Azokak gordetzen du bere funtzionamendu eta mantentze-lanetarako.



- **Azokaren antolaketa:** azoka modu partizipatibo batean egindako eta urtero asanbladan berrikusitako barne araudi batek gobernatzen du. Produktuen kalitatea eta aurkezpena zaintzeko, antolaketa eta fiskalizazio batzorde bat dago. Artisautza lana egiten duen taldea eta Azokaren arteko lotura era desberdinetakoa izan daiteke: behin betiko bazkide bihurtuz edo gonbidatu bezala, bizitokia eta antzinatasunaren arabera. Azoka bizitokiaren arabera sortutako taldeen alde dago. Talde bakoitzak bere ordezkariak aukeratzen ditu eta hauek merkantziak lokalera eramaten dituzte gero ekoizle bakoitzarekin salmenten likidazioak egiteko. Horrez gain, Azokaren barne-bileretan beraien komunitateen ordezkari gisa funtzionatzen dute.



● Bestelako ekintzak:

-Beharrezkoa den funtsezko materiala beti eskuratu ahal izateko (%85a ehungintza produktuak dira), Azokak “artile bankuak” antolatu ditu, bertan artisauek irundako artilea edo iletxima lortzen duten diru edo amaitutako produktuen truke. Truke hauek arautzeko badago artisauek adostu duten baliokidetasun taula bat. Bankutik tresneria txandaka maileguan hartzeko aukera dago ere.



-Azoka dagoen eraikin berdinean gune kultural bat dago, zeinetan hezkuntza eta kultura jarduera desberdinak egiten diren (trebakuntza tailerrak, hitzaldiak, erakusketak...). Artisautzan eta ekoizpenean sartuta dauden taldeak eta jendearen arteko elkartzeko gune bezala ere funtzionatzen du, publikoak sarritan nahi izaten baitu estepako komunitateen historia eta kultura ezagutzea.

-Eskualdean eragin handia izan du Artisau Azoka Produktiboei buruzko Legea (“*Ley sobre Mercados Productivos Artesanales*”) izeneko proiektuak. Saio parte hartzaileetan oinarrituz, landa eremuetako ekoizle txiki eta artisauen babes soziala handitu eta estatu onespina areagotuko lukeen lege-proposamen bat idatzi zuten. Gero Río Negro probintzian 11.000 sinadura bildu zituzten (hauteskunde erroldako %3a) lege-proposamena “herri ekimen” bezala probintziako gobernuan aurkezteko. Proiektua onartua izan zen eta orain arautze prozesuan dago. Proposamen hau bost urteko gizarte partaidetza eta koordinazio lana etengabe bultzatzearen fruitua da. Koordinazioa udal eta probintzia gobernuekin eta beste erakunde eta aktore sozialekin egin da. Kudeaketa politiko eta komunikatiboari buruz asko ikasteko balio izan du eta baita Estepako Azokaren onarpen maila igotzeko erreferente probintzial eta nazional bat izatera heldu arte.

Erakundeekin lotura.

Hastapenetatik, Estepa Azoka eta Surcos Patagónicos elkarteek beste talde eta erakundeekiko elkartruke eta koordinazioari lehentasuna eman diote, INTA eta PSArekin sinatutako eta oraindik indarrean dagoen lan hitzarmenak frogatzen duenez. Gaur egun, erakundeak udal buruzagiekin egiten du lan eskala txikian, beste elkarte sozial batzuekin eta gobernu probintzialarekin eskala ertainean eta baita nazioarteko eta nazioarteko erakundeekin eskala zabalago batean, artisau merkatu eta nekazaritzaren erreferente direla.

Nazio barneko beste erakundeekin lotura Argentinako Bidezko Merkataritza Sarean sartu zenetik asko indartu da. 2007an lotune estrategiko bat eratu zuten beste bi erakundeekin batera, Buenos Aires-eko hirian denda bat batera zabalduz hiru erakundeetako produktuak saltzeko.

Lorpenak.

Aipatutako lorpenez gain, Estepako Azoka esperientziaren emaitzak oso positibotzat jotzen dituzte ekoizleek:

- Bazkideen 70%ak artisautza egiten zuen proiektuan sartu baino lehenago, baina bakarrik etxerako edo beraien erabilpen pertsonalerako.
- Bazkideen gehiengoak Azokak diru sarrerek handitzea ahalbidetu diela dio, prezio hobekak lortzen dituztelako eta kopuru handiagoak ekoiztu eta saltzen dituztelako, produktuei balio gehiago erantzen dietelarik.
- Azokako dinamikari esker produktuen kalitatea hobetu da, kontsumitzaileekiko kontaktu zuzen bat bideratzen duelako eta horrela, ekoizleak bezeroen iritzi eta beharrei jarraian erantzuteko gai dira.



- Emakumeek, batez ere, beraien buruekiko estimazioa handitu dutela diote. Betidaniko jakiturien berreskurapena eta aprobetxagarritasunari buruz, eta jakituria berriak barneratzeari buruz ere asko ikasi dute eta orain oso baliagarri diren ekarpenak egin ditzakete etxeko ekonomiari. Bestalde, oso aintzakotzat dute parte hartze esperientzia, lagunekiko sortu arazi duen konfiantza, begirunea eta solidaritateagatik.

Iraunkortasuna.

Estepako Azoka etengabe hazi da, urtez urte bazkide berriak heltzen eta salmentak eta diru sarrerak handitzen joan baitira, bere onarpenera zabalduz. Neurri handi batean, hau partaideen antolakuntzan jarri den ahaleginean datza, esperientziaren iraunkortasunaren erro. Aldizka komunitateetara bisitak egiten dira, toki bakoitzeko taldeen bilakaera jarraitu ahal izateko eta euren espazioak indartzen lagunduz.

Udal gobernu eta beste aktore sozial batzuekin lotzeak esperientziaren alde dauden eta berarekin konpromisoa hartu duten erakundeen sare bat sortzeko aukera eman du. Bestalde, Azoka hasieratik giza baliabideekin, trebakuntzekin, ibilgailuekin eta baliabide finantzarioekin babestu zuten (INTA eta PSA), estatu erakundearen funtzioa oso garrantzitsua da oraindik ere esperientziak proposatzen dituen ekintzak burutzeko.

Erronka nagusiak.

- Komunitateko auto kudeaketara heltzeko, komunitate bakoitzean antolatuta dauden taldeak sendotzea.
- Eskaintako produktuen kopurua eta aukera handitzea, artisau berriak taldeetara gonbidatuz edo talde berriak sortuz.
- Produktu berrien merkaturatzea, beti ere produktu horien ekoizpen prozesuan ingurugiroarekiko eta gizartearekiko irizpide berdinak mantenduz.
- Salmenta puntu berriak toki estrategikoetan zabaldu.
- Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsuen printzipioak hedatu, tokiko eta eskualdeko komunitateei zuzendutako kontzientziazio ekintzak burutzuz.

Estepako Azokaren partaideen iritziz, esperientzian sartuta dauden pertsonen bizi baldintzetan aldaketak nabarmenak lortzeko “epe luzeko ildo hau jarraitzen duten ekintza estruktural eta politikoak behar ditugu, enpresen botereak kontrolatzen dituen erabaki lekuetatik urrun. Horregatik, nahiz eta helburu honekin lanean hasi garen, oraindik bide luzea dugu aurretik.



Azokaren eremu zehatzari dagokionez, beharrezkoa da antolaketan eta ekoizpen prozesuarekin lotutako faktore batzuk hobetzea, ekimen sozial honen lehiakortasuna handitzeko. Hau dela eta, momentu aproposa dugu orain beste erakundeekin lankidetzara areagotzeko, jardunaldietara joateko gure elkarrearentzat garrantzitsuak diren gai hauei buruz hausnarketak egiteko eta antzerako beharrak eta arazoak dituzten beste elkarrengandik ikasteko, haiekin gure esperientzia partekatuz, ekintzak eta baliabideak indartuz, eta heterogeneotasun honetan adostutako modu batean denok antola gaitzen.” (www.mercadodelaestepa.com.ar)



Erakundearen izena: Mol- Matric S.C.C.L

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena.

Lekua: Bartzelona

Posta elektronikoa: molmatric@molmatric.coop

Webgunea: www.molmatric.coop

Posta helbidea: Can Magí, 14-16, Pol. Ind. Santiga, 08210 Barberà del Vallès (Bartzelona)

Tel. 937 192 710 – Fax.937 192 712

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 50 langile: emakume 1 eta 49 gizon. 30 bazkide

Jarduerak hasteko urtea: 1982

Sarrera.

Mol-Matric S.C.C.L lan asoziatuaren kooperatiba bat da, 1981 urtean jaioa, Talleres Alá-ren itxieraren ondorioz, matrizeetan berezitua dago automobilen sektorearentzat. Horrez gain, krisiaren garai honetan hautabide ona da, enpresa batean kudeaketa eta demokrazia bideragarritasunez eta arrakastaz konbinatu daitezkeenaren adibide bat.

Jatorria.

MOL-MATRIC, S.C.C.L. 1982 urtean sortua izan zen 80.hamarkadako urteetan izan zen krisi industrialaren ondorioz. Geroztik, modu aktiboan parte hartu du kooperatiben federazioekin eta gainontzeko kooperatiba erakundeekin. Guztia 1981 urtean hasi zen, Talleres Alá familia enpresak, Poblenou-en kokatua, Bartzelonako ohiko industria auzoa, egun 22@ industria barrutia altxatzen den lekua, soldata eta udako ordainsaria pagatzeari utzi zionean. Negozioa porrotaren bidean zihoan eta bertako langileek berreskuratua izan zen, hauek jarduerarekin jarraitzea erabaki zuten, kooperatiba batean eratzearen bitartez.

Langileak, udako oporren ondoren enpresa itxita aurkitzearekin beldur, oporretara ez joatea erabaki zuten eta Talleres Alá desegina izatea ekiditeko geratu ziren. Prozesua oso gogorra izan zen, mobilizazio eta erresistentzia asko izan ziren, hurrengo urteko otsaila edo martxo arte iraun zutenak. Azkenean, akordio batera iritsi ziren. Soldatak ez kobratzeagatik langileei zor zitzairen zorraren truke, langileak enpresaren jabearenak ziren lokalekin geratu ziren. Beranduago, tailerreko makinak eskuratzea lortu zituzten, enpresak itxi zuenean egin zuten enkantearen bitartez.

Mol-Matric horrela jaio zen, matrizegintzaren sektore konplexuan posizio oso sendoa lortu duen auto-kudeatutako enpresa bat, seriean egindako piezen fabrikaziora aritzen direnak, ondoren adibidez, ibilgailu, tren edo hegazkin bateko zati izaten amaitzen dutelarik. Horrez gain, Mol-Matric ekonomia sozialaren eremuan duen garrantziagatik nabarmentzen da.

Jarduera.

Bereziki matrizeen fabrikaziora eta ibilgailuen sektoreko tresnen fabrikazioan aritzen dira. Bere profesional ibilbide finkatua dela eta Volvo, Seat, Mercedes, Psa, Nissan eta Renault bezalako lehen markekin lan egin ahal izan dute. Esperientzia nagusia ibilgailuen piezetan izan da: atea, ate handia, maletategia, pisuak, errefortzuak, etab.



2002 urtetik Mol-Matric bere jarduera dibertsifikatu egin du tamaina handiko mekanizatuera, tren, energia berriztagarria eta edukiera handiko makina erremintak bezalako sektoreentzat lan eginez. Jarduera berri honek beste hainbat markekin lan egitea posible egin die: Alstom, vossloh, ecotècna, caf, goss nantes systemes eta pci bezalako markak.

Parte-hartzaileak.

49 langile gizon eta langile emakume 1 eta 30 pertsona kooperatibako bazkide dira.

Lorpenak.

- **Bazkideen ahalduntzea:** Mol-Matric ia 50 langile dituen metalaren kooperatiba bat da, hauetatik 30 bazkideak dira. Sortu zenean, 1981 urtean, gehienak ez zeuden, Talleres Alá-ren porrotaren fruitu; antzinasun gehien zuten langileek ez zuten kudeaketaz ezer ezagutzen eta enpresa erabakiak hartzeko ez zuten prestakuntzarik. Pertsona guztiek parte hartu nahi zuten baina asko izutuak sentitu ziren eta arriskatzeko beldurrez, izan ere, erdia besterik ez zen sartu kooperatibaren proiektuan. Gehiengoak, demokratikoena kooperatiba bat sortzea zela erabaki zuen. Kooperatiba baten funtzionamenduak eskatzen duen lan guztia banatu beharra izan zen eta langileek aukeratu zituzten zuzendaritza postuetarako egokienak iruditzen zitzaizkien pertsonak. Eginkizun hau poliki-poliki ikasten joan behar izan zuten denbora aurrera joan ahala. Ronda Kolektiboak aholkularitza eskaini zien, aholkularitza juridikoa eta lanekoa den kooperatiba bat. Hauek Mol-Matric-ekin hasieratik egon ziren, eta egun oraindik beraiekin kolaboratzen jarraitzen dute.
- **Erreferenteak metalaren sektorean:** 25 urtetan, Mol-Matric-en parte hartzen duten pertsonak porrotean zegoen enpresa bat, metalaren sektore lehiakorrean aurrelari batean eraldatu dute. Eta horrek meritua du, matrizegintza bezalako jardueran, kostu baxuko herrialdeetara eramaten ari den jarduera delako, Txina bezala. *“Europako matrizegintza guztiak ixten ari dira, gu ez”*, adierazten du Fernando Cid-ek, kooperatibako kontseilu errektoreko lehendakaria eta berziklatze, prestakuntza eta sustapenaren adibide dena – 1992 urtean garbiketarako langile bezala sartu zen eta informatikarengatik duen zaletasunak, departamentuko oinarrizko piezatak bat izatera eraman dio.
- **Beste sektoreetara ireki eta dibertsifikatu:** modu honetan sartu ziren trenean eta energia eolikoan, eta etorkizunean aeronautikan hastea aztertzen ari dira. Gaur egun, bere jardueraren %30 sektore berri hauekin erlazionatuta dago. Egoera honi aurre egiteko, makinaria, prestakuntza eta teknologia bezalako alderdietan asko inbertitu dute.



Erronka nagusiak.

- **Espazio arazoak:** abrikatzen dituzten piezak oso tamaina handikoak dira; “fakturazioa bikoiztuko dugu bost urte baino lehenago; beste nabe bat behar dugu bigarren Mol-Matric bat altxatzeko eta jarduerak banatu ahal izateko matrizegintza eta mekanizatuaren artean”, azaltzen du Villafranca-k, kooperatibako bazkideak. Bigarren fabrika bat eraikitzeke lurrak bilatzen ari dira eta horrela jarduera, fakturazioa bikoiztu eta datozen urteetan 25 pertsona barneratu.
- **Bertako enplegua sortzea:** kooperatiba baten filosofia ez da ekoizpena kostu baxuko herrialdeetan kokatzea. Mol-Matric-etik bertako enplegua eta bere lurraldean sortzen jarraitzeaz apustu egin nahi dute.



Erakundeekin lotura.

1995 urtean Coop57 finantza entitatearen sorreran parte hartu zuten, finantza etikoak sustatzen dituen kooperatiba bat eta kooperatiba eta ekonomia sozial eta solidarioaren munduaren eremuan garatzen diren proiektuen finantzaketara aritzen direnak, kooperatibei finantza produktueta sarbide errazagoa posible eginez.

Gaur egun, ondorengo entitateetan parte hartzen dute:

- Kataluniako Lan Kooperatiben Federazioaren kontseilu errektoreko kidea (FCTC).
- Coop57-ko Kontseilu Errektoreko kidea.
- Xarxa d'Economia Solidariako bazkidea.

Iraunkortasuna.

- **Bideragarritasun ekonomikoa kooperatibismoaren baloreen defentsarekin:** Mol-Matric kooperatiba bat da, baina guztiaren gainera errentagarria izan behar duen enpresa bat da. Beste proiektuekin batera aurrera joan ahal izateko, enpresa bat izateaz gain, ekonomikoki bideragarriak izan behar dutela onartzen dute. Erabaki garrantzitsuak kooperatibaren pertsona guztien artean hartu behar direnaren uste osoa dute; estrategia lerroetatik, inbertsioetaraino. Parte hartze erreala oinarrizkoa dela uste dute, nahiz eta erabaki hauetan beti ezin lortu erabateko adostasuna, baina gutxienez ados daudenen artean gehiengo bat egon behar dutela kontsideratzen dute.
- Kooperatibaren **garapen ekonomikoa eta enpresa garapena** gertuen dagoen ingurunearekiko konpromisoarekin bateragarri egin da.
- **Ekoizpen ekintzaren aniztasuna:** *"Mol-Matric-en biziraupenerako gakoetako bat beste sektoreen aldera egiten duen dibertsifikazioa da"*, azaltzen du Cid-ek. Kooperatibak ibilgailuen fabrikatzaileen – Seat, Nissan eta Opel markei hornitzen die- eta hornitzaileen errezetak zorrozki jarraitu ditu. Honen emaitza, trenari zuzendutako jardueraren irekiera da (bi urteetan ia diru sarreren %15 betetzen du), mekanizatu handiak, energia eolikoa (Alstom-Ecotecnia-rentzat lan egiten du, datozen urteetarako kontratu marko bat sinatzearen esperoan dago), eta *"laster aeronautika industriara jauzi egitea espero dugu"*.
- **Berrinbertsioa kooperatiba bertan:** kooperatiban inbertitzeko duen bere politikak, orain, hain konplexua den egungo krisi egoera eutsi ahal izatea egiten dute eta inbertitzen jarraitu eta merkatu berriak irekitzea posible egiten dute. 2010 urtean bitartean, krisi egoera izan arren, langileria osoa mantentzea erabaki zuten eta kontratu guztiak berritzea lortu zuten.
- **Fondo solidarioa:** 2001 urtean, Mol-Matric-en mozkinen %1 helburu solidarioetarako erabiltzea erabaki zuten. Diru funts horiekin, Sáhara dauden heziketa bereziko eskola gutxietako batentzat jangela bat eraiki da. Aipatutako zentroko neska mutil gehienak minusbaliotasun motaren bat jasaten dute. Egun eskola honetan 60 bat neska-mutil daude eta 10 begirale. Horrez gain, aldi berean Nikaragua, Etiopia edo India bezalako herrialdeetan beste ekintza batzuk burutu dira.



Erakundearen izena: Brasilgo Langile Lurgabekoen Mugimendua (Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra -MST)

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena.

Lekua: Brasilgo 24 estatuetan, herrialde osoan zehar dago.

Posta elektronikoa: semterra@mst.org.br; secgeral@mst.org.br; imprensa@mst.org.br

Webgunea: www.mst.org.br/; www.terravivasc.com.br

Posta helbidea: Secretaria Nacional do MST, Alameda Barão de Limeira, 1232 (CEP 01202002) São Paulo-SP, Brasil

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: MSTak 1.5 milioi baseritar langile bateratzen ditu, proiektu eta lurralde desberdinetan.

Jarduerak hasteko urtea: 1984

Sarrera.

MSTa Brasilen jaio zen 1984an hiru helburu nagusirekin: lurraren, nekazaritza-erreformaren eta gizarte bidezkoago baten alde borrokatzea. Horretarako estrategia geldirik dauden landa eremu handiak okupatzea eta han irautea da, ekoizten hasteko. Okupazioa bi pausutan egiten dute: kanpaldia eta kokalekua. Kasu bietan zerbitzu eta ondareen ekoizpena da erroa, eta banaka, taldeka edo era misto batean egin daiteke. Urteak joan ahala, kokalekuetako ekoizpena garatuz joan da eta gaur egun tamaina eta ezaugarri desberdinetako kooperatiba, elkarte edota agroindustrietan antolatzen dira. MSTaren bitartez, gaur, 1.5 milioi pertsona baina gehiago nekazaritzan egiten dute lan eta lehen ezer ez zuten ematen landetatik euren bizimodua ateratzen dute.

Jatorria.

1975 eta 1985 artean, lurren bilketa esku gutxi batzuegan erraztu zuen era kapitalista baten garatu zen nekazaritza eta ondorioz, lurrik gabe geratu ziren baserriarren kopurua handitu zen. Geroztik, diktadurapean egon diren trantsizio prozesuei eta elizaren kontzientziazio lanari esker (batez ere Lurraren Batzorde Pastoralarena), estatu bakan batzuetan borroka isolatuak mantentzen hasi ziren baserriarrak eta hori izan zen gero etorri ziren borroka handiagoen hazia, 1984ko Kongresu Nazionalean Langile Lurgabekoen Mugimendua eratzera heldu arte.

Jarduera.

Nahiz eta MSTaren ekintza funtsezkoa autokontsumorako elikagaien produkzioa eta animalien hazkuntza izan, badago merkaturatzen den produkzio zati handi eta zabal bat ere. Kokaleku bakoitza 8-30 familietako taldeetan antolatzen da ekoizpena egiteko. Garrantzitsua da talde hauek, aurretik ematen den kanpaldi pausuan, euren produkzioarekiko asmoak zeintzuk diren esatea (erabat taldeka, banaka edo era mistoan egitea), horren arabera lur sail bat edo beste emango zaielako.

Behin kokalekua finkatuta, Aholkularitza Teknikorako Lantalde baten laguntzaz, Ekoizpen Plan bat idazten da talde guztiaren artean, ondorengoak kontutan hartuz: eremuko lurzoruen ekoizpen potentziala, eskualdeko ezaugarri klimatikoak, uraren erabilgarritasuna okupatutako eremuan eta kokatutako familien beharrianak. Autokontsumorako egiten den ekoizpenak zerealak, fruituak eta abelazkuntza ditu barne, eta tokiko eta eskualdeko merkatuak hornitzeko egiten den produkzioarekin tartekatzen da. Merkaturatzen den ekoizpena etxe mailan zein kooperatiba eta agroindustrietan egin daiteke, beti ere agroekologian oinarrituta.



Horrez gain, sailen garbiketa, goldatzea eta ereitea denon makina edo idiekin egiten da, nahiz eta gero bakoitzak bere saila zaindu eta uzta biltzen duen. Beraz, makinak eta behar diren beste materialak era bateratu baten erosten dira eta produkzioa batera saltzen dute ere, prezio hobekak lortu ahal izateko.

Bestalde, kokalekuetan merkaturatzeko egiten den ekoizpen mota eskualdez eskualde aldatuz doa. Gaur egun dauden ekoizpen garrantzitsuenak hauek dira, Brasilgo erregioen arabera:

- Hego ekialdeko kafe produkzioa: Espíritu Santo-ko estatuan Vale da Victoria Nekazal Ekoizpen Kooperatiba dago (Cooperativa de Produção Agropecuária Vale da Vitória – COOPRAVA). Kooperatiba honek kafearen garraioa, eraldaketa, lehorketa eta biltegiatzea egiteko estruktura indartsu bat dauka eta 100 familia baino gehiago koordinatzen ditu produkzio prozesuan;
- Hegoaldeko esne industria: Santa Catarina-ko estatutan Far West Ltd. (Cooperoeste) Merkaturatze Kooperatibaren bitartez, egunero 330.000 litro esne ekoiztu eta saltzen dituzte, horietariko 200.000 litro “Terra Viva” MSTaren markarekin saltzen dira eta gelditzen dena beste 2 enpresen artean banatzen dutelarik.
- Ipar ekialdeko azukre produkzioa: Pernambuco-ko estatuak azukre kanaberaren monolaborantza jasan du hamarkadetan zehar. MSTa dibertsitatea apurka berrezartzea lortzen ari da. Gaur egun, besteak beste, kokoa, guanabana, platanoa, juka, esnea eta esnekiak ekoizten dira;
- Erdi mendebaldean, Mato Grosso estatuan, Canudos Nekazal eta Abeltzaintza Ekoizpen Kooperatibak (Cooperativa de Produção Agropecuária Canudos – COOPAC) batez ere platanoa, artaburuak, ortuariak, findu gabeko azukrea, juka irina eta esnea ekoizten du.



Parte-hartzaileak.

MSTa baserritar txikien nekazal mugimendu bezala jaio zen eta hartu zuen izena “Trabalhadores Rurais Sem Terra” izan zen, izan ere euren familien iraute baldintzak ziurtatzen ziren lur sailik ez zutelako edo behintzat lur sail onik edo nahikorik ez. “Sem Terra” kategoriak gizarte maila eta egoera historiko zehatz bat deskribatzen du, batez ere lur sailen banaketa txarraren ondorioz gertatutakoa, baina baita hazkuntza demografikoarekin eta makinaren bitartez egiten den nekazaritza industrialaren hedapenarekin, faktore hauek baserritar komunitateen hirirako migrazioa bultzatu baitzuten. Etorkizun hobe baten bila joan ziren hirietara baina han faveletako miseria, biolentzia, langabezia eta abarrekin egin zuten topo eta geratzen zitzaizen irtenbide bakarra landa eremura bueltatzea zen. Gaur egun ere, lur sail baten beharrak bultzatuta, baserrietara bueltatzen den populazioa badago eta askotan, lurra lortzeko duten modu bakarra okupazioan, erresistentzian eta produkzioan datza.

Erakundeekin lotura.

Bere sorreratik, MSTa beste erakunde batzuekin lotu izan da, egoera desberdinetan. Estatuarekin gora eta behera ibili da beti okupatutako lurren lagapena eta Nekazaritza Erreforma erraztuko zuten araudiak direla eta. Sindikatuetan parte hartzeari dagokionez, MSTa nekazal populazio osoari gomendatzen dio *Sindicato dos Trabalhadores Rurais*-ean sar daitezen udal mailan lan egiteko eta nazio mailan *Central Única dos Trabalhadores* sindikatuarekin koordinatzen da. Gainera, hamaika ekoizpen, merkaturatze, zerbitzu eta kreditu kooperatibekin lan egiten du, bakoitza bere neurrian eragina duelarik: Brasilgo Nekazal Kooperatiba Konfederazioarekin hasi eta kokaleku bakoitzean sortutako kooperatibetaraino. Eliz harremanei dagokienez, MSTak badauka *Comissao Pastoral da Terra* eta nekazal pastoralekin zerikusirik. Nazioarteko mailan, nekazal erakunde latino amerikarrekin koordinatzen da eta batez ere Europa eta Kanada-ko GKE eta langile erakundeekin solidaritatea eta laguntza jasotzen du.



Lorpenak.

Nahiz eta asko falta den nekazaritza-erreforma lortzeko, MSTaren barne lan egiten duten pertsonen, lurrak eskuratu ahal izan dituztenez, euren diru sarrerak handitzea eta bizimodua hobetzea lortu dute, elikadura burujabetzan aurrera pausuk emanez elikagaien produkzio handiagoa eta hobea dela medio. Gainera, bestelako lorpenak ere aipatu beharra dago:

- Familia osoaren inplikazioa ekoizpen eta merkaturatze jardueretan, emakumeek eta gazteek funtzio bereziki garrantzitsuak hartuz. Baloratuta sentitzen direnez, parte hartze honek familiako kide guztiengan borroka izpiritua, konpromisoa eta solidaritatea haztea lortzen du;
- Produkzioarako lankidetzak modu desberdinak praktikan jartzeak 100 kooperatiba baino gehiagoren sormena ekarri zuen (kooperatiba zentralak, ekoizpen, zerbitzu eta merkaturatzea egiteko tokiko kooperatibak eta kreditu kooperatibak bilduta). Haez gain, 1.900 elkartetik gora eta 96 agroindustrien garapena ahalbideratu zen;
- Produkzio modutzat agroekologia hautatzeak, elikagai osasuntsuagoen produkzioaz gain, BioNatur Sarearen sormena ekarri zuen. Sare honek hazi eta ortuari agroekologikoen ekoizpena eta merkaturatzea egiten du eta 11 urte horretan daramatzalarik, gaur egun hazi agroekologiko ekoizlerik handiena da Amerika Latinan; eta
- Mugimenduaren oinarri den hezkuntza mantentzea, honen barne eskolak eta alfabetizazioa daudela, baina askoz zabalagoa den zerbait bezala ulertuta, kontzientziarako eta askapenerako tresna bihurtuz.

Iraunkortasuna.

- 27 urte bete dituen mugimendu honek oraindik lurrak okupatzen ditu, komunitateak sortu eta indartzen ditu eta, orokorrean, indar eta kopuruan hazten doa. Ikuspuntu sozioekonomiko batetik, kokalekuetatik datorren ekoizpenak eskualdeko ekonomia pizten duela esan beharra dago, garapena bultzatuz, merkaturatzea areagotuz eta kokatuta daudenen bizi baldintzak hobetuz.
- Bestalde, MSTa bere erakunde eta politika propioak sortuz joan da, subjektu kolektibo baten eta bere arauak adostuta, talde-helburu zehatzak dituzten komunitateen eraiketan oinarrituta. 2002tik geroztik agroekologia produkzio modutzat hautatu izateak ere iraunkortasun handiagoa ematen dio mugimenduari, produkzio eta ugalketarako beharrezko diren oinarri naturalak zaintzen dituelako, bai MSTren kideenak bai, orokorrean, gizartearenak. Azkenik, mugimenduaren autofinantzatze politika ere iraunkorra dela esan daiteke, nekazariak ordaintzen baitituzte, ekoiztutakoaren zati bat sozializatuz, mugimenduaren jardura produktiboak.



Erronka nagusiak.

Esperientziaren erronka nagusiak ondorengo puntuekin lotuta daude:

- Elkarteak eratzeko balore eta praktiken eraikuntza mantentzeko zailtasunak: hau agerian dago lurren erabilpenerako eskubidea lortu eta gero familia askok banakako ustiapenetara bueltatu nahi dutenean, subjektu kolektibotik urrunduz. MSTaren erantzuna jarrera hauekiko eguneroko jardueren bitartez “talde kontzientzia” bat etengabe garatzen joatea da, bai eskolan bai komunitatean.



- Merkatuarekiko harremana: normalean ekoizpena ongintzazko erakundeetara eta kontsumo arduratsuko sareetara zuzentzen da edota MSTren komunitate desberdinen artean elkartrukatzen da, baina badaude ekoizpena supermerkatu handietara bideratzen dituzten familiak ere. Honek gatazkak ekarri ditzake, ez datorrelako mugimenduak defendatzen dituen printzipioekin bat.
- Ekoizpenaren planifikazioa eta antolaketa ez da batere erreza kontutan izanik orokorrean lurra kalitate gutxikoak direla eta hondatuta daudela latifundistek egindako erabilerengatik. Gainera, askotan azpiegitura eskasa izaten da eta makinak ez dute ondo funtzionatzen. Arazo hauei aurre egiteko eta produkzioaren helburua (kokatutako familien bizimodua eta diru-sarrerak hobetzea) lortzeko, MSTak zenbait lankidetzaren esperientzia martxan jarri du, horien artean nekazal eta abeltzaintzarako produkzio kooperatibak eta agroindustriak gehien garatuz.
- Eszedentearen banaketa: hasieran hartutako irizpidea familia guztien artean berdintasunezko banaketa bat egitea izan zen. Honek langile finak ziren pertsonen desmotibazioa ekarri zuen. Gero lan egindako egunen arabera egin zen banaketa eta, azkenik, orduen arabera. Formula hau aurrekoak baino hobea da baina ez da oraindik perfektua, pertsona bakoitzaren produktibitatea ez delako beti berdina. Gaur arte ez da aurkitu modu on bat bakoitzak kooperatibari egiten dion ekarpena neurtzeko eta hau are zailagoa da eginkizun industrialak kontutan hartzen badugu.



Erakundearen izena: Okupatzaile eta Maizterren Mugimendua
(Movimiento de Ocupantes y Inquilinos - MOI)

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena - Hiri-etxebizitzaren eraikuntza.

Lekua: Buenos Aires Hiria, Buenos Aires Handia eta Argentinako beste probintzia batzuk.

Posta elektronikoa: info@moi.org.ar

Webgunea: <http://www.moi.org.ar/>

Posta helbidea: Ramón Carrillo 587, Ciudad de Buenos Aires, Argentina (C.P. 1275)
TE. (54 11) 4301-6818

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: MOI hainbat etxebizitza-kooperatibek osatzen dute eta guztira 12.000 familia biltzen ditu.

Jarduerak hasteko urtea: 1980ko hamarkadan sortu ziren lehen kooperatibak eta 2008an MOIko Kooperatiba Autogestionarioen Federazioa eratu zen.

Sarrera.

Okupatzaile eta Maizterren Mugimendua (MOI) erakunde sozial bat da, eta hiru ardatz nagusi lantzen ditu: etxebizitza duina, etxebizitza herrikoiak eta hirirako eskubidea. Bizilekurik ez duten pertsonak osatzen dute, gai hori lantzen duten profesionalekin batera. Eraikinak eta lursailak okupatu, lursailak eta etxebizitzak erosi, eraikinak eraiki eta erakundeekin negoziatzen dute, besteak beste. Era berean, kooperatibismoa, autogestioa eta denentzako bizi-baldintza duina oinarritzat duten etxebizitza-politikak eta habitat herrikoia sortzea da MOIren helburua. Kooperatiba Autogestionarioen Federazioaren bidez, gaur egun Buenos Aires Hirian, Buenos Aires Handian eta Argentinako beste probintzia batzuetan proiektu berriak garatzen ari diren lan- eta etxebizitza-kooperatiba ugari biltzen ditu gaur egun.

Jatorria.

Etxebizitza duina eskuratzetik ez zuten diru-sarrera apaleko pertsona-talde batek sortu zuen MOI 1980ko hamarkadan, Buenos Aires Hirian. Sektore herrikoiek etxebizitza-merkatuan jasaten duten bazterketa eta Estatuak etxebizitza-alorrean egindako politika eskasa ziren MOI sortzea eragin zuten arrazoiak batzuk. Egoera horretan, jendea lurra eta eraikinak okupatzeari ekin zion, eta 150.000 lagun inguru ibili ziren okupazio haietan. Garai berean, Buenos Aireseko Unibertsitateko Diseinu katedra bat eraikinen okupazioen azterketa eta jarraipena egiten hasi zen. Azkenik, CTA (Central de Trabajadores de la Argentina) sindikatuaren sorrerak ere eragina izan zuen mugimendu honetan, 1992an sortutako sindikatu hori bidelagun izan baitzuten politika neoliberalen aurkako borrokan. Testuinguru horretan, eraikinen okupazioari lotutako antolakuntza eta etxebizitzaren erosketa eta erregularizazioa izan ziren MOIren eginkizun nagusia lehenbiziko hamar urteetan, eta garai hartan sortu ziren lehenbiziko kooperatibak. 2002-2007 bitartean, 2.564 familiak 110 etxebizitza erosi zuten hiri-kokapen finkatuetan, eta, horrez gain, lau proiektu bukatu ziren (339 etxebizitza). 2007tik aurrera, MOIk Buenos Aires Hiritik kanpora zabaltzen bere jardueraren eremua, eta 2008an Kooperatiba Autogestionarioen Fundazioa gisa eratu zen. Gaur egun erakunde sozialek kudeatutako 33 proiektu (885 etxebizitza) eta aurrekontu-zuzkidura adostua duten 61 proiektu (1.535 etxebizitza) daude martxan eta 398 kooperatiba eta elkarte (8.591 familia) hainbat fasetan dauden proiektuak bultzatzen ari dira.



Jarduera.

Etxebizitza-kooperatibak antolatzea da mugimenduaren jarduera nagusia. Etxebizitza herrikoia ren kontzeptutik abiatuta, eta kooperatibismoa eta autogestiona oinarritzat hartuta, etxebizitzaren gaineko ikuspegi integral bat garatzen, dute, era askotako jarduera ugariren bidez:

- Kideak onartuak izan aurretik, trebakuntza-aldi bat bete behar dute. “Adreilurik gabeko eraikuntza” izena du trebakuntza horrek eta modu autogestionatuan antolatzeko gaitasunak ikasten dituzte bertan.
- Profesionalen eta teknikariek osatutako lan-kooperatiba bat arduratzen da etxebizitzak eraikitzeaz, eta horri esker ez da MOIz kanpoko enpresa pribaturik kontratatu behar.
- Ikastetxe Integral Autogestionario bat dute. Atal hauek dauzka ikastetxeak: haurtzaindegia, batxilergo herrikoia, liburutegia, trebakuntza-tailerak (eltzegintza, egur birziklatuarekin egindako artelanak, oihalgintzaren hastapenak, literatur tailerra, trebakuntza politikoa, antzerkia eta zinema lantzen dituzte tailerrotan).
- Integrazio Komunitarioetako Programako kideak dira. Gaixotasun psikikoak dituzten pertsonen etxebizitza-arazoak eta lan-arazoak konpontzen saiatzen da programa hori. Kanpo Programa Pilotu bat daukate, Borda Ospitalean dauden gaixoentzat, eta ospitale horretako Eroetxeen aurkako Mugimendu Sozialeko osasun mentaleko langileekin batera jarduten dute.
- Aldi baterako Etxebizitza Programa Autogestionarioa (PVT) garatzen dute: etxebizitza duina eskuratzeko antolakuntzaren bidea aukeratzaren duten sektore herrikoietako familiak trebatzen eta prestatzen lan egiten du programa horrek.

Parte-hartzaileak.

Etxebizitza-urritasunak zuzenean kaltetutako hiriko sektore herrikoiek osatzen dute MOI, etxebizitzaren inguruan lan egiten duten jakintza-arlo desberdinetako profesional militanteekin batera. “Ekoizpen Autogestionatuko Unitate Sozialak” direlakoetan antolatzen dira. Etxebizitza-kooperatibek osatzen dituzte unitate horiek. Kideek eskulana (normalean ez trebatua) jartzen dute eraikuntza-prozesuan, langile profesional eta teknikoek osatutako lan-kooperatibak eskulan trebatua jartzen du eta diziplina-arteke talde teknikoak arkitektura, zuzenbide eta soziologiako profesional ugari biltzen ditu, laguntza tekniko emateko.

MOIk garatzen dituen jarduera komunitarioetan mugimenduz kanpoko pertsona askok eta askok —batxilergo herrikoiko irakasleek eta Borda Ospitaleko osasun mentaleko langileek adibidez— laguntzaile gisa parte hartzen dute. Mugimenduko parte-hartzaileak kooperatibako kide formalak baino askoz gehiago dira, beraz.



Erakundeekin lotura.

MOIk erakundeekin eta antolakunde askorekin batera antolatzen ditu bere jarduerak. Adibidez:

- CTArekin hasieratik du lotura, eta elkarrekin lan egiten dute politikoki.
- Nazioartean, Etxebizitza Herrikoirako Latinoamerikako Idazkaritzarekin (SELVIP), Etxebizitzarako Nazioarteko Koalizioarekin (HIC), Alemaniako Eliza Katolikoarekin eta Uruguako Elkarrekiko Laguntza bidezko Etxebizitza Kooperatiben Federazioarekin (FUCVAM).
- Erakunde sozialekin ere harreman handia dauka, hauekin esate baterako: Mutual de la Manzana de San Francisco, AU3 ohiko ordezkarien mahaia, Unión Sin Techo eta Comisión Interna de Bodegas Giol.
- Miguelito Pepe batxilergo herrikoia eratuz gero, Borrokan dauden Batxilergo Herrikoien Koordinadoran sartu zen.



- Integrazio Komunitariorako Programaren garapenaren bidez, harremana dauka beste hauekin: Borda Ospitaleko Erietxearen aurkako Mugimendu Sozialarekin, Bordako Artisten Frontearekin eta erakunde horretako hainbat ekimenekin.
- Estatu borrokatu beharreko botere-gunetzat daukate, eta harekin parte-hartze handiagoa lortu nahi dute politika publikoak diseinatu eta aplikatzeko garaian.

Lorpenak.

- Lorpen kualitatiboei dagokienez, MOI hedapen-fasean dago azken hiruzpalau urteotan, antolakuntzaren bidez kooperatibako kideek beren etxebizitza-arazoak konpontzeko eta askoz haratago joateko izandako arrakastari esker.
- Lurraldeari eta gizarteari lotutako erakunde gisa aurkezten dira eta hegemoniaren kontrako proiektu politiko argia daukate. Ildo horri jarraiki, helburu hauek dauzka MOIk: etxebizitza desmerkantilizatzea, autogestioa erabiltzea horretarako tresna nagusi gisa eta herri-boterea eraikitzea. Etorkizunerako sozialismoa lortu nahi dute, borroka material eta sinbolikoa landuz.
- Etxebizitzen jabetza kolektiboa da: erabiltzaileen kooperatibak eratzen dira, eta erabiltzaile horiek etxebizitza erabiltzeko eskubidea daukate, baina jabetza kooperatibaren esku gelditzen da. Erakunde sozialak “politikako subjektu” gisa hartu dituzten legeak onartzeko garaian funtsezkoa izan zen MOI. Lege haiei esker, erakundeok etxebizitzarako “kreditu-hartzaileak” izan daitezke eta laguntza teknikoa eman dezakete.



Iraunkortasuna.

MOIk garatutako proiektu pilotuek (Integrazio Komunitariorako Programa, Ikastetxe Integral Autogestionarioa) eragin handia izan zuten mugimendua eragile sozial gisa indartu eta sendotzeko garaian. Era berean, hiri-mailako, Argentinako eta nazioarteko erakunde sozialekin eratutako sareek ere eragin handia izan zuten mugimendua errotzeko garaian. Estatuarekiko harremanak ere eragina izan zuen, eta aldatuz joan zen egoera politikoa eta mugimenduak bizi zuen egoera aldatzen joan ahala.

Mugimenduaren iraunkortasunak erlazioa dauka, bestalde, zenbait “aktibo ukiezinekin”: parte-hartzea antolakuntza-prozesua garatzeko eta bereganatzeko oinarri eta aukera gisa ulertua; prozesuari ematen zaion ikuspegia, kooperatibak subjektu sozio-politiko eta ekonomikoak bihurtzen doazen etapetan zeharreko ibilbide gisa; antolakuntza-ardatza prozesuaren bizkarrezur gisa; eskubideen ikuspegi historiko baten berreskurapen eta barneratzea; eta aldaketa kultural bat, kolektiboa eta solidarioa dena baloratzen ikasiz eta asistentzialismo individualistaren beste muturrean dagoen ikuspegi bat garatuz. Laburbilduz, metatutako esperientziak erakutsi duenez, kooperatiba-erakundeek iraun ahal izateko bizimodu gisa eta proiektu gisa aukeratu eta garatu behar dira, eta ez unean uneko irtenbide instrumental gisa.



Erronka nagusiak.

Erronka hauek nabarmendu ditzakegu:

- Proiektuak egiteko finantzazio osagarririk eza, orain arte kooperatibako kideen ekarpen eta lanarekin eta beste erakunde batzuen laguntzarekin egin baitute aurrera. Legeak kooperatiba gisa kreditu bat eskuratzeko aukera ematen die, baina etxebizitza-merkatuak klase herrikoiak baztertzen jarraitzen du.
- Gizarte kapitalistan nagusi den ordezkatzeko kultura indibidualistak oztopatu egiten du MOIrena bezalako proiektuak sendotzea eta indartzea. Egoera horri aurre egiteko tresna asko garatu badira ere, oraindik ere arazo handiak daukatela onartzen dute.
- Zaila da epe luzeko etorkizun politikoa eta eguneroko bizi-baldintzen hobekuntza —unean uneko errealitateko irizpide pragmatikoak, alegia— uztartzea.
- Etxebizitza eta lurra merkantilizatzeko prozesu gero eta hedatuagoaren ondorioz, irabazi asmorik handiena bilatzen duten truke-ondasunak bihurtzen dira eta etxebizitza duinerako eskubidea asebetetzen duten elementuak izateari uzten diote. Horrek etengabeko arazoak sortzen dizkio MOIri, etxebizitzak eraikitzeak duen diru-kostu handiaren ondorioz, esaterako.





Erakundearen izena: Movimiento de Trabajadores Excluidos (Langile Baztertuen Mugimendua).

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena.

Lekua: Buenos Aireseko hiri autonomoa eta inguruko herriak.

Posta elektronikoa: movtraex@yahoo.com.ar

Webgunea: www.cartoneando.org.ar

Posta helbidea: Tucumán 3170 – Ciudad Autónoma de Buenos Aires (CABA).

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 2.000 langile inguru (emakumeak nagusi dira gutxigatik).

Jarduerak hasteko urtea: 2002

Sarrera.

Langile Baztertuen Mugimendua (MTE) “cartonero” (kartoi-biltzaileak) deritzen langileak biltzen dituen erakunde soziala da. Hondakin birziklagarri lehorrak bildu, garraiatu eta merkaturatzen ditu erakunde honek. Lan-baldintza duinak lortzea da erakundearen helburu nagusietako bat. Kideek egiten duten lana babestu eta antolatzen du MTEk, haien jardueraren formalizazioa sustatzearekin batera. Horrez gain, aurrerapen handiak lortu dituzte kolektiboa bizi den komunitatean. Haurren lanari emandako erantzuna da lorpen handienetakoa, haurtzaindegi bat sortu baitute kartoi-biltzaileak lanean dauden ordutegian haurrak bertan uzteko.

Jatorria.

2002an hasi ziren lanean, erakundeek, lan-munduak, familiak eta Estatuak jasandako krisiaren ondorioz langabezia eta gizarte-bazterketa handia ziren ingurune batean. Egoera hartan, kartoiak biltzea beste biderik ez zuten ikusi milaka eta milaka langabek. Kartoi-biltzaileek arazoak izaten zituzten beren lana egiteko: tratu txarrak jasaten zituzten, poliziak dirua eskatzen zien lan egiten uztearen truke eta auzokoek diskriminatu egiten zituzten. Egoera horri aurre egiteko eratu zen MTE, biltzaileak elkartu eta antolatzeko asmoz.

Unibertsitate-ikasle batzuen gidaritzari jarraiki, bilera batzuk egin zituzten poliziarekin, lan egiteko arauak negoziatzeko. Buenos Aires Hiriko gobernuak ere bat egin zuen negoziazioekin geroxeago, nahiz eta ordura arte zer egin ez zekiela egon, hiriko kartoi-biltzaileek osatzen zuten fenomenoaren aurrean. Hala, MTEren eskakizunei erantzunez hainbat neurri hartu ziren, kartoi-biltzaileak hiri inguruko auzoetatik hiri erdira eramaten zituzten kamioien “geltokiak” lekuz aldatu ziren, kamioiak aparkatzeko poliziarik dirua ordaindu behar ez izatearen truke. Neurriok sektoreari zuzendutako politika publiko batzuetako lehenbiziko neurritzat hartu ziren, denborarekin. Bien bitartean, kartoi-biltzaileak beren lanarekin jarraitu zuten eta hirian beren txoko edo esparrua izateko borrokan.

Jarduera.

Hondakin birziklagarri lehorrak bildu, garraiatu, pilatu eta merkaturatzea da erakundearen zeregin nagusia. Prozesu horrek berezitasun bat dauka: lehenbiziko bi faseak hiriko kaleetan egiten dira, eta gainerakoak kartoi-biltzaileak bizi diren auzoetan. Berezitasun hori azpimarratzea garrantzitsua da jabetzeko zenbateko logistika kudeatu behar duen MTEk, erakundea osatzen duten 2.000 biltzaileen jarduerari eusteko.



- **MTEk kooperatiba bat eta erakunde zibil bat eratu zuen** bere jarduerari lege-esparru bat emateko eta, batez ere, Estatuarekin negoziatzeko eta harengandik baliabideak eskuratzeko tresna bat izatearren. Lege-tresna horiek erakunde barruan parte hartzeko prozesuak bultzatzeko erabiltzen dira halaber, bi urtetik behin biltzarrak egiten baitituzte erakundeko kideek beren buruzagiak aukeratzeko. Beren ezaugarriengatik, lanarekiko duten jarreragatik eta erakundearekin duten konpromisoarengatik nabarmentzen diren pertsonak errekonozitu egiten dira, haiek buruzagi gisa aukeratuta.
- **Hurtzaindegia:** 2009. urtean MTEk hurtzaindegi bat ireki zuen “Che Pibe” Fundazioarekin batera. Egutero 150 haur joaten dira hurtzaindegira, eta jolas-jarduerak, jarduera hezitzaileak eta kultur jarduerak egiten dituzte bertan. Senideak lanetik itzuli arte afaldu eta lo egiten dute, halaber. Hauxe da erakundeak maila kualitatiboan izan duen lorpenik handienetakoa, erakundeko kideen seme-alaben bizi-kalitatea nabarmen hobetzea lortu dute, haurrek lehen lanaldi luzeak egin behar izaten baitzituzten gurasoen ondoan.
- **Kartoi Biltzaileentzako Laguntza Zentroa:** 2010era arte, hiriko kaleak ziren MTEren lan-esparru bakarra, eta horrek zaildu egiten zituen erakunde barruko laneko eta administrazio-alorreko jarduerak eta komunikazioa. Horri aurre egiteko, Kartoi Biltzaileentzako lehenbiziko Laguntza Zentroa ireki dute berriki. Zentroan aholkularitza juridikoa eta soziala ematen zaie kideei, besteak beste. Gainera, “lapiko herrikoi” tradizionala ere lokal horretara eramán zuten. Mugimendua sortuz geroztik kartoi-biltzaileen topaleku izan da lapiko herrikoi hori: astean bitan janari bat ematen die MTEk kartoi-biltzaileei.

Bestalde, kartoi-biltzaileak bizi diren komunitatera zabaldu ditu jarduerak MTEk: auzoetako zenbait batzordeetan parte hartzen du, babes eskeko helegiteak aurkezten ditu eta erakundeko kideei laguntzen die edateko urarekin edota etxebizitza-arazoarekin zerikusia duten eskakizun kolektiboetan.

Parte-hartzaileak.

Historikoki materialak berreskuratzen nahiz udal-zerbitzuetan (garbiketa, mantentze-lanak, elektrizitatea, etab.) jardun duten eta 2001eko krisiaren ondorio larriak jasan dituzten langileak biltzen ditu MTEk. Langile gazteagoak ere biltzen ditu: materialak berreskuratzeko lana beren lehenbiziko lan-esperientzia izaten da haientzat.

MTEko kideek jasotzen dituzten diru-sarrereri dagokienez, diru-kopurua baldintzatzen duena ez da izaten bakoitzak egindako lana, kartoi-biltzaile bakoitzak lan egiten duen auzoko eta eremuko biztanleen kontsumo-maila baizik, esparru bakoitzaren eros-ahalmenaren araberakoa izaten baita biltzaileek biltzen eta gero merkaturatzen dituzten hondakinen osaera. Hori da, beraz, hiriko gobernuak ematen duen hileko diru-laguntzaren justifikazioetako bat.



Resulta complejo hablar de “empleo” en una actividad donde los requisitos de ingreso son mínimos y los niveles de rotación y transitoriedad altos. En el caso del MTE, se dio una redefinición de tareas buscando mejorar las condiciones de trabajo, al dividir el transporte de los trabajadores por un lado y del material recolectado por

Zaila da kasu honetan “enpleguaz” hitz egitea, jarduera honetan aritzeko apenas bete behar baita baldintzarik eta langileak aldi baterako bakarrik aritzen dira, gainera. Dena den, zereginak birdefinitzea erabaki zuten MTEk,




lan-baldintzak hobetzeko asmoz: langileen garraioa eta bildutako materialarena bereiztea erabaki zuten, eta jarduera nagusiarri laguntzeko funtzio berriak sortu ziren horrela. 200 langilek beste ardura batzuk (gidari, langile-buru, etab.) hartu zituzten orduan, eta erakundearen denbora gehien zeramatenek bete zituzten ardura horiek.

2008an Buenos Aires Hiriko gobernuarekin sinatutako hitzarmen bati jarraiki, MTEko kideak monozerga sozialean inskribatu ziren legalki. Hori oso garrantzitsua izan zen babes soziala eskuratzeari dagokionez, orduz geroztik osasun-babesa baitute langileek, ekintza sozialaren bidez, eta erretiroko ekarpenak egiten dituzte.

Erakundeekin lotura.

MTErentzat oso garrantzitsua da beste eragile batzuekin elkarlanean jardutea, iruditzen baitzaie garapen isolatua ez dela bideragarria. Hala, udal-gobernuarekin dute lotura bereziki, eta dozenaka lankidetzak hitzarmen sinatu dituzte harekin, garraioari buruz, lan-esparruen banaketari buruz, kartoi-biltzaileen segurtasunari buruz, etab. Mugimenduaren eskakizun historikoak eskubide eskuratuak bihurtzen dira Estatuak jardueren errekonozimendu formala egiteari esker.

La Alameda izeneko oihalgintzako lan-kooperatibarekin ere lotura estua du MTEk: langileen uniformeak egiten ditu La Alamedak. 5.000 inguru egin ditu dagoeneko, kooperatibaren ekoizpen osoaren % 30 inguru. (*Ikus La Alamedaren fitxa txosten honetan bertan*)



Bestalde, MTEk sektorerako estrategiak finkatzen ditu kartoi-biltzaileen beste kooperatiba batzuekin (El Ceibo,, El Álamo, Madreselva eta Del Oeste). Ekintza komunak prestatu eta elkarren azpiegitura eta logistika osatzen dute denen artean, hondakinen kudeaketa integrala lortzeko asmoz.

Lorpenak.

- **Gizartearen errekonozimendu eta onarpenera:** garrantzitsua izan da hiriko biztanleek kartoi-biltzaileen kolektiboa errekonozitu eta onartu izana. “Kanpotik datozenekiko” ikuspegi-aldaketa positibo horri esker kartoi-biltzaileak hiri-paisaia “ikusezinak” ziren subjektuak izateari utzi eta pasaia horretan modu duinean txertatzea lortu dute.
- **Diruari dagokionez,** MTEren lan-esparruaren barruan lortutakoa kartoi biltzen diharduten 500 familiek egunero irabazten dutenaren puska handi bat izan da. Hiriko gobernuak komodatu-kontratu bidez emandako autobus eta kamioiak dauzka MTEk, langileak eta material birziklagarriak garraiatzeko. Langileek dohainik bidaiatzen dute orain, eta lehen hondakinak biltzeko ordaindu behar zutena aurreztea daukate.
- **Ingurumenari egindako ekarpena:** MTEren lanak kartoiaren eta paperaren ekoizpen-sektoreei egiten die mesede, egunero 200 tona lehengai inguru transferitzen baitituzte industria-sektorerari. Gainera, MTErengatik ez balitz, hondakin horiek guztiak bereizi gabe lurperatuko lirakeke, Buenos Aires Handian dagoeneko gainezka eginda dauden betelan sanitarioetan.



Iraunkortasuna.

Kide bakoitzak bere bilketa-zirkuitua osatzea eta erakundeko kidetza-sentipena izatea dira MTEren iraunkortasunerako oinarriak. Zentzu horretan, kooperatibako ordezkari-organak eta mugimenduaren ordezkariak zuzenean aukeratuak izateak oinarri sendoa ematen dio erakundeari. Gainera, MTEk iraupena ziurtatua du luzaroan, bere printzipio nagusietako bat — lortutako onurak kide bakoitzaren esfortzu eta parte-hartzearen emaitza direneko printzipioa — errealitatean gauzatzeari esker.

Era berean, Estatuak kartoi-biltzaileen lanaren zati bat diruz laguntzeak ekonomikoki arrazionala egiten du MTEren lana: MTEk lan hori egin ezean hondakinak biltzeaz arduratuko litzatekeen beste enpresa pribatu bati diru gehiago ordaindu beharko liokeela jakitean oinarritzen da arrazionaltasun hori.

Lehendik dauden lan-esparru batzuetan hondakin lehorrak biltzeko zenbait zirkuitu esleitzeko lizitaziotara aurkeztu da MTE, horrek dakartzan betebeharrekin. Horrek erakusten du erakundeak egiten duen lanak jarraitasuna izango duela. Lan-eremu historikoez gain hondakin asko sortzen diren beste ibilbide batzuez ere (hogei pisutik gorako eraikinak eta bost izarreko hotelak) arduratzen da MTE, eta egunero biltzen dituen 200 tonei beste bi tona gehiago biltzen ditu orain ibilbide berri horiei esker.



MTE ingurumena zaintzeaz arduratzen da, halaber, etxeko hondakinak jatorrian bereiztea ingurumen-politikak egiteke dituen zereginetako bat dela eta horrek herritar guztien konpromisoa eskatzen duela erakusten baitie herritarrei eta Buenos Aireseko gobernuari.

Erronka nagusiak.

- Hondakinak berreskuratzeko zirkuituen garapen jasangarria bideragarria izatekotan Estatuak bere erantzukizuna bere gain hartu behar duela erakustea. Hondakinen kudeaketa integraleko eragile ahulena den aldetik, kartoi-biltzaileen sektoreak ezin die berak erantzun bakarrik sektoreko kideen behar guztiei. Hortxe datza, hain zuzen ere, MTE bezalako kartoi-biltzaileen erakunde sendo eta errotuen garrantzia.
- Erakundeko buruzagiak aukeratzeko hauteskundeak aurki egingo direnez, barne-mailako zenbait gatazka konpondu egin behar ditu MTEk. Izan ere, MTEk izandako hazkundearen eta kideen heterogeneotasunaren ondorioz, aurten inoiz baino biziagoak izango dira barne-hauteskundeak, aukera ugari baitaude jokoan.
- Hiriko gobernuarekin adostutako betebeharrak eta hondakinak lizitatzeko baldintza-orri berrietan finkatutako baldintzak betetzen jarraitzeko erronka dago, bestalde.



Erakundearen izena: Túpac Amaru auzotarren erakundea

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena, hiri-etxebizitzaren eraikuntza, parte-hartzean oinarritutako kudeaketa.

Lekua: San Salvador de Jujuy, Argentina ipar-mendebaldea.

Posta elektronikoa: raulnoro@hotmail.com; mila63@arnet.com.ar

Webgunea: www.tupacamaru.org.ar

Posta helbidea: Barrio Alto Comedero, San Salvador de Jujuy.

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 15.000 kide

Jarduerak hasteko urtea: 1999

Sarrera.

Argentinako auzotarren erakunderik garrantzitsuenetakoa da Túpac Amaru. 1990eko hamarkada amaieran izandako krisi ekonomiko eta sozialari erantzunez sortu zen San Salvador de Jujuy. Langileen duintasunaren eta aldaketa kulturalaren aldeko borrokaren, lan komunitarioaren eta erresistentziaren erreferentzia da esperientzia hau.

Hasiera batean Jujuyko auzoetan hedatu zen erakundea eta barnealdeko herrietara (El Carmen, Palpalá, La Esperanza, Calilehua, Humahuaca, San Pedro eta La Quiaca, besteak beste) hedatu zen gero. Gaur egun Argentinako hamabost probintzietan lan egiten du erakundeak.

Duen hedapenagatik eta lantzen dituen arlo ugariengatik, herrialde osoko erakunderik garrantzitsu eta konplexuenetakoa da. Lana, hezkuntza, osasuna eta etxebizitza sustatzen ditu pobrezia-tasarik handienetakoa duen probintzia batean, gazteen eta emakumeen inklusioa bultzatzen du, halaber, eta arreta berezia ematen die haurrei.

Jatorria.

Túpac Amaru auzotarren erakundea San Salvador de Jujuyko auzorik marjinalenetako bateko —Alto Comedero— hainbat beharri erantzuteko sortu zen. Hasiera batean jarduera hauek landu zituzten: esnea ematea gazteei eta baratze komunitarioak, jantoki herrikoiak eta arropa-leku komunitarioak sustatzea. Jarduera kolektibo horietatik abiatuta zabalitzen joan zen erakundea. Plan sozialak (langabetuentzako diru-laguntzak eta langileen trebakuntza, adibidez) kudeatzea eta administratzea izan zen erakundearen lehen urratsetako bat, batetik, eta ekoizpen-proiektu kolektiboak eratzeko ekimenak bultzatzea, bestetik. Horri jarraiki, lehenbiziko etxebizitza-kooperatibak eratu zituzten.

Jarduera.

Lanpostuak sortzea eta komunitateen beharri erantzutea da erakundearen ardatz nagusia. Inpakturik handiena duen jarduera ekonomiko etxebizitzaren eraikuntza da. Ehundik gora lan-kooperatiba sortu dituzte horretarako, eta funtsean kooperatiba horietan zentratzen dira erakundearen ekintzak, plangintza eta kudeaketa komuna. 2003az geroztik 3.400 etxebizitza eraiki dituzte probintzia osoan, eta hiriko hainbat herrilanean parte hartu dute (ibaiak gainezka egiten duenerako eta luiziak gertatzen direnerako babes-hormak eraiki dituzte, adibidez).

Erakundeak bost fabrika sortu ditu, halaber. Horietako hiru auto-hornikuntzarako (edo atzeranzko integrazio bertikalerako) dira: hormigoizko hodiaren fabrika bat, bloke eta galtzada-harrien fabrika bat, eta aluminiozko leiho eta ateak fabrikatzeko beste bat. Beste bi fabrikeri dagokienez, bata oihalgintzako fabrika bat da (laneko arropa, arropa informala, ehunak, oihalak, etab. egiten dituzte) eta kanaberazko altzarien fabrika bat, bestea.



Bestalde, laguntza komunitarioa ematea da erakundearen beste jarduera garrantzitsu bat. Jangela komunitarioen bidez eta esne-ontziak banatuz egiten du lan hori. Espazio horietan probintzia osoko 44.000 gazte artatzen ditu erakundeak.

Eta jarduerok egiten dituzten langileek egindako lanaren arabera soldata jasotzen dute. Kasu askotan Argentinako Gizarte Garapenerako Ministerioak emandako plan sozialak mantentzen dira (*Plan Jefas eta Jefes de Hogar*) erakundeak ematen duen soldata osatzeko. Horrekin batera, beste onura batzuk eskaintzen dira: janarirako osagarria, osasun-arloko lehen mailako arreta, haurtzaindegia, etab.

Hezkuntza-arloan Germán Abdala ikastetxea jarri zen martxan 2003an, kooperatibako kideek lehen eta bigarren hezkuntzako ikasketak egin edo amaitu ahal izan ditzaten. Han eskuratutako tituluak ofizialak dira eta probintzia osoan onartzen dira. Beste erakunde batzuetan lantzen ez diren nahitaezko hiru irakasgai ematen dira bertan: Auto-Estimua, Jujuyko eta Indiar Herrien Historia eta Kultura eta Langile Mugimenduaren Borroka.

Erakundeak osasun-arloa lantzen du halaber. Integrazio komunitariorako zentroak (CIC) eraiki eta mantentzen ditu. Alto Comederon hasi ziren ekimen horrekin eta gero beste herri batzuetara zabaldu zuten. Integrazio-zentro bakoitzak zerbitzu hauek ematen ditu: osasun-arloko lehen mailako arreta, gazteentzako asistentzia fisiko, odontologiko eta psikologikoa, eta ikasketetarako laguntza. Anbulantzia eta laborategi propioak dituzte, eta erakundeak ordaintzen ditu hango profesionalen ordainsari guztiak.

Errehabilitaziorako Zentro Integralak (CEMIR) ezintasun fisiko eta mentalak dituzten Alto Comederoko Túpac Amaru auzoko ehunka haur eta gazte artatzen ditu. Kanpo-kontsultak, gimnasio integratua (parke egokitu batekin), jangela, botika, kontsulta psikologikoa, igerileku girotu bat aldagela eta guzti eta jendea artatzeko bulegoak ditu eraikinak.

Beste zerbitzu hauek ere ematen dira: sendagaiak dohainik, jaio berrientzako poltsak, hileta-zerbitzua, kirol- eta jolas-jarduerak igerilekudun kiroldegietan eta auzo eta herrietan eraikitako estalpeetan. Halakoak udaleku gisa erabiltzen dira udan.

Alto Comederoko Túpac Amaru auzoko erakundeak ur-parke bat eraiki du, bestalde. Haurrentzako jolas-komplexu horrek 40.000 metro koadro ditu eta Izotz Garaiko filmetako motiboetan oinarritutako motiboekin dekoratutako parke tematikoa dauka.

Parte-hartzaileak.

Erakundearen neurria eta konplexutasuna direla eta, zaila da bertan zenbat pertsonak parte hartzen duen jakitea. Oro har, erakundearen lan egiten duten eta, aldi berean, hark bultzatutako jarduera, proiektu eta programen onuradun diren guztiek osatzen dute Túpac Amaru.

Erakundeko langile gisa, Túpac Amaruko kideek ekoizpen-kooperatibetan, jangela eta merenderoetan, eskoletan, CIC eta CEMIRetan lan egiten dute, besteak beste. Era berean, langile horiek eta haien familiek erakundeak ekoitzi eta eskaintzen dituen ondasun eta zerbitzuak eskuratzen dituzte: esne-ontziak eta arropa-leku komunitarioetako arropa jasotzen dute, eskolara joaten dira, osasun-arloko lehen mailako arreta jasotzen dute, udalekuetara joaten dira, kirola egiten dute kiroldegietan, etab.



Erakundeekin lotura.

Erakundearen neurria eta irismena dela eta, udal-mailako, Argentinako eta nazioarteko eragile askorekin du erlazioa. Hona hemen erakundearekin hartu-emana duten erakunde garrantzitsuenak:

- Antolakundearen lehen urteak markatu zituen erlazio nagusia CTA sindikatuarekin duena da. Langile-sindikatuaren sorrera bultzatu zuen Túpacek: mezularien sindikatua (SIMECAJ – Jujuyko Mezulari eta Kadeteen Sindikatu Independentea); taxi-peoien sindikatua (SITTAK – Jujuyko Taxi eta Autoetako Langileen Sindikatua); saltzaile ibiltarien sindikatua (AVA – Saltzaile Ibiltarien Sindikatua) eta ezinduen elkartua (Azaroaren 16a), besteak beste.
- Estatuarekin ere garrantzi handiko hartu-emanak ditu erakundeak. Gorago esan dugunez, Túpac Amaru erakundea plan sozialak kudeatu eta administratzeaz eta lana eta trebakuntza sustatzeko Estatuko diru-laguntzak jaso eta bideratzeaz arduratu da hasieratik. Horiek dira bere finantzazio-iturri nagusiak. Erakundeak baliabide horiek eskuratzeko eta kudeatzeko garatzen duen ereduaren bidez “bezero”-joerak gainditu nahi dituzte, baliabide publikoen eragile bihurtzeko (Albergucci et al., 2009).

Era berean, Túpac Amaru erakundeko eraikuntza-kooperatibak udaleko botere politikoa presionatzen duen eragile politikoa bihurtu dira: lizitazio publikoetan parte hartzen saiatzen dira eta, horrela, baliabide horiek eskuratzeko borrokatzen dira, eraginkortasun handiz.

Lorpenak.

Erakundeak era askotako jarduerak lantzen eta beharrak asetzen ditu, eta arazorik duen arlo sozial gutxitan ez du interbentzio zuzenik garatzen.

Lehen esan dugun bezala, etxebizitzak eraikitzea da inpakturik handiena duen jarduera. 2003az geroztik Túpac Amaruko kooperatibek 3.400 etxebizitza eraiki dituzte kooperatibako kideentzat. Aldi berean, erakundeak hamabost auzo baino gehiago diseinatu eta antolatu ditu, beren zerbitzu eta espazio komunitarioekin: osasun-etxeak, parkeak eta plazak, kiroldegia, futbol-estadioa, errugbi-zelaia, eskolak, ziberra, supermerkatuak, etab. Auzo horietan antolakundeak sortutako bost fabrikak finkatu ziren.

Erakundearen kooperatibek eta ekoizpen-ekimenek 3.800dik gora lanpostu eskaintzen dituzte. Estatuaren eta Ledesma¹⁷ taldearen atzetik, probintziako hirugarren enplegu-emailea da Túpac Amaru.

Iraunkortasuna.

Túpac Amaruren iraunkortasuna aztertzeko garaian, antolakundearen zenbait alderdi hartu behar dira kontuan. Alderdi horietako batzuei erreparatuko diegu jarraian:

- Maila lokal eta nazionalean errekonozitutako subjektu politikoak izatea, lan eta jardueren finantzazioa eta kooperatiba-espirituari eta parte-hartzean oinarritutako egitasmoa izateari eusteko erakundeak duen barne-antolakuntzako ereduak. Lehenik eta behin, herritarren beharrei erantzuteko garaian lortutako eraginkortasunak eta lantzen dituzten gaien ugartasunak Túpac Amaruren hazkunde handia ekarri zuten eta maila lokal eta nazionalean errekonozitutako subjektu politikoa bihurtzen lagundu zuen. Era berean, bultzatzen dituzten ekimenek lortutako arrakastak eragina dauka bertako ondasun publikoetan, “langileen antolakuntza masiboko oinarri bat bermatzeaz” gain, haiek indartu egiten ditu eta zilegitasuna ematen die haien soldata-eskarien edukari eta eskari horiek egiteko erabilitako tresnei (Albergucci et al., 2009).

¹⁷ Nekazaritza industrialeko talde ekonomiko argentinarra. Azukrearen, inprimatu eta idazteko paperaren eta fruta eta zuku zitrikoen merkatuko liderra da. 7.700tik gora langile ditu (Iturria: <http://www.ledesma.com.ar/index.php>).



- Bigarren alderdiari dagokionez, erakundearen jarduerak finantzatzen dituzten baliabide asko estatu nazionaleko ondasun publikoetatik badatoz ere, denborak aurrera egin ahala erakundeak hainbat tresna sortu ditu bere burua finantzatzeko. Beren ekoizpen osoa edo zati handi bat inguruko probintzietako herrietan saltzen dituzten bost fabrikak eta eraikin publikoak eta eskolak mantenu eta konpontzeko zerbitzuengatik jasotako diru-laguntzak nabarmentzen dira hemen. Bestalde, osasun-arloko zerbitzuen zati bat gizarte-segurantzaren sistemako 15.000 afiliatuek jarritako kuoten bidez finantzatzeko ahaleginetan dabilta orain.

Erakundearen antolamenduari dagokionez, astero biltzarrak egiten dituzte arlo bakoitzeko ordezkariekin. Biltzar horietan erakundeari dagozkion erabaki nagusiak hartzen dira, proiektuak eztabaidatzen dira, ideia berriak proposatzen dira, sortutako arazoak konpontzeko neurriak finkatzen dira, etab. Espazio zabala dira biltzarrak, eta langileak erakundearekin duten konpromisoan “hezten” laguntzen dute, kideen eta beste erakundeen arteko truke- eta elkarrekotasun-harremanak eta jokamoldea arautzeaz gain.



Erakundearen izena: Red Social Kooperera – Gizarte Sarea, S.Coop

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena - merkaturatzea eta elkar trukaketa - gizarteratzearen sustapenerako ingurumenaren eta gizarte ekintzen garapena.

Lekua: Bilbo, España.

Posta elektronikoa: j.gonzalez@koopera.org

Webgunea: www.koopera.org

Posta helbidea: Jon Arrospide Kalea, 14, Bilbo 48014

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 198 pertsona: 115 gizon eta 83 emakume.

Jarduerak hasteko urtea: 2008

Sarrera.

Koopera Sarea, gizarte ekimeneko kooperatiben eta gizarteratzeko enpresen talde bat da, gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gizarte bazterketaren aurkako eta gizarteratze eta laneratzearen borroka da bere helburua, batez ere ingurumenaren defentsarako ekintzen bitartez.

Koopera Gizarte Sarean beste aukera bat behar duten pertsonen egoera aldatzeko lan egiteko dute. Pertsona hauek dira Sarearen protagonista benetakoak.

Jatorria.

Koopera gizarte sarea 2008 urtean sortzen da, bigarren graduko kooperatiba bat bezala, sare izaera ematen dioten lehen graduko beste kooperatiba batzuek osatua: Rezikleta S.Coop, Berohi S.Coop, Ekorropa, S.Coop., Ekiber S.Coop. Caritas Bizkaia sarera gehitzen da bazkide kolaboratzaile bezala. Hauetatik zaharrena, Rezikleta, 1890 urtean sortua izan zen.

Jatorrietara atzera egiten badugu, Kooperera gizarte sarea aipatutako lau kooperatiben zerbitzu komunak, harremanen eta kolaboratzaileek gaietan posizionatzea eta sinergiak aprobetxatzeko helburuarekin sortzen da. Baina batez ere, horien guztien gizarte lana indartzeko helburu sendoarekin. Eta beti berrikuntza bultzatuz eta hasieratik pertsoneri parte hartzaileak eginez. Ideia, zuzentzen diren sektore eta kolektiboari dagokion osagarritasunetik jaiotzen da. Horien guztien helburua, beraien kabuz zailtasunak dituzten kolektiboen eta arriskuan daudenen lan merkaturako sarbidea erraztea da, batez ere, ingurumenaren arloan enplegua sortuz: Hondakinen bilketa, tratamendua eta berrerabilpena, birziklatzea, kontsumo arduratsuaren sustapena, etab., eremu berrietan hasteari uko egin gabe, beti ere eskulanean sektore intentsiboak diren bitartean. Eta beti berrikuntza sustatuz eta hasieratik pertsoneri guztiaren parte hartzaileak eginez.

90 hamarkadako urteetan kontzientzia ekologikoaz hitz egiten hasten da eta ingurumenarekiko iraunkorrak izatearen beharra ezagutzen hasten da, herri administrazioen mailan. Ingurumenaren arazoenganako nolabaiteko sentsibilitatea sentitzen hasten da. Momentu horretan udaletxeak gaikako eta antzeko bilketen lehiaketak publikatzen hasten dira. Joera hori aprobetxatzeko asmoarekin, gizarte eta ingurumenaren konpromiso bat duten pertsona talde batek, Bilboko Caritas Diocesanoak boluntarioekin batera, elkarte bat osatu zuten hiri hondakinen eremua mugitzeko asmoz, beharrean dauden kolektiboek enplegua sortzearen alde.



Europar mailan arrakastako antzeko ekimenak behatzen ari ziren, baina Euskadiren errealitatea kanon horietatik oso urrun geratzen zen eta beraz, betetzeko merkatu-zoko berriak zeuden lan hori eman ahal izateko. Horrela, kolektibo horren gizarteratze eta laneratzea posible egiten zuen egitura bat sortzen zen, lanpostuen sorreraren bitartez eta era berean, ingurumenari dagokionez iraunkorrak ziren gizarte portaerak sustatzen ziren. Bere ibilbidearen hasieran, forma juridiko bezala elkarteak lortu nahi ziren helburuetara erantzuten ez zuenez, Rezikleta kooperatiba moduan sortzen da, osatzen duten pertsonen konpromisoa, parte hartzea, berdintasuna eta ahalduntzearen sentitze hori jasotzen duen eredu juridikoa bezala.

Nabarmendu behar da eredu kooperatiboaren aukeraketa ez dela ustekabekoa, elkarteak jaiotzen denaren borondate integraztaile horren isla izan nahi baitu. Koopera gizarte sarean bigarren proiektu handiak Berohi S. Coop izena du. Sortzen ari den ekintza bezala ehungintzaren sektorea identifikatzen da eta enpleguaren sorrerarako aukera handiekin. Hasierako ideia Caritas Diocesana eta Rezikleta bertatik sortu zen, erabiltzaileen arroparen harrera eta bilketa prozesua aldatzeko beharra ikusi zutenean eta modu batean duin bihurtuz, harreman eredu desberdin bat sortuz. Modu honetan, Ekorropa dendak sortzen dira, hauek berreskuratutako arropak saltzen dituzte, herritar guztiei kontsumo iraunkorren aukera eskainiz eta gizartean barneratzea bultzatuz. Prozesu honetan, sarean parte hartzen duen hirugarren kooperatiba sortzen da; Ekiber S. Coop, tamaina handikoak direlako edo bere ezaugarriak bereziak direlako, prozedura desberdin bat eskatzen duten hondakinei trataera berezi bat emateko, aukeratuak eta tratatuak izateko ondoren egingo zaien erabilerarako.

Jarduera.

Koopera Gizarte Sarean, gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden kolektiboen Gizarteratze eta Laneratza aritzen dira. Beste aukera bat behar duten pertsonen egoera aldatzeko lan egiten dute. Eta pertsonen etorkizuna aldatzeko, ingurumenaz arduratzen dira, ingurumenaren zerbitzuak burutuz, nagusiki hondakinen kudeaketa.

Horrez gain, kontsumo arduratsua, planetaren garapen iraunkorra eta bidezko merkatal harreman batzuk sustatzen dituzten produktu solidario, justuak eta ekologikoak merkaturatzen dira.

Gainera, mundu berdineko baten garapenarekin ere kolaboratzen dute, ekonomia sozial eta solidarioaren sustapenaren bitartez garapen bidean dauden herrialdeetan, nagusiki, hondakinen kudeaketaren ingurumenaren zerbitzuak burutuz eta produktu solidario, bidezkoak eta ekologikoak merkaturatzen.

Parte-hartzaileak.

Koopera Gizarte Sarea 198 pertsona langilez osatuta dago (115 gizon eta 83 emakume). Pertsona langileak eta boluntarioak. Pertsona dinamikoak, berritzaileak eta gertukoak dira, gauzak beste modu batera egiteko eta ekonomia sustatzeko konprometituak. 90 pertsona baino gehiago barneratu dira bazkide kooperatibista bezala eta 250 boluntario inguruk ohiko moduan kolaboratzen dute.

Bere lan kultura oinarritua dago:

- Parte hartze aktiboa eragile desberdinen kudeaketan (bazkideak, langileak eta boluntarioak).
- Elkarrekiko konfiantzan oinarritutako harremanen sorrera eta emaitzengatik gogobetetasuna.
- Konpromisoa ingurune sozialarekin.
- Trebetasunen mailakako hobekuntza posible egiten duen prestakuntza etengabearen politika.





Pertsona boluntarioak beraien konpromisoarekin, Caritas Bizkaian daudenetik Gizarte Sarean parte hartzen dute. Guztiz motibatua eta oinarrian emakumeek osatutako talde honek, ehunaren eremuan lan egiten du, arropa bilketa, erabiltzaileei arreta eta denden merkaturatzea laguntza lanak burutuz. Horrez gain, proiektuaren hedapenaren etengabeko lana burutzen dute, konpainia eta sentsibilizazioa gizartearen artean. Kooperatiba eta boluntarioen arteko lan bateratuak proiektu bakarraren sentitzea bat egiten dute eta ekonomia solidarioaren inguruan hazten joaten jarraitzera motibatzen diete.

Kooperera Sareko kideak:

- Rezikleta
- Ekorropa
- Ekorrepara
- Lanberri
- Berohi, S.Coop
- Ekiber

Bazkide kolaboratzailea: Caritas Bizkaia

Funtzionamendu organoak:

- Batzarra eta Kontseilu Errektorea
- Zuzendaritza eta aholkularitza kontseilua



Lorpenak.

Kooperera Gizarte Sarea Kooperatibaren formulapean sortzen da, langileak enpresen benetako protagonistetan bihurtzen diren enpresengatik apustu egiten duelako. Modu honetan, parte hartzea, erantzukidetasuna, prestakuntza eta **pertsonen ahalduntzea**, kooperatiba euskarritzen direneko baloreak dira. Bestalde, enprendizajea zalantzarik gabe Kooperan barneratua dagoen balore bat da. Bere izatearen arrazoian, eskulanean intentsiboak eta lanpostuak sor ditzakeen enpresa berriak sortzeko ardura dago. Horren froga dira berriki sortu diren ekimen berriak, ondorengoak bezala:

- Ekorrepara, S.Coop: baztertutako etxeko tresna elektrikoaren berreskurapenerako gizarteratzeko enpresa.
- Bizimeta (Rezikletan barneratutako proiektua): bizikleten mailegurako lehen sistema da Euskadin.
- Ekorropa: prezio baxuan bigarren eskuko arropak eskaintzen dituen salmenta guneen sarea da, berreskuratutako arropen irtenbidea emanez onurak sortzeko.
- Berziklatu: gizarteratzeko enpresa mistoa herri administrazioarekin lotua, bertan Rezikleta S.Coop.ek parte hartzen du bere kapitalaren %25ean, tamaina handikoen kudeaketa integralerako.

Erakundeekin lotura.

Parte hartzen duten Entitateak:

- Berziklatu
- Liburki
- Alkar Biziz

Lankidetzan duten entitateak:

- Oldberri, (Cáritas Gipuzkoa)
- Berjantzi, (Cáritas Araba)
- Fiare
- Ekologistak Martxan



Sareetan presentzia:

- Reas Euskadi
- Aeres (Lehendakaritza): Josetxu González, Kooperako gerenteak, egun Ekonomia Sozial eta Solidarioko Berreskuragailuen Estatuko Elkartearen Lehendakari kargua du, era berean Rreuse Europar Sareko kidea da.
- Euskal Herriko gizarteratzeko enpresen Taldea.
- Erkide, Euskadiko Kooperatiben Federazioa.

Iraunkortasuna.

Kooperarea osatzen duten enpresek gizarte ekimeneko kooperatibak dira, itzulera kooperatiboak ez direla existitzen esan nahi du; irabazi asmoa ere ez da existitzen eta, beraz, sortzen diren onurak enplegu gehiago sortzeko berrinbertitzen dira. Ekintza hau anbizio handikoa da (hainbat zailtasun aurkezten ditu), laguntza behar ez duten enpresak direlako (tradizionalak eta merkantilistak erabilerara), baina sozialki, ekonomikoki eta ingurumenarekiko iraunkorrak (eta laguntza behar ez dutenak) izatea lortu behar dute, egungo lanpostuak mantendu ahal izateko eta berriak sortzen joan ahal izateko.

Azpiegitura honekin, Koopera-tik erreferente izatea defendatzen da, ingurumenaren sektorean kaltetua dauden kolektiboentzat enplegua sortzeko esku hartze eredu bezala, egiteko modu desberdin batekin, ekonomikoki produktiboak eta sozialki errentagarriak izanik. Eta batez ere, pertsona guztiaren erdian kokatzen duen egiteko modu batekin.

Nabarmendu behar da, nahiz eta sektore publikoarekin duen gertutasuna, ekimen berriak martxan jartzeko, diru sarreren %9-10 diru-laguntzetatik eratortzen da bakarrik, bere fakturazioaren zati handiena, %30-35 gutxi gorabehera, berreskuratutako produktuak dendan saltzetik eratortzen da. Diru sarreren %90 negozioaren ereduaren errentagarritasunetik eta autofinantzaketatik eratortzen dira. Zorpetze ratio oso baxuekin, zifrek segurtasunez eta konpromisoarekin ekonomikoki jasagarria izan daitekeela bermatzen dute.

Ekonomikoa eta sozialaz gain, bere *leitmotiv*-a ingurumenaren iraunkortasuna ere bada. Hondakinen sorrera eta suntsiketak sortutako berotegi-efektu gasak murriztea eta arduratsuki kontsumitzea, hiru erreen politikarantz zuzendua (murriztu, berrerabili eta birziklatu), gizarteratzeko enpleguaren sorrerarako printzipioak dira. Modu grafiko batean, hondakinen kudeaketa integralaren bere lanean, zenbaki adierazgarriak azaltzen ditu: 5.900 tona CO2 urteko aurrezki, errepidetik 1.700 ibilgailu erretiratzearen eta 20.000 zuhaitz landatzearen baliokidea.

Erronka nagusiak.

Berrikuntza, Kooperan oso barneratua dagoen balore bat da eta bere ideologian kokatuta dago eta bere jardueran islatzen da: momentu hauetan, ezagutza eta berrikuntzaren kudeaketa prozesu bat jakinaren gainean egindako moduan barneratzeko erronka planteatzen dira, sektorean duten ezagutzaren ahalmen zabala aprobetxatu eta erakundearen zerbitzura jarri.

Horrez gain, barne aholkularitzako sail bat konfiguratzeko ari dira, unitate aske bat bezala, kide diren entitateei zerbitzu komuna emateko, gizarte ekintza berriak sustatzeko, goraka doazen negozio sailak eta berrikuntza proiektuak garatu. Era berean, herritarren artean bere proiektuan parte hartzea sustatu nahi dute, bere egunerokotasunak sozialki eraldagarria izan daitekeenaren barneraketa sentsibilizatuz: hondakinen kudeaketa egokiaren bitartez, kontsumo arduratsu bat ekitea berreskuratutako eta solidarioak diren produktuen salmentaren bitartez.



Erakundearen izena: Tinko Garbiketak S.L

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena.

Lekua: Vitoria-Gasteiz, Araba. Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) Espainia.

Posta elektronikoa: tinko@betigizartean.org

Webgunea: www.gizatea.net/eu/empresa_view.php?id=7

Posta helbidea: Sancho Jakituna 19, 2º erdia. Tel: 945 235 574

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 33 pertsona

2010: 33 pertsona; 11 gizonak eta 22 emakume

Fakturazioa 2010: 516.143,54 €

Jarduerak hasteko urtea: 2003

Sarrera.

TINKO GARBIKETAK bere ekintza garbiketa industrialaren sektorean garatzen duen gizarteratzeko enpresa bat da. Beti Gizartean Fundazioaren laguntzarekin sortua izan zen. Enpresa honen helburu bikoitza laneratzea da, lan mundura barneratzea, bereziki gizarte desabantaila egoeran dauden emakumeak, eta kalitatezko garbiketa zerbitzu batzuen eskaintza.

Enpresa ekintza: Garbiketa industrial ekintzak.

Zerbitzuak: Ezkaratz, garaje, bulego, etxebizitzaren... mantendua eta garbiketa.

Jatorria.

2003 urtean, Betigizartean Fundaziotik (www.betigizartean.org), gizarte desabantaila egoeran edo arrisku egoeran dauden pertsona taldeari erantzuna eman beharretik abiatuz, bereziki emakumeak (imigranteak edo/eta tratatu txarren egoeran daudenak) Tinko Garbiketak ekimena bultzatu zuten. Modu honetan, ekimen ekonomiko eta solidario hau martxan jartzea erabaki zen, gizarteratzeko enpresa formula bezala, gizarte desabantaila edo bazterketa egoeran dauden taldeen enplegu normalizaturako sarbidea posible eginez, konpainia epealdi baten ondoren eta lanpostu bat egitearen bitartez.

Jarduera.

Tinko Garbiketak enpresan burutzen duten ekintza ekonomikoa garbiketa ekintzetan oinarritzen da: komunitateak, garajeak, lonjak, beirateak eta negozio txikiak. Egun, zerbitzuen eskaintza identifikatu eta horrela zabaltzeko merkatu ikerketa bat burutzen ari dira, modu horretan beste mota batetako erabiltzaileengana zuzentzeko. Momentu honetan jasaten ari garen krisi ekonomikoa dela eta, komunitateen garbiketa nabarmen murriztu da eta egoera eta testuinguru berrietara egokitu behar dira ahalik eta denbora laburrenean, errealitate berriari erantzun doitu berriak emateko.

Parte-hartzaileak.

- Beti Gizartean Fundazioa: %100 parte hartzea.

-Ikatzbizi: hirugarren adinekoei etxebizitza eta zaintza zerbitzua eskaintzera lan egiten duen gizarteratzeko enpresa (8 emakume lanean eta 6 gizarteratze prozesuan).

-Tinko Garbiketak, S.L.

Gizarteratzeko 2 enpresetan hezkuntza proiektuak aurrera eramateko, enpresa gerente emakume bat eta koordinatzaile (hezitzailea) emakume bat dituzte.



Lorpenak.

- Azken 2 urte hauetan, gizarteratzeko enpresa teknikarien prestakuntza aurreratua eskaintzen ari dira. Gizarteratze programetatik pasatzen diren pertsonen konpainia egiteko teknikariei prestakuntza ematen zaie: araudiak, jarraipen tresnak.
- Kasuen gainbegiraketa: ibilbide bat eta burutu diren ekintza zehatzak planteatu dira. Teknikariak bidean aurkitu duen arazoa planteatzen du eta ekintza aukerak taldean egiten da lan.
- FIARE Banca Ética-rekin harreman estua (www.proyectofiare.com): Ikatzbizi enpresaren laguntzarako hipoteka-mailegu bati etekina atera diete.
- Herritarrentzat sentsibilizazio jardunaldiak: ekonomia sozial eta solidarioari buruzko sentsibilizazio jardunaldiak antolatzen dituzte Gasteizko herritarrei zuzenduak.

Erakundeekin lotura.

- La ampliación de la oferta de servicios. Diversificación de sus servicios.
- Creación de nuevas empresas de inserción para impulsar la creación de empleo y favorecer al mayor número de personas en riesgo o situación de exclusión.
- A largo plazo, su principal desafío es la sostenibilidad económica: vivir por la propia actividad de prestación de servicios de las empresas y sin ayuda de las actuales subvenciones.

Vinculación con organizaciones.

- REAS – Red de Economía Alternativa y Solidaria.
- GIZATEA – Asociación de empresas de la Comunidad Autónoma Vasca.
- Mesa de Inserción – Instituto Foral de Bienestar Social - IFBS de Álava.
- Empresas de inserción del entorno.



Iraunkortasuna.

Aurreko lerroetan aipatzen den bezala, iraunkortasun ekonomikoa bereziki ekintzaren garbiketa zerbitzuen emaile bezala, erronka estrategiko bat da.

- **Egungo finantza iturriak:**
Gizarteratzeko enpresa ekintzak burutzeko Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzekin lan egiten da eta proiektuetarako Arabako Foru Aldundiaren fondoekin.

Erronka nagusiak.

- Zerbitzu eskaintzaren zabaltzea. Beraien zerbitzuen dibertsifikazioa.
- Enpleguaren sorrera bultzatzeko eta bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsona kopuru gehienaren alde egiteko, gizarteratzeko enpresa berrien sorrera.
- Epe luzera, beraien erronka nagusia iraunkortasun ekonomikoa da: zerbitzuen prestazioen ekintza propioagatik bizitza eta egun dituzte diru-laguntzarik gabe.



Erakundearen izena: Trèvol la Cooperativa

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena - ekomezularitza, garbiketa, produktu ekologiko eta bidezko merkataritzako produktuen banaketa eta merkaturatzea.

Lekua: Bartzelona, Katalunya. Espainia.

Posta elektronikoa: xavip@trevol.com

Webgunea: www.trebol.com y www.mercasol.net

Posta helbidea: Antonio Ricardos Kalea, 14 08027- Bartzelona.

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 42 pertsona, haietatik 14 emakume eta 28 gizon.

Jarduerak hasteko urtea: 1984

Sarrera.

Trèvol, 1974 urtean sortutako lan kooperatiba bat da, kalitatea gehiago asetasuna bezala bilatzen du kostu minimoan, dimentsio global batean, beraien bezeroen zerbitzuetarako bai mezularitza bai garbiketara, baldintza sozio-laboraletan aritzeko eta oro har gizartearentzat, sistema kooperatiboa aplikatuz sentsibilizazio ekologikoarekin.

Hori dela eta estatu espainiarrean ekomezularitzaren enpresa aitzindaria izan da, egun bizikletan eta ibilgailu elektrikoetan eta autogestionatutako modu batean. Horrez gain, produktu ekologiko eta bidezko merkataritzako produktuen banaketa eta merkaturatze zerbitzua ere eskaintzen du, eta eraikuntzen garbiketarako produktu ekologiko eta sozialki arduratsuen erabilera.

Jatorria.

70.hamarkada amaierako espainiar krisi ekonomiko larriaren berotasunean, bitarteko ekintza berri bat sortu zen zerbitzuen sektorearen eta garraioaren sektorearen artean: mezularitza, lan kostuen merkatzearen ondorioz, beste arrazoi batzuen artean, oso azkar garatu zen. Baina, mezularitza enpresek mezulariaren lana autonomoa izan behar zuela legalki defendatzen zuten, beraz, langileek ez zuten gizarte segurantzarako sarbiderik.

1984 urtean langileek, egoera hau salatu zuten eta ondorioz lehen kanporatzeak sortu ziren. Urte bereko azaroan, kanporatutako pertsonen zati handi batek elkartze lanaren kooperatiba bat sortzea erabaki zuten: Trèvol Mezulariak, kudeaketa sistema horizontal batekin eta autogestionarioa, eta pertsona mezulariaren lana duintatu eta profesionalizatzeko borondatearekin. Pertsona langileak beraien enpresako kalitatea onartuz joango dira, autogestioa eta auto-prestakuntzaren bitartez.

Esperientzia sortu zeneko helburua hau izango da: ordu arte ematen ari zen lanpostu desberdin batez hornitzea, hau da, lan baldintza duinekin eta pertsona langileek autogestionatua.

1986 urteko otsailean, Auzitegi Gorenak mezularitzako langileen lan harremana onartu zuenean, sektorearen normalizazioari hasiera eman zitzaion. Egoera berri honekin, Trèvol Mezulariak Kooperatibak bere ibilbidea berretsi zuen eta lehen urratsak eman zituen, 1988 urtean bere fundazioan ezarritako helburuen zati handi bat lortzeko.



Momentu horretatik aurrera, Trèvol-en anbizio handiagoko helburuak izango dituzte, azken helburua lanpostu berrien sorrera izanik, zerbitzuen abanikoa zabaltzen zuten bitartean: furgonetak, estatu osorako bidalketak, etab. Eta bezeroak diren pertsoneri mezularitza zerbitzu osoa eskaintzea lortu dute. Ildo honetatik, eta hiriko mezularitzaren hautabide ekologiko baten beharraren kontziente izanik, 1992 urteko uztailean bizikletan egindako ekomezularitzaren aldeko apustu egin genuen, espainiar estatu guztian aitzindariak izanik. Ondoren, gure proiektua elkar banatu zuten beste batzuk etorri ziren: 1994 urtean La Veloz sortu zen, Zaragozako eko-mezularitza eta 1996 urtean Trèvol Madrilén. (*Ikus Grupo la Veloz fitxa txosten honetan bertan*)

Horrela, Trèvol Kooperatiba, 1984 urtean dokumentazio eta paketeriako garraioari ekiteko sortu zena, autogestioa eta gizarte parte hartzean oinarritutako kooperatiba irizpidepean. Urte gutxi batzuen ondoren, gai sozial eta ekologikoei buruz taldeak azaltzen zuen sentsibilitatearen eraginez apustu bat egitera eraman zituzten, zalantzarik gabe arrisku handikoa. Maila lokalean, enpresak motordun ibilgailuak bizikletengatik ordezkatu zituen. Horrela, 1993 urtean ekomezularitza ezarri zuen lehen espainiar enpresan bihurtu zen. Denborarekin Trèvol-ek bezeroen mesfidantzak gainditu ditu, eta bizikleta lan tresna bezala erabiltzeak, maila indibidualean duintasuna duela erakutsi du, ingurumenarekiko egingarria eta lehiakorra, zuzenean garapen ekonomikoarekin erlazionatua egon daitekeelako, zerbitzuaren kalitatea galdu edo mugatu gabe.

Modu honetan, 2003 urtetik aurrera, kooperatibak ibilgailu elektrikoen aldeko apustuarekin aurrera pausu bat eman nahi izan du, zerbitzu ekologiko bat eskaini ahal izateko modu integral batean, ekintza eta zerbitzuen gunea zabalduz. Eta, aldi berean, proiektuari trabak jarri dizkioten zailtasun teknikoetatik haratago, Trèvol-ek iraunkortasunarekin duen konpromisoa errepikatzen dut eta Europa osoan enpresa lider bat bezala finkatzea. Antzeko esperientzia bat Suitzan bakarrik ezagutzen baita.

Acción 21 sari hau benetan ezohikoa den enpresa batek jasotzen du, onuren %10, Gizarte Fondoa deitua, bertako eta nazioarteko eremuko ingurumenaren eta gizartearen hobekuntza proiektuen parte hartzera bideratzen da. Edozein kasutan, Xavier Palos-en arabera, Trèvol-ek ez du nahi eredu bat izan inorentzat, bere ekintzek inplikazio genetiko bati erantzuten diete, lurraldean sustraitua egon nahi duen kooperatiba bat bezala, eta beraz, gertuen duen jendearekin lankidetzarako beharra du, bere jarrera progresista eta sozialarekin koherentzian. Proiektuaren arduradunaren hitzetan, enpresaren ingurumenarekiko eta gizartearekiko konpromisoa, Trèvol-en printzipioekin koherentzia kontu bat besterik ez da.



Jarduera.

Mezularitza sektorearen barruan hasierako helburuak lortu ondoren, Trèvol, SCCL beste sektore produktibo batzuetara zabaltzea planteatu zen, kooperatiba proiektua beste langile batzuei eramateko asmoarekin.

Egun, kooperatibaren helburu soziala ondorengo ekintzetan zehazten da oinarrian:

- **Mezularitza:**

Korrespondentzia eta paketeriaren garraioa, arrunta eta presazkoa, enpresen eta partikularren artean furgonetan erabileraren bitartez, kooperatibaren ekintza aitzindaria da.

Beranduago, 1992 urteaz geroztik, mezularitza zerbitzu osoaren barruan, bizikletan egindako ekomezularitza zerbitzu baten aldeko apustua nabarmenduko da, Espainian aitzindaria, bereziki Bartzelona hiri erdian (pertsona batek eguneko batezbesteko 70 km egiten ditu).



2004 urtean auto elektrikoaren erabilera barneratzen dute, baina karga elektrikoaren muga teknikoak izango ditu (50 km arte egin ditzake eta ondoren berriz kargatzera).

● **Garbiketa.**

Garbiketa kooperatiba baten kudeaketa krisiaren aurrean, Trèvol-ek enpresa xurgatu zuen eta bere kudeaketa esperientzia eman zuen zerbitzu berri baten sorrerarako. Elkartze-lan kooperatiba bezala 20 urteko esperientzia profesional baten ezagutzarekin eta, zerbitzuak zabaltzeko borondateagatik bultzatuta, 1996 urtean Trèvol garbiketa saila sortu zen, ingurumenaren aldeko errespetua, profesionaltasuna eta tratu pertsonalizatua ezaugarri nagusiak dituen zerbitzu bat eskaintzeko asmoz.

Hasiera batean, ohiko produktuak erabili ziren, lixiba, kloroa eta beste batzuk bezala. Ondoren, ingurumenarekin errespetagarriak eta pertsonentzat kaltegarriak ez ziren garbiketa produktu ekologikoak erabiltzeko aukera bilatu zen. Eskaintzen diren zerbitzuak:

- Mota guztietako lokalen garbiketa orokorra.
- Enpresen mantenu garbiketak.
- Erresidentzien mantenu garbiketak.
- Ikastetxe, auzoko Komunitateen, etab. garbiketa.
- Etxe partikularren aldikako garbiketak.
- Obra ondorengo garbiketak.
- Zoruak distiraraztea eta lantzea.
- Barne eta kanpoko kristalen garbiketa.

● **Bidezko merkataritza produktu eta produktu ekologikoen banaketa.**

2005 urtean mezularitza esperientzia eta ibilgailuak aprobeztatuz, Trèvol-era antzekoak diren merkantziak banatzen hastea erabaki genuen, sozialki arduratsuak direnak, bidezko merkataritza produktuak eta produktu ekologikoen banaketaren bitartez.

Bidezko Merkataritzako erakundeen artean arazoak sortu ziren produktuen banaketan, marken banaketan eskusibotasuna nahi baitzuten, Trèvol-ek Kataluniako erakundeetako bidezko merkataritzako produktu guztien banaketa tresna bat izatea proposatzen zuen bitartean. Honek bidezko merkataritzako produktuen merkaturatzean konpetentzia bat izatera behartu zuen, kafea edo txokolatea bezalako produktuak ezagutzera emateko. Egun Katalunian IDEAS, Riet Vell, Puigserver Gaztak, E-crac (baxera konpostagarria) produktuak banatzen dituzte.

Banaketa ekonomia solidarioko erakunde eta enpresetara egiten bada ere, sindikatu, hezkuntza instituzioak, etab. bezalako erakundeetara ere banatzen da. Banaketaren %80 bi bezero nagusiengatik osatuta dago: 29 ikastetxeetako jangelatarako produktu ekologiko eta bidezko merkataritzako produktuak, eta bigarren bezeroa ABACUS kontsumo kooperatibaren sarea da, egun 600.000 pertsona bazkide dituelarik. Horrela, Trèvol-ek produktuen bitartekari eta bideratzaile bat bezala funtzionatzen du, erosketa zentral txiki baten bitartez, eta bere lorpena prezioen hobekuntza da, erosten dituen produktuen kopurua oso handia baita. Nabarmendu behar da, pertsona ekoizleekin harreman zuzen bat dagoela, hauekin Trèvol-ek egutegi programa batekin eta merkatu harreman egonkor batekin lan egiten du.



- **Bidezko merkataritzako produktu eta produktu ekologikoen merkaturatzea.**

Gaur egun dauden dendak ECOTECA izena zuen eta produktu ekologikoak merkaturatzen zituen. Testuinguru horretan, Trèvol dendaren elkartzea erabaki zuen, bidezko merkataritzako produktuak saltzen. Beranduago denda kiebran sartu zen eta Trèvol-ekin zor prozesuan. Azkenik, 2007 urteko azaroan, Trèvol denda eta biltegia kudeatzen hasiko da *MERCASOL, La Tienda de Trèvol* izenarekin.

Ehun, fakturazio osoaren %25 dendan produktuen salmentatik sortzen da, eta %75 produktu ekologiko eta bidezko merkataritzako produktuen banaketatik, Kataluniako edozein lekutara, eta baxera konpostagarriaren kasuan, espainiar estatuko edozein puntuetara.

Por último cabe destacar que Trèvol trabaja con multiproducto aprovechando la base de mensajería mediante la distribución y comercialización.



Parte-hartzaileak.

Parte hartzaile pertsona gehienak bazkideak dira.

Garbiketaren kasuan, 12 pertsonak kooperatibako kideak dira baina ez dira bazkideak, kontratatuak baizik. Gehienak imigranteak dira eta beraien lehentasunak direla eta, proiektu kooperatiboaren zati izatearen interesik ez dagoela ikusi da, beste arrazoietako bat kontratazio denbora izanik, ez dute jardunaldi osoko lanaldia. Honek bazkideen kopurua murrizten du.

Mezularitzaren kasuan, bi pertsonak ez dute interesik bazkide izateko eta kontratatuak izatea aukeratzen dute. Hau txandaketaren beste adierazle bat da.

Egun Trèvol kooperatibako 17 pertsona bazkide daude.

Lorpenak.

Trèvol berezia egiten duena, alde batetik lanera sartzan diren pertsonen gaztetasuna eta lan egiteko gogoia dira, eta bestalde, eskaintzen dituen zerbitzuekin, adibidez mezularitza, erlazionatuta dagoen kooperatibak duen bistaratzea.

Ondoren, Trèvol osatzen duten pertsona guztien esperientzia sindikal eta soziala. Pertsona hauek kooperatiba ideologiaz elikatu dute.

Era berean, nahiz eta Trèvol gizarteratzeko enpresa ez izan, bazterketa egoeran edo arriskuan dauden taldeekin lan egiten du eta hau ere erakundearen ezaugarri garrantzitsu bat da. Bestalde, jendearen joan-etorri etengabeak nolabaiteko egonkortasuna galtzea egiten du.

- **Trèvol eta ekonomia solidarioa:**

Trèvol, SCCL mozkinen %10 izaera sozial, ekologiko eta ingurumeneko mota guztietako proiektuetara bideratzen da, kooperatibaren ideologia kontutan hartuz.



Trèvol, SCCL eremuaren barruan eta Gizarte Departamentuaren bitartez, kaltetuta dauden komunitateen eta izaera sozialeko entitateei laguntzeko proiektuak garatzea bilatzen da. Gizarte Departamentuaren lanak kooperatibaren filosofiarekin koherentea den lerro bat jarraitzen saiatzen da, eta komunitate hauei laguntzen die beraien arazoan errotik, ondorengo puntuak kontutan hartuz: proiektuak komunitateak berak sustatuko dituzte eta beraien posibilitateen barruan, komunitate berak autogestionatuak izango dira. Proiektu hauek, ekonomikoki laguntzeaz gain, ingurune bertan arazoan hedapena eta manifestazioan laguntzen duten proiektuak izan beharko dira; eta ez bakarrik beraiekin bertakoa eta murriztua den aldaketa sustatzea, aurrerapen ekonomikoa, politikoa eta kultural etengabea onartzen duten aldaketa orokorrak baizik.

Horrela, Trèvol-en ahaleginen zati handi bat gizarte proiektu batean zentratzea erabaki da, Chiapas eskualdeko bertako GKE baten lankidetzarekin, Mexikon, Enlace Civil izenekoa.

Erakundeekin lotura.

Trèvol hainbat erakundeetara lotua dagoen erakunde bat da eta hauekin sarean egiten du lan ekonomia solidarioaren esparruan:

- REAS – Ekonomia Alternatiboa eta Solidarioko Sareak.
- Xarxa d' Economia Solidària – Kataluniako Ekonomia Solidarioaren Sarea.
- Coop57.
- Kataluniako Mezularitza Gremioa.
- Barnamil.
- Katalunia Lan Kooperatiben Federazioa Plataforma Bartzelona Iraunkorra.
- Bizikletaren Defentsarako Koordinakundea (ConBici) eta Amics de Bici Katalunian.
- Bartzelonako Mugikortasunaren Ituna.
- Agenda 21 Bartzelona.
- Bizikletaren sustapena hiri-komisio Bartzelonan.
- La Sagrera Merkatal Erakundea.
- San Andreu distrituko ekintzen Koordinakundea, Bidezko Merkataritzaren Egunerako.

Iraunkortasuna.

Urtean 1.200.000 euroko diru sarrerak. Diru sarreren ia kopuru guztia, kooperatiba guztian ondasunen eta zerbitzuetan egindako fakturazioagatik dira, mezularitza, banaketa eta merkaturatzearen bitartez. Kontratazioaren bat egiteko diru laguntza txikiak daude, baina adibidez 7000 eurotz hitz egiten ari gara. Eta hau Trèvol zerbitzuen enpresa bat denaren ezaugarri bat da.

Erronka nagusiak.

- Egungo erronka nagusia esperientziaren iraunkortasun ekonomikoa da.
- Epe ertain eta luzera, beste erronka, jatorrizko kooperatibaren ideien ilusioaren galera izan daiteke. Esperientziaren nukleo gogorra, hau da, gehien parte hartzen duen jendea, 7 eta 18 urte bitartean daramatza. Jendearen arteko ezagutza sakon honek, lehen zegoen linealtasun eta moteltasuna eta dinamismoaren gabeziara eraman du eta berrikuntza murriztu egin da. Baina, hala ere proiektu berriak daude: balore kooperatiboak dituzten lineako rol jokoak. Merkaturatze sailean Ecoulet deituko den proiektu berri bat dago, produktuak merkaturatzen bolumen handitan prezio hobean, eta iraungitze data hurbilera dauden produktuak eta familia formatuak eta pisura saltzen diren produktuak.



Erakundearen izena: Usina Catende

Lan-eremua: Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena.

Lekua: Catende, Pernambuco estatuan, Brasilgo ipar ekialdean.

Posta elektronikoa: usinacatende@usinacatende.com.br, usinacatende.ti@hotmail.com

Webgunea: <http://www.usinacatende.com.br/>

Posta helbidea: Engenho Catende S/N°, CEP: 55400-000 Catende, Pernambuco (PE), Brasil

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 3500 familia (2200 familia nekazaritza proiektuan eta 1300 taldeko laborantza proiektuan).

Jarduerak hasteko urtea: 1995

Sarrera.

Usina Catende Brasilen martxan dagoen berreskuratutako enpresa proiekturik handiena eta konplexuena da. Azukre kanaberaren laborantza egiten duen lantegi industrial bat da, 1890an eraturikoa eta jabe desberdinak izan dituen, 1950eko hamarkadan Latinoamerikako azukre ekoizle nagusia bihurtu zen arte. 1995az geroztik, aurreko jabeen kudeaketa makala zela eta, langileek kudeatzen dute. Enpresak 26 mila hektarea dauzka, zeinetan 3500 familia bizi diren, 20 mila pertsonetako komunitate bat osatuz.

Jatorria.

Usina Catende krisialdian sartu zen 1980ko hamarkadaren azken aldera, Collor de Mello-ren gobernuak ematen zion babes ofiziala eten zenean diruaren kudeaketa makalaren ondorioz. 1993an egoerak okerrerantz egin zuen 2300 langile kaleratu zituztenean. Orduan langileen borroka hasi zen, ez baitzuten onartzen etxeak utzi beharra zegokien eskubideak kobratu gabe. Nekazal sindikatuen, *Confederação Nacional dos Trabalhadores na Agricultura* (CONTAG), *Central Única dos Trabalhadores* (CUT) eta *Comissão Pastoral da Terra* (CPT)-ren laguntzaz borroka mantendu zuten. 1995ean enpresaren porrota aitortzeko eskaera egin zenean, langile talde batek kontrola hartu zuen eta Catende Proiektuari hasiera eman zion. Hala ere, aurreko jabeek iruzurrezko moduekin lurren zati handi bat eta langileek egindako hobekuntzak bereganatzen saiatu ziren. Azpizoko hau berreskuratze prozesuan sartuta zeuden pertsonak saihestu zuten eta 1997an botere judizialak babesa eman zien langileei enpresa kudeatzen has zitezen. Gero, 2002an, kanabera laborantza egiten zuten nekazariak *Cooperativa Harmonia de Agricultores y Agricultoras Familiares* izeneko ekoizpen kooperatiba bat sortu zuten, aurreko enpresa eta bere lurren biztanleak bere baitan hartzen zituen.

Jarduera.

Usina Catende-ren jarduera ekonomikoa kristal-azukrea, demerara azukrea eta melazaren ekoizpenean datza. Kanaberak eho eta gero geratzen diren hondakinak energia elektrikoa sortzeko erabiltzen dira, horrela lantegiko makinen kontsumoa hornituz azukre-kanaberaren uztaldian zehar. Hala, industria-parke izugarri handi bat da, egunero 10 kanabera tona eraldatzeko gai dena 70 ibilgailuei esker, kamioiak, traktoreak eta zamaketariak barne. Horrez gain, 7 dike eta ubide ditu.

Catende zati industrial batez eta nekazal zati batez osatuta dagoen berreskuratutako enpresa baten adibidea da. Bertan paraleloki lan egiten duten bi ekoizpen estruktura osagarriak ditugu.



Zati industrialaren barne 48 lantegiak daude eta azukrearen ekoizpena era bateratu batetan bermatzen da. Jarduera industrial honek mantentzen ditu lanpostuak, soldatak eta enpresaren funtzionamendua. Nekazal zatiak ustiapen familiarrak ditu barne, azukre kanaberaz aparte badaude bestelako laborantzak (banana, kafea), abeltzaintza, arrain-hazkuntza eta erlezaintza.

Dena den, Usina Catende-ren jarduerak haratago doaz, buztinola, aroztegia eta emakume langileak kudeatutako poliklinika bat ere daukatelako. Aldi berean, 400 ikasle hartzen dituen ikastetxea dago. Bertan nekazariak eta beraien seme-alabak trebatzen dira eta industriaren kudeaketan parte hartzeko prestatzen dira.

Parte-hartzaileak.


Proiektuak 1500 lanpostu iraunkor bermatzen ditu, nekazaritza eta industriaren artean banatuta, 1400 zeharkako lanpostu kanaberaren urteroko uztaldian eta 980 uztaldi batetik bestera doan tartean. Biztanle kopurua 20 milara heltzen da, kontutan hartuta langileak familiekin batera bizi direla Usinaren lur-sailetan.



Administrazioaren arduradun den taldean Catende-ko barrutiko epaileak langile hartzekodunekin batera hautatutako epai-administratzaile bat, 48 langile elkarte, 5 sindikatu, kooperatiba bat eta *Harmonia* nekazal elkarteak daude. Langileen partaidetzari dagokionez, Usina Catende-ren barne dagoen lantegi bakoitzak nekazal langileen sindikatu bat dauka. Funtzio industrialak betetzen dituzten langileen ordezkariak beste bi sindikatuen bitartez egiten da: *Sindicato dos Trabalhadores da Indústria de Açúcar e Alcool* eta *Sindicato dos Motoristas e da Segurança*. Horretaz aparte, lantegi bakoitzean biztanle elkarte bat dago.

Erakundeekin lotura.

Esan bezala, enpresa mantentzeko borroka hasi zuenetik, Usina Catende-k nekazal sindikatuen laguntza jaso zuen eta baita CONTAG, CUT eta CPT-rena ere. 1999an CUT-aren Garapen Solidariarako Agentzia sortzen lagundu zuen, une horretan ANTEAG (*Associação Nacional de Trabalhadores e Empresas de Autogestão*) elkarteak ezagutu zuelarik. Elkarte honen helburu nagusia enpresa baten ohiko langileak berreskuratzea prozesuetan laguntzea da, kooperatibak sortzeko aholkularitza emanez. Usina Catende, une horrez geroztik, elkartearen sartu zen eta gaur egun ANTEAG-en zuzendaritza taldean dago.



Estatuarekiko mantentzen duen harremanari dagokionez, esan beharra dago SENAES (*Secretaria Nacional de Economia Solidária*) 2003an Lula da Silvaren gobernuak sortu zuenetik Usina-ren bazkideek eskuragarri izan dituztela programa desberdinen bidez ia interesik gabeko maileguak. Era berean, Zientzia eta Teknologia Ministerioaren bitartez, nekazarien seme eta alabak diren 40 gaztek azukre kanaberaren hobekuntzarako ikerketetan parte hartzen dute. Beste proiektu batek Lan Ministerioaren laguntza jasotzen du eta 107 gazteei ekoizpen eta industrian lanbide heziketa ematen die, landa eremutik alde egin ez dezaten.



Lorpenak.

Aipatu beharrekoak dira esperientzia hau garrantzi handikoa egiten duten zenbait puntu:

- Brasilgo autokudeaketa esperientziarik handiena da: berreskuratutako enpresa bat baino gehiago da, lan harremanak eta kultura politikoan egin dituen aldaketa guztiengatik; izan ere, Pernambuco-ko ipar ekialdearen garapen ekonomikorako ez ezik garapen sozial, kultural eta politikorako proiektu alternatibo bat da.
- Usina Catende-ren berezitasunik garrantzitsuenen artean lursailen eta instalazioen jabetza soziala dago: proiektuan parte hartzen duten pertsona guztiek dira Usina-ren jabe. Beraz, lursail komunitarioetan familia nekazaritza kanaberaren laborantzarekin tartekatzen dute.
- Garapen iraunkorraren kontzeptutik abiatuz, Usina Catende-k egiten dituen jarduera guztiek komunitatea eta ingurugiroa errespetatzen dute. Nahiz eta gero eta produktiboagoak bilakatu nahi diren, badakite hau natura zaindaz lortu behar dutela.
- Merkataritza-baliorik ez duten jarduera komunitario asko egiten ditu emaitza baliotsuak lortuz, adibidez eskola martxan jarri eta 7 urte geroago neurtu den jaitziera analfabetizazio-tasan: %82etik %16.7ra.

Iraunkortasuna.

Proiektuaren iraunkortasun ekonomikoa Brasilgo *Ministério da Agricultura, Pecuária e Abastecimento*-ren eskutik dator, zeinek ekoizpenaren heren bat aurretiaz erosteko eta behin uzta eginda merkatu balioa zuzentzeko konpromisoa hartuta daukan. Beste aktore garrantzitsu bat *Ministério do Desenvolvimento Agrário*-aren barne dagoen familia nekazaritza indartzeko programa nazionala da (*Programa Nacional de Fortalecimento da Agricultura Familiar-PRONAF*). Programa honek maileguak finantzatzen ditu birlandaketa ziurtatzen duen familia nekazaritza sustatzeko. Mailegua zuzenean ematen zaio nekazaritzan lan egiten duen pertsona bakoitzari, “*Cana do Morador*” proiektuaren bitartez.

Era berean, proiektuaren iraunkortasunerako berebiziko garrantzia izan dute sindikatu eta enpresa autokudeatutako elkarteekin mantendu diren loturak, horien bitartez babes finantzarioa, politikoa eta trebakuntza aukerak izan dituztelako.



Erronka nagusiak.

Esperientzia honen erronka nagusien artean ondorengoak aipa daitezke:

- Kooperatiba defizitarioa ez bada ere, ez du etekin handirik ematen. Egoera hau dela eta, batzuetan soldaten ordainketaren atzerapena gertatzen da, atzerapena hilabeteetako izatera heldu delarik.
- Langilegoa ez da oraindik bitartekariaren irudiarengandik urrundu melaza eta azukrearen salmenta egiteko. Modu honetan eginez dirua galtzen dute baina beharrezkoa iruditzen zaie soldaten ordainketa ziurtatzeko.
- Ekoizpenaren dibertsifikazioa lortu nahi du, azukre kanaberaren monolaborantzarekin bukatzeko. Nekazaritza ekologikoari ateak zabaldu nahi dizkio eta baita bio-erregaien ekoizpenari ere, biztanleria guztiaren bizimoduaren hobekuntza inoiz ahaztu gabe.
- Ekoizpenaren antolaketarekin lotutako praktika zaharrak mantentzen dira, askotan erabakiak langileengandik urrun dauden espazioetan hartzen direlarik. Administrazioaren baitan estruktura tradizional eta hierarkiko batek dirau, non ohiko enpresaren teknikari talde batek oraingo partaidetza moduekiko era autonomo batetan funtzionatzen duen. Honek tentsio eta gatazkak sortzen ditu.



- Esklabutzaren aztarnak oraindik igartzen dira landa eremu honetan. Nekazal langileek dependentzia handia izan dute lurren jabeekiko eta lantegien buruzagiekiko. Hau aldatzeak kudeaketa demokratiko bat lortzeko bide luzea beharko du. Eman daitezkeen lehen pausuen artean soldaten orekatzea dago, lantegiko eta kooperatibako langileen eta proiektuaren aholkulari eta zuzendarien artean.
- Egoera ekonomikoak eta produktibitatea igo beharrak 3.500 familien diru sarrera ziurtatzeko ez dute leku handirik uzten proiektuaren estruktura ekonomikoaz hausnarketa egiteko. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da estrokturen eta erabakiak hartzeko prozesuen berrikusketa egitea, honetarako nahi eta nahi ezkoa izanik informaziora eta partaidetzara denok heldu ahal izateko sistema on bat sortzea.



Erakundearen izena: Traficantes de Sueños kultura elkarte

Lan-eremua: Merkaturatzea eta elkar trukaketa (truketa)

Lekua: Madrid

Posta elektronikoa: libreria@traficantes.net

Webgunea: www.traficantes.net

Posta helbidea: Embajadores Kalea 35, 6. lokala. 28012 Madril Tel. 91 5320928 Fax. 91 1819624

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 5 emakume eta 5 gizon.

Jarduerak hasteko urtea: 1995

Sarrera.

Traficantes de Sueños, elkartze liburu-denda, argitaletxe, banatzaile, gizarte espazio eta prestakuntza bat taldekatzen dituen Kultura Elkarte bat da. Liburuaren eremuan lan egiten dugu, eraldaketa indibidual eta kolektiboaren tresna bat bezala ulertuz, gizarte mugimenduetan prozesuak sortu, lagundu edo indartzeko kemenarekin.

Jatorria.

Traficantes de Sueños gizarte mugimenduen errealitate desberdinen topaketa eta eztabaida gune bat izateko helburuarekin jaiotzen da. Eredu hau ezagutzera emateko asmoz, gauzen egoera hau eraldatzen saiatzen diren eztabaidak, sentsibiltateak eta praktikak aberasteko bere hondar xehea ematen saiatzen da. Horretarako, elkartze liburu-denda bat eraiki zen, argitaletxe bat eta banaketa alternatiboaren sareekin lankidetzan egiten duen gune bat eraiki zen.

Traficantes de Sueños-ek bere burua ez du argitaletxe bat bezala definitzen, ezta argitaletxe aske bat bezala ere, eztabaidak, sentsibiltateak eta praktikak aberasten laguntzen saiatzen den, gizarte mugimenduen errealitate desberdinen topaketa gune bat bezala baizik. Horren adibide bat: Bere testu guztiak Creative Commons lizentzia dute eta copyleft dira. Apustu honen zati bat bezala, Mapas bilduma sortzen da –persona askorentzat teoria kritikoaren korrante desberdinetarako benetako sarrera ate bat irudikatzen du.

Traficantes de Sueños argitaletxeak bere liburuak guztiz aske eskaintzearen alde egiten du apustu, bere web orriaren bitartez. Formatu aske hau posible da, testuak Creative Commons eta Copyleft lizentziaren bitartez erregistratuak daudelako.

Copyleft lizentzia mota bati lotzen zaion kontzeptu bat da eta softwarea eta beste sormenezko lanei bezalako sorkuntzei aplikatuta, lan horiei egin zaien aldaketei dagokionez erabilera, kopia, aldaketa eta birbanaketa askatasunak izatea posible egiten du. Horrez gain, edozein obra eratorriak, askatasun horiek uzten duten lizentzia mantentzen jarraitzea.

Copyleft kontzeptua informatikaren munduan jaio zen, hain zuzen ere software askearen munduan. Eredu honetan copyleft-ak programa aske bat beti aske mantentzeko metodo bat osatzen du, programaren zabalduko aldaketa eta bertsio guztiak software askekoak izan daitezen behartuz, erabiltzaileen askatasunak bermatuz. Modu berdintsuan, kontzeptu hau mota guztietako ezagutza libreaki aplikatzen hasi zitzaion (testuak, argazkiak, bideoak, etab.).



Jarduera.

Liburu-denda, argialetxe bat eta banaketa alternatiboa, gune soziala, diseinu tailerra eta prestakuntza arlo baten sareekin lankidetzaren gune bat bezala lan egiten du.

- **Liburu-denda:** Kulturaren difusiorako eta eduki eraldatzaileen bisibilizatorako gunea da. Gizarte lankidetzaren produktiborako eta kultura eta jakintzak askatasun osoz konpartitzeko gunea. Beste kultura, beste mundu batzuen... adierazpenerako gunea. Politizazio prozesuak estimulatzeko eta esperimentazioarako gunea. Teoriarako eta praktikarako gunea.



- **Banatzailea:** Azken urteetan, argialetxe alternatiboak aurre egin behar izan dien arazo nagusietako bat banaketarena izan da. Liburuaren merkatuak ezarritako baldintzak, azalera handietara geroz eta gehiago zuzenduak eta gizarte mugimenduen ezaugarri bereziek, banatzaile txiki guztietara eta talde, gizarte zentro eta eduki kritikoa duten material idatziei gune bat ematez interesatuta dauden elkarrekin salmenta guneetara iristea beharrezkoa izatea egiten dute. Hau da Traficantes de Sueños-etik hornitzen saiatzen diren gunea.
- **Editorial:** Traficantes de Sueños ez da argialetxe bat, ezta testu kritikoen bilduma aldakor baten argitalpena aurreikusten duen argialetxe aske bat ere.. Alderantziz, proiektu bat da, “apustuaren” zentzu zorrotzenez, beste bizitza ordenen lerro eraikitzaileak kartografiatzera zuzentzen direnak.

Datozen hamarkadetako borroken zikloa osatu dezakeen erreminta-kaxaren eraikuntza teoriko eta praktikoa, beraien hitzen bitartez. Beraz, argitaratutako testuen kopia osoa edo zatikakoa baimendua eta irekia geratzen da, imajina daitekeen edozein formatutan, egilearen borondate esplizitua ez bada eta irabazi asmoa duten edizioetan bakarrik.

- **Diseinu tailerra:** Antzekoak diren entitateentzat diseinu grafikoaren laguntza eta garapenean berezitatutako arloa, ekonomia solidarioa eta alternatiboaren barruan kokatuta.
- **Gizarte espazioa:** Traficantes de Sueños-ek urte guztian zehar 180 ekintza publiko eta doakoak antolatzen ditu bere gunean. Liburuaren aurkezpenak, eztabaidak, mintegiak, ikastaroak, errezitaldiak, antzerkia, proiektzioak, etab.
- **Prestakuntza:** Duela urte eta erdi, ikastaro eta mintegi multzo bat jarri dituzte martxan, Nociones Comunes izenpean. Ekimen hau prestakuntza politikoaren proiektu bat bezala jaiotzen da, ikuspegi kritiko batetik, errealitateari buruz esku hartu nahi duten pertsona guzti haientzat, boterearen narratibo amaigabeen bitartez nahasten gaituen mundu batean orientatzea posible egiten duten pentsatzeko eta ekiteko moduak taldeka eraikiz.

Parte-hartzaileak.

Gaur egun, proiektuaren sail desberdinetan ardura duten 10 pertsona daude. Liburu-dendak, denda beraren garapenean laguntzen eta kolaboratzen duten 200 bazkide baino gehiago ditu. Argialetxeak 1000 pertsona bazkideak gaituztea du helburu bezala, datozen hilabeteetan.



Lorpenak.

Traficantes de Sueños-ek garatzen duen lanak, lehenik eta behin bertako irismena du Madrilgo Lavapies auzoaren elkarte ehunen barruan kokatuta baitago. Oinarri honetatik abiatuz eta liburu-denda berezitua bezala Madrilgo metropolitarrak inguru guztia betetzen dute. Penintsula guztian zehar bezero eta kolaboratzaile sare zabala eta antzeko proiektuak dituzte. Horrez gain, Europa eta Latinoamerikako beste entitate batzuekin loturak indartzen ari dira.

Erakundeekin lotura.

- REAS (Ekonomia alternatiboa eta solidarioaren Sarea): Bazkidea
- Coop.57: Sarearen bazkide fundatzaileak Madrilen
- Gizarte Eskubideen Bulegoa: Parte hartzaileak
- Free Culture Forum: Parte hartzaileak
- Atravesadas por la cultura: Ikertzaileak
- Metropolitarrak Behatokia: Parte hartzaileak



Iraunkortasuna.

Beraien finantzaketa, liburuen salmenta eta prestakuntzaren bitartez burutzen da. Ez dute diru laguntzarik jasotzen. Proiektu zehatzak garatzeko laguntza puntualak jaso izan dituzte.

Erronka nagusiak.

- Elkarrekiko laguntza sareen sorreragatik apustu egitea.
- Eraldaketarako diskurtso kritikoa sortu eta hedatu.
- Garapena bultzatu kultura askearen eremuan.
- Ekonomia alternatiboa eta solidarioaren diskurtsoa eta praktikak zabaltzea.



Erakundearen izena: Kidenda elkarte

Lan-eremua: Merkaturatzea eta elkar trukaketa (truketa) - Bidezko merkataritzako produktuak merkaturatzea.

Lekua: Bilbo, EAE, Espainia.

Posta elektronikoa: kidenda@caritasbi.org

Webgunea: www.kidenda.org

Posta helbidea: Epaltzaren alargunaren kalea, 6 eta Lojendio aitaren kalea, 2 - 48005- Bilbo.

Esperientzia osatzen duten kide kopurua:

Langleiak: gizon bat eta lau emakume.

Boluntarioak: hamabost gizon eta 65 emakume.

Jarduerak hasteko urtea: 1996

Sarrera.

Bidezko merkataritzako proiektua da Kidenda, eta Cáritasek, Bizkaiko Misioek eta Alboanek bultzatzen dute. Hauek dira ekimen honen helburuak: Hegoaldeko herrialdeen garapenean laguntzea, bidezko merkataritzako erakundeen produktuak merkaturatuz, eta nazioarteko merkataritzaren eta honek Ipar-Hegoaren arteko erlazioetan duen eraginaren berri zabaltzea gizartean, bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua bultzatuz.

Jatorria.

Kidenda 1990eko hamarkada erdialdean jarri zen abian. Sortu zenetik orain arte merkataritza-esparruan jardun du beti, esparru horretatik pobrezia eta desorekei aurre egiteko.

Merkaturatzea eta sentsibilizazioa Kidendaren lanaren funtsezko ardatzak izan dira bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua bultzatzeko garaian. Hala, bi estrategia horien bereizezintasunean oinarrituta landu ohi dituzte beren ekintza eta proiektuak:

- Hegoaldeko herrialdeen garapenean laguntzen dute, bidezko merkataritzako erakundeen produktuak merkaturatzearen bidez.
- Nazioarteko merkataritzaren eta honek Ipar-Hegoaren arteko erlazioetan duen eraginaren berri zabaltzen dute gizartean, bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua bultzatuz.

Helburu orokorra:

- Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua eskaintzen dituen baliabide bat jartzea gizartearen zerbitzura.

Helburu espezifikokoak:

- Nazioarteko merkataritzari buruzko sentsibilizazio-ekintzak bultzatzea.
- Bidezko merkataritzaren bidez lortu nahi den alternatibari buruzko sentsibilizazio-ekintzak bultzatzea.
- Bidegabekeriak eragiten dituzten merkataritzako mekanismoak salatzea.
- Bidezko merkataritza garatzea.
- Lankidetzeta-munduan lan egiten duten eragileekin indarrak batzea.
- Parte-hartzean oinarritutako boluntarioritza-proiektu bat garatzea.
- Hegoaldeko erakundeei ekoizpen- eta antolakuntza-mekanismoak garatzen laguntzea eta horretarako aholkuak ematea.



2003an bidezko merkataritzako lehenbiziko denda ireki zuen Kidendak, Bilboko Epaltzaren alargunaren kalean.

Ekintzarako eta gogoetarako gunea da denda, eta Hegoaldeko produktuak erakutsi eta saltzeko lekua izateaz gain, Kidendako laguntzaile eta boluntarioak bertan elkartzen dira egungo sistema ekonomikoaren ordezkotzat alternatibez jarduteko, bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua ardatz hartuta betiere.

Denda irekitzeko erabakiak merkataritza bidezkoagoa sustatzeko asmoari erantzun zion, kontsumo-eredu jakin bat eta aberastasunen birbanaketa bultzatu nahi baitzuten, balio ekonomikoetan ez baizik eta balio humanoetan oinarritutako gizartearen lortzearen.

Hiru erakundeek osatzen dute elkarteak: Cáritas eta Elizbarrutiko misioak hasiera-hasieratik daude, eta 2007an Alboan fundazioa batu zitzaion. Alboan gehitzean, beste denda bat zabaldu zuten Arrupe Etxea eraikinean, Lojendio aitaren kaleko 2.ean.

Hiru ildo nagusi lantzen ditu Kidendak:

- **Bidezko merkataritzako produktuen merkaturatzea:**

Bitartekaririk gabe, Hegoaldeko (Ekuador, Peru, Nikaragua, India, Paraguai...) ekoizpen-erakundeei zuzenean erositate eskulanak, bitxiak eta oihal eta arropak merkaturatzen dituzte. Beren produktuek kalitate-berme guztiak (teknikoak, sozialak eta ingurumenekoak) betetzen dituzte. Latinoamerikako, Asiako eta Afrikako herrialdeetako bidezko merkataritzako erakundeetan lan egiten duten ekoizleek soldata duina jasotzen dute beren lanagatik eta komunitatearen garapenean inbertitzen dituzte irabaziak.

- **Sentsibilizazioa:**

Kidendaren iritziz, gizarte-aldaketa lortzeko eta Ipar-Hegoaren arteko alde ikaragarria ezabatu edo txikiagotzeko funtsezkoa da gutako bakoitzaren —herritarren— jarrerak aldatzea. Kontsumo arduratsua eta kritikoa bultzatzen duen ekimena da bidezko merkataritza.

Beti jorratzen dute sentsibilizazio-lana, bai produktuak saltzeko garaian, bai prestatzen dituzten hitzaldi, jarduerak, prestakuntza-ikastaro eta material idatzien bidez.

- **Boluntarioak:**

Pertsonak eta taldeak proiektuan parte-hartze aktiboa izatea bultzatzen du Kidendak. Boluntarioak dira bidezko merkataritzako proiektua gauzatzen dutenak eta Kidendaren xedea ingurune hurbilean bultzatzen dutenak. Merkataritza-lanak egiteko, dendan saltzeko eta sentsibilizazio-lanak egiteko antolatzen dira boluntarioak eta jarduerak egiten dituzte lan-taldeetan.

Jarduera.

Merkaturatzea:

Kidendak saltzen dituen zenbait produktu:

- Elikagaiak
- Eskulanak
- Birgizarteratze-enpresek ekoiztutako produktuak: Bizitegi (larrua).
- Barne-katalogoaren banaketa, elikagaiena bereziki.

Kidendak parte hartzen duen azoketan eta dendetan salgai dauden produktu gehienak kooperatibetan elkartuta dauden Hegoaldeko nekazari- eta artisau-familiek fabrikatu eta ekoiztu dituzte.



Bazkide diren erakundeen bidez, lankidetzan jarduten dute inguruko enpresekin, birgizarteratzeko enpresekin edo bertako ekimen ekonomiko txikiekin, besteak beste. Lankidetzan hori era askotara gauzatu daiteke: produktuak merkaturatuz, gertuko merkataritza ezagutu eta bultzatzeko prestakuntza-ikastaroen bidez, eta abar.

Hegoaldeko kooperatibei produktuak erosi, garraiatu eta banatzeko prozesua bi modutara antolatzen da, elikagaiez ala eskulanez ari garen arabera. Elikagaiak bidezko merkataritzako produktuak inportatzen dituzten enpresen bidez erosten dira. Eskulan gehienak zuzenean inportatzen dira, berriz, bidezko merkataritzaren irizpide eta konpromisoak betez betiere (% 50 aldeaz aurretik eta gainerakoa produktua jasotzean ordaintzea, adibidez).

Peru, Ekuador, Txile, Bangladesh eta Nikaraguako dozena bat kooperatibarekin egiten du lan Kidendak, batetik, eta, besteak beste, inportazio-enpresa hauekin, bestetik: Alternativa3, Ideas, Intermón, Mundo solidario, Espánica...

Fabrikazio-denbora: Kidendak produktuen bat zuzenean inportatzen duenean, dendan salgai jarri baino sei hilabete lehenago egiten du eskaria (gabonetarako produktuak maiatzean, esate baterako). Era horretara, bidezko merkataritzako beste erakunde batzuekin antolatzen dute inportazioa, garraio-kostuak merkaturatuz.



Sentsibilizazioa:

Kidendak trebakuntza, analisia eta hedapena lantzeko proposamen bat dauka: bidezko merkataritzako mugimenduaren helburu orokorrekin zerikusia duten irizpideak jasotzen dira bertan, kolektibo desberdinetarako egokituta.

Trebakuntza, analisia, eztabaida eta hedapena tailer, hitzaldi, eztabaida eta mahai-inguruen bidez egiten dira:

- bidezko merkataritzari eta kontsumo arduratsuari buruzko hedapen- eta sentsibilizazio-ekintzak bultzatuz,
- garapen jasagarria eta genero-parekidetasuna bultzatzen duten kolektiboekin sareak eratuz,
- bidezko merkataritzarekin konprometituta dauden beste talde batzuei zabalduz Kidendaren proposamena,
- herrietako taldeak eta dendako boluntarioak trebatzen jarraituz.

Trebakuntza-tailerrak, hitzaldiak eta hedapenerako gaiak:

Kolektibo desberdinen egoerara eta ezaugarrietara egokitutako programak garatzen dituzte, hainbat alternatiba jasoz. Batzuetan kolaboratzaile eta trebatzaile bereziak gonbidatzen dituzte, tailerretako eduki batzuk dinamizatzeko.

Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko desoreka eragiten duten egitura ekonomiko, sozial eta kulturalen gaineko azterketa kritikoa eta gogoeta bultzatzen dute. Tailerretan landutako edukiak bezain garrantzitsua da talde eta ekipoak sendotzea, gero ekintza eta mobilizazio kolektiboak osatzeko.

Kale-ekintzak:

Pertsona eta taldeen parte-hartzea eta konpromisoa bultzatzen da, bidezko merkataritzaren eta kontsumo arduratsuen inguruan jasotako prestakuntza ikusarazten eta areagotzen duten ekimenak antolatuz eta eginez.

Bidezko merkataritzako talde guztiek, herrietako sareek eta antzeko erakundeek antolatutako kanpainen barruan egiten ditu bere jarduerak Kidendak. Era berean, Espainiako Estatuko Koordinadorak antolatutako ekimenetan



parte hartzen du —Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Egunean adibidez—, Bilboko Udalak bultzatutako Bidezko Merkataritzaren Astean, pobreziaren aurkako eta elkartasunaren aldeko kanpainaren barruko borroka-kanpainan, etab.

Azken urteotan, kanpaina hauetan parte hartu du elkarteak:

1. “Kafe ona” (2008)
2. “Arropa garbia” (2009)
3. “Bidezkoa dena oparitu” (2008)
4. “Herrialde pobretuekiko elkartasuna eta justizia jasotzen dituen gutuna lortzeko herri-ekimen legegilearen alde” (2007)
5. “Zu ere bidezko merkataritzaren alde” (2008)

Kale-jardueren artean, auzoek, udalek, elkarteek eta gizarte-taldeek antolatutako azoketan izandako parte-hartzea nabarmentzen da. Urtean 50 bat azokatan parte hartzen du Kidendak.

Sentsibilizazio- eta informazio-materialak:

Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua ezagutarazi eta zabaltzeko material eta baliabideak prestatzen ditu elkarteak.

Garapenerako lankidetzako proiektuak:

Nazioarteko lankidetzako proiektuak prestatzen eta gauzatzen parte hartu du Kidendak Cáristas-ekin batera, erlazioa duen Hegoaldeko kooperatibekin.

Proiektua	Erakundeak	Lekua eta urteak
1. Artisau-elkarteak indartzea, trebatze- eta merkaturatze-jardueren bidez.	Inti Wasi Adaiwa, Kidendaren Peruko bazkidea BBK	2004 - 2007
2. Artisau-elkarteak indartzea eta Manabi eta Pastaza probintzietako ekoizpena hobetzea.	Maquita Cushcunchic (MCCH), Kidendaren Ekuadorreko bazkidea FOCAD	2004 - 2007
3. Ayora eta Olmedo parrokiak (Cayambe kantoia, Pichincha probintzia) nekazari-familien garapen humano eta jasangarria bultzatzeko ekoizpena berrindartzea eta sendotzea eta hango erakundeak eta gizartea indartzea.	Maquita Cushcunchic (MCCH), Kidendaren Ekuadorreko bazkidea FOCAD	2007 - 2009



Boluntarioak: Boluntarioak talde eta zeregin hauen arabera antolatzen dira:

- **Denda eta biltegiko taldea:**
Zeregin hauek egiten ditu talde honek, merkataritza-lerroa antolatzen laguntzarekin batera: etiketatzea, biltegiatzea, eskaerak prestatzea, denda antolatzea, dendara doazenez arduratzea eta produktuei buruzko informazioa (propietateak, jatorria eta ekoizten duten kooperatibak) ematea. 2011ko apirilaz geroztik, Lojendio aitaren kaleko dendaren gaineko ardura hartu dute boluntarioek modu autonomoan.
- **Sentsibilizazio-taldea:**
Bost emakume eta hiru gizon gaztek osatutako talde hau astean behin elkartzen da, jarduerak antolatu, prestatu eta analizatzeko. Jardueren berri ematen dute, sei hilean behin kaleratzen duten El Karanakuy izeneko aldizkariaren bidez. Horrekin batera, webgunerako hobekuntzak eta edukiak diseinatzen eta proposatzen ari dira, sentsibilizazio-jarduerak antolatzen dituzte dendetan egiteko eta bidezko merkataritzako azoketako ospakizunak animatzen dituzte.
- **Herrietako taldeak:**
Herrietako taldeak Kidendaren ibileraren ispilua dira eta elkartasuna landu nahi zuten boluntarioekin sortu ziren. Pertsona haiek trebakuntza-prozesu bat egin zuten: oinarritzko programa bat landu zuten hasieran, baina programa hura zabaltzen joan zen pixkanaka.

Gaur egun, gizartea sentsibilizatuz gauzatzen dute beren konpromisoa. Hainbat jarduera egiten dute horretarako: bidezko merkataritzari buruzko informazioa zabaltzen dute, leku egonkorretan produktuak salduz, eta hilean bizpahiru aldiz kale-jarduerak egiten dituzte, bidezko merkataritzako ospakizunetan eta azoka handietan parte hartzearekin batera.

Gaur egun, hogeitik gora talde ditu Kidendak lanean:

-Zornotza	-San Fernando	-Txoko latino
-Alboan Donosti	-Portugalete	-Past. Autonomía-Indautxu
-Alboan Pamplona	-Santurtzi	-Gernika
-Eibar	-San Vicente de Albia	-Goitibera
-Barakaldo	-Deustua	-Moncar
-Basauri	-Cáritas Arratia	-Aspaldiko zahar-etxea
-Bermeo	-Zaldibar-Elorrio-Berriz	-Durango
-Muskiz	-Ermua	-Gernika
-Galdakao	-Sestao	

Parte-hartzaileak.

Kidendako boluntarioek hiru batzar egiten ditu urtean, urteko jarduerak prestatu eta ebaluatzeko. Kontratutako langileak, bazkideak eta boluntarioak elkartzeko eta harremanetan jartzeko une egokia izaten dira urteko batzarrak. Elkartearen martxari buruzko xehetasunak eta elkarte osatzen duten langile eta taldeei buruzko datuak zabaltzeko eta esperientziak, iritziak eta proposamen berriak plazaratzen dira batzarrean.

Hegoaldeko ekoizleak Euskal Herrira etortzen dira urtean behin: bi kooperatiba etortzen dira urtero. Webgunearen bidez beren katalogoak bidaltzen dituzte, halaber.



Lorpenak.

Bazkideen eta boluntarioen konpromisoaren eta ekintzen adibide dugu Kidenda proiektua. Hasiera-hasieratik lotura estua izan dute biek.

Sentsibilizazioa eta trebakuntza lantzeko proiektu gisa sortu zen Kidenda, eta elkartearen lanaren zutabe nagusietakoa izaten jarraitzen dute bi helburuok. Sentsibilizazio-ekintzak, trebakuntza-saioak eta mobilizazioak bultzatzen jarraitzen du elkarteak, gizarteko hainbat esparrutan —ikastetxeetan, elkarteetan eta gizartean, oro har— ekintza-gogoeta-ekintza prozesuak bultzatuz.

Hasiera batean Kidenda sortu zuten bazkideek eta geroago elkarteak berak antolatutako sentsibilizazio-jardueretatik atera dira boluntario gehienak. Lehenbiziko urte haietan elkartearen parte hartu zuten boluntario askok lanean jarraitzen dute, eta oinarri sozial zabaleko proiektua osatzen dute denen artean.

Kidendaren bideragarritasun eta egonkortasunaren zutabe nagusiak boluntarioen parte-hartzea, boluntario horiek parte hartzeko modua eta barne-mailan nahiz bazkide diren erakundeekin sortzen diren hartu-emanak dira, azken batean.

Erakundeekin lotura.

Bidezko merkataritzako beste erakunde batzuekin batera lan egiten du Kidendak, haiekin koordinatuta eta elkar lagunduz. Adibidez: Mercadeco, Arabako Medicus Mundi, Emaús, Setem, Solidaridad Internacional, Intermón Oxfam, Adsis.

Era berean, banku alternatiboak bultzatzen ditu, Oikocrediteko kide da eta diru-gordailuak dauzka FIAREn.

Azkenik, sare hauetan parte hartzen du:

- REAS Euskadi - Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea.
- CECJ – Espainiako Estatuko Bidezko Merkataritzako Koordinadora.

Iraunkortasuna.

2010ean Kidendaren jardueraren % 60 produktuen salmentarekin finantzatu zen, % 20 diru-laguntza publikoekin eta gainerako % 20 hiru bazkideen ekarpenekin.

Erronka nagusiak.

- Batetik, boluntarioen gaitasun eta interesei eta, bestetik, elkartearen beharrei erantzuten dieten espazioak eskaintzea parte hartzeko.
- Lankidetzaren handiagoa lortzea sektoreen artean (hezkuntza, nekazaritza ekologikoa).
- Bizkaiko bidezko merkataritzaren erreferente izaten jarraitzea.
- Gizartean eragiten jarraitzea, kontsumo arduratsua bultzatuz eta merkataritza tradizionalak eragindako desoreka eta bidegabekeriak salatuz.
- Proiektuaren bideragarritasuna lortzea, elkartearen beraren ahalmenean oinarrituta.



Erakundearen izena: Cooperativa Educacional Olga Cossettini Ltda.

Lan-eremua: Merkaturatzea eta elkar trukaketa (truketa), hezkuntza eta prestakuntza.

Lekua: Capilla del Monte Córdoba probintziako mendateko herri bat da, probintziako hirigunetik 110 km.-tara, non turismoa iharduera ekonomiko garrantzitsuena den.

Posta elektronikoa: lcoopcossettini@yahoo.com.ar y coopeducolgacossettini@yahoo.com.ar

Webgunea: <http://www.coop-olgacossettini.com.ar>

Posta helbidea: Hipólito Irigoyen 17 Capilla del Monte 5184 – Córdoba

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 40 familia

Jarduerak hasteko urtea: 1998

Sarrera.

Olga Cossettini Hezkuntza Kooperatiba mugatuak (*Cooperativa Educacional Olga Cossettini Ltda.*) inizatiba berritzaile bezala bereizten duten bi ezaugarri ditu: proposamen pedagogiko alternatibo bat dakar eta ordu banku bat sortu du. Hezkuntza, prestakuntza eta trebakuntza sistema autokudeatu bat da eta eskola eta komunitatearen arteko lotune bat eraiki nahi du, tokiko baliabideen erabilpen solidarioa bultzatuz.

Jatorria.

La experiencia de la Cooperativa Educacional Olga Cossettini, surge a partir de la inquietud de un grupo de 16 familias con hijos e hijas en edad escolar que deseaban una educación diferente y de calidad para sus hijos, en la zona semi-rural de Capilla del Monte, a 100 kilómetros de la capital de la provincia de Córdoba. Así, se acercaron a una docente que había dirigido una experiencia innovadora inspirada en la línea pedagógica de las hermanas Cossettini y de Luis Iglesias. En marzo de 1998 comienzan el primer ciclo lectivo, con cuatro grupos de niños y niñas, organizados en grupos según áreas de aprendizaje.

Parte-hartzaileak.

Esperientzia honen partaiderik garrantzitsuena umeentzat eta komunitate osoarentzat hezkuntza espazio alternatibo bat sortu zuen irakasle eta guraso taldea da.

Kooperatibaren zerbitzuak erabili ahal izateko ezinbestekoa da bazkide izatea eta horretarako beste bazkide batzuen gomendioa eta aurretik trebakuntza baten parte hartzea beharrezkoa da. (Plasencia y Orzi, 2007)

Jarduera.

Kooperatibak **hiru akzio eremu** dauzka: haur eta lehen hezkuntza arloa; tokizko garapena eta ekonomia soziala sustatzeko arloa; eta komunitatearentzat zerbitzuak eskaintzeko eta zabaltzeko arloa:

- Olga Cossettini Hezkuntza Kooperatibaren lehendabiziko betebeharra Oinarrizko Hezkuntza Orokorrean **haur eta lehen hezkuntza zerbitzuak** eskaintzea da. Bere ikuspuntu pedagogikoan datza proposamen honen ezaugarri bereziena, izan ere, “ikasten ikastera” lagundu nahi baitu. Ikaskuntza prozesu zabalago baten atal bat da, prozesu horretan garrantzitsuena ikasleak egiten duen ibilbidea delarik, bere erritmoa eta erarekiko begirune osoz. Norberaren ezaguera pizteko, trebetasunak saritzen dira eta ume bakoitzak zerbeit ezagutzeko egiten duen bidean eta bere ahalmenetan jartzen da arreta.



Eskolaren antolamendua ez da egiten ohizko sistema jarraituz, kurtso edo zikloka, baizik eta ikasleen interesen eta nahien arabera. Eginkizun batzuk proposatzen zaizkie, taldeka batzen dira eta gero taldearen izena aukeratzen dute, askotan zuhaitzen edota animalien izenak hartzen dituztelarik (adibidez Chingolo, Jilguero, Churrinche, Yeruti, Calandria, Aguaribay eta Moradillo).

- **Tokiko garapena eta ekonomia soziala sustatzeko** arloan, esperientzia honen berezitasun bat **Ordu Banku Komunitario** eta txanpon solidario baten sormena da (S.O.L. txanpona). Honen jatorria hileroko eskolako tasak ordaintzeko zailtasunak zeuzkaten familietan dago. Familia hauek ez zuten diru sarrera finkorik gastuei aurre egiteko Ordu Bankua eratu zen. Beraz, berdintasun arazo zehatz bati erantzuna emateko sortu zen, zeren eskolako eguneroko lanean denborarik gehien ematen zuten gurasoak ziren hain zuzen ere beste lan bat ez zeukatenak eta hileroko kuota ordaindu ezin zutenak. Horrexegatik familia bakoitzak eskolan lanean ematen zituen orduak zenbatzea eta ordu bakoitzari balio bat atxikitzea erabaki zen. Kooperatibak ordu horiek jenerotan ordainduko zituela adostu zen, beste guraso edo enpresa batzuk zirela medio.



Banku hau baliabideen erabilpen sistema solidario eta alternatibo baten adibidea da, pertsonen borondate zintzoan oinarrituta, tokiko ekoizpen eta kontsumo zikloak hobetu eta aldi berean partaideen konpromisoa handitzeko balio duena.

- **Zabaltze jardueren** asmoa komunitatearekiko lotunea indartzea da. Hauen barne, gazteriarri zuzendutako Lanerako Trebakuntza Taldeak daude, zeinetan interesa dutenek lorezaintzan trebakuntza jaso dezaketen eta kooperatibaren lorategian praktikak egiteko aukera daukaten. Lan hau S.O.L.-etan ordaintzen zaie eta, ondorioz, diru hori erakundearen barne nahi duten produktu edo zerbitzuak erosteko erabil dezakete.

Erakundeekin lotura.

Erakundeak Ordu Bankuaren erabilpena bultzatzen du tokiko komunitate osoarentzat eta proiektua beste irabazi asmorik gabeko erakunde batzuk kopia dezaten proposatzen du, hala nola suhiltzaileak, ama solidarioak, Caritas... Bere funtzionamendurako baliabideak lortzeko ahaleginetan, kooperatiba nazioarteko garapen proiektu desberdinekin lotu da. Ashoka Fundazioak, Ideia Berritzaileen Lehen Lehiaketa Nazionalean, saritu egin du kooperatiba, ikaskuntza eta hezkuntza eremuan esperientzia berritzailea izateagatik.

Lorpenak.

Cossetini Kooperatiba Capilla del Monte herriko 16 familien umeentzat hezkuntza desberdin bat eskaintzeko sortu zen. Gaur egun haurren hezkuntza eta trebakuntzan eskarmentu handiko erakundea da eta komunitate osoaren ongizaterako espazio anitz sortu du.

Izan ere, Ordu Bankuaren bidez partaideek euren eguneroko beharrian asko bete ditzakete. Bankuak donatiboz egindako kapital bat dauka, kooperatibaren bazkideen lan-orduak neurtzen ditu eta ordu horiek jenerotan ordaintzeko konpromisoa hartuta dauka. Honela, familiek elikagaiak, jantziak eta bestelako zerbitzuak lortzeko gai dira.



Elkartruke hauek bideratzeko erakundeak S.O.L. izeneko txanpon soziala sortu zuen, izena Borondatean eta Lanean Antolatutako Solidaritate-tik dator (*Solidaridad Organizada Libre y Laboriosamente*). Txanpona babesteko kooperatibak partaideen lan konpromisoa eta produkzio ahalmena, jasotzen dituen donatiboak, Ordu-Bankuaren kide diren mikroenpresen produktuak (eztia, arrautzak, irina...) eta hezkuntza zerbitzuak (aula unibertsitarioa, trebakuntza osagarria...) ditu. Negoziatu eta trukatu daiteke beste produktu edo zerbitzuengatik (medikua, igeltseroa, iturgina, argiketaria...).

Iraunkortasuna.

Azken urteotan Argentinan elkartruke eta dirurik gabeko guneek momentu desberdinak ezagutu dituzte: izan dira momentu oso arrakastatsuak, pertsona asko biltzen zituztenak, eta produktuen edo enpresa parte hartzaileen kopurua jaitsi denean, beherapen bat ere gertatu da. Hau dela eta, Ordu-Bankuak bere antolamendua nahiko estuki begiratu zuen, adostasuna bilatuz eta erabakiak denon artean asanbladan hartuz.

Txanponaren jasangarritasunari dagokionez, gehien erabilitako estrategia SOL bakoitzari epe bat atxikitzean dago. Sistema honen bitartez partaide bakoitzak etorkizun laburrean lan bat egingo duela agintzen du, baina lan horren eskaerarik ez badago hurrengo bi hilabeteen barru, alda dezala eskatuko zaio. Jasangarritasunari lagundu dion bankuaren beste arau batek dio SOLak jasotzen dituzten guztiak alde aurretik bankuko bazkide izan behar dutela txanpona aldatu ahal izateko. Honen bitartez, partaide guztiengan gutxienezko kontzientziario eta proiektuaren ezagutza maila bat ziurtatzen da.

Hezkuntza jardueri dagokienez, ez dugu lortu informaziorik esperientziaren bilakaera eta egungo egoerari buruz. Eskola eta Ordu-Bankuaren arteko banaketa bat gertatu omen da orain dela gutxi, ondorioz SOL Fundazioa sortu delarik proiektu sozioekonomiko berriak asmatzeko.

Erronka nagusiak.

Esperientzia honi buruz lor daitezkeen materialean ez da agertzen erronken zerrendarik ez proiektu berrien deskribapenik. Aipatzen da, hori bai, gazteriaren parte hartzea eragiteko beharra. Parte hartzaileek diotenez, gazteek euren buruak ikusten badituzte aldaketaren eragile bezala, oso emaitza interesgarriak lor daitezke Ordu-Bankurako (Plasencia y Orzi, 2007).





Erakundearen izena: "Hartu-emanaren jokoa": elkartrukea Venado Tuerto-n (Argentina)

Lan-eremua: Merkaturatzea eta elkar trukaketa (trukea).

Lekua: Venado Tuerto hiria, Santa Fe probintziaren hegoaldean, Argentina

Posta elektronikoa: danielilari@arnet.com.ar

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: Esperientzia osatzen duten kide kopurua: gaur egun 100/120 pertsonak parte hartzen dute (batez ere emakumezkoak), baina egon izan dira 1400 pertsona baino gehiago.

Jarduerak hasteko urtea: 1999

Sarrera.

Tokiko azoka solidario bat da, zeinetan "prosumitzaile" (aldi berean produktore eta kontsumitzaile) diren pertsonak aurrez aurre aurkitzen diren eta ondareak eta zerbitzuak elkarrekin trukatzeko dituzten, beraiek sortutako "txanpon sozial" baten bitartez. Honen antzerako truke esperientziak oso hedatuta egon ziren nazio mailan eta pertsona ugari biltzen zuten 2001-2002ko argentinar krisiaren garaian. Gero sareen beharakada orokor bat gertatu zen eta bakarrik tokiko sistema batzuk lortu zuten funtzionatzen jarraitzea eta ekonomia alternatibaren barne esperientzia bezala haztea. Horien artean berritzaileetarikoa bat Venado Tuerto-koa izan da, txanponaren "oxidazio" mekanismoari esker diru-pilaketa saihestu eta zirkulazioa errazten duena. Gainera, koordinazioa bultzatzen du denden eta tokiko gobernuaren artean.

Jatorria.

Argentinan 1990eko hamarkadaren erdialdetik hona "truke" deituriko esperientzia anitz egon da: txanpon komunitario edo sozialetan oinarritutako azokak eratu dira klub, nodo edo sareetan antolatuta. Esperientzia honetan parte hartzen duten pertsonen "prosumitzaile" deitzen zaie, funtzio bikoitz bat betetzen dutelako: a) ondare eta zerbitzu batzuen ekoizpena eta eskaintza, eta b) beste ondare eta zerbitzu batzuen eskaria elkartruke komunitate berdinen barne. Erabiltzaileek eratu, banatu eta kudeatzen dute txanpon soziala, eta asanbladan adostutako arauak jarraituz erabiltzen dute beraien arteko elkartrukeetan.

Trukearen esperientziak sasoi desberdinak ezagutu ditu Argentinan eta martxan dauden nodo kopuruaren edo nodo horietan trukeak eginez parte hartzen duten pertsona kopuruaren arabera sailka ditzakegu:

1) 1995 eta 2000 artean: nodoak eta pertsonak erritmo jarraitu batetan sareetara gehituz doaz. 20 pertsonaz osatutako lehendabiziko klubetik hasi eta 20.000 parte hartzaile batzen zituzten 400 nodotara heltzen da.

2) 2001 eta 2002ren artean (Argentinan krisi soziala eta ekonomikoa sakonagoa egiten den bitartean) nodo eta parte hartzaileen hazkuntza izugarria gertatu zen: 2.5 milioi pertsonen partaidetza eta 5.000 nodoen funtzionamenduaz hitz egiten ari gara.

3) 2002tik aurrera, sare hedatuenetan sortzen diren arazoak direla eta (inflazio altua, oinarritzko produktuen horniketa eza, zirkulazioan dagoen diru kopuruaren kontrola galtzea, espekulazio estrategien igoera eta abar) parte hartzaileen kopurua oso azkar beheratzen da eta nodo gehienek ixtea dakar. 2003an berraktibazio ekonomikorako epe bat zabaltzen da Argentinan zeinetan lanpostu bat aurkitu eta beraien familien egoera ekonomikoa hobetzea lortzen duten pertsonak trukea uzten duten.



4) Klub eta nodo bakan batzuk jarraitzen dute funtzionatzen, parte hartze askoz txikiago batekin nahiz eta, seguruenik, lan merkatuetatik bazterketa berriz handituko balitz eta ondare eta zerbitzuen lorpena zailagoa bihurtuko balitz, parte hartzaile kopurua askoz handiagoa izango litzateke.

Gutxi gorabehera 90.000 biztanle dituen Venado Tuerto hirian 1999an hasi zen esperientzia hau, langabeziak eta pobrezia gogor gora egiten zuen testuinguru batean. Hasieratik, trukea baino zabalagoa zen zerbaitez ari zirela esaten zuten partaideek. Benetan nahi zutena pertsonen bizimodua hobetuko lukeen elkartruke sistema berri bat sortzea zen, baina diru-pilaketaren saihestea ziurtatuz. Horregatik hain zuzen “Hartu-emanaren joko” deitzea erabaki zuten, ekoizpena eta kontsumoaren arteko oreka bilatuz eta pilaketa isunduz txanpon sozialaren “oxidazioaren” bitartez, honek bere balioaren ehuneko bat galtzen baitu geldirik, zirkulatu gabe, geratzen denean.

Parte-hartzaileak.

Argentinako truke klubetako lehenengo partaideak sektore ertainetako biztanleak ziren. Pertsona hauek, beraien beharrianak asetzeaz gain, solidaritatean, elkarren onespenean eta kudeaketa parte hartzailean oinarritutako praktikak martxan jarri nahi zituzten. Sistemaren hedapenarekin batera, sektore herrikoietako parte hartzaile talde handi bat heldu zen (gero nodo berriak sortu eta koordinatuko zituztenak) zeinen helburu nagusia diru sarrera eskasek sortu arazten zituzten beharren asetzea zen. Praktikan, baztertuta, langabezian edo beharrean zeuden milioika argentinarentzat trukea gizarteratze esperientzia bat izan zen, ekonomikoki eta kulturalki aberasgarria. Batzuentzat hilabete gutxi batzuk baino ez zuen iraun; beste batzuk oraindik praktikatzen dute.



Venado Tuerto hirian eskala txikiago batetan baina bilakaera antzerakoa izan zen: 20 pertsonak hasi zuten 1999an; 2000an 170 partaide ziren; 2001ean, 250; 2002an, gorengo momentuan, 1400, eta gero jaisten zoan zen, 2005ean 400 pertsona inguru zeudelarik eta gaur egun, 150. Lanpostuak lortzen dituzten neurrian, parte hartzaileen egoera ekonomikoa hobetuz doa eta gehiengo batek bertan behera uzten du esperientzia.

Antolaketa horizontal eta parte hartzailea nagusi izan da: erabakiak asanbladatan hartzen ziren eta bertan aukeratzen ziren sistemaren funtzionamendurako eta eginkizunak gauzatzeko beharrezko ziren ordezkariak eta ikuskariak. Baina parte hartzaile kopurua beheratu ahala, asanbladak desegin ziren (funtsezko gaiak jorratzeko ez bazen) eta erabakiak azokan bertan hartzen dira doakien artean, koordinatzailea eta ikuskariaren laguntzaz.

Jarduera.

Azokak: ekintza nagusia partaideek ematen dituzten zerbitzuen edo ekoizten dituzten produktuen elkartrukea egiteko azokak antolatzea da. Gaur egun 3 azoka daude astero, nahiz eta goreneko momentuan egunero ospatzen ziren.

Txanpon sozialaren oxidazioa: sei hilabete oro, zirkulazioan dagoen txanpon sozial guztia (“puntuak” deitzen direnak) iraungitzen da eta billete berrien truke eman behar da, bere balioaren %10a galtzen duelarik (adibidez, 100 puntu iraungi ematen dira 90 puntu berri jasotzeko). Zenbat eta denbora gehiago parte hartzaileak eman



puntuak aldatzeko, gero eta ehuneko handiago bat kentzen zaio. Beraz, askoz komenigarriagoa da txanpona zirkulatzea gordetzea baino. Modu honetan, ohizko merkatuan balore handirik ez duten ahalmenak aktibatzea eta aintzat hartzea helburutzat duen txanpon solidarioaren erabilpena perfektionatu egiten da.

Biltegiak: eguneroko produktuak txanpon solidarioaz lortzea errazteko, parte hartzaile batzuk bultzatuta, biltegiak sortu ziren. Biltegi hauetan puntuekin eros daiteke.

Trebakuntzak: “aldaketa kulturala” beharrezkoa da erakunde alternatiboek ondo funtziona dezaten. Horregatik hausnarketa eta trebakuntza espazioak bultzatzea lehentasun bat da eta espazio horietan parte hartzea saritzen da puntu estren banaketa eginez.

Erakundeekin lotura.

Beste truke sare batzuk ez bezala, Venado Tuerto-koa tokiko gobernua esperientzian engaiatzen saiatu zen. Sistemari horrenbeste pertsonak parte hartzen zutenenez, 2002an udalarekin adostu zen zergen ehuneko bat (%30a) puntuz ordaindu ahal izatea. Udal gobernua puntu hauek berriz banatu zituen baliabide urriko familien artean, bide batez familia hauek azoketara hurbiltzea lortuz.

Hiriko merkataritza-ganberarekin antzerako zerbait egin zen: hasieran merkataria ez zeuden ados elkartruke sistema berri honekin baina apurka-apurka ulertu zuten komenigarria zela beraientzat ere sistemari sartzea, salmenten ehuneko bat puntutan ordaintzea onartzen bazuten, bezero gehiago izango zituztela eta tokiko ekonomia berpiztuko zutela ikusiz (horrela biztanleria ez zelako hain maiz Rosario-ra joango erostera).

Alcances.

- Esperientzia ekonomiko honek ere *ekoizpena eta ugalketa* lotzen ditu: txanpon komunitario baten bitartez egindako elkartrukeek lan ahalmenak aintzat hartzea eta txanpon arruntean diru sarrera nahikorik ez dutenen beharrian materialak asetzea ahalbideratzen dute. Trukearen berreskurapen honek beharren asetzeari oinarrituta dago, eta ez du pilaketarik nahi.
- Taldeak aurkikuntza bat egitea ere lortzen du: Txanpona eta Merkaturia sozialki eraikitako kontzeptuak direla. Beraz, posiblea da gure buruak antolatzea eta, berariaz, biztanleen bizimoduak hobetuko dituzten merkatu eta txanpon berriak sortzea. Izan ere, trukean parte hartzeak era nabarmen batetan hobetu zituen krisi sozioekonomiko baten erdian zeuden milioika argentinarren bizi-baldintzak.
- Venado Tuerto-ko esperientziaren ezaugarrien artean sistema perfektionatzeko egindako berrikuntzen kreatibitatea dago eta baita aktore desberdinak barneratzeko eta koordinatzeko ahalmena ere. Udal gobernua eta merkataria engaiatzen zituen estrategia honek egon litezkeen gatazkak ekiditeko eta aurkitutako zailtasunak gainditzeko balio izan du (Argentinako beste truke sare batzuk nahikoa garatu ez duten atalak izanik).





Iraunkortasuna.

Trukearen iraunkortasuna zailtasunez beteriko gai bat izan da: esan bezala, nodo eta sarerik gehienak konpondu ezin izan ziren arazoengatik desegin ziren. Venado Tuerto-n partaidetza beheratu bada ere, esperientzia oraindik dabil eta badaukagu ikasketa garrantzitsuak ateratzerik:

- Gakoa zirkulazioan dagoen diru kopurua eta elkartruckerako eskainitako produkzioaren artean oreka mantentzea da, bai inflaziorik ez izateko (gehiegi zirkulatzen duenean gertatzen denez) bai trukea ez gelditzeko (diru gutxiegi zirkulatzen duenean legez).
- Garrantzitsua da parte hartzaileak produktu interesgarrietara heldu ahal izaten jarraitzea, adibidez prezio oneko kalitatezko produktuetara. Oxidazio eta iraungitasun mekanismoak jarrera espekulatiboak eta pilatzaileak saihestu ditu eta sare honetan ez dira inoiz agertu (beste sare batzuetan bezala) billete faltsuak.
- Aurrez aurreko harremanen bitartez antolaketa parte hartzaile bat eraikitzen saiatu den tokiko sare bat izateak abantailak izan ditu. Gainera, esparru kulturala eta trebakuntza zaindu izan dituenek, iraunkortasun eta eraginkortasun handiagoa lortu du, beti ere testuinguru kapitalista aurka duen “ekonomia-esperientzia alternatiboa” dela jakinda.

Erronka nagusiak.

- Partaidetzaren beherakada oso nabarmena izan da azken urteotan, beraz horren zergatiak eta konponbideak aztertu beharra dago.
- Esperientzia hau gehiengoarentzat sistema kapitalistak ekarritako zailtasun ekonomikoak gainditzeko tresna bat izan da. Langabezia eta pobrezia hazi zirenean, sistema alternatibo honetan askok hartu zuten parte. Gaur egun, tokiko egoera ekonomikoa hobetu da eta trukean gutxiengo batek jarraitzen du. Baina zergatik ez du jendeak aukera positibotzat hartzen eta trukean jarraitzen nahiz eta lanpostu bat izan eta egoera ekonomiko hobe batetan bere burua aurkitu?
- Asanbladan oinarritutako antolakuntza oso probetxugarria izan daiteke hastapenetan baina nekez mantentzen da denboran zehar. Nola bateratu daitezke demokrazia zuzen eta parte hartzailearen printzipio onak eta kudeaketa iraunkor eta eraginkorra?
- Esperientziaren arrakasta bere partaideek solidaritatea, elkarrekiko konfiantza eta liderren funtzioei dagokienez egiten duten atxikpen kontzientean datza. Posible al da honelako esperientziek, partaideen ezaugarri zehatzak eta subjektiboak alde batera utziz, aurrera egin dezaten nolabaiteko araudia ateratzea?



3. MERKATURATZEA ETA ELKAR TRUKAKETA (TRUKEA)



Erakundearen izena: ESPANICA S. COOP.

Lan-eremua: Merkaturatzea eta elkar trukaketa (truketa) - bidezko merkataritzako produktuak inportatu eta merkaturatzea.

Lekua: Coslada, Espainiako Estatuak.

Posta elektronikoa: espanica@espanica.org

Webgunea: www.espanica.org

Posta helbidea: c/ Puerto de Barcelona, 4 – 28821 – Coslada, Madrid.

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: Bazkideak: hiru gizon, emakumerik ez; boluntarioak: bi gizon, zortzi emakume; bidezko merkataritzaren saltzaileak Espainiako Estatuan: hamabi emakume, hemezortzi gizon.

Bi erakunde elkartu: Fundación Rubén Darío-Campo Ciudad eta CIPRES.

Jarduerak hasteko urtea: 1997

Sarrera.

Irabazi asmorik gabeko bi erakundek osatutako ekonomia alternatiboko proiektua da ESPANICA. Hauek dira erakunde horiek: CIPRES, Nikaraguako nekazarien garapenean lan egiten duen herrialde hartako erakundea; eta Espainiaren eta Asociación Rubén Darío de amistad hispano-nicaragüense (Nikaraguaren arteko adiskidetasunerako Rubén Darío Elkarte), Madrilen sortua 1980ko hamarkada hasieran. Azken honek babesa ematen dio Nikaraguako ekonomia herrikoitari. ESPANICAREN jardura Nikaraguako kooperatibetako produktuak inportatu eta merkaturatzea da. Bidezko merkataritza sustatzen du ekoizle txikien jabekuntza bultzatzeko tresna gisa, nekazari haiek erabakietan, ekoizpenean eta merkaturatzean parte hartzearen bidez.

Jatorria.

Espanica bidezko merkataritzako erakundea da, eta Nikaraguako kooperatibetan ekoiztutako kafe bikaina inportatzen eta merkaturatzen du 1997az geroztik.

Ekimena 1994an sortu zen berez. Rubén Darío elkarteak nekazaritza kooperatiboko lankidetzako proiektuak garatzen zituen aspaldi, eta urte hartan proiektuon inpaktuaren ebaluazioa egin zuen. Ondorio argia atera zuen: nekazariak beren produktuak merkatu nazionalan nahiz nazioarteko merkatuetan saldu orduko, proiektuotatik ateratako irabaziak galdu egiten ziren (zaku zulatu batean bezala), merkatu haietan lehengai guztiek izandako beherakadaren ondorioz.

Espainian eta Europan bultzatutako bidezko merkataritzako azterketak ez zituen elkartearen asmo eta nahiak asebetetzen. Egindako azterketan ikusi zuten, arazoa ez zen konpontzen ekoizleei gutxieneko bat ordainduta kafea ekoizteko kostuaren gainetik —bidezko merkataritza tradizionalak proposatzen duen moduan—. Arazoa zen nekazariak ez zutela inoiz kontrolatu izan beren produktuak eraldatzeko prozesuak ez haietatik ateratzen diren irabaziak. Lehengaien ekoizleek industrializazio- eta merkaturatze-faseak eta hortik ateratako irabaziak beren gain hartzean zetzan gakoa, beraz. Eta hortxe sartzen da ESPANICA: Nikaraguako ekoizleak bitartekaritza bere gain hartzeko bidea bitartekaritza-lan hori egiten duen erakundearen kapitalean parte hartzea zen, erakunde hori Espainian errotuta egon arren. 1996an ESPANICA 2000 SL sortu zen. Enpresa nikaraguar-espainiar mistoa zen, eta kapitala Rubén Darío Elkarteak eratutako Fundación Campo Ciudadan eta 20.000 kooperatibista-familia biltzen zituen Nikaraguako UNAPAREN artean banatu zen erdibana. 2003an, sozietate mugatua kooperatiba



bihurtu zen. Enpresak hiru bazkide zituen (enpresan lehendik lan egiten zutenak) eta beste bi erakunde: Rubén Darío – Campo Ciudad Fundazioa (FRD-CC) eta Nikaraguako Landa Garapenaren Ikerketa eta Sustapenerako Zentroa (CIPRES).

Helburuak: Elkartek bi helburu ditu, funtsean:

- Ahalik eta soberakin gehiena (dirutan) elkarteko kide diren ekoizle txikiei (kafe berdearen eta beste produktu batzuek hornitzaileei) itzultzea.
- Iparraldeko kontsumitzaileak sentsibilizatzea.

Funtsezko bi helburu horien alde lan eginez, Iparraldeko eta Hegoaldeko herrien arteko harreman ekonomikoen bestelako eredu bat gauzatzen saiatzen gara (esperientzia apal baten bidez), Nikaraguako nekazarien etengabeko borrokari babesa emanez, burujabetza ekonomiako lortu dezaten ekonomian, kulturen, gizartean eta elikaduran. Horrekin batera, beste ekonomia solidarioago baten beharrari eta kontsumitzeko beste eredu baten beharrari buruz gogoeta, eztabaida eta ezagutza bultzatzen dugu.

Printzipioak:

- Irabazi asmorik gabeko lana garatzea, kooperatibako langileek ez baitute dibidendurik jasotzeko urteko irabazietatik.
- Kontzientziazioa bultzatzea ekintzaren bidez; kontsumo-taldeetan, pertsonak proiektu honen dinamizatzailerak bihurtzen dira.
- Lankidetzaren bultzatzea arteko lankidetzaren bultzatzea, arlo desberdinetan (merkataritzan, finantzetan, komunikazioan...) hartu-eman alternatiboak eratzten parte hartzen duten erakunde eta sareen eta kafea hornitzen duten eta bidezko merkataritzaren onuradun diren Nikaraguako kooperatiben artean.

ESPANICAK nazioarteko ITUN bat bultzatzen du ekoizle txikien estrategiaren alde. Hala, 1997tik (lehenbiziko kafe-edukiontzia iritsi zen urtea), 700dik gora kontsumo-taldeek osatutako sarea eratu da. Talde horietako batzuk lehendik zeuden lanean eta beste batzuk Nikaraguako kafearen eta gertuko ekoizleen inguruan sortu ziren berariaz. Edozein kolektibok parte hartu dezake sarean: lantokiek, GKEek, sindikatuek, oinarriko komunitateek... Era berean, edozeinek sortu dezake talde berri bat. Ez dago parte hartzeko mugarik.

Iparraldean lan egiten eta kontsumitzen duten pertsonak Hegoaldean lan egiten duten ekoizle txikiekin guztiz identifikatzen direnean eta haiekin solidario sentitzen direnean, nazioarteko aliantza edo ituna osatzen duen zirkulua osatu eta ixten da. Hortaz, ESPANICAK ikuspegi kritikoa garatu eta lan egin nahi duen pertsona eta kolektibo guztiei zuzentzen die ituna osatzeko proposamen hau. Gero eta gehiago parte hartzeko aukera ematen duen proposamen dinamikoa da hau: kafea kontsumitzetik hasi eta kontsumo-talde bat sortu, proiektua zabaltu edota bezero berriak lortzeraino.

Nikaraguako ekonomia herrikoiko proiektu estrategikoaren bidez beren kasa diharduten ekoizle eta langileek merkaturatu beren gain hartzea lortzen dute, eta proiektu horixe da itun global hau gidatzen duena eta zentzua ematen diona. Hura gabe, "deskafeinatuta" geldituko litzateke ESPANICAREN lana, eta elkartasun-eraketak hutsa izatera mugatuko litzateke. Benetan mundu solidarioagoa eta bidezkoagoa nahi badugu, merkatuaren eta ekonomiaren lokatzetan murgildu beharra dagoela jabetzeko ordua iritsi da.



Jarduera.

ESPANICarentzat *sentsibilizazio*-lana funtsezkoa da bere proiektua garatu ahal izateko. Merkataritza-lanarekin batera, kontsumitzaileak sentsibilizatzeko jarduerak egin behar dira. Helburu hori ezinezkoa izango da, kafe-pakete bat erosteko ekintza ez bada laguntzen pertsona subjektu kontziente, arduratsu, aktibo eta ekoizle txikiekiko solidarioak bihurtzeko helburua duen aurretiazko eta etengabeko kontzientziazio-lan batez. Hori lortzeko, lan handia egin behar da eta dauden foroetan parte hartzeko aukera oro aprobetxatu behar da, gure esperientzia eta gogoetak zabaltzeko.

*Garapenerako lankidetz*a Rubén Darío-Campo Ciudad Fundazioari dagokion 1985az geroztik eta Nikaraguako nekazariei zuzendutako garapenerako lankidetz-a-proiektuak garatzen ditu horretarako. Proiektu horiek CIPRESek egiten ditu, Nikaraguako kontraparteak. Orain arte egindako proiektuetan alderdi hauek landu dira: ekoizpen-arloa, lursailen hobekuntza, elikadura-programetarako laguntzak eta nekazarien etxebizitzaren hobekuntza, emakumeen jabeakuntza ardatz nagusietako bat izanik alor guztietan.

Nekazari-kooperatibek Matagalpako eta Esteliko mendietan ekoiztako kalitate handiko 39 tona kafe-edukiontzia inportatu ditu ESPANICAK 1997tik dokumentu hau idatzi den datara arte. Kafea itsasontziz ekartzen da erre gabe, eta Kantabriako enpresa txiki batean erretzen eta ontziratzen da. Gero ESPANICAREN biltegira eramaten da, Cosladara (Madrilgo erkidegoan), eta handik gure kontsumitzaile-taldearen sarera bidaltzen da. 2001an anakardo naturalak inportatzen hasi ginen. León eta Chinandega departamentuetako emakumeen kooperatibetan ekoiztako anakardo horiek 85 kiloko poltsetan merkaturatzen dira. Zazpi bat tona inportatu ditugu dagoeneko. Hori guztia produktuak merkaturatuz eskuratutako baliabideekin egiten dugu. Ekoizleen ekonomiari eusten lagundu duten baliabide horiek, modu horretan ekoizleen beren kapitala handitu ahal izan dezaten.

Orain arteko lorpenak eta proiektuko parte-hartzaileak:

Proiektu honen esanahiaz jabetzen den lan-indarra (bazkide langileak, erakunde elkartuak eta laguntzaileak) osatzea lortu da. Guztiak ere prest daude Hegoaldeko herriei oro har eta Nikaraguako nekazariei eta haien ekonomia herrikoiko proiektuari bereziki, beren babes solidarioa emateko.

Horri esker, 2003tik aurrera ESPANICA lan elkartuko kooperatiba bihurtu zen. Hasieran hiru bazkide zituen, bi erakunde elkartuz gain.

Kooperatiba honetako erakunde solidarioen parte-hartzeari eutsi zaio, Rubén Darío - Campo Ciudad Fundazioak eta Nikaraguako CIPRES Fundazioak erakunde elkartu gisa parte-hartzeari esker. Bi erakunde horiek kooperatibaren kapitalaren erdiaren jabe dira eta erabaki-ahalmena dute proiektuaren ildo estrategikoan eragina duten alderdi guztietan.

Kooperatiba irabazi asmorik gabe sortu zen, hau da, bazkideek ez dute irabazien gaineko ordainik jasotzen, ez urtero ez kooperatiba uztean. Familiaren ekonomiari aurre egiteko adinako soldata jasotzen dute, sozietatearen aurrerakin gisa. Besterik ez.

Bai hiru langile bazkideek bai Fundación Rubén Darío - Campo Ciudad Fundazioko Patronatuak egiten duten lan boluntario ordaingabea nabarmendu beharra dago, 1997az geroztik kafea ontziratzen eta kontsumitzaileei bidaltzen ESPANICARI laguntzen ibili diren hamar lagunen lan boluntarioarekin batera.



Emaitza positiboak lortzeko beharrezko salmenta-muga gainditu dugu, eta gaur egun 50.000 kilo kafe prozesatu saltzen dugu urtean (64.000 kilo kaferen parekoa, edo hiru edukiontzi eta erdi pasatxo). Nikaraguako kooperatibetako hornitzaileei ekoizpenean erabilitako kapitala ordaintzeko adina baliabide kapital-dirutan itzultzeko aukera ematen du horrek. Familiako diru-sarreraren hobekuntza ere hor sartzen da. Kopuru horiek ikusita, ezin esan dezakegu ESPANICAK nekazari txikien arazoak guztiz eta zeharo konpontzea lortzen dituenik, ESPANICA sarearen hedadurak berak mugatzen baitu gure merkaturatzeko ahalmena. Horregatik, gure sare solidario eta alternatiboa zabaltzen jarraitu behar dela uste dugu.

Laburbilduz, ESPANICAK hamalau urte daramatza Nikaragutatik kafea inportatzen, 600dik gora tona kafe merkaturatu ditu, ekoizpen-kostuen gainetik %20 gehiago ordaindu die ekoizle txikiei batez beste, 700 kontsumo-taldez osatutako merkaturatze-sare propioa eratu du, eta Espainiako Estatu osoko eta Europako hainbat herritako 20.000tik gora pertsonara iristen da.

Parte-hartzaileak.

Ekoizleek parte hartzeko bideak: Nikaraguako nekazari-familiak oinarriko kooperatibetan elkartzen dira; kooperatiba horiek hainbat kooperatiba-batasun eta -zentral osatzen dituzte, eta azken horiek Irabazi Asmorik gabeko Garapenerako Kooperatiben Federazioa (FECODESA) osatzen dute. Guztira 3.600 inguru ekoizle elkartu dira Federazio horretako kide. CIPREsek sortu eta bultzatu zuen Federazioa, nekazari txikiek beren interesak defendatu zituzten ekoizpen- eta merkaturatze-estrategiak erabakitzen dituzten biltzarretan parte hartzearen bidez, eta ekonomia herrikoirako estrategiaren barruan beren produktuak ekoitzi, eraldatu eta merkaturatzeko antolatu zitezten. Biltzarretan hartutako erabakiak ESPANICARI jakinarazten zaizkio, CIPREsen bidez, eta geroko lan-ildo bihurtuko diren estrategien oinarritzat hartzen dira erabaki horiek.

Lorpenak.

ESPANICAREN proiektuaren eta bidezko merkataritzako beste proiektu batzuen arteko alderik garrantzitsuena hau da: Nikaraguako ekoizle txikiak ESPANICAKO jabe-kide dira eta horrek irabazietan, erabakietan eta sozietatearen kapitalaren hazkudean parte hartzea bermatzen die.

Aipatu beharreko beste ezaugarri bat da ESPANICA merkaturatze-sare propioa sortzeko gai izan dela. Nikaraguako kafearen kontsumo arduratsutik sortutako taldeetan eta beren elkartasun-lana Estatu osoan egiten duten beste erakunde batzuetan antolatutako taldeetan oinarritzen da sare hori.



ESPANICAREN inpaktua ezin da zenbakitan neurtu bakarrik, mundu-mailako merkataritzaren trikimailu guztiak kontrolatzen dituen merkatu-ekonomiaren esparruan jarduten duelako. Ezin dugu ahaztu lauzpabost multinazionalak mundu osoko 25 milioi kafe-ekoizle kontrolatzen dituela eta ESPANICAK 300 bat familiek ekoiztutako kafea bideratzen duela bakarrik. ESPANICAREN helburua ez da, beraz, "hazkundera", ohiko proiektu ekonomikoetan ulertzen den moduan, Ipar-Hego eta Hego-Ipar ardatzetan kokatutako bestelako ekonomia-eredu baterantz jotzea posible dela erakustea baizik. Gure hamalau urteko esperientzia alternatiboak zeresan handia izan behar du mundu zinez hobeto baten aldeko borrokan dabilzanentzat.



ESPANICarentzat hartu-eman ekonomikoen eredu globalaren aurkako kritika da bidezko merkataritza, eta, hortaz, bere interes-eremua ezin da merkataritza-fluxu jakin batzuetara mugatu. Ekoizpena eta kontsumoa gero eta eragile ekonomiko gutxiagoren esku ez egotea bultzatzen duen ikuspegia du ESPANICAK, gabiltzan eremu ekonomikoa edozein dela ere, eredu alternatibo baten beharra globala baita. Bidezko merkataritzak herrien elikadura-burujabetzaren zerbitzura egon behar duela uste dugu. Horixe da benetako erronka ESPANICarentzat.

Ekimen honen azpian dagoen garapen-eredua ez da ez eskulanaren ez natur baliabideen esplotazioan oinarritzen, eta, hortaz, garapena guretzat ez da hazkundera bakarrik, baizik eta ongizatea eta burujabetza ere bai. Hori guztia garatzeko, elkarteak antolatzea eta lankidetzan jardutea (eta ez lehian) bultzatzen dugu, aurreko guztiaren berme gisa. Burujabetza eta aurrerabidea defendatzeko indarra batasunean dagoela uste dugu.

Erakundeekin lotura.

Gune hauetako kide da ESPANICA:

- BIDEZKO MERKATARITZAREN ALDEKO GUNEA
- SPAINIAKO ESTATUKO BIDEZKO MERKATARITZAKO KOORDINADORA (CECJ)
- REAS MADRID eta REAS sareen sarea.
- COOP 57

Iraunkortasuna.

Gaur egun, bere xede den merkataritza-jarduerak sortutako irabazietatik bizi da ESPANICA gaur egun. Dena den, azken bi urteotako zailtasunak direla eta kreditu solidarioak erabili behar izan ditu, batetik, eta kreditu bat eskatu behar izan dio bankuari, bestetik, ekoizle elkartu txikien kooperatibei ordainketa aurreratua egiteko bere betebeharrari erantzun ahal izateko.

Nabarmentzekoa da ESPANICAK egin zituen lehen urratsak Rubén Darío Fundazioaren bidez —ESPANICAREN sortzaile, CIPRESEkin batera— lortutako laguntzei esker egin zituela.

Erronka nagusiak.

Kafe berdeak munduko merkatuan (2010-2011) jasandako prezio altua da beraien egungo erronka nagusia, %100 igo baita prezioa 2009az geroztik. Horren ondorioz, ESPANICAK kafe prozesatuaren prezioa igo beharra dauka, kooperatibaren bideragarritasuna ezinezkoa egingo luketen galerak saihesteko. Horrek ahalegin osagarri bat eskatzen du, kontsumitzaile-sare osoari arazoaren berri eman eta lehengaiek igoera izugarriak jasaten ari diren uneotan babes solidarioa emateko sentsibilizatzeko.

Azkenik, egungo krisi ekonomikoan kooperatiben eta ekonomia sozial eta solidario honen kapitalizazio progresiboa bermatuko duen berme-prezio bat lortzea da beste erronka bat.



3. MERKATURATZEA ETA ELKAR TRUKAKETA (TRUKEA)



Erakundearen izena: Aldauri Fundazioa - Konekta Proiektua

Lan-eremua: Merkaturatzea eta elkar trukaketa (trukea) - Denbora bankuak.

Lekua: Bilbo - (EAE) Espainia.

Posta elektronikoa: aldauri@aldauri.org

Webgunea: www.aldauri.org ; www.konekta.es ; www.barriosaltos.net

Posta helbidea: Mariaren Bihotza Plaza 5 , Tel. 94 605 4474 – 94 640 4858

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 2011 urteko martxoak 10ean Denbora Bankuan guztira 363 erabiltzaile daude, hauetatik 158 gizonak dira (%44) eta 205 emakumeak (%56). Hauetatik 232 erabiltzaile aktibo daude, hauetatik 124 emakumeak dira (%53) eta 108 gizonak dira (%47). Honen zergatia, 126 pertsona aktibatzeke zain daudelako da (48 gizon eta 78 emakume) beraien BDT-ren erabiltzaile txartela jasotzera ez direla pasa (elkar trukeak egiteko ezinbestekoa da txartela izatea)

Jarduerak hasteko urtea: 2008 urtean tresna (softwarea) garatzen da eta martxan jartzeko garaian izan ditzakeen abantailak eta zailtasunak aztertzen dira. 2009 urtean tresnaren hedapena, erabiltzaileen erakartzea, beraien ezagutza eta lehen elkar trukaketak hasten dira.

Sarrera.

Zerbait egiten badakigu eta horrekin norbait lagundu badezakegu, laguntza behar dugunean beste pertsona bati laguntza eskatu diezaiogegu. Irabazi asmorik gabe funtzionatzen duen denbora elkartrukatzeko sistema bati buruz hari gara hitz egiten. Denbora Bankuak deitzen dira eta Euskadi mailan hainbat banku daude funtzionamenduan. Bizkaian, ordulariak ordu berean ezarriz, guztion artean sare bat sortzea erabaki zuten. Aldauri Fundazioa, Konekta proiektuaren bitartez, 2001 urtetik aurrera, Bilboko auzo altuetan Denbora Banku bat sustatzen ari da.

Jatorria.

Aldauri Fundazioa, Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetako auzo eta gizarte ehunari loturiko elkarte eta pertsona desberdinen esperientzi eta lanetik sortutako entitate bat da. Gizarteratze-laneratzearen esparruan eta tokiko garapenean proiektu desberdinak jasotzen dituzte, azken urteetan bultzatuak eta lan ekimenak eta parte hartze espazioak sustatu nahi dituzte –ekonomia sozial eta solidarioaren printzipioetatik eta herritarren parte hartzetik- Bilboko auzo altuetako errehabilitazio integrala eta garapen komunitarioaren zerbitzura, adibidez, denbora bankuen bitartez.

Konekta proiektuaren jatorria 2001 eman zen. Esplai Fundazioarekin lankidetzatza bat ezarri zen, “Konekta” gune bat garatzeko Mariaren Bihotza Plazan. 2008 urtean tresna (softwarea) garatzen da eta martxan jartzeko garaian izan ditzakeen abantailak eta zailtasunak aztertzen dira. 2009 urtean tresnaren hedapena, erabiltzaileen erakartzea, beraien ezagutza eta lehen elkar trukaketak hasten dira. Kultura desberdinen artean eta lan merkatura sarbidea ez duten erabiltzaileekin eta gogoia zutenekin eta ekintzak burutzeko gaitasunak dituzten erabiltzaileekin loturak ezarri nahi zituzten.

Proiektuak hezkuntza eta gizarte izaera bat du eta besteak beste, ondorengo helburuak jarraitzen ditu:

- Gizarte bazterketari aurre egiteko neurri bezala teknologia berrietara sarbidea sustatu, prestakuntzaren bitartez eta sarrera askea eta doakoaren bitartez (Konekta).
- Teknologia berrien sarrera eta barneraketa sustatu elkarleen aldetik, komunikazio, ekintzen kudeaketa eta animazio tresnak erraztuz sarearen bitartez.



- Bertako elkarten artean sarean egindako lana sustatu, dimentsio komunitario batekin.
- Auzoen arteko sareak sustatu eta lagundu interes komunen inguruan, lankidetzeta eta solidaritate erlazio pertsonal eta sozialen alde eginez (**Denbora Bankua eta Taldeen Koordinakundea**).
- Auzoaren bizitza baldintzen hobekuntza, garapen komunitarioarekin erlazionatutako ekintzak burutzearen bitartez, hauek aurrera eramateko tresna teknologia berriak izanik (Lineako Denbora Bankua: <http://www.bdtbilbao.org>)
- Hiri identitatea berreskuratu, gizarte parte hartzea komunitatearen eraikuntzaren prozesu dinamiko baten zentro bat bezala ikuskatuz, gizarteko behar berrien aniztasunetik abiatuz (Taldeen Koordinakundea) (www.goikoaldea.tv)
- Gizarte eta elkarte ehuna indartu, komunikazio eta informazio bidea izango den web atari baten sorreraren bitartez, kohesioaren eta elkarbizitzaren bilaketan gizarte mugimendu berriak barneratuz (Web Ataria www.barriosaltos.net)

Jarduera.

Norbaiti laguntzeko ordu bete erabiliak, ordu beteko mailegua sortzen du beste batek lagun dezan. «Denbora maileguak» diru mota berri bat dira eta ekimen honetara batzen direnak erabiltzen duten elkar trukerako bitartekoak dira, “Times Dollar”ekin EBetan jaio zen aurreko mendeko 80 hamarkadan. Denbora bankuaren kontzeptua 1988 urtean iritsi zen Britainia Handira, han “Time Bank” izenarekin sartu zen, nahiz eta Europako aitzindariak italiarrak izan, sei urte lehenago. Egun, Euskal Herrian aukera hau pixkanaka sartzen ari da.



Zer da denboraren Banku bat?

- Denbora banku bat denboraz egiten diren zerbitzuen elkar trukaketa sistema bat da.
- Denbora Bankuan, elkar trukaketa unitatea ez da ohiko dirua, denboraren neurri bat baizik, kasu honetan lana orduko.
- Elkar trukaketa sistema bat da zerbitzuak zerbitzuengatik. Gizarte erlazioak eta estratu ekonomiko desberdinen arteko berdintasuna sustatzeko abantaila proposatzen du.
- Parte hartzaile bakoitzaren denboran berdin baloratzen da, nahiz hasiberria izan edo guztiz gaitua den aditu bat eta horrez gain, komunitatearen bizitza suspertzeko tresna bat da.
- Komunitateen osasuna, egungo ekintzek etorkizunetako esan nahi garrantzitsua dutenaren sinesmenaren menpe dago. Kapital soziala eraikitzeko modurik eraginkorrena elkarrekikotasuna modu zabalago batean sortzean datza. Modu honetan, konfiantza eta hiri-konpromisoak automatikoki errepikatzen dira.

Bere erabilera baldintzak:

Denboraren dirua gizarte ongizatea materialian gastu publikoaren gehiegizko murrizketei erantzun bat eman ahal izateko txanpon berri bat da, baina ekonomiaren estatuko esku hartzera iritsi gabe, aldiz, ekintza ekonomikoaren askatasunetik abiatuz.

Egun ohiko dirua gizarteak aurre egin behar dituen arazo guztiak konpontzeko nahikoa ez dela planteatzen du. Beraz, ideia diru mota berri bat sortzea da, jendeak egin behar duen horri ordaindu ahal izateko, kontribuzioak berdin baloratuz eta pertsonen gaitasunei probetxua ateraz.

Denbora maileguak denbora banku batean jartzen dira. Edozein momentuan atera eta gastatu daitezke, beste erabiltzaileek eskaintako zerbitzuen eta aukeren tarte handi batean (denbora banku bera ere erabiltzaile bat bezala ekiten du, beste erabiltzaileen zerbitzuak eskainiz eta eskatuz).



Plan hauek gaur egun denbora bankuak deitzen dira, eta komunitatearen birsorkuntza tresna bat bezala sustatzen dira. Erabiltzaile guztien trebetasunak, beharrak eta erabilgarritasuna denbora bankuko ordenagailuan daude biltegitatuta, modu konfidentzial batean eta horrela edozein behar pertsona egokiaren bitartez bete aizan daiteke.

Denbora bankuen softwareak erabiltzaileen artean egindako transakzio guztiak grabatu eta kontatzen ditu eta kontu guztien xehetasunak inprimatzen ditu. Osagai, material... bat suposatzen duten elkar trukaketa guztiak, zerbitzua eskatzen duen pertsona da hornitu behar duena (sukaldeko kasuen osagaiak...)

Elkar truke motak:

- Ariketa fisikoa: eskolak (gimnasia, dantza, taichí..), entrenamendua edo monitoretza, partiduen arbitrajeak.
- Aisia: festen prestaketa, ekitaldien interpretazioa, mahaiko jokoak, dantzak, kapoeira, bizikletan ibilaldiak, mendiko irteerak, malabarak...
- Hizkuntzak: hizkuntza ikastaroak, elkarrizketak hizkuntzetan, itzulpenak, hizkuntzen interpretea.
- Informatika: informatika ikastaroak, softwarea instalatu, ordenagailuen konponketa eta muntaia, testuak ordenagailura pasatzea, argazki edo bideo muntaiak.
- Edertasuna: makillajea, pelukeria.
- Brikolajea: energia aurrezteari buruzko aholkularitza, bizikleta, moto, autoen konponketa.
- Artea: dekorazioa, antzerkia, pintura eta marrazketa, joskintzari buruz aholkularitza
- Sukaldea: sukaldaritza ikastaroak (tradizionala, begetarianoa, etnikoa), menuei buruzko aholkularitza eta errezeten prestaketa, bazkarien elaborazioa...
- Aholkularitza eta orientazioa: ekitaldian prestatzeko, bidaietan, CV idazteko, legezko, gatazken bitartekotzan aholkularitza, Bilbon dauden gizarte baliabideei buruzko aholkularitza eta orientazioa.
- Pertsonen arreta: irakurketak, ipuin-kontalariak, enkarguak egitea, etxe-aldaketetan laguntza, entzumenak.

Parte-hartzaileak.

Proiektuak 232 erabiltzaile aktibo ditu bere baitan, hauetatik 124 emakumeak dira eta 108 gizonak. Proiektuan berez bi pertsonak egiten dute lan: teknikari bat (softwarea garatu duena da eta beraren transmisioa errazten du) eta hezitzaile bat (erabiltzaileen, BDTaren hedapena, beste entitateekin dagoen erlazioaren... arteko harremanaz arduratzen da).

Bizkaiko Denbora Bankuen sarea osatzen duten beste Denbora Banku batzuk:

- Asoc Andreberri **BDT de la Peña (Bilbo)**
- Sartu – Zabaltzen **BDT Lekeitio**
- Sartu – Zabaltzen **BDT Berriz**
- Musutruk **BDT Ibarrekolanda**
- Sartu – Sendotu **BDT Sendotu Muelle 3 (Bilbo)**
- Auzopolis **BDT Deba Behea**
- Agiantza **BDT Agiantzako Aterpetxea (Bilbo)**

Lankidetzak hitzarmena sinatu dugun erakundeak:

- Sartu – Zabaltzen **BDT Lekeitio**
- Emari S.L **BDT Otxarkoaga**
- Musutruk **BDT Ibarrekolanda**
- Castro Somos Todos **BDT Castro**
- Ve ñs de Santa Eugènia de Ter **BDT Girona**
- Asociación Punto de Encuentro **BDT Egües harana (Nafarroa)**



Lorpenak.

- Lineako bizkaitar lehen denbora bankua eskaintzen dute (Softwarea utzi dute eta BDT Lekeitiokoek linean erabiltzen dute ere). Gainontzekoa, ohiko moduan funtzionatzen du entitate edo elkarte bati lotua, egoitza batekin eta orduen ordainketarekin, paperezko txeeen bitartez. Orain arte eskaintzen kopurua eskariena baino handiagoa da, baina hala ere, hau ohikoa dela dirudi denbora banku gehinetan. Horrez gain, erabiltzaileen asetasun maila oso altua da, egin diren elkar trukeen balorazioen arabera (%100 positiboak).
- Orain arte, Denbora Bankuaren 232 kide aktibo dituzten, hauetatik %53 emakumeak dira eta %47 gizonak. Guztira 182 eskaintza daude eta 88 eskari oso tipologia anitzekoa. Guztira 81 elkar trukaketa egin dira eta 124 ordu eta 15 minutu elkar trukatu dira. Denbora Bankuaren kideen hiru topaketa deitu dira, eta hauek izen emanda dauden pertsonak fisikoki aurkezteko eta eskaintzak eta eskariak argitu behar izan denean. (2011 urteko martxoko datuak)

Azken topaketa, Konekta-tik aurrera eramaten duten goikoaldea.tv-ko proiektuaren ondorengo loturan ikus daiteke laburtua: <http://www.goikoaldea.tv/ii-encuentro-de-usuarios-de-banco-del-tiempo-de-bilbao/>

Eta topaketa guztia goikoaldea.tv-ren zuzenetan, ondorengo loturan: <http://www.goikoaldea.tv/directos/>

Horrez gain, Bizkaiko Denbora Bankuen sarea osatzen duten denbora bankuetara zuzendutako 2 jardunaldi burutu dira. Lehengoa 2009 urtean, Bizkaian gauden denbora bankuak ezagutzera ematera bideratutako jardunaldia eta handik abiatuz, sarean lan egiteko aukera aztertu. Ondorioz, Bizkaiko Denbora Bankuen sarea sortu zen.



Denbora Bankuen bigarren jardunaldietan sarean egindako lanaren beharraz hausnartzen saiatu zen eta sarean egindako lanaren hainbat ekimen ezagutu ziren. Azken jardunaldi oso hauek osorik goikoaldea.tv-ko zuzenetan ikus ditzakegu: <http://www.goikoaldea.tv/directos/> Eta laburpena ondorengo loturan behatu daiteke: <http://www.goikoaldea.tv/ii-jornadas-de-bancos-del-tiempo-en-red-bilbao/>

Elkartekin lotura.

Beharra duten entitateen eskura jarri dute Konekta proiektutik garatu duten softwarea, Denboraren Banku baten erabiltzaileen kudeaketarako. Bere erabilera linean izan daiteke edo barne mailan, BDTaren erabiltzaileen kudeaketarako.

Beraientzat softwarea hainbat materialekin eskura ematen zaie: Argibideak dituen instalaziorako CD bat (bideo bitartez), erabiltzaile eskuliburu bat eta aipatutako lagapen hori jasota eta alde bakoitzaren betebeharrak jasota datozen hitzarmena (softwarea hartzen duenaren kasuan, azken finean duen baldintza bakarra, bertan egiten diren hobekuntzak bidaltzea da).



Orain arte, softwarea ondorengo entitateei utzi die:

2009:

Urria
Abendua

Sartu – Zabaltzen:
Emari S.L:

BDT Lekeitio
BDT Otxarkoaga

2010:

Martxo
Apirila
Ekaina

Musutruk:
Castro Somos Todos
Ve ñs de Santa Eugènia de Ter

BDT Ibarrekolanda
BDT Castro
BDT Girona: (katalanera itzuli dutenak)

2011:

Otsaila

Asociación Punto de Encuentro BDT **BDT Egües harana** (Nafarroa)

Iraunkortasuna.

Denboraren Bankua linean egiten bada, iritsi nahi den biztanleriaren ezaugarriak kontutan hartu behar dira, software egokiena definitzeko garaian.

Kasu honetan software askea oso aukeraketa egokia da, herritarren beharren arabera aldaketak eta egokitzapenak egitea posible egiten duelako. Gainera, ez da besterengarria bakarrik, elkarren arteko aberastasunarentzat aipatutako hobekuntza eraldaketa hau gomendagarria da.

Denbora Bankuak, denbora elkar trukaketarako unitate berri bat bezala planteatzen du, **irabazi asmorik gabe**. Egun, diru konbentzionala gizarteek aurre egin behar dituzten arazo guztiak konpontzeko nahikoa ez dela planteatzen du. Ideia elkar trukerako diruzkoa ez den unitate mota berri bat sortzea da, pertsonak egin behar duten hori ordaindu ahal izateko, kontribuzioak berdin baloratuz eta trebetasun indibidualez probetxua ateraz.

Erronka nagusiak.

- Tresna honetatik aurrera, modu informal batean, auzoko kultura desberdinetako pertsonen arteko bizikidetzeta eta elkar ezagutzeta erraztuko dituzten gizarte sare berriak sortuko direla ziur daude. Denbora Bankuko kideen lehen topaketan gauza berdina gertatu zen eta zirkulu hau handitzen joango denaren iritzikoak dira, lotzen dituen filosofia berriari esker.
- Geroz eta denbora mailegu handiagoa ibili eta beraien denbora eta gaitasuna geroz eta jende gehiagok konpartitu beraien artean, komunitatea aberatsago bihurtuko da. Eta gizarte aldaketan indar handiagoa erabiliko da, mundu guztiak emaile eta hartzaile bat izateko aukera izango luke eta horrela komunitatearen kide produktibo batean bihurtu.
- Denbora bat pasa ondoren, konfiantzako eta euskarriko sare informalak familia zabal baten moduan eboluzionatzen eta ekiten dute – jendea konektatuz eta bere autonomia errespetatuz.



3. MERKATURATZEA ETA ELKAR TRUKAKETA (TRUKEA)



Erakundearen izena: IDEAS- Ekonomia Alternatiboa eta Solidarioko Ekimenak

Lan-eremua: Merkaturatzea eta elkar trukaketa (truketa) - Inportazioa, Bidezko Merkataritza produktuen merkaturatzea eta banaketa; sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntza ekintzak.

Lekua: Madril eta Kordoba. Espainia.

Posta elektronikoa: info@ideas.coop

Webgunea: <http://www.ideas.coop>

Posta helbidea: Egoitza zentrala: El Carpio Kalea, 55 partzela. Cebrian Industrialdea. 14420. Villafranca de Córdoba. Kordoba.

Egoitza Madril: Labrador Kalea 20 (esq. Peñuelas Kalea) 28005 Madril.

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 10 emakume eta 7 gizon.

Jarduerak hasteko urtea: 1986

Sarrera.

IDEAS (Ekonomia Alternatiboa eta Solidarioko Ekimenak), Bidezko Merkataritzaren Erakunde bat da, bere misioa ingurune ekonomiako eta soziala eraldatzea da, bidezko mundu bat eta mundu iraunkorrago bat eraikitzeko, Bidezko Merkataritzako, Ekonomia Solidarioko eta Kontsumo Arduratsuko ekimenak garatuz, bai bertan bai nazioarteko eremuan ere. Erakundearen ekintza guztiak berdintasun, parte hartze eta solidaritate printzipioetan oinarritzen dira.

Jatorria.

IDEAS-en misioa ingurune ekonomikoa eta soziala eraldatzea da, bidezko mundu bat eta mundu iraunkorrago bat eraikitzeko, Bidezko Merkataritzako, Ekonomia Solidarioko eta Kontsumo Arduratsuko ekimenak garatuz, bai bertan bai nazioarteko eremuan ere. Erakundeak aurrera eramaten dituen ekintza guztiak berdintasun, parte hartze eta solidaritate printzipioetan oinarritzen dira.

Duela hogeit hamar urte baino gehiagotik IDEAS Hegoaldeko erakundeekin (Asia, Latinoamerika eta Afrika) Bidezko Merkataritza garatzen duen lehen espainiar entitatea da, lankidetzako programak, laguntza teknikoa, inportazioa, artisautza eta elikadura produktuen banaketa eta salmentaren bitartez. IDEASEk Bidezko Merkataritza, komunitate kaltetuenetan pobrezia zergatiak erazteko tresna indartsua bezala kontutan hartzen dute, inplikaturik dauden alde guztiek eskubideak, duintasuna eta garapena bermatuz.

Mendebaldeko kontsumoaren patroietatik eratorritako eragin ekonomiko, ekologiko eta sozial handiaz jabetuta, IDEASEk herritarren, enpresen eta herri instituzioen gaitasun kritikoa indartzen du, kontzienteki kontsumitzera duten eskubidean. Erakundeak hainbat ikerketa, aholkularitza, hezkuntza eta gizarte mobilizazio ekintza burutzen ditu eta Kontsumo Arduratsua eta Ekonomia Solidarioko ereduak egiteko, finantzaketa etikoaren tresnak garatzen ditu. Ekintza hauen artean IDEAS nabarmentzen duen bat, Public Affairs/Erosketa Publiko Etikoa (EPE), Enpresa Erosketa Arduratsua (EEA) europar programen estatuko koordinakundea izatea da. Bere helburua, herri administrazio eta enpresa sektoreari aholkularitza zerbitzua eskaintzea da irizpide etiko eta ekologikoen barneraketarako, beraien erosketa eta kontratazioetan, horrela bere parte hartzea erraztuz garapeneraren eragile bezala eta baita Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiriak programaren eragile bezala. Azken programa honek aktore publiko, pribatu eta sozial guztien parte hartzea bilatzen du Bidezko Merkataritzaren sustapenean.



Horrez gain, IDEASEk enpresa portaera analisirako tresna bat ere eskaintzen du, Bidezko Merkataritzaren aldeko Behatokiak burutzen duen sektore ekonomiko desberdin eta merkatuko hainbat markei buruz egindako ikerketen difusio publikoaren bitartez.

IDEAS irabazi asmorik gabeko Kooperatiba bat da, bere ekintza solidarioagatik Gizarte Interesekoa ezagutua eta AECID-en (Garapenerako Nazioarteko Kooperazioko Espainiar Agentzia) inskribatua dagoen GGKE bezala. IDEAS WFTO-ko (Bidezko Merkataritzaren Munduko Erakundea) kidea da; CECJ-ko (Bidezko Merkataritzako Estatuko Koordinakundea) kide fundatzailea; REAS-eko (Ekonomia Alternatiboa eta Solidarioaren Sareen Sarea) eta de Fiare Sur (Banka Etikoaren Elkartea) bazkide fundatzailea.

Jarduera.

Garapenerako lankidetzak eta kooperazio komertzialak:

IDEASEk harreman berezi bat mantentzen du Hegoaldeko Bidezko Merkataritzako erakundeekin, ez bakarrik produktuen hornitzaile bezala, merkataritza, lankidetzak, politika eta hezkuntza ekintzetan bazkide erreal bezala baizik.

Bidezko Merkataritzaren bitartez, IDEASEk bitartekoak eta aukerak errazten ditu, Hegoaldeko Bidezko Merkataritzako erakundeek beraien produktuak garatu eta merkaturatu ahal izateko bertako eta nazioarteko merkaturak, Bidezko Merkataritzako Munduko Erakundeak (WFTO) ezarritako Bidezko Merkataritzako irizpideen arabera. IDEASEk erakunde ekoizleak trebatu egiten ditu, sentsibilizatu eta Bidezko Merkataritzako produktuak inportatu eta banatu egiten ditu, diru irabazi asmorik gabe. IDEAS bere misioarekin koherentzia eta Hegoaldeko Bidezko Merkataritzako erakundeen ekonomiak eta gizarteak laguntzearen aldera, lankidetzak komertzialetik datozen produktuak banatzen ditu, 500 bezero baino gehiago diren sare zabal baten bitartez (Bidezko Merkataritzako Dendak, denda txikiak, bizilagun elkarteak, kontsumorako kooperatibak, ikastetxeak, ekodendak, GKEak, etab.).

IDEASEk Asia, Latinoamerika eta Afrikako ehun artisautza ekoizle talde baino gehiagorekin zuzenean lan egiten du eta zeharka, hogeita hamar baino gehiagorekin, 2000 produktu desberdin baino gehiago merkaturatzen. Talde hauen gehiengoak gune marjinaletan, nekazal guneetan eta kanpoaldean kokatuta dauden oinarrizko taldeak dira eta zehazki bertako biztanleen gehien kaltetuak dauden sektoreekin lan egiten dute. IDEAS talde hauengana iristen da, lankidetzak programa, laguntza teknikoa, inportazioa eta artisautza eta elikadura produktuen banaketa eta salmentaren bitartez.

Garapenerako Sentsibilizazioa eta Hezkuntza:

IDEAS bere lanaren oinarrizko zati bat Bidezko Merkataritzari eta Kontsumo Arduratsuari buruz prestakuntza eta heziketa emanez garatzen du, Sentsibilizazio Kanpainak, Prestakuntza Ikastaroak eta hezkuntza ekintzen bitartez.

Burutzen ditugun kanpainen helburu nagusia, gizarte osatzen duten pertsona, talde eta entitateen jarrera eta portaeren aldaketan eragitea da, eremuetan eraldaketa bat sustatuz: soziala, politikoa eta ekonomikoa. Horrela IDEAS:

- Kanpaina bakoitzean landutako sektorearen arazo espezifikoari buruz informatzen du, ipar-hego desberdintasuna handitzen duen sistema ekonomiko batek sortutako giza eskubideei zuzendutako eraginak eta bortxaketak salatuz.
- Kontsumo arduratsua eta Bidezko Merkataritza sustatzen ditu, dauden hautabideak ikusgai bihurtuz eta kontsumitzaileen sektore zabal bati sentsibilizatuz. Kontsumitzaile sektore honek herritarrak, erakundeak eta eragile ekonomiko pribatuak (enpresak) eta herri administrazioak barneratzen ditu.



- Nazional, europar eta munduko gobernu eta politiketan eragiten du, gizarte erantzukizun eta erantzukizun indibidualerako hezkuntzaren bitartez.
- Enpresei aholkua ematen die beraien gizarte erantzukizunean animatzera aldera.
- Sektore bakoitzean martxan dauden ekimenak indartzea eta eraldaketa eragileen artean sinergia sortzea, eztabaidak kohesionatuz eta proposamen oso baten alde eginez, gizarte ekintza sareen bitartez.

Aholkularitza eta ikerketa:

Aholkularitza saila herri administrazioei, enpresei eta gizarte eragileei zuzendutako tresna bat da, Bidezko Merkataritzaren barneraketa eraginkorra eta beraien erosketa eta kontratazio politiketan irizpide etikoak sustatzeko. Horretarako, IDEASEk metodologia espezifiko bat, gida teknikoak, atari tematikoak eta prestakuntza eta informazio jardunaldi eta ekitaldiak ditu.

Gizarte Ekintza eta Lankidetzaren departamentuaren ikerketa sailetik helburu bikoitz bat bilatzen da: Alde batetik, barne baliabide informatibo bezala balio izatea, eta bestalde Bidezko Merkataritza eta erosketa arduratsuekin erlazionatutako gai guzti haietan sakondu nahi duten pertsonentzat adierazgarri izatea. Horrela, sail honen funtzio nagusia, ekonomiaren sektore edo alderdi desberdinen eragin sozialean sakontzen duten gai desberdinen ikerketa da, enpresa multinazionalen portaerari buruzko ikerketa ekonomikoetatik, Hegoaldeko herrialdeetan esplotatuak diren neska eta mutilen errealitatera iritsi arte.

Modu honetan zeharkako perspektiba ekonomiko-sozial bat konbinatzea bilatzen da. Nazioarteko sistema ekonomikoaren errealitatea ezagutzera eman nahi da eta honi inguratzen dizkioten ondorio guztiak. Horretarako behatoki etengabe bat dugu, bertatik, Bidezko Merkataritzarekin erlazionatutako hainbat gaiei buruz egindako ikerketetan oinarritzen diren buletinak argitaratzen dira aldika.

Mailegu solidarioak:

IDEAS herritarren eskura jartzen du IDEAS Mailegu Solidarioa. IDEAS Mailegu Solidarioa IDEAS erakundeari mailegu pribatu moduan egiten de parte hartze ekonomiko bat da. Mailegu-emaileak gure Bidezko Merkataritzako erakundearen lankide izaera hartzen du. Maileguak urteko ordainsari bat jasotzen du interesen konpentsazio kontzeptuan %0 eta 3,5 gehiengoaren artean, mailegu-emailearekin adostera, eta mailegu motaren arabera, 1, 3, edo 5 urtera.



Diru sarrera nagusia alde zuzenetik egindako eskaera baten bitartez itzuli ahal izango da alde zuzenetik. IDEASEk Garantiako Fondo bat mantentzen du sortzen diren ezustekoei aurre egiteko.

IDEASEko Mailegu Solidarioen Fondoaren bitartez, Hegoaldeko ekoizle talde ugarien ekoizpen egitura aurre-finantzatu dugu, 3.200.000 € baino gehiagorekin 1999 eta 2009 urteen artean. Finantzaketa honek, kaltetuen dauden herrialdeetako gure bazkideentzat zeroko kostua du, honen bitartez beraien lana eta familiak aurrera ateratzea posible egiten dute, bertako bankuko neurritz gaineko prezioetara jo gabe. Bestalde, ekoizle txikien zerbitzura oinarritako finantzaletaren tresna bat ordezkatzeko gainera, IDEASEko Mailegu Solidarioak hautabide etiko bat osatzen du, bere aurrezkiaren erabilerrari buruzko gardentasuna eta kontrola berreskuratzen duen aurreztailearentzat.



Parte-hartzaileak.

10 pertsona dira kooperatibako bazkide. Horrez gain, IDEASEK Kordobako egoitzan 10 boluntario inguru ditu erakundearen aldeko hainbat ekintza burutzeko, boluntario hauen lankidetzaren puntuala da DICJ-ren (Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna) ospakizunaren egunean egiten den bezala

Erakundearen parte hartzea sustatzen da batzarren bitartez. Urtean erakundeko bazkideentzat bi batzar ospatzen dira, bertan erakundearen planifikazio estrategikoa onartzen da, organigrama eta Zuzendaritza Batzordea (operatiboa) eta Kontseilu Errektorearen (politikoa) osaketa. Horrez gain, urtean ospatzen diren bi batzarretako batean, langileekin planifikazio estrategikoaren elkar trukaketarako eta giza baliabideei eragiten dien erabakien elkar trukaketarako espazio bat irekitzen da,

Gainera, Koordinazio Batzordeak (IDEAS osatzen duten hiru departamentuen koordinatzaileak osatua: COM – Merkataria -, ASC – Gizarte Ekintza eta Lankidetzaren – eta ADF – Administrazioa eta Finantzak) hamabostaldiko laburpen bat bidaltzen du, sail desberdin bakoitzari eragiten dioten erabaki operatiboek buruz langile eta bazkideei informatzeko. Kontseilu Errektoreak beraien bileren hilabeteko aktak bidaltzen dituzte. Pertsona guztiak gonbidatuta daude eguneroko lanerako hobekuntza proposamenak Koordinazio Batzordera eta Kontseilu Errektorera bidaltzera, lankideen arteko harremanak eta gure ekintzen irismena.

Departamentu bakoitzak, horrez gain, aldikako lan bilerak burutzen ditu, bertan parte hartzaile guztiak ekintzen proposamenetan parte hartzen dute, erakundeak burutu ahal izateko.

Bidezko merkataritzaren gaian eta pertsona ekoizleekin erlazionatuta, gure erakundearen erabakietan parte hartze zuzena ez badute ere, ekoizle emakume eta gizon guztiak IDEASEko ekintza guztien informazio eguneratua eta gardena esku artean izate dute, urtean behin Ekintzen Memoria bidaltzen baitaie, gure ekintza ekonomikoaren emaitzarekin batera, eta urte osoan zehar hileroko buletinak ere. Horrez gain, Bidezko Merkataritzako foro eta sareetan duten parte hartzearen bitartez, nola WFTO (Bidezko Merkataritzaren Munduko Erakundea) erakundearen parte hartzearen bitartez, Bidezko Merkataritzaren nazioarteko mugimenduari buruzko topaketa eta eztabaida guneak sortzea errazten du.

Produktuen inportaziorako eta merkaturatzeko bezalako lan zehatzetarako, nola lankidetzaren proiektu eta laguntza tekniko lanetarako, onuradunen parte hartze zuzena dugu, bai proiektuaren diseinurako (lankidetzaren kasuan) bai produktuaren prezioaren eraikitzearen kasurako edo produktuen sorta berri baten diseinurako bezala.

Lorpenak.

IDEAS, Bidezko Merkataritzaren erakunde bezala, merkatal ekintzen artean oreka bat mantentzea lortu du, Hegoaldeko Erakundearen produktuen barneraketa eta salmentarako beharrezkoak diren merkataritzako ekintzen artean eta ekintza sozialen artean, Bidezko Merkataritza eta Kontsumo Arduratsuari buruzko sustapena eta sentsibilizaziorako beharrezkoak.

Erakundea haztea lortu du, proiektuaren jatorrizko baloreekin bere koherentzia mantenduz, modu parte hartzaile eta demokratiko bat mantenduz, bere kideak erakundearekin batera ikasten eta prestakuntza jasotzen doazen bitartean, postua bilatu arte, profesionalki pertsona bere gaitasunen arabera hobekien garatu dadin. IDEASentzat pertsonak gailentasun garrantzitsu bat hartzen du lanpostuaren diseinuan, IDEASen lan egiten duten pertsonak Erakundearen proiektuan elementu egonkor bat eta epe luzerakoa izateko, beharrezkoa den malgutasuna ezarri.



Azkenik, nabarmendu behar da, IDEAS Bidezko Merkataritzako eta Ekonomia Solidarioko beste erakunde batzuekin sarean egiten du lan eta ekonomia solidarioaren baloreekin duen bere konpromisoan, bere lanaren garapenerako beharrezkoak diren produktu eta zerbitzu guztiak lortzea saiatzen da posible den neurrian, ekonomia solidarioaren beste erakundeen bitartez; adibide bezala: finantzaketa zerbitzuak, diseinu eta inprenta, mezularitza zerbitzuak, etab.

Erakundeekin lotura.

IDEAS WFTO (Bidezko Merkataritzako Munduko Erakundea) erakundeko kidea da, egun WFTO Europako buru izanik; CEJ-ko (Bidezko Merkataritzaren Estatuko Koordinakundea) kide fundatzailea; REAS-eko (Ekonomia Alternatiboa eta Solidarioaren Sareen Sarea) bazkide fundatzailea eta RUFAS-eko (Finantza Tresna Alternatiboen Sarea) kide fundatzailea. Erakundeak bere hasieratik, Munduko Foro Sozialean parte hartzen du, Ekonomia Solidarioaren Sare Promotoretan alde aktiboa osatuz, bere Nazioarteko Kontseiluan WFTO-ri eta Ekonomia Solidarioko hainbat sareei ordezkatzuz.

Iraunkortasuna.

IDEASen baliabide ekonomikoak gizarte probetxurako orientatu behar direla ulertzen dugu, enplegu duina sortuz, laneratzea erraztuz, erabilera sozialeko produktu eta zerbitzuak hornituz, Bidezko Merkataritzarekin kolaboratuz, kontsumo arduratsua babestuz, ez kutsakorrek diren prozesu produktiboak lagunduz eta ingurumena, energia berriztagarriak, bio eraikuntza, etab. errespetatzen dituzten ekimenak sustatuz. Kanpoko finantzaketa bilatzerako garaian, IDEASEk finantzaketa tresna etikoengatik apustu egiten du, ohiko bankua alde batera utziaz.

2009 urtean IDEAS-ek bere kanpo finantzaketa iturriak mantendu ditu, nagusiki izaera etikoa duten finantza proiektuetan oinarrituz, ondorengoak bezala:

- IDEAS Mailegu Solidarioak
- FIARE- Banca Popolare Ética
- Triodos Bank

Banca Etica-k gure kanpo finantzaketaren %96 suposatzen du, ohiko bankak %4 suposatzen duen bitartean.

Erronka nagusiak.

Krisi ekonomikoaren testuinguruan, erronka nagusia iraunkortasun ekonomikoa lortzea da ekintza guztiak mantenduz.

Era berean, egungo beste erronka bat Hegoan eta Iparrean eragin handiagoa lortzeko formula berrien bilaketa da, beste erakundeekin egindako komunikabide berrien, produktu berrien eta lankidetzeta lan formula berrien bitartez.



3. MERKATURATZEA ETA ELKAR TRUKAKETA (TRUKEA)



Erakundearen izena: MERCADECO- Garapen eta lankidetzarako merkatua.

Lan-eremua: Merkaturatzea eta elkar trukaketa (truketa) - banaketa eta sentsibilizazioa. Bidezko Merkataritzaren inportazioa.

Lekua: Bilbo, Euskal Herria, Espainia.

Posta elektronikoa: mercadeco@euskalnet.net

Webgunea: www.mercadeco.es

Posta helbidea: Julio Urquijo 6 lonja, 48014 Bilbo

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: Egun ehun boluntario inguru ditugu, 25 gizon eta 75 emakume eta gizon 1 liberatua

Jarduerak hasteko urtea: 1995

Sarrera.

MERCADECO Bidezko Merkataritza Alternatiboaren inportatzaile erakunde bat da, irabazi asmorik gabe, politikoki eta erlijiosoki askea, Hegoaldeko pertsona ekoizle taldeekin lan egiten duena, beraien produktuengatik prezio duin bat ordainduz, merkaturatzen eta beraien garapen ereduaren alde eginez. Era berean, Euskal Herrian hainbat sentsibilizazio eta kontzientziazio ekintzak garatzen ditu, maila lokalean.

Jatorria.

Mercadeco-k (Lankidetzeta eta Garapenerako Merkatua) bere ibilbidea 1995 urteko azaroak 10ean hasi zuen, Euskal Herrian aitzindaria, Jesús M^a Aristín, Misiolari pasionistak, sustatzen hasi zen ekimenaren ondorio bezala. Peruko gune kaltetuenetako batean misiolari bezala 9 urte pasa ondoren, Euskal Herrira itzuli zen kafearen multinazional handiek bera bizi izan zen lekuko nekazariengan egiten zuten esplotazioa leuntzeko beharraz kontzientziatua.

Horrela jaio zen Mercadeco, merkatu alternatiboaren erakunde bat bezala, irabazi asmorik gabe, politikoki eta erlijiosoki askea, Hegoaldeko pertsona ekoizle taldeekin lan egiten duena, beraien produktuengatik prezio duin bat ordainduz, merkaturatzen eta beraien garapen ereduaren alde eginez. Mercadeco Eusko Jaurlearitzak onartutako, irabazi asmorik gabeko Gobernu Kanpoko Erakunde (GGKE) bat da. Beranduago, 2000 urteko urtarrilak 15ean Fundazio bezala ezagutua izan zen.

Eran berean, Espainiako Bidezko Merkataritzako Erakundeen Koordinakundeari dagokio, Mercadeco kide fundatzailea izanik, 1996 urtean sortua gure herrialdean Bidezko Merkataritza indartzeko helburuarekin; Koordinakundean produktuak inportatzen dituzten erakundeak eta saltzen dituzten dendak daude barneratuta.

Jarduera.

Mercadeco nagusiki, Bidezko Merkataritzan hiru oinarritzko ekintza burutzen ditu:

- **Inportazioa.**

Bai maila partikularrean, bai Bidezko Merkataritzari zuzenduta lan egiten duten beste GKEekin batera (Intermón Oxfam, Hegoari Adi,...). Mercadeco kafea edo kakaoa bezalako produktuak hona ekartzeaz arduratzean da Hegoaldeko herrialdeetatik, bitartekaririk gabe edo hauen kopuru txikienarekin.

- **Salmenta.**

Denda, erakusketak, azokak, banatzaile handietara edo Bidezko Merkataritzako beste taldeetara. Artikulu batzuk GKE batek inportatuak dira, eta ondoren beste erakunde batzuk hartzen dituzte ondorengo



salmenta egiteko. Talde hauei OCA-ko (Merkatu Alternatiboaren Erakundea) prezio “berezi” bat egiten zaie, modu honetan produktuak leku batean zein bestean hartzeak ez du kostu handiagoa suposatzen. OCA prezio hauek ez doaz Bidezko Merkataritzaren aurka, ekoizleak kantitate berdina jasotzen jarraitzen duelako, dendan jasotakoak balira bezala; OCA prezioa eta PVP prezioen artean dagoen desberdintasuna erakundeak sor ditzakeen gastuetara bideratzen da.

● **Kontzientziazioa.**

Boluntario propioena zein oro har gizartearena. Hainbat moduren bitartez burutzen da: hitzaldiak, institutuko gazteentzat zuzendutako mintzaldiak, Bizkaiko hainbat lekuetan erakusketak, etab.

Era berean, jendeak Bidezko Merkataritzari buruz gehiago ezagutzea bilatzen dugu eta beraren baloreak ondorengo bitartez:

● **Bidezko Merkataritzako azoka eta dendetan parte hartzea.**

Aldizkakotasun bat ezarri gabe, gure produktu, kartel eta mezuak inguruko herrietako hainbat azoka eta festetara eramaten ditugu, hauen artean: Lekeitio, Mungia, Markina, etab. Salmentak handitzeaz gain, jende gehiagok Bidezko Merkataritza zer den jakitea lortzen dugu.

Halaber, Hegoaldearekin sentsibilizazio eta solidaritatearen gaia lantzen duten beste herrietako taldeek data zehatz batzuetan gure produktuak salgai jartzeko postuak muntatzen dituzte, eta momentu zehatzetan beraiekin lankidetzara egiten dugu. Beste zenbait kasutan, Mercadeco-tik mota honetako taldeak sortzea lortu dugu, aipatutako eskarmentuak egin ondoren.

Beste puntu indartsuetako bat Bilboko Aste Nagusia da, bertan Mercadeco bidezko merkataritzako erakunde bakarra da, haur eta helduentzat dinamikak garatzen dituena. Beraien postua kolaboratzaile eta laguntzaile topagune bat da eta aldi berean salmenta gunea. Nabarmendu behar da, gune honetatik urtero 100 mila pertsona baino gehiago pasatzen direla, urtero bidezko merkataritzaren gune erreferentea izanik.

● **Boluntarioritza.**

Boluntarioek egin beharreko lana boluntarioritzaren konposizioa bezain anitza da:

- Merkantzia datorren eduki-ontziak deskargatu,
- Biltegia kontrolatu eta mantendu,
- Eskariak prestatu eta eraman,
- Guregana datozen bezeroei arreta eman,
- Produktuen berrezarpena,
- Dendaren garbiketa,
- Artikuluen katalogazioa eta etiketatua,...
- Zerrenda amaigabea da.

Parte-hartzaileak.

Mercadeco Deustu- Bilbon kokatua dago. GKE hau egun pertsona boluntario inguruz osatuta dago, hauek aurrera eraman beharreko lan desberdinak egiteaz arduratzen dira.

Era berean, liberatuta dagoen pertsona bat ere badago, honen ardura kudeaketa, paperak, etab. ateratzea da.

Bestalde bazkide pertsonak daude: Trukean onurarik espero ez duten, Mercadecoren zerbitzura kapital bat jarri duten pertsonak, eskuzabaltasunez.



Dendaren norabidean hartu behar diren erabaki guztiak, proiektu berriak, etab. zuzendaritza batzordearen esparruan burutzen dira, 7 pertsona inguruk osatua. Zuzendaritza batzorde honek bere lana aldika ospatzen diren boluntarioen batzarretan babestua ikusten du.

Lorpenak.

Arazoaren oinarria multinazionala dago, beraiek dira ekoizle txikiak diren pertsonen prezioak inposatzen dizkietenak. Ekoizle hauek biziraupenaren ekonomian murgilduta dauden indigena komunitateak dira, eguneroko elikagaiak izateko monolaborantza baten menpe bizi direnak. Ez dute beste aukerarik, konpainia handien bidegabeko baldintzetara egokitzea besterik ez dute.

Nekazari perutarrek beraien ohiko ekoizpenetara itzultzeko eta kokaren laborantza utzi ahal izateko, beraien produktuengatik prezio justu bat ordaindu ziezaioten behar zen. Multinazional handiek pertsona ekoizleei, produktuak merkaturatu balio zuenaren %6 eta %8 artean ordaintzen zieten bitartean, Mercadecon %60 ordaintzera iritsi dira, gainontzeko %40 azpiegitura, merkantziaren garraioa, muga-zergetan, etab. izandako gastuak ordaintzeko bideratzen da.



Mercadecotik ekoizle txikiekin harremanetan jartzen denean beraien produktuak lortzeko, hainbat baldintza ezartzen dira:

- **Pertsona txiki ekoizleen antolamendua.**
Pertsonak kooperatiba edo beste sistema demokratiko batean taldekatu beharra dute, guztiak dira jabe, multinazionalak beraien borondatea inposatzeko zailtasun gehiago jarriaz eta beraiek antolatzea lortzea ekoizpen, garapen eta autokudeaketa handiagoa lortzeko.
- **Produktu biologikoak.**
Produktuak guztiz biologikoak izan behar dute, hau da, ezin dute osagai kimikorik eraman.
- **Ingurumenarekiko errespetua.**
Era berean, fabrikazio prozesu guztia ingurumenarekin errespetagarria izan behar du: ezin da ez kutsadura, ez deforestaziorik sortu.
- **Giza eskubideen babesa.**
Ez da haur esplotazioa onartzen, modu berean, lana modu berdinean ordaintzen zaie gizon zein emakumeei.
- **Bidezko Prezioak.**
Produktuaren prezioa pertsona ekoizleak ezartzen dute, inongo motatako traturik izan gabe, beraiek burututako lanagatik prezio duin bat jasotze aldera.
- **Berehalako ordainketa.**
Jasotako merkantziagatik hilabete batzuk beranduago ordaintzen duten multinazionalak egiten duten ordainketaren guztiz kontrako, Mercadecok %50 eskaera egiterakoan ordaintzen du eta gainontzeko %50 merkantzia ematen denean burutzen da. Modu honetan, pertsona ekoizleek dirua berehala izatea lortzen da, honekin lasaiago bizi daitezke lanean jarduten duten bitartean, dirua jasotzeko denbora asko itxaroten egon beharra gabe; prestakuntza, garapena, osasunean, etab. inbertitu.



Erakundeekin lotura.

Mercadeco zuzenean Hegoaldeko erakundeekin lan egiten du, proiektu eta merkatu harremanen bitartez. Beste bidezko merkataritzako erakundeekin produktuak erosi eta elkar trukatzeko, azken erosleari zerbitzu zabalagoa eskaintzeko eta bidezko merkataritzako beste proiektuekin lankidetzan egiteko modua bezala.

Halaber, maila lokalean, bertako bidezko merkataritza erakundeekin sarean eginik olana sustatzen du, herritarren sustapena eta sentsibilizazio ekitaldiak antolatzeko, Bidezko Merkataritza Astea edo Bidezko Merkataritzaren Munduko Eguna diren bezala, edo Bilboko jaiak.

Azkenik, estatu mailan, Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundearen parte hartu eta kide da. Honek espainiar estatuko Bidezko Merkataritzaren 9 inportatzaileak biltzen ditu, hauen artean Mercadeco egonik.

Iraunkortasuna.

Mercadeco-ren finantzaketa bidezko merkataritzako produktuen salmentan oinarritzen da, kaudimenaren adibidea emanez eta modu honetan merkatu sistema alternatiboa guztiz bideragarria dela egiaztatuz.

Era berean, diru kantitate txiki baten ekarpena egiten duten bazkideak ere baditugu, ekoizle taldeen hobekuntza zuzenerako balio duena, I+G+b laguntza makinaria finantzatzuz.

Erronka nagusiak.

Epe laburrera eta epe ertainera ditugun erronka nagusietako batzuk hauek dira:

- Produktu berrien sustapena, jatorrian amaituak direnei lehentasuna emanez.
- Ehun ekonomikoaren sustapenaren sorreran laguntza zentralizatuago, lan egiten dugun herriekin.
- Pertsona ekoizle taldeei aholkularitza, produktu iraunkorren merkaturatzean.
- Sentsibilizazio lana, bereziki, ikastetxeekin.



Erakundearen izena: Projeto Esperança/Coesperança

Lan-eremua: Merkaturatzea eta elkar trukaketa (truketa).

Lekua: Santa Maria herria, Brasilgo Rio Grande do Sul estatuko erdialdean

Posta elektronikoa: projeto@esperancacoesperanca.org.br; projespcooesp@terra.com.br

Webgunea: <http://www.esperancacoesperanca.org.br>

Posta helbidea: Silva jardim, 1704 Santa Maria, Brasil.

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 230 enpresa solidario eta 4.500 nekazari familia.

Jarduerak hasteko urtea: 1987

Sarrera.

Coesperança Santa Maria eskualdean eskala txikiko produkzioa egiten duten ekoizle taldeek eta hiri ekoizle taldeek osotzen dute. Kooperatiba Projeto Esperança inizatibatik jaio zen. Proiektu honek herri ekonomia solidarioa bultzatzen du eta bere lehentasunen artean kooperatibismoa, ekonomia solidarioa, familia nekazaritza, bidezko merkataritza eta guzti hau sustatzen duten politika publikoak indartzea dago. *Coesperança* bere partaideen ahaleginak bateratzeko sortu zen, produktuen ekoizpena eta merkaturatzea hobeto koordinatzeko eta aurrera eramateko. Orain dela 20 urte baino gehiago sortu zen eta bitarte honetan merkaturatze eta elkartruke gune ugari eraiki ditu Brasilen, eta baita Latinoamerikako beste herrialde batzuetan, ekonomia solidarioa hedatuz eta indartuz.

Jatorria.

Projeto Esperança 1987an sortu zuen Santa Maria elizbarrutiko apezpikuak eskualdeko garapen solidario eta iraunkorra sustatzeko asmoz. Hasieratik tokiko arazo sozialei erantzuna ematen saiatu da, besteak beste langabezia, pobrezia eta landa eremuetatik gertatzen den migrazioa. Horretarako, hango Caritas-en agentziaren laguntzarekin, proiektuak "askapenerako karitatean" oinarritutako garapen eredu bat zabaldu zuen. Karitate kontzepzio honek Herri Ekonomia Solidarioaren baloreak bere barne gordetzen zituen eta "Komunitate proiektu alternatiboetatik" abiatuz praktikatzen zen. Proiektu hauen helburua lanaren eta diru sarreraren sormena zen, partaideen antolaketa eta lankidetzaren era autokudeatu eta solidario baten bitartez eginez. Iniziatiba honen ildotik, 1989an *Cooperativa Mista dos Pequenos Produtores Rurais e Urbanos -Coesperança* sortzen da, *Projeto Esperança*-ri lotuta zeuden Rio Grande do Sul erdialdeko ekoizle eta enpresa garatzaileak elkartu eta era bateratuan funtzionatzeko. Bere partaideen ahalmenak handitzeko, erakunde honek trebakuntza, aholkularitza tekniko eta lankidetzaren berrantolaketa enpresa garatzaileen artean eta, aldi berean, ekonomia solidarioa eta bidezko merkataritza arduratsu eta etikoa sustatzen duten politika publikoak eskatzen ditu.

Jarduera.

Projeto Esperança/Coesperança-ko partaideek diotenez, helburua ez da "arrainak ematea baizik eta arrantzan nola egiten den erakutsi", proiektuaren barruan dauden pertsonak subjektu aktibo bilakatu daitezkeen hiritartasuna eta gizarteratzea elkarrekin eraikitzeko. Hori dela eta, *Projeto Esperança/Coesperança*-k formazio, trebakuntza eta esperientzia elkartrukeerako iharduera anitzak proposatzen ditu.



Beste jarduera funtsezko bat enpresa garatzaileek eta ekoizleek egindako produktuen merkaturatzerako guneak antolatzea da. Horretarako, salmenta puntu iraunkorrak eratu ziren (hirietao dendak) eta, aldizka, azokak antolatzen dira: Azoka Koloniala (asterokoa), Azoka tematikoa (asterokoa), Mercosur-eko Ekonomia Solidarioarako Azoka (urterokoa) eta Kooperatibismoaren Estatu Azoka (FEICOOP), besteak beste.

Gainera, jarduera hauekin lotuta, 2004an Projeto Esperança/Coesperança-ren barne zeuden enpresa inizatiba Teia Esperança sarea sortu zuten banakako produkzioak koordinatzeko eta merkaturatzea sendotzeko. Sarearen salmenta puntuen artean, honako hauek dira garrantzitsuenak: Merkaturatze Zuzenerako Terminala, Azoka Koloniala, Ekonomia Solidarioarako Zentroa, Esperança Ekoizpen eta Arte gunea, Kolonia Biltegiak eta Saldanha Marinho Enparantzako Hileroko Azoka. Salmenta puntu guzti hauek bazkide diren enpresa garatzaileek kudeatzen dituzte eta bertan ortuari ekologikoak edo familia ustiapenetik datozenak saltzeaz gain, etxean egindako ogiak, jantziak, artisautza eta birziklatutako materialaz egindako produktuak ere aurki daitezke.



Parte-hartzaileak.

Coesperança kooperatibaren barne Santa Maria eskualdeko 4.500 nekazari familia eta 230 enpresa solidario daude.

Erakundeekin lotura.

Hastapenetatik, Projeto Esperança/Coesperança-ren ibilbidea eliz katolikoarekin lotuta egon da, bai Santa Maria elizbarrutiaren bitartez, bai Rio Grande do Sul-eko Caritas-en bitartez. Honez gain, badaude proiektuaren bilakaeraren alde dauden beste erakunde lagun batzuk ere, adibidez, hasieratik baliabide finantzarioak heldu arazi dizkion Alemaniako Misereor agentzia.

- *Projeto Esperança/Coesperança*-k maiz gobernu erakundeekin batera egiten ditu jarduerak. Batez ere, Santa Maria herriko udalak *Projeto Esperança*-k antolatutako azoketan eta bestelako inizatibetan parte hartzen du. Estatuko gobernuarekin ere badaude loturak, *Secretaria Nacional de Economia Solidária*-rekin (SENAES) eta *Ministério do Desenvolvimento Agrário*-rekin. Azkenik, *Caixa Econômica Federal* eta *Petrobras*-en laguntza jasotzen duela aipa dezakegu.
- 2005etik aurrera, *Projeto Esperança/Coesperança*-k Azoken Programa Nazionalaren barne dago, Brasilgo estatu guztietan zehar urtero egiten diren azoken sare bat da. Latinoamerikako beste herrialde batzuetako (Uruguay, Argentina, Kolonbia) azokekin ere lankidetzan dihardu.





Lorpenak.

- *Projeto Esperança/Coesperança*-k bai hiriguneetan bai landa eremuetan egiten du lan, Rio Grande do Sul estatuaren erdialdeko 30 herri hartzen dituelarik.
- *Projeto Esperança/Coesperança*-ren barne dauden pertsonak bere zenbaterainokoaren neurria ematen dute. Lehen esan bezala, 230 enpresa solidario eta 4500 nekazari eta ekoizle familia dira zuzenean onuratsen direnak, eta beste 20.000 bat pertsona (hornitzaileak eta kontsumitzaileak barne) zeharka onuratsen direla uste du erakundeak.
- *Teia Esperança* sareak, bere aldetik, merkaturatze zuzenerako 40 salmenta puntu iraunkor ditu eskualdean.
- *Projeto Esperança/Coesperança*-k Santa Maria eskualdean Fome Zero izeneko programa nazionalen parte hartzen du. Programa hau 130 nekazari familia bilgune, 43 erakunde eta 3.000 familietara heltzen da.

Erakundeko partaideek honako hauek aipatzen dituzte lorpen nagusien artean:

- 14 *Feiras Estaduais do Cooperativismo*.
- 3 *Feiras de Economia Solidária do Mercosul*.
- 3 *Seminários Latino-americanos de Economia Solidária*.
- 7 *Feiras da Biodiversidade y Feiras de Agricultura Familiar*.
- 17 mintegi tabako kulturaren alternatibak arakatzeko
- 1.040 *Feirões Coloniais Semanais*.
- 150 *Feirões Temáticos*.
- *Conselho Nacional de Economia Solidária*, *Fórum Brasileiro* eta *Fórum Gaúcho de Economia Solidária* eta Familia Nekazaritzari buruzko foroen bitartez Ekonomia Solidarioa garatzeko politika publikoen diseinuari buruzko eztabaidetan parte hartzen du.

Iraunkortasuna.

- Esperientzia honek 20 urte baino gehiago daramatza merkaturatze eta elkartruckerako guneak eraikitzen eta Santa Maria eskualdean enpresak garatu nahi izan dituzten pertsonen eta nekazari txikien ahalmenak eta produkzioa indartzen. Hasieratik, etengabe pertsona berriak gehituz joan dira.
- Aldi berean, *Projeto Esperança/Coesperança*-k antolatutako azokak erabat finkatuta daude eskualdean eta Santa Maria-ko biztanleriaren salerosketa dinamikan ere sartuta. Esperientziaren ibilbideak eta lorpenek herrialdeko
- Ekonomia Sozialean eta merkaturatze arloan erreferente bilakatu dute *Projeto Esperança/Coesperança*. Proiektu honek inizatiba berriak garatzera bultzatu ditu talde asko eta ehunka azoka eratzeraz ere lagundu du. Partaideen iritziz, erakunde berri bat sartzeko den bakoitzean sortzen den irakasle eta ikaslearen artean bezalako lotunek indartzen duten esperientzia bat da. Horretan datza bere iraunkortasunaren arrazoirik boteretsuena. Gainera, partaideek diotenez ere, *Projeto Esperança/Coesperança*-ren proposamen eta jarduerak Brasilgo eta Latinoamerikako beste herrialdeetako Ekonomia Solidarioarako sareak indartzen ditu.





Erakundearen izena: Bidezko Bidean Koop .E

Lan-eremua: Kontsumoa -kontsumo kooperatiba eta gizarte ekimena

Lekua: Vitoria-Gasteiz, Araba. Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) Espainia.

Posta elektronikoa: bidezkobidean@gmail.com

Webgunea: <http://bidezkobidean.elkartek.net/>

Posta helbidea: "El 70" taberna – Cuchillería Kalea zkia^o 60 Vitoria-Gasteiz. Telf: 636033029- 945202526

Esperientzia osatzen duten kide kopurua:

Pertsona elkartu kopurua: 6 emakume eta 6 gizon.

Zuzendaritza batzordean pertsona kopurua: Kontseilu errektorean: 3 emakume.

Pertsona langile kopurua: 2 emakume eta 6 gizon 1.

Pertsona boluntario kopurua: 6 emakume eta 6 gizon.

Jarduerak hasteko urtea: 2008 urteko uztaila

Sarrera.

BIDEZKO BIDEAN merkaturatzea eta kontsumo modu koherente batean lan egiten den leku bat da, elikadura burujabetza eta bidezko merkataritzaren bitartez. Era berean, gazteek sortutako kooperatiba bat da, hauek bildu eta ekimen berritzaile hau sortu zuten Euskal Herriko Vitoria-Gasteiz hirian. "el 70 taberna"n bertako ekoizpena eta hegoaldeko produktuen arteko konbinazio bat aurki dezakegu, bidezko merkatu bat eta merkatu berdina bat sustatuz.

Jatorria.

BIDEZKO BIDEAN, duen esan nahi berarekin, hainbat lan esparruetatik zetozen pertsona desberdinen kezkatik sortzen da: hezkuntza, GGKEak, mugimendu ekologistak. Beste mundu bat posible dela gizaritari hezteaz gain, errealitate bihurtzeko hautabide errealak daudela erakustera motibatuak sentitzen ziren. Kezka horretatik abiatuz, egungo kontsumo moduek gizaritean ondorio handiak zituztela hausnartzera pasa ziren. Horregatik, pertsona talde hau taberna bat eraikitzeo ideiarekin inguruan bildu ziren, ekoizten duten pertsonentzat justizia bilatzen saiatzen den etika batean oinarrituz, "ama lurra"ren alde zaintza eta errespetua sustatuz eta guztientzat ekonomia bidezkoago bat eraikitzeo helburuarekin.

Modu honetan, bidezkoagoa den eredu ekonomiko bat defendatzen dute, planetako pertsona gutxi batzuen "ongizatea" eta "bizitza kalitatea" ez izatea gainontzekoen lana eta esplotazioaren kontura. Hasierako taldeko pertsonen artean taberna bat martxan jartzea erabaki zuten "El 70 taberna", produktu agroekologikoak¹⁸ eta bertako produktuak eskainiz. Hasiera batean amets bat iruditzen zitzaion, baina pixkanaka ekintzaren bitartez eta era berean, hautabide errealak eraikiz eta Elikadura Burujabetzatik¹⁹ eredu desberdinak sortuz, beti ekologikotik, bertakotik eta bidezkotik: *"Unean bertan hartu genuen erabakia izan zen eta egin beharra genuela kontsideratu genuen; funtsean 8 bazkide gara baina, kooperatibara elkartutako beste pertsonak edozein lana egiteko kolaboratu eta beraien laguntza ematen dute".*

¹⁸ Produktu agroekologikoak: nekazaritza organikotik, inolako produktu kimikoren erabilerririk gabe lortzen direnak dira eta aldi berean, metodo naturalak erabiltzen dira ingurugiroa zaintzeko.

¹⁹ Elikadura Burujabetza: Elikadura eskubide bat bezala ulertzen dugu eta ez negoziatzeko merkantzia bat bezala. Hori dela eta, zer jan nahi dugun erabakitzearen eskubideari lehentasuna ematen diogu, baita elikagai horiek nola ekoiztu eta banatu nahi ditugun ere. Prezio baxuan eta pentsamolde pasiboan oinarritutako kultura kontsumista ukatuz.



Era berean, gehiegizko kontsumo batean oinarritutako egungo ideologia kapitalistari hautabide bat bilatzen ari diren pertsonentzat, topaketa gune bat izan nahi dute. Horretarako, gune ireki bat uzten dute ideia, hausnarketa, eskarmentu, amets, etab. elkar trukaketa bat egin nahi duten pertsona eta talde guztientzat.

Zer defendatzen dute:

- Beste eredu ekonomiko eta kontsumo eredu bat.
- Nekazal mundu bizi baten defentsa.
- Beraien lurretan zer ekoiztu nahi duten askatasunez aukeratzeko, herriek duten eskubidea, ekoizten dutenaz elikatzeko, etab. (honi Elikadura Burujabetza deitzen zaio).
- Transgeniko, kimiko, antibiotikorik gabeko elikagaiak, gure osasunarekin eta ingurumenarekin errespetagarriak direnak.
- Kontsumo kontziente, etiko, solidario eta ekologiko bat.
- Auzo biziak, auzoko biziak.

Jarduera.

Bidezko Bidean “el 70 taberna” eskaintzen dute, bertan erakunde bezala defendatzen dituzten edari eta janariak eskaintzen dituzte. Tabernan eskaintzen dituzten produktuen aukeraketa, bereziki edariak, edo menuak, ogitartekoak, pizzak, etab. egiteko erabiltzen diren produktuak, esperientzian parte hartzen duten pertsona guztien eztabaida eta hausnarketa etengabearen bitartez aukeratuak dira.



Taberna bat izateaz gain, “El 70” auzoari, beraien jendeari eta talde desberdinei balio diezaiekeen gune bat izatea bilatzen du, biltzeko, prestakuntza izateko eta gozatzeko asmoz. Horretarako, kontsumo arduratsuen eta aisiaren hautabide errealak eskaintzen dira:

- **Komunikazio sentsibilizazio ekintzak:** astero, tailerrak antolatzen dira, beti ere kontsumo arduratsua eta elikadura burujabetzaren sustapenera zuzendutako: erakusketak, hitzaldi eta konferentziak, liburu eta aldizkarien aurkezpenak, dokumental eta pelikulen proiektzioak.
- **Aisialdi ekintzak:** kontzertuak eta pelikulen proiektzioak.
- **Grupos de consumo (actualmente 4):** pertsonen arteko sare bat sortu da, bai baserritarrak bai kontsumitzaileak, kontsumitzaile bezala, geroz eta gehiago prezio baxuan eta pentsamolde pasibo batean oinarritutako ekoizpeneko eta kontsumista eredu baten eskutik galtzen ari garen, elikatu eta erlazionatzeko modua berreskuratzean interesatuak.
 - Elikadura Subiranotasunera zuzendutako proiektu bat da eta erantzukizun konpartitu bat inplikatzeko du. Alde batetik, baserritarra astero aurretik adostu duten produktuen “otar” bat emateko konpromisoa hartzen du, eta bestalde, kontsumitzaile pertsonak adostutako denbora batean zehar “otar” hori jaso eta ordaintzeko konpromisoa hartzen du. Otar horretan, barazkiak, esnea, ogia, arrautzak, oilaskoa, okela... bildu daitezke, adostutako kantitateetan.

Parte-hartzaileak.

Sendotasun garrantzitsu bezala, erakundearen parte hartzen duten pertsonak oso lotuta sentitzen dira erakundearen printzipioetara. Horrez gain, taldeko lana bultzatzen dute eta pertsonak eta bere printzipioak alderdi ekonomikoaren aurretik jartzen dituzte. Bere hasieratik, batzar bidezko funtzionamendua dute eta pertsona bazkide erabiltzaileak zein boluntarioak parte hartzen dute. Funtzionamendu honekin, erabaki guztiak adostasunez hartzen dira.



Auzoari irekita dagoen esperientzia bat bezala ezagutzen dira eta horregatik biltzeko beharra duten edo topaketa leku bat behar duten talde guztiei beraien lokala eskaintzen die.

Lorpenak.

- **Genero harremanak:** Hasieratik genero harremanetan berdintasuna landu nahi izan zen, barne eremuan zein kanpo eremuan. Barne eremuan, Kontseilu Errektorea sortu zen eta erabateko adostasuna egon zen kide guztiak emakumeak izatean, gutxienez hasieran. Hasierako fase honetan hornitzaileekin zein instantzia desberdinekin erlazioak ezartzeko aukera izan zuten. Gaur egun, martxoak 8ko eta 25N plataformetan parte hartzen dute, baita bertako talde feministekin ekintzetan ere. 2010 urteko urtariletik, erakunde hauek hilean asteazken batean biltzen dira Bidezko Bidean-en lokalean, ekintza desberdinak burutzeko.
- **Hego-Ipar harremanak:** Iparrean bidezko erlazioak bultzatzen dituzte, bertako produktuen bitartez eta bertako kontsumo taldeen dinamizazioaren bitartez eta ipar-hego bidezko merkataritza bultzatzen dute, kafea eta kakaoa bezalako produktuen bitartez, besteak beste.
- **Ingurumenarekiko konpromisoa:** sozialki eta ingurumenarekiko iraunkorra den nekazaritzatik datozen produktuen bitartez eta ahalik eta bertakoenak diren produktuen bitartez. Barne funtzionamenduari dagokionez: lokalean jartzen diren kartelak birziklatzen dira, zaborra banatzen da eta egiten den ekintza bakoitzak sor dezakeen aztarna ekologikoa²⁰ kontutan hartzea saiatzen da, eta minimizatu ahal den neurrian.



Erakundeekin lotura.

- Martxoak 8 eta 25N-aren bertako plataformak eta bertako talde feministen ekintzetan parte hartzea.
- EHNE Bizkaia.
- Herrien Elikadura Burujabetzaren aldeko Ituna (ASAP)
- Kontsumo 4 talde.
- Nekasarea - Sarea.
- Mugarik gabeko albaitariak.
- Emaús Gizarte Fundazioa.
- Bertako erakundeak modu puntual batean: Zadorra Fundazioa, Bionekazaritza, Deshazkundera, Hazien sarea, etab.

²⁰ Aztarna ekologikoa: neurgarria den adierazle bat da. Ekosistema ezberdinetan populazioak bere kontsumo beharrak asetzeko eta aldi berean, baliabideak birsortzeko Lurraren kapazitate ekologikoarekin alderatzen du. Bizitzeko era konkretu batek, zein inpaktu sortzen duen ebaluatzea da adierazle honen helburua, eta planetaren biokapazitatearekin konparatuz. Ondorioz, funtsezko adierazle bat da jarrangarritasuna neurtzeko.



Iraunkortasuna.

Proiektuak “el 70 taberna”ren ekintza ekonomiko propioaren bitartez funtzionatzen du nagusiki. Parte hartzaileen batzarretik, lortutako onurak ez banatzearen erabakia hartu zuten eta hori dela eta, sortzen diren diru-sarrera guztiak erakundearen ekintza propiorako berriz inbertitzen dira eta sentsibilizazio eta prestakuntza proiektuetarako bideratzen dira. Horrez gain, Bidezko Bidean-eko elkartuak eta boluntarioak, beraien ekintzen iraunkortasuna bermatzeko, beharrezkoak diren ekarpen ekonomikoak edo arduraldiko denbora eta esfortzua eskaintzen dute.

Prestakuntza eta sentsibilizazio hainbat proiektuetarako, neurri batean, herri administrazioetatik eratortzen diren fondoek laguntza dute.

Erronka nagusiak.

- Ekimen bideragarri eta iraunkorra direla herritarrei erakutsi.
- Kontsumitzaileei “boterea” dutela aldarrikatu eta beste “taberna” eta inguruko establezimenduekin eragin kutsakor bat edukitzea. Adibidez, Vitoria-Gasteizko Alde Zaharreko beste taberna batzuek Euskal Herriko Kola (kolako freskagarria bertakoa eta ekologikoa) eskaintzea lortu dute.



Erakundearen izena: Birosta Taberna Begetarianoa - El Esqueje Sociedad Cooperativa.

Lan-eremua: Kontsumoa - ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena eta banaketa. Ostalaritza iraunkorra.

Lekua: Zaragoza, Aragoi. Espainia.

Posta elektronikoa: birosta@birosta.com

Webgunea: www.birosta.com

Posta helbidea: Universidad 3, local. 50001 Zaragoza.

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: Guztira 9 pertsona dira, kooperatibako bazkideen artean: 4 emakumeak dira eta 2 gizonak. Bestalde, kontratatutako 2 emakume langile daude eta gizon 1.

Jarduerak hasteko urtea: 2002

Sarrera.

BIROSTA kooperatiba bat da, merkatu begetarianoa eta produktu osasuntsu, ekologiko eta naturalen eskaintza eta hedapena zabaltzeko beharretik abiatuz, proiektu desberdin eta berritzaile bat garatzen du: Bar Birosta. Bere misioa ostalaritza ekintza ekonomiko bat egitea da pertsona langileen zerbitzura eta ez alderantziz; ekintza modu ekologiko eta iraunkor batean garatu; gastronomia ona kultura, artea eta gizarte eraldaketarekin konbinatzea. Birosta begetarianismoaren, kulturaren eta artearen hedapenerako tresna bat da. Kooperatiba bat bezala funtzionatzen du El Esqueje S.Coop.-en izen juridikoaren azpian.

Jatorria.

Birostak bere ibilbidea 2002 urtean hasi zuen. Langileen kooperatiba bat da El Esqueje S. Coop. izenpean, merkatu begetarianoaren zerbitzua eta produktu osasuntsu, ekologiko eta naturalen eskaintza eta hedapena zabaltzeko beharretik abiatuz, proiektu desberdin bat garatu zuen taberna-jatetxe baten moduan.

Birosta sortu zenean zuen helburu nagusia auto-enpleguaren bilaketa zen. Honek ekonomia solidariotik lan egitea inplikatzeko modu positiboan, errealitatea eraldatzea posible den lekutik eta batez ere ekonomia pertsonen alde egotea eta pertsonen artean jariatzea.

Gaur egun, auto-enpleguan oinarrituz, Birostaren helburuak hauek dira: Bideragarritasun ekonomikoa, iraunkortasun ekologikoa eta gizarte justizia.

Hori guztia proposamen artistiko, kultural eta sozialetara irekita dauden ekintza zerranda luze batekin konbinatzen da, Zaragozako inguruan.

Jarduera.

Birostak burutzen dituen ekintza nagusiak hauek dira:

- Jatetxeak
- Erakusketak
- Aurkezpenak
- Ekintza kulturalak
- "Del Campo a Casa" Kooperatibaren barazki eta fruitu ekologikoen otarra jaso daitekeen Puntu Berdea.



Tabernan eros daitezkeen produktuen artean: Oliba olio ekologikoa, bidezko merkataritzako freskagarri alternatiboak, zuku ekologikoak, kafe eta te ekologikoak eta Bidezko Merkataritzakoak.

Tabernak ematen dituen zerbitzuak hauek dira:

- *Menu ekonomikoak eta kalitatezkoak eguerdian.* Gauean afariak kartara. Era berean, tabernan Kafeak, teak, pintxoak eta ogitartekoak eskaintzen dira.

Sukaldea etxekoa da eta ekologikoa. Elikagai guztiak transgenikorik gabekoak dira eta ia osagai guztiak nekazaritza ekologikotik eratoritzen dira. Beganoak diren pertsonentzat aukerak daude.

- *Erakusketa aretoa:* Estilo eta teknika guztietako artista berriei irekia.
- *Frida Kahlo autokudeatutako liburutegia (BFK):* Gizarte eta politika eduki zabalarekin. Autokudeatutako liburutegi batean datza, inoiz laguntza pribaturik edo diru-laguntza publikorik behar izan duena. Pertsona guztiek bere eraikuntzan eta hedapenean parte hartzeko aukera dute.

Liburutegia Zaragozako Rebel Kolektiboko pertsonen kezken ondorioz jaio zen. Pixkakana, ilusio eta ahalegin handiarekin, jatorri desberdinetako fondo bibliografikoak biltzen joan zen: Juventud Comunista Revolucionaria (J.C.R.) artxiboa, ezker puntako kolektibo desberdinak ematen joan ziren materialak, eta BFKrekin kolaboratu duten hainbat pertsonen dohaintza boluntarioa eta trukean ezer eskatu gabe. Hainbat urteetan zehar, BFK-k bere zentro logistikoa «Eduardo Langarita» Autokudeatutako Gizarte Zentroan izan zuen (Arrebato Auzo Elkartea), Palafox kaleko 28 zenbakian, Madalena auzoan kokatua. Rebel-ek gune disidente, herri kulturaren erreferentzia eta hiriko underground honi bizitza eman zion bitartean, BFK-k bere atzealdean hazten jarraitu zuen.

2002 urteko neguan El Esqueje kooperatibak BFK-ri bere instalazioak hobetu eta Birostara taberna begetariano berriaren gizarte eta kultura lanaren zati izatea proposatu zion. Harrezkero, Universidad kaleko 3 zenbakian, Arrebato-tik metro gutxi batzuetara, BFK interesa duten pertsona guztiengan eskuragarri jarraitzen du.

Pertsona talde murriz bat, Birostako pertsona langileen kolaborazioarekin, BFK berrantolatuz eta dinamizatuz joaten dira. Geroztik, beste egoitza batzuk sortu dira, Treziclo (Liñan Kalea zkia⁹⁸), C.G.T Aragoiko lokalean eta Errioxan eta baita Zentro Sozial Autochestionau A Enrestida ere, guztiak La Madalena auzoan.

Parte-hartzaileak.

Parte hartzearen funtzionamendua batzar horizontalaren bitartez egiten da, 15 egunetik behin egiten da eta bertara bazkide diren pertsona guztiak bertaratzen dira eta une honetan pertsona langile bat ere bertaratzen ari da. Hor erabakitzen dira eguneko gai guztiak eta ondoren hainbat gai lantzeko komisiotan funtzionatzen da: lan, ekonomia... gaiak, gaiak lantzen dira eta ondoren akta bat idazten da, beranduago batzarrean gauza guztiak erabakitzen dira. Batzarrak irekiak dira bazkide eta langile guztiarentzat. Erabaki garrantzitsuak hartu behar direnean langileekin kontsultatzen da.



Pertsona langileen parte hartzearekin erlazionatutako hainbat gai garrantzitsu:

- **Aukera berdintasuna:**
 - Lan berdinari (ordu kopurua), lan sari berdina.
 - Lanaren banketa. 35 orduko jardunaldia.
 - Aurretiko eskarmentua ez da eskatzen, pertsona langile guztiei prestakuntza ematen zaie sartzen direnean.
- **Genero berdintasuna:** Neska eta mutilen kopuruaren artean oreka.
- **Familia bizitza eta lanaren arteko kontziliazioa:** Jardunaldi erdia amentzat, lantokian bularra emateko aukera eta epealdi batzuetan zehar haurrak lanera ekartzeko aukera.
- **Gardentasuna:** Informazioa mundu guztiari iristen zaio. Komunikazio ona
- **Antolaketa horizontala:** Erabakiak pertsona guztien artean hartzen dira.

Era berean, entitateak langileen parte hartzea errazten du hiriko elkarte eta kolektibo desberdinetan.

Lorpenak.

Esperientziak balantze oso ona du. Esperientzia 8 urte hauetan zehar enplegua sortu da eta bazkide eta langile pertsona kopurua hazi egin da. Nahiz eta egoera ekonomikoa zaila izan iraun egin du eta aldi berean hazi egin da. Birostaren bezero kopurua handitu egin da, eta bere kideek espektroa Zaragozako hirian zabaltzen ari dela uste dute, eta horrek produktu eta zerbitzuen aniztasun handiagoa eskaintzen eragiten du.



Birosta Tabernak Ekonomia Solidarioaren printzipio eta baloreak aplikatzen ditu ondorengo moduan:

- **Berdintasuna/ekitate:** Erabaki hartzean lan egiten duten pertsona guztien soldata berdintasuna eta parte hartze demokratikoa. Familia bizitza eta lan bizitzaren kontziliazioa.
- **Lana:** Lanaren antolaketa kolektiboa, lanpostu motak, bere lanak, erantzukizunak, etab., lan baldintzak pertsonen gustukoak izatea egiten dute eta beti ere bere hobekuntza bilatzea egiten dute.
- **Ingurumena.** Birosta Tabernan janari begetarianoa soilik zerbitzatzen da. Pertsona langileek begetarianismoa kontsumo arduratsuaren modu bat bezala ulertzen dute. Gainera, ahalik eta ekologikoen kontsumitza saiatzen da eta dena bertakoa izatea saiatzen da.

Erabiltzen diren produktuen zati handiena ekologikoak edo/eta Bidezko Merkataritzakoak dira. Beraien instalazioetan kontsumo baxuko bonbillak erabiltzen dira eta aireztapen sistema ere kontsumo baxukoa da. Era berean, CO2 emisioei buruzko ikerketa bat burutu dute Maderas Nobles del Segura enpresarekin. Erabiltzen duten papera %100 birziklatua da (bulego eta sukaldekoa), xaboi ekologikoak eta plastiko ontzien erabilera gutxiengoa. Hondakin guztiak birziklatzen dira. Azkenik, ekonomia solidarioko entitateen zerbitzuei lehentasuna ematen die (seguruak, mezularitza, erreprografia, lanerako arropak, aholkularitza, diseinu grafiko...).



- **Lankidetza.** Kulturarako sarbidea, kontrainformazioa eta pentsamendu kritikoa errazten dute. Tabernak liburuen mailegurako liburutegi bat du, eta hau pertsona bazkideek emandakoetatik elikatzen da. Bertako artisten hileko erakusketak daude. Enpresaren sistema informatiko guztietan software askea erabiltzen da (ordenagailua, erregistratzailea). Erabilera askeko Wi Fi gunea eta iragarki ohola ditugu, hiriko gizarte kolektiboen ekintza guztien berri emateko. Taberna “Del Campo a Casa” kooperatibaren barazki otarren banaketarako Puntu Berde bat da.
- **Irabazi asmorik gabe.** Kooperatibaren mozkin guztiak bertan berriz inbertitzen dira, lan baldintzen, azpiegituren eta ekoizpen bideen hobekuntzarako.
- **Konpromisoa ingurunearekin.** Birosta taberna, La Madalena auzoko «Calle y Libertad» auzo Elkartearekin kolaboratzen du, taberna kokatuta dagoen lekuan. colobra con la Asociación vecinal «Calle y Libertad», del barrio de la Madalena donde está ubicado. Aragoiko komunitatean entitateak REAS Aragoi eta Coop57-an kolaboratu eta parte hartzen du eta estatu mailan, REAS Sareen Sarearekin.

Iraunkortasuna.

Nahiz eta egungo krisia gogorra izan, tabernak jarraitu egin du eta jasagarria da. Nabarmendu behar da, iraunkortasuna COOP 57-ren laguntzari esker lortu dela, Birostak ez baitu kanpoko laguntzarik jaso. Birosta Tabernaren diru sarrerak bere osotasunean jatetxeak eskaintzen duen zerbitzuagatik lortutako fakturaziotik eratortzen dira. Mailegu bakar bat eskatu zaio COOP 57-ri alokatua den lokalaren erreforma egiteko.

Garai okerragoak badaude baina, ekoizpenak Birosta Tabernan lan egiten duten pertsona guztientzat ordainsari duin baterako ematen du.

Erakundeekin lotura.

Birosta Tabernak Zaragozako Gizarte Mugimenduen Koordinakundearekin kolaboratzen du, eta zehazki hau kokatuta dagoen La Madalena auzoko “Calle y Libertad” Auzo elkartearekin. Aragoiko komunitatean REAS Aragoi-en kolaboratu eta parte hartzen du eta estatu mailan, REAS Sareen Sarearekin. Bereziki, Gizarte Merkatuaren eraikuntzan ekintza berezia du. Coop 57 Aragoi-en ere parte hartzen du.

Ondoren pertsona bakoitzak indibidualki hainbat kolektibo eta mugimenduetan parte hartzen du.

Gizarte eta auzoetako mugimenduen kolektibo guztientzat baliabideak eta instalazioak eskaintzen dituzte. Instalazioak hiriko kolektibo askok erabili dituzte sentsibilizazio eta salaketa kanpainetarako (transgenikoen aurkako plataforma, OMSIDA, Greenpeace, IDEAS, Consume hasta Morir, Colectivo Pedalea, Arrebato Kultura Elkarte, etab.). Honekin, Birosta gizarte mugimenduen laguntzarako tresna bat bezala onartua da.

Birosta kooperatiba txiki bat da, horregatik balio handikoa izan zaie REAS eta Gizarte Merkatuaren esparruan sarean egotea, beste jende eta eskarmentuetatik ikasteko.

Erronka nagusiak.

- Gizarte Merkatua finkatzea helburu nagusietako bat da:
“Kontsumitzaile, hornitzaile eta banatzaileen gune bat eraiki, bertan herritarrek gure kontsumo aukera praktikatu dezagun, gizarte konpromisoarekin”. Pertsona ekoizle eta kontsumitzaileen arteko topaketa gunea irizpide etikoekin erlazionatuz. Ohikoa den merkatu baten desberdina, bertan pertsonak eta inguruneak diruak baino pisu handiagoa dute.
- Birosta enpresa proiektuaren iraunkortasun ekonomikoa bermatu eta mantendu, kudeaketaren hobekuntzarekin.



Erakundearen izena: Ecogermen Kontsumo Ekologikoaren Kooperatiba Sozietatea.

Lan-eremua: Kontsumoa - ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena. Produktu ekologikoa keta kontsumo arduratsua.

Lekua: Valladolid, Gaztela eta Leon. Espainia.

Posta elektronikoa: ecogermen@ecogermen.com

Webgunea: <http://www.ecogermen.com/>

Posta helbidea: Plaza Eliptikoa, 15 bis, 47009. Valladolid.

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: kooperatibaren 105 bazkide, hauetatik 63 emakumeak dira eta 42 gizonak.

Jarduerak hasteko urtea: 2003

Sarrera.

ECOGERMEN Kontsumo Ekologikoaren Kooperatiba Sozietatea, irabazi asmorik gabeko kooperatiba bat da, produktu ekologikoen kontsumoa sustatu eta praktikan jartzen du, kontsumo arduratsuan eta elikadura subiranotasunaz informatuz eta prestakuntza emanez.

Ecogermen-en helburuetako bat produktu ekologiko, artisautzako eta bidezko merkataritzako produktuen ekoizpena eta kontsumoa sustatzea da, eta ekoizpena eta banaketa ingurumenarekin errespetutsuak izatea. Era berean, ekoizpenaren gertutasuna sustatzen da eta populazioa finkatzeko, energiaren gastua murrizteko eta kutsadura murrizteko balio izatea. ECOGERMEN-en egiturak bazkideei eta bezeroei, produktuen jatorri ekologikoa bermatzen die, pertsona ekoizleekin dagoen harreman zuzen baten bitartez, dauden ziurtagiri kontrol legalen bitartez (zigiluak) eta kooperatiba beraren ezagutza gehituaren bitartez.

Jatorria.

Egungo Kooperatiba Sozietatea, Ecogermen produktu Ekologikoen Kontsumitzaile Elkartetik sortzen da. Errealitatean, elikadura osasuntsuago bat eta kontsumo arduratsuen baten alde egiten duten pertsona talde baten proiektu baten eboluzioa da, baina ziurrenik sarean kontsumo eskarmentu bat hasi zutenak baino bizitza ikuspegiaren zabaltasun gehiagorekin.

Hauetako pertsona batzuk Kontsumitzaileen Elkartearen sortzeko proiektua, oinarritzko ideia berriekin ulertu zuten:

- Elikagaien aukera zabalago batera sarrera zabaltzea.
- Taldeari produktu horietara sarbidea erraztea, aurreko zailtasunak gaindituz.
- Eskarmentua pertsona gehiagotara irekitzea, herritarren hautabide bat izan ahal izateko.

2003 urteko apirilak 24ean, elkarte berriak bere ibilbidea hasi zuen, leku egonkor batekin produktuetara iristeko eta lanpostuen sorrerarekin, azpiegituraren oinarri bezala, bazkideei hornitzeko.

Elkarteak Zuzendaritza-Batzorde batekin eta Kalitate Komisio batekin funtzionatu zuen, ohiko edo ez-ohiko Batzordeekin batera, elkartearen parte hartze zuzenaren bidea osatzen zuten, eta bertan osoz abal parte hartu zen, ekintza asko sortuz.



Produktu ekologikoen erosketaz gain, diogun bezala, Elkarteak barneko ekintza dinamika bat garatu zuen:

- Gertuko pertsona ekoizle berriak bilatzeko lana.
- Gure kontsumo irizpideetan sartzen ziren produktuak hautatuz.
- Erosketa eta kontsumo ohituren inkesta bat burutuz.
- Gure ezagutzak eta trebetasunak zabaltzeko, sukaldeko errezetak trukatzuz eta sukaldaritzako ikastaroak eginez.
- Informazio eta eztabaida hitzaldiak burutuz, ura, produktu transgenikoak, elikadura subiranotasunari... buruz eta batez ere, ekintzetan egindako parte hartzea eta elkartearen bizitza sendotuz.

Herritarrei zuzendutako ekintza desberdinak ere burutu zituzten:

- Gaztela eta Leongo pertsona ekoizle eta kontsumitzaile ekologikoen lehen topaketa antolatuz.
- Pertsona ekoizleei bisitak antolatuz, beraien bizitza eta lan lekuetan.
- Bertako azoketan eta ferietan, bertako zein estatukoetan, parte harutz, produktu ekologikoen ezagutza eta kontsumoaren zabalkundearen kolaboratzeko.
- Produktu transgenikoen edo azalera handikoen aurkako kanpainetan parte hartuz.
- Hainbat foroetan parte hartuz: Hezkuntza Udalbatza, Valladolid-en, edo Vía Campesina Amayuelas-en,
- Traspinedoko Antiglobalizazio Jardunaldiak...
- Gaztela eta Leon eta beste Komunitate batzuetako beste Kontsumo Sare eta Kontsumitzaile Elkarteekin koordinatuz.
- Germen Ekonomia Alternatiboa eta Solidarioa Sarean parte hartuz, Gaztela eta Leonen.

Azken urtean zehar, elkarteko ohiko ekintzak utzi gabe, egin den ahalegin handiena, Kooperatiba sortzearen bidean, Elkartearen aldaketa juridikoa eta egiturazko aldaketaren ikerketa eta eztabaidan oinarritu da, ondorengoetan oinarrituz:

- Sortutako lan bolumenaren handitzeari erantzuna.
- Jendeari eta beste erakundeei salmenta zabalduta.
- Produktu ekologikoen merkaturatzean leku bat finkatzea, modu etikoan eta ez espekulatiboan.

Gaurkotasuna. 2009eko urtarriletik, kontsumitzaileen kooperatiba bezala funtzionatzen du. Aldaketa nagusiak hauek izan dira:



- Traspaso de las personas socias de la asociación, que así lo han decidido, a socias de la cooperativa, con aportación de capital social y asumiendo las normas que marca la ley de cooperativas, los nuevos estatutos, así como un régimen interno de funcionamiento.
- Bonu edo mailegu solidarioen bitartez inbertsioak, publikoaren salmentarako lokala egokitzeko, eta 2009 urteko amaieran hotzeko furgoneta baten erosketarako.
- Hitzarmen kolektiboari dagokionez, lanpostu egonkor eta hobetuen sorrera, egun 3 langile gara.
- Produktu ekologikoen erosketa eta salmenta baldintzetan hobekuntzak, bai ekoizleentzat bai kontsumitzaileentzat ere (aliantzak, akordioak, komunikazio eta informazio handiagoa, etab.), baita produktu ekologikoen merkatuaren finkatzea ere Valladolid eta Gaztela eta Leonen.
- Dendaren irekiera jendearen aurrean, bazkide, bezero, denda, jatetxe, kontsumo talde eta etxerako zerbitzuetara salmentak eginez Gaztela eta Leonen.



- Fiare Gaztela eta Leonen sorreran parte hartzea, UCTAVA-n (kooperatiben batasuna) eta ASAP-en (herrien elikadura subiranotasunerako batzarra), baita REAS Gaztela eta Leonen jarraipena ere.
- Dibulgazio ekintzen burutzean jarraitzea eta produktu ekologikoen ezagutza eta kontsumo arduratsuaren (ekoizleei bisitak, ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak, feriak, etab.) ezagutza.

Jarduera.

Ecogermen-ek produktu ekologikoen bere merkaturatze eta banaketa ekintza, ekonomia sozial eta solidarioaren testuinguruan garatzen du. Ekonomia sozial eta solidarioaren funtzionamendu irizpideek, ekoizpen-kontsumo zikloan esku hartzen duten pertsona guztien artean berdintasunaren tratuan oinarritutako, harreman ekonomiko mota berri bat garatzea inplikatzeko dute, onurak gizarte helburuak dituzten proiektuetara bideratu, ingurumenarekiko errespetua eta inguruarekin konpromiso soziala eta enplegu duinaren sustapena.

Ecogermen-en helburuak hauek dira:

- Kontsumo arduratsua sustatu, gure kontsumoak ingurumenean, osasunean, ekonomian, etab. sortzen dituzten ondorio edo eraginak aztertu eta baloratu.
- Pertsona kontsumitzaileen parte hartzea eta ekoizpen eta kontsumoaren ziklo osoaren ezagutza.

Helburuak lortzeko hainbat mekanismo erabiltzen dira: pertsona ekoizleekin harreman zuzena, katalogo bate laboratzea jatorria adieraziz, produktuak elaboratzen dituzten enpresen ezaugarriak eta bere inplikazio soziala, hori guztia produktuari erantsitako balio bat izanik.

Ecogermen-en ekintza esanguratsuena irizpide etikoa duten produktu ekologikoen lorpena da, naturarekin modu errespetagarrian lortuak, ingurumenari kalterik egin gabe eta lan baldintza duinekin.

Ecogermen-ek bere baitan pertsona bazkide eta bezeroei hornitzeko gai den zerbitzu bat du, bertako nekazaritza ekologikotik eratorritako produktu kopuru handiarekin. Elikadura produktuez gain, garbiketa pertsonalerako eta garbiketarako (arropa, etxea eta ontziak) beharrak asetzeko produktuak merkaturatzen dira, baita haurren elikadura eta garbiketa produktuak ere.

Kooperatibak ere etxeko banaketa zerbitzua bat eta Valladolid erdian denda bat ditu.



Parte-hartzaileak.

Egun 105 bazkidera iristen dira, 100 bezero partikular baino gehiagora eta 25 enpresa ingurura iristen dira. 100 hornitzaile desberdin baino gehiagorekin egiten dute lan eta momentu honetan 1400 produktu dituzte, nahiz eta bere baliagarritasuna urtean zehar aldatzen doan.

Lorpenak.

Produktu ekologikoen lorpena eta dibulgazio egitura egonkor bat sortu dute, hau da eragin handiena, ekoizleei zuzenean erosiak, bere ekoizpen prozesuaren ezagutza oso handiarekin (elikadura subiranotasuna) eta merkatu arduratsu, informatu, kontziente batean saltzeko gai dira, erabateko argitasunez eta prezioekin eta ekoizleen baldintzekin espekulatu gabe.



Ecogermen-en emaitza batzuk hauek izan dira:

- Kontsumitzen dituzten elikagai eta produktuen jatorriari buruzko ezagutza handiagoa eta kontsumo moduak duen inplikazioen inguruko kontzientziario handiagoa.
- Pertsona ekoizleen esplotazio baldintzen errealitatearen ulermen handiagoa.
- Elikagaien propietatean konfiantza handiagoa, fabrikazio eta banaketa baldintzen arabera.
- Pertsona kontsumitzaileen konpromiso eta inplikazio handiagoa, produktuen lorpen eta salmenta prozesu guztian.
- Feria, topaketa, jardunaldietan, etab. bezalako ekintza bateratuetan parte hartze maila handiagoa.

Erakundeekin lotura.

Ecogermen GERMEN REAS Gaztela eta Leon-en partaide da, ekonomia alternatiboa eta solidarioaren lurralde-sarea da.

Horrez gain, formalki FIARE-ko, Asap- Alianza por la Soberanía Alimentaria de los Pueblos y Uctava- Unión de Cooperativas de Trabajo de Valladolid partaide gara. Gaztela eta Leoneko bai ekoizle taldeekin eta bai beste kontsumitzaile talde batzuekin topaketetan, informazioaren transmisioan, akordio eta ekintzetan ere parte hartzen dute.

Herri Administrazioarekin duten harreman bakarra legala eta formala da.

Sostenibilidad.

Kooperatibaren errentagarritasuna, enpresa bezala, produktuen salmentatik etortzen da.

Erabili ditugun finantza iturriak bazkideen ekarpenak (kapital soziala), mailegu sozialak (ekonomia alternatiboaren tresna) eta Banca Ética FIARE-kin mailegu bat dira.

Hiru langile daude eta 15-20 bazkideen lan boluntarioa ere, Kontseilu Errektorea eta Ikuskatzailearen bitartez, baita sortu ditugun parte hartzeko bi egituren bitartez:

- Erosketen eta Salmenten Komisia, produktu, ekoizle, bazkide eta bezeroekin erlazionatutako guztiarentzat.
- Komunikazio Komisia, kooperatibaren hedapena eta publizitatearekin erlazionatutako guztiarentzat, baita feria, foro, hitzaldi, ikastaroetan, etab. asistentzia eta parte hartzea ere.

Erronka nagusiak.

- Mantendu eta iraunkorrak izaten eboluzionatu.
- Sortzen diren kontaktu eta harremanak hobetu, bertakoekin egitea errazagoa da eta geografikoki urrutirago dauden ekoizleekin zailagoak dira eta sakontasun gutxiago dute.
- Bazkide guztiek prozesuan ez dute maila berdinean parte hartzen, honek praktika onaren eraginkortasuna mugatzen du.
- Zorrotzak izateko eta praktikaren eraginkortasuna bermatzeko, batzuetan ezagutza eta prestakuntza teknikoa falta zaigu.
- Kooperatibaren errentagarritasun ekonomikoa eta soziala hobetu, enplegu gehiago sortu eta proiektu berriak egin ahal izateko. Beraien erosketak, garraio eta salmenta ibilbideak hobetu.



Erakundearen izena: La Ortiga – Kontsumitzaileen Kooperatiba

Lan-eremua: Kontsumoa.

Lekua: Sevilla (Sevilla) Espainia.

Posta elektronikoa: correo@laortiga.com

Webgunea: www.laortiga.com

Posta helbidea: Cristo del Buen Fin Kalea zkia^º4, 41002 Sevilla

Esperientzia osatzen duten kide kopurua:

Bazkide pertsona kopurua: 204 gizon eta 281 emakume

Pertsona kopurua zuzendaritza batzordean: 7

Langile kopurua: 6

Boluntario kopurua: 22

Jarduerak hasteko urtea: 1993

Sarrera.

La Ortiga kontsumitzaileen erakunde bat da, irabazi asmorik gabe, eta 1993 urtetik kontsumo ekologikoa, arduratsua eta solidarioa sustatzen du. Horrez gain, La Ortiga ekonomia alternatiboa eta solidarioaren proiektu bat da eta ondorengo helburuak jarraitzen ditu:

- Produktu ekologikoen kontsumoa eta ekoizpena sustatu
- Nekazal ekonomiaren garapenaren alde egin
- Nekazaritza ekologikoaren onurak zabaldu
- Kontsumo ekologikoaren eta arduratsuaren ohiturak sustatu

Jatorria.

La Ortiga Elkartea 1992 urteko abendura aldera jaio zen, ekoizpen ekologikoa, nekazal garapena eta produktu ekologikoen kontsumoan interesatuta zeuden pertsona talde baten buruan. 1993 urtean sortzen joan ziren ideia haiek gauzatu egin ziren eta La Ortiga funtzionatzen hasi zen, garapen iraunkorarekin kontzientziatuak zeuden ekoizle eta kontsumitzaileen arteko lotura bezala baliatzeko helburuarekin.

Bere hasierako garaietan, La Ortiga egoitza elkar banatzen egon zen beste sevillar kolektibo alternatibo batzuekin, “El Patio” bezala ezagutua zen leku batean, Moratín Kanean kokatuta. Gune alternatibo honen itxierak beste leku batzuk bilatzera behartu zituen. Garai ibildaun honetan zehar, La Ortigak egun desagertuta dagoen “La CEPA” jabetxean pasa zituen hilabete batzuk. Hala ere, denborak, ilusioak eta ondo egindako lanak ekidin ezin zitekeenari aurre egiten lagundu zien: La Ortigak bere kabuz hegan egin behar zuen. Batzarrak lokal propio bat alokatzea erabaki zuen Triana auzoan, Procurador Kanean, hemen hainbat urteetan zehar gizarte ekintza zabal bat egin ahal izan zuten.

1998 urteko uda hasieran erabaki zuten egun duten lokalera aldatzea. Kandlekin argizatzen ziren eta laranjak pisatzeko beraien intuizioaren pisua erabiltzen zuten garai hartatik urte asko pasa dira, eta informatizazioa ezinbestekoa izan zaien garaian barneratuta aurkitzen dira.



Urte guzti hauetan zehar, elkarteak hazkunde esponentzial bat esperimentatu du, ekonomikoan zein gizatarrean. Aldaketa kuantitatibo honek elkartearen etorkizuneko lineak erabakitzera bideratutako lan-talde baten sortzearen beharra egin zuen. Eztabaidetan sei hilabete pasa ondoren, bi erabaki garrantzitsu hartu ziren:

1) Kolektiboaren pertsonalitate juridikoa aldatu, **elkartetik kooperatibara pasaz** eta horrekin, egitura juridiko sendoa, egonkorra, demokratikoa, parte hartzailea eta gizarte izaera indartsu batez hornitzea.

2) **Egungo denda erosketa alternatiboko zentroan bihurtu**. Erosketa beharrak hornitzea posible den zentro bat, ohiko merkataritza-guneetara joan beharrik izan gabe. Ekoizleak eta elaboratzaileak biltzen dituen zentro bat, beraien produktuak helburu ekologiko, etiko, sozialki bidezko batera lotuak dituztenak edo lokalismokoak lekua izan dezaten. Azken batean, bakoitzak zer erosi nahi duen aukeratzea duen zentro bat, ekoizten, merkaturatzen eta eraldatzen duten horiekin lotura estu batekin, esperientziaren printzipioak elkar banatuz.

2001 urteko urriak 22an batzar eratzzailearen deialdia egin zen eta Estatutuak onartu ziren, Kontseilu Errektorea aukeratu zen eta Kontu-Hartzaileak eta izen-ematea eta gizarte kapitalaren ordainketa **80 bazkide sustatzaileengatik** eta hauek guztiak batuta, La Ortigak bere garai berria hasi zuen kooperatiba bezala.

Jarduera.

La Ortiga-k Sevillan bi denda ditu, bata hiriaren erdian eta beste Sevilla Ekialdean. Dendak publiko guztiari irekita daude, beraz, lehenengo egunetik eros daiteke, bazkide izatearen beharrik gabe, nahiz eta bazkide ez direnentzat prezioa %10 handiagoa izan. Dendetan elikagai ekologikoen 1000 erreferentzia desberdin daude eta Estatu guztiko salmenta gunerik nagusienetako bat ordezkatzan dute, mota honetako produktuen barietate eta kantitateari dagokionez. La Ortiga dendan baraztetik zuzenean jaso diren barazki eta fruituak aurki daitezke, beraien zapora eta propietate guztiekin. Landa guneak, guztiak, Sevillako lurraldean kokatuta daude, hori dela eta, elikagaiak ez dira hozkailuetatik pasa.

Era berean, familia kontsumitzaileen erakunde bat da eta bere elkarte-ehunean nekazari txikiak eta ekoizpen ekologikoko kooperatibak barneratzen ditu, horiek guztiak ingurune geografiko gertuenean kokatuak. Kontsumitzaile eta ekoizle ekologikoen artean dagoen harreman estuak, nekazariak beraien uztengatik bidezko prezio bat jasotzea posible egiten du eta duintasunez bizi ahal izatea. Modu horretan, kontsumitzaileek elikagai osasuntsuak eta ingurumenarekin errespetagarriak diren elikagaiak eskuratzeagatik arrazoizko prezio bat ordaintzea posible egiten du, bitartekariak ahalik eta gehien ekiditen.



Elkarteak nekazarien kooperatibekin bateratuta egiten dute lan eta akordioetara iristen dira, beraien uztak bidezko prezio batean saldu ahal izateko, eta bitartekariak ahal den gehien ekiditen, prezioak eskuragarriak dira kontsumitzaileentzat.

La Ortiga-rekin lan egiten duten ekoizle guztiek nekazaritza ekologikoa lantzen dute, hau da, pestizidak eta elementu kimikoak alde batera uzten dituen nekazaritza bat. Aldiz, landa birakor bat burutzen dute, ongari naturalak erabiltzen dituzte eta izurriteen kontrol biologiko bat erabiltzen dute. Modu honetan, ez dute kutsatzen eta landa lurraren produktibitatea modu naturalean mantentzen dute.



Parte-hartzaileak.

La Ortiga-n bazkideen Batzarra kontsumitzaileen kooperatibaren organo gorena da. Kontseilu Errektorea erabaki hartzearen organorik garrantzitsuen da; gobernuaren organoa da, kooperatibaren kudeaketa eta ordezkaritza, 7 pertsonaz osatuta dago (2 gizon eta 5 emakume) eta bi urtetik behin Batzarraren bitartez egiten da aukeraketa. Kontseiluaren bilerak hamabostaldian behin egiten dira. Bileren ordezkaritza, koordinazioan eta moderazioan ardurak dituzten Lehendakaria eta Lehendakariordetzaz osatuta dago, baita Idazkaria eta lau bokal: Sentsibilizazioa eta Komunikazioa, Prestakuntza eta Kultura Ekintzak, Ekimenak eta Proiektuak eta Denda eta Kalitate Kontrola.

Bokalen talde bakoitza, era berean, bazkide boluntario talde batez osatua dago, Batzarrean aukeratutako bokalari lagunduz, dagokion bokal taldeei eskatutako funtzioak garatzen ditu.

Parte hartzea, La Ortiga Kontsumitzaileen Kooperatibaren esentzia, gardentasuna, aniztasuna eta arduren asignazioan erreleboaren sinonimo da.

Ekoizle eta kontsumitzaileek elkarren artean elaboratzen duten ekoizpen eta hornidura politika.

Bazkide ekoizleak 4 dira eta barazkien %80 eta fruituen %25 hornitzen dute:

- 1.- Gregorio Díaz (El Laurel Lursaila): Aita, ama eta alabak lan egiten duten familia ustiapen txikia, batzuetan hirugarrenen lana behar izaten dute.
- 2.- REPLA, S.C.A: Lurra okupatu eta ondoren eman izan zitzaizen antzinako jornalarien kooperatiba. Bere bazkide ekoizleek lantzen dute bere familiarekin batera.
- 3.- Agrícola Pueblos Blancos S.C.A.: Ekoizle txikien nekazal kooperatiba, hauetako batzuk antzinako jornalariak.
- 4.- Antonio Mulero (Los Tamayos Lursaila): Familia guztiak lan egiten duen familia ustiapen txikia.

Lorpenak.

La Ortiga, egun, proiektu sendo bat da, bere hazkunde iraunkorra eta neurrizko Sevillan errealitate bat da. Eta hori guztia, 1992 urtetik beraien denbora eskaini duten pertsona guztien sinestarazte eta ahaleginari esker, proiektu komun, askea, solidarioa eta osasungarri baten alde. Era berean, ekonomia alternatiboa eta solidarioaren proiektu bat bezala ezagutzen da.

Gaur egun taldea 500 familia baino gehiagok osatzen dute, osasuna, ingurumena eta bertako ekonomiarekin kezkatuta daudenak.

La Ortiga ez da produktu osasuntsuagoak eta ingurumenarentzat hobek diren produktu ekologikoen denda arrunt bat. La Ortiga ekonomia eredu berri bat sortzeko kezkatuak dauden kontsumitzaileen talde bat da, ez da onura ekonomikoetan oinarritzen, ingurumenarekin eta gizartearen ingurunearekin kontsumo ohitura arduratsu batzuk dituzte, eta irabazi asmorik gabeko erakundea dela diote:

- Demokratikoa eta gardena erabaki hartzean eta kudeaketan.
- Ekoizleekin zuzeneko harremana mantentzen dute, justizian eta konfiantzan oinarrituta, modu honetan ekoizle eta kontsumitzaileentzat kalitate eta prezio hobeagoak bermatuz.
- Langileek, gizon zein emakumeek, lan baldintza duinak dituzte.
- Kontsumitzaileak beraiek dira taldearen kudeaketaren arduradunak; erakundean parte hartzeko eskubidea dute eta informatuak egoteko eskubidea dute.



Elkarteekin lotura.

- Kontsumitzaile eta Ekoizle Ekologikoen Andaluziar Federazioa (FACPE): Produktu ekologiko eta artisauen kontsumitzaile eta ekoizleen elkarte eta kooperatiben talde bat da, helburu komun bat betetzeko elkartuak: Kontsumo ekologiko, arduratsua eta solidarioaren sustapena eta bultzada. www.facpe.org.
- Kontsumitzaile eta Ekoizle Ekologikoen Erakundearen Estatuko Koordinakundea: Estatuko kontsumitzaile eta ekoizle ekologikoen 28 erakunde biltzen ditu.
- Ekoizpen Ekologikoaren Mahai Andaluziarra (MAPE).
- Andaluziako Kontsumo Arduratsuaren Plataforma: www.consumoresponsable.com
- Andaluzia Transgenikoetatik Aske baten aldeko Plataforma:
- Fiare Hegoa: Banca Ética Proiektua www.fiare.org
- Red Decrecimiento Sevilla.

Iraunkortasuna.

Kooperatibaren finantzazio iturri nagusia salgaien salmentak dira, ondoren bazkideen kuotak jarraitzen dio (50 €/urteko) eta ingurumenaren sentsibilizazio proiektuak edo nekazaritza ekologikoaren sustapen proiektuak garatzeko laguntza publikoak jarraitzen diote.

Erronka nagusiak.

- Produktu ekologikoen kontsumoa eta ekoizpena sustatu.
- Familia eta landa nekazaritzaren garapenaren alde egin.
- Nekazaritza ekologikoaren onurak zabaldu.
- Kontsumo ekologiko eta arduratsuaren ohiturak sustatu.





Erakundearen izena: Landare-Produktu ekologikoen kontsumitzaile-taldea.

Lan-eremua: Kontsumoa - merkaturatze eta trukea, parte-hartzean oinarritutako kudeaketa. Produktu ekologikoen sustapen eta merkaturatzea, bizi-eredu eraldatzaileen hedapena eta haiei buruzko sentsibilizazioa.

Lekua: Iruñea (Nafarroa).

Posta elektronikoa: pedidos@landare.org

Webgunea: www.landare.org

Posta helbidea: Bernardino Tirapu, 29, behea - Iruñea. Errondua, 4, behea - Atarrabia

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 1.300 bazkide: 592 emakume eta 708 gizon

Jarduerak hasteko urtea: 1992

Sarrera.

Landare elkarteak produktu ekologikoen kontsumitzaileak biltzen dituen irabazi asmorik gabeko elkarteak da. Duela hogeita urte sortu zen, kalitate bermatuko produktuak saltzeko, denda espezializatuetan baino merkeago. Merkataritza-eredu berri bat sortu nahi zuten, halaber, nekazariekin harreman zuzena izanik, zirkuitu laburrak aukeratuz eta produktuen balioa finkatzeko garaian, prezioari ez ezik ekoitziak izan diren ingurune bakoitzeko balioei ere erreparatu. Produktu guztiak biologikoak dira, eta elkarteko kideei zuzentzen zaizkie bakarrik. Bestalde, sukalde txiki bat, liburutegia eta umeentzako jolas-leku txiki bat dauzkate. Bizi-kalitate hobea lortu nahi duten pertsonen arteko harremana bultzatzea eta nekazaritza ekologikoaren garapena sustatzea ere elkartearen helburuak dira.

Jatorria.

Landare elkarteak produktu ekologikoen kontsumitzaileak biltzen dituen elkarteak da. Gaur egun, 1.300 bazkide ditu. Iruñeko lokalaz gain, beste bat daukate Atarrabian.

Hauek dira beren helburu nagusiak:

- Ingurumena babesten duten elikagai eta produktu ekologiko bermatuak eskaintzea elkarteko kideei.
- Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoko eta bidezko merkataritzako produktuentzako merkataritza-sare labur eta bidezkoa sendotzea.
- Kontsumo kontziente eta arduratsua bultzatzea.
- Ekoizleak eta kontsumitzaileak harremanetan jartzea.

Helburu horiek lortzeko, bi denda ditu elkarteak. Kideek bertan erosi ditzakete produktu ekologikoak.

Jarduera.

Landarek bi biltegi ditu. Elkarteko kideek elikagaiak eskuratzen dituzte bertan eta batzuk besteekin elkartzeko eta beren ezagutzak banatzeko topalekua dira biltegiok. Urtean zehar 60 bat ikastaro antolatzen dituzte, dohainik. Elkarteko kideak beraiek dira ikastaroak ematen dituztenak, eta era askotako gaiak jorratzen dituzte: sukaldaritza-eskolak, konposta egiteko eskolak, yoga eta tai-txi saioak...



Produktu biologikoen merkaturatzeari dagokionez, Landare beti saiatu da denda tradizionaletan askoz garestiagoak diren produktu horiek merkeago eskaintzen, diru-sarrera txikiagoak dituztenek ere eskuratu ahal izan ditzaten. Horretarako, harreman zuzena izaten dugu ekoizle eta nekazariekin, gertuko kontsumoa bultzatzen dugu eta bitartekaritza-marjinak murrizten ditugu.

Horrez gain, REAseko eta Kontsumo Elkartearen Federazioko kideak gara. Era berean, Nafarroako Nekazaritza Ekologikoa Erregulatzeko Organoan batzordekide bat daukagu.

Auzoetako festak antolatzen parte hartzen dugu eta kalean sentsibilizazio-kanpaina bat edo bi egiten dugu urtean.

Landararentzat, horrela kontsumitzea eraldatze-prozesu bat da: eraikitzeke beste eredu bat dakar kontsumo-mota horrek, jendea kontzienteagoa da, ardura handiagoaz jokutzen du eta gehiago partekatzen du.

Parte-hartzaileak.

Landare elkarteak zortzi lagunez osatutako batzorde batek zuzentzen du. Horrez gain, hamabi profesional ditu, eta urtean behin gutxienez, bazkideen batzarra deitzen du. Itxuraz hain egitura formala izan arren, organismo bizia da erakundea. Elikagai transgenikoak guztiz baztertzen ditugu eta elkarteko kidea izatea beste modu batera bizi dugu, nahitaez bete beharreko arau hau da horren adibide garbiena: bazkide guztiek jardueraren batean parte hartu behar dute urtean bi orduz.

Landareko 1.300 bazkideek elkartearen jardunean parte hartzen dute, beraz, bai dendan lagunduz, bai Landarek sustatzen dituen balioak bultzatuz tailerren bidez. Aste horrelako jardura bat egiten da gutxienez. Batzuek aste batzuk irauten dute, eta bakoitzean hamabost lagunek parte hartzen dute gutxienez.



Dendaren proiektuan laguntzeko, bazkideek ordu batzuk eman behar dituzte urtean bai dendan bertan (produktuak txukuntzen, denda garbitzen, prezioak jartzen...), bai elkarteko langileei laguntzen. Esan bezala, bazkideek urtean bi ordu eman behar dituzte gaur egun, eta bi ordu horiek betetzen ez badituzte hogeit hamar euroko ez ohiko kuota kobratzen zaie.

Elkarteko kideek boluntario-lana egiteko beste aukera bat da tailerrak prestatzea (masajea, josteta, Bach loreak, makrobiotika...) gainerako bazkideentzat, elkartearen helburuekin bat datozen gaiei buruz, betiere: osasuna, ingurumena, ekologia, kontsumo arduratsu eta kontzientea, janari begetarianoa eta berrerabiltzea.

Ikusten dugunez, beraz, Landareko bazkideek bi zerbitzu-ordu betetzen dituzte urtean. Horrez gain, elkartearen pentsamoldea eta jarduna sektoreetan garatzen dituzten batzordeak dauzkagu. Tailerrak bazkideek beraiek ematen dituzte, dagozkien bi ordu horietan. Tailerretako batez besteko parte-hartzea hamabi lagunekoa izaten da.

Lorpenak.

Produktu ekologikoen kontsumitzaileak bildu eta bere lokal propioa izateaz gain, aldi berean, sentsibilizazio-jardueren bidez kontsumo arduratsua bultzatzen duen Nafarroako elkarte bakarra da Landare.

Hamazazpi urteko ibilbidearen ostean hasieran baino 40 aldiz handiagoa da elkarteak gaur egun. 4.000 pertsona baino gehiago elikatzen dira Landareren dendako produktuekin eta Errotxapea auzotik Iruñeko beste auzo batzuetara hedatzeko asmoa daukate orain.



Erronka nagusiak.

Nekazaritza-produktu ekologikoen eta bidezko merkataritzako denda martxan jarri zenez geroztik, elkarreak argi izan du bere jarduera ezin zela mugatu produktuak merkaturatzera eta, hortaz, denda bat baino gehiago izan behar zuela.

Hori dela eta, sentsibilizazioa lantzeko eta boluntarioritza sustatzeko jarduerak antolatzen ditugu gure filosofiari eusteko, eta, horri esker, elkarteko kideek Landare ezagutu eta kontsumo arduratsua sustatzeko, hartu-emanerako eta sentsibilizazio-lana egiteko gunetzat hartzen dute.

Erakundeekin lotura.

Landare Nafarroako REASeko eta estatuko REAS – Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Sareko kide da.

Era berean, erlazioa dauka Errotxapea auzoko jai-batzordearekin, auzo-elkartearekin, Nafarroako Kontsumitzaile Taldeen Sarearekin, Transgenikoen aurkako Plataformarekin eta Sos Arantzadirekin.

Iraunkortasuna.

Landare duela hamazazpi urte sortu zen, ingurunearekiko kezka eta elikadura osasuntsuarekiko interesa zeukan lagun-talde txiki batek bultzatuta. Produktu ekologikoen kontsumitzaileak bildu eta produktuak saltzeko eta bazkideak elkartzeko bere lokal propioa duen Nafarroako elkarte bakarra da Landare gaur egun.

Urteotako ibilbideari jarraiki, hasieran baino 40 aldiz handiagoa da elkarrea orain, nafarrek produktu ekologikoekiko duten interes gero eta handiagoaren adierazgarri (azken hamarkadan handitu da bereziki interes hori). 1.300 familia dira Landareko kide, eta gure elkarteari esker 4.500-5.200 lagunek janari ekologikoa hartzen dute. Hazkunde bizkor horrek Donibaneko lokal txikitik Bernardino Tirapu kaleko lokalera aldatu beharra ekarri zuen.

Landareren arrakasta ikusita, proiektua beste auzoren batera zabaltzeko aukera aztertzen ari dira bazkideak orain. Bazkideek 36 euro ordaintzen dituzte urtean, bankuko kontuen bidez.

Landarek 12 langile dauzka eta merkaturatze-jarduera da bere finantzazio-iturri bakarra.



Fórum Brasileiro
de Economia Solidária

Erakundearen izena: Brasilgo Ekonomia Solidarioko Foroa

Lan-eremua: Ekonomia solidarioaren sustapena.

Lekua: Brasil

Posta elektronikoa: forum@fbes.org.br

Webgunea: <http://www.fbes.org.br/>

Posta helbidea: SCS Quadra 6 Bloco A - Edifício Arnaldo Villares, sala 514 - Brasília - CEP: 70.324-900

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: Ekonomia solidarioko programak garatzen dituzten 3.000 bat ekimen solidario, gizarte zibileko 500 erakunde (udal-mailakoak, estatu-mailakoak eta Brasil osokoak), ehun udalerrri eta estatu-mailako sei estatu.

Jarduerak hasteko urtea: 2003

Sarrera.

Brasilgo Ekonomia Solidarioko Foroa (aurrerantzean FBES) ekonomia sozial eta solidarioa aldarrikatzen duten hainbat eragilez osatutako espazio soziala da.

Mugimendu sozial hau Munduko I. Foro Sozialal²¹ —Porto Alegre, 2001— eta gero eratu zen, ekonomia solidarioko gaietan gizarte zibila eta estatua egituratzeko asmoz. Barreiatuta dauden hainbat eragileren eskaerak antolatzea eta bideratzea lortu zuen.

Eratu zenetik, etengabe garatzen eta hazten joan da Brasilgo ekonomia solidarioaren aldeko mugimendua. FBES erreferentziatzko espazio bat da mugimendu horren barruan, eta eragile desberdinen arteko sinergiak bideratzen ditu, denen artean sare, kate eta espazio solidarioak sortzeko Brasilen.

Jatorria.

FBESen jatorriak lotura estua du Munduko I. Foro Sozialarekin (Porto Alegre, 2001). Topaketa hartan, jende asko elkartu zen ekonomia solidarioko eta lan autogestionatuko mintegietan: GKEtako jendea, elizetakoak, sare eta mugimendu sozialetakoak, enpresa autogestionatuetao langile-erakundeetakoak... Esparru horretako lana egituratzeko beharrari erantzunez Brasilgo Ekonomia Solidarioko Lan Taldea sortu zen.

Hurrengo bi urteetan lanean jardun zuen talde horrek, harik eta egindako jarduerak Brasilgo Ekonomia Solidarioko Foroan bat egin zuten arte. 2003an gertatu zen hori, Ekonomia Solidarioko III. Batzar Nazionalan. Bilkura hartan Ekonomia Solidarioko Idazkaritza Nazionalaren (SENAES, ikus dossierra) sorkuntzaren berri eman zen halaber. Brasilgo Lan eta Enplegu Ministerioaren mende zegoen idazkaritza. Batzarrak erabakitakoaren arabera, FBESen ardura izango zen Brasilen ekonomia solidarioaren oinarriak egituratu eta mobilizatzea, bilkuran bertan onartutako *Printzipioen Gutuna* eta *Borrokarako Plataforma* oinarritzat hartuta. Era berean, foroaren osaera eta funtzionamoldea finkatu ziren eta gune horren eta SENAESen arteko harreman estuko prozesu bati ekin zitzaion, bi alderdien interesei erantzuten zien hartu-eman sendoa bultzatzeko asmoz.

Parte-hartzaileak.

FBESen egituratutako ekonomia solidarioaren mugimendua erregio- eta udal-mailako ehun forok eta estatu-mailako 27 forok osatzen dute.

Foro horietan Brasilgo ekonomia solidarioaren esparruko hiru zutabeek parte hartzen dute: ekimen ekonomikoek, aholkularitza- eta sustapen-erakundeek eta politika publikoen kudeatzaileek.

²¹ Munduko Foro Soziala: "ideiak, gogoetak eta proposamenak trukatzeko eta demokratikoki eztabaidatzeko eta neoliberalismoaren aurka, inperialismo-molde guztien aurka eta mundua kapitalaren mende egotearen aurka dauden mugimendu sozialak, sareak, GKEak eta gizarte zibileko bestelako erakundeak egituratzeko gunea da" (Iturria: http://www.forumsocialmundial.org.br/main.php?id_menu=19&cd_language=4).



- **Ekimen ekonomiko solidarioak** erakunde kolektiboak, familiaz gaindikoak, singular eta konplexuak dira, hala nola, kooperatibak, elkarteak, enpresa autogestionatuak, truke-taldeak eta ekoizpen-talde eta -sareak. Parte-hartzaileek bazkide gisa egiten dute lan, hiri- nahiz landa-ingurunean, eta beren jardueren kudeaketa eta administrazioa modu kolektiboan egiten dute, emaitza ekonomikoetan parte-hartze bat izanik. Batzuek lege-erregistroa dute, beste batzuek ez, eta era askotako jarduera ekonomikoak garatzen dituzte: ondasunen ekoizpena, zerbitzuen prestazioa, kredituak, merkaturatzea, kontsumo solidarioa...
- **Aholkularitza- eta sustapen-erakundeak** ekimenei babesa emateko ekintzak egiten dituzten erakundeak dira. Gobernu kanpoko erakundeak, sindikatuak, elizak eta unibertsitateak daude multzo honen barruan, eta era askotako jarduerak egiten dituzte: trebakuntza, aholkularitza, ikerketa, babesa, laguntza tekniko, antolakuntza-alorreko laguntza, kredituaren sustapena, etab.
- **Kudeatzaile publikoen** artean, udal eta probintzietako gobernuek ekonomia solidarioaren alorrean garatzen dituzten politika publikoak formulatu, gauzatu, aplikatu edota koordinatzen dituzten estatuko organismoak daude, besteak beste.

Ekonomia solidarioko programak lantzen dituzten 3.000tik gora ekimen solidariok, gizarte zibileko 500 erakundek (udal-mailakoak, estatu-mailakoak eta Brasil osokoak), ehun udalerrik eta estatu-mailako sei gobernuk parte hartzen dute FBESen.

Jarduera.

La creación del FBES estuvo orientada por tres objetivos principales: (i) desarrollar un sistema de finanzas solidarias; (ii) desarrollar cadenas productivas solidarias; (iii) construcción de una política pública en un Estado democrático con peso y capacidad suficiente para constituir a la economía solidaria en un sector económico, distinto de la economía capitalista y de la economía estatal. Para avanzar hacia estos objetivos y darle seguimiento los integrantes del FBES definieron al mismo tiempo una Plataforma de Lucha compuesta por siete ejes que retoman los principios reseñados:

(i) **finantza solidarioak**: eskakizun hauek sartzen dira hemen: ekonomia sozialeko ekimenak indartzeko funts nazional bat sortzeko eskatzen zaio Estatuari, kudeaketa deszentralizatua eta hainbat iturri izango dituena (udal-mailakoa, eskualde-mailakoa, nazionala eta nazioartekoa); txandakako funtsen esperientzia zabaltzeko eta udal-mailako finantza-erakundearen sarea (kreditu-kooperatibak, kooperatiba-banketxeak, GKEak, gobernuaren programak... biltzen dituen sarea) indartzeko eskatzen da, halaber; Estatuak mikrofinantza-erakundeak eta finantza solidarioko erakundeak indar ditzan eskatzen da eta, azkenik, udal-garapenera bideratutako politika bati jarraiki, finantza solidarioen sistema nazionala eratzeko.



(ii) **lege-esparrua**: ekonomia solidarioaren interes eta beharrei erantzuteko, gizarte-segurantzaren eta zerga-politiketan egin beharreko aldaketak jasotzen dira hemen. Ekonomia-eredu horrentzako esparru juridiko espezifikoak eskatzen da, sektore estatalaren eta merkataritza-sektore pribatuaren aldean dituen desberdintasunak legeaz aintzat hartzen dituena eta ekonomia solidarioak berezkoak dituen figurak (erosketa kolektiboak, azokak, txanpon soziala darabilten truke-sistemak, nekazaritza familiarra...) jasotzen dituena. Kooperatibentzat eta enpresa autogestionatuentzat legeria berria onartzea eskatzen da, bai eta printzipio solidarioak oinarritzat hartuta lana antolatzeko dauden bestelako ereduak onartzea estatuak.



(iii) **hezkuntza**: hezkuntzako maila guztietan ekonomia solidarioako programak lantzea; ekonomia solidarioari buruzko ikasketa eta ikerketak finantzatzea; emakumeen eta gazteen beharretara egokitutako lanbide-heziketa; erreferentzia-zentro publikoak sortzea.

(iv) **komunikazioa**: dauden hedabideak ekonomia solidarioaren baloreak zabaltzeko eta herritarrak sentsibilizatzeko erabiltzea proposatzen du Plataformak.

(v) **ekoizpen-, merkaturatze- eta kontsumo-sareak**: udal-, eskualde, herrialde- eta nazioarte-mailan indartu eta egituratu behar dira sareok, auto-iraunkortasuna bultzatuz eta bakoitzaren ezaugarriak errespetatuz; ziurtatze-zigiluari eta markei buruzko eztabaidan sakondu behar da; gobernuek ekonomia solidarioako produktuak erosi ahal izateko mekanismoak sortu behar dira.

(vi) **ezagutzaren eta teknologiaren demokratizazioa**: ekonomia solidarioa egokitutako teknologiak garatu behar dira unibertsitate, ministerio eta organismo federaletatik.

(vii) **ekonomia solidarioako erakunde sozialak**: ekonomia solidarioa bultzatzeko politikez arduratuko litzatekeen Ekonomia Solidarioarako Idazkaritza Nazionala sortzea proposatzen du Plataformak puntu honetan. FBESekin harremanetan jardungo luke Idazkaritzak, eta aipatutako ardatzak jasoko lituzkeen politikak (zeharkakoak, diziplinartekoak eta sektore artekoak) sortzeko eskumena izango luke.

Erakundeekin lotura.

Ekonomia solidarioaren alorrean diharduten eragileak koordinatzeko gune gisa sortu da FBES. Halere, bere jardunean, zuzen-zuzenean ekonomia solidarioan ez dabiltzan Brasilgo erakunde, organismo publiko eta enpresa pribatu askorekin egiten du lan.

Nazioarteko erakunde eta organismoekin ere lankidetzan jarduten du, Ekonomia Solidarioa Sustatzeko Kontinente arteko Sarearen (RIPESS) barruan, bereziki Latinoamerikako erakundeekin.



Lorpenak.

Foro sortu zenetik, ekonomia solidarioako ekimenak asko ugaritu dira Brasilen. 2003an Brasilgo bost estatutan zeuden halako ekimenak. 2006az geroztik, estatu-mailako foroak daude Brasilgo 27 estatutan. Foroak izandako lorpenen artean SENAESen sorrera aipatu dezakegu, zuzendaritza-egitura nazionalaren barruan ekonomia solidarioak leku instituzional espezifiko izatea lortu baitzuen. Horrekin batera, Ekonomia Solidarioarako Kontseilu Nazionalaren sorrera azpimarratu behar dugu, halaber.

Ekonomia Solidarioako Mugimendua gobernuan integratzeko politikari jarraiki, honako lorpen hauek nabarmendu ditzakegu: Ekonomia Solidarioari buruzko Txosten Nazionala, Nekazaritza Familiarreko Sarearen Azoken Programa Nazionala, ekonomia solidarioan trebatzeko ikastetxe publikoen eraikuntza, Merkataritza Solidario eta Bidezkoaren Sistema Nazionalerako proposamena eta merkaturatze solidarioarako politika.

Udal- eta estatu-mailako foroek ere ekonomia solidarioa bultzatzeko udal- eta probintzia-mailako hainbat lege onartzea lortu dute.

Lege-esparruari dagokionez, Kooperatibismoaren Lege Orokorra aldatzeko egindako mobilizazioen eta negoziazioaren indarra eta koordinazioa lorpen handia izan zirela nabarmentzen du FBESek.



Iraunkortasuna.

Ekonomia solidarioa bultzatzeko eta hura sustatzen duten politikak definitzeko eragile garrantzitsua bihurtu da FBES. Hiru zutabez osatutako egiturak oinarri sendoa ematen dio printzipioak eta jarduera-ildoak formulatu, eztabaidatu eta berrikusteko. Era berean, SENAESekin duen lotura estuak mugimenduaren oinarriak indartzen laguntzen du eta politikak formulatu eta diseinatzeko duen ahalmena areagotzen du.

B
i erakundeen artean desadostasunak egon daitezkeen arren, biek ala biek bilatzen dute interes ekonomiko, sozial eta politikoen truke kualifikatu bat bultzatzea, eta horretarako mendekotasun-politika tradizionalak gainditu nahi dituzte, erakunde sozialen autonomia indartu eta haien garapena bermatzeko. Era berean, bat datoz beren printzipioetan eta borrokarako plataforman, eta proposatutako ardatzetan sakontzen jarraitzen dute, elkarleen lana, autogestioa eta lankidetzeta, jabetza kolektiboa funtsezko irizpidetzat dituen egitura batetik abiatuta.

Erronka nagusiak.

Lorpen handiak eta, bereziki SENAES sortzeari esker, instituzionalizazio-maila handia lortu badira ere, oraindik **hobeto definitu** behar da FBESek zein **zeregin politiko eta estrategiko** beteko duen bestelako gizarte-proiektu bat eraikitzeko prozesuan.

FBESek hainbat kritika egiten dizkio egungo gobernuari. Adibidez: FBESeko kideen iritziz, ekonomia solidarioari oso garrantzi gutxi ematen zaie gobernuaren aurrekontuetan eta agendan.

Ekonomia solidarioa sustatzeko politikez gobernuak egiten duen interpretazio mugatua salatzen dute, halaber, politika horiek lana lortzeko neurriekin lotzen baitituzte bakarrik. Hala, politika horiek ez dute aintzat hartzen ekonomia solidarioak zer-nolako papera jokatu lezakeen, komunitatean oinarritutako garapen endogeno, ekologiko eta solidarioa lortzeko estrategia gisa. FBESek gaur egun duen erronketako bat da eraldaketak sustatzea, baina bi norabideetan.



Erakundearen izena: Secretaria Nacional de Economia Solidária (SENAES)

Lan-eremua: Ekonomia solidarioaren sustapena.

Lekua: Brasil

Webgunea: http://www.mte.gov.br/ecosolidaria/secretaria_nacional_apresentacao.asp

Posta helbidea: Esplanada dos Ministérios Bl. F Sede 3º Andar - Sala 331 CEP: 70059-900 Brasília - DF

Jarduerak hasteko urtea: 2003

Sarrera.

Secretaria Nacional de Economia Solidária – SENAES, Brasilgo Lan eta Emplegu Ministerioaren barne dagoen idazkaritza da, bere funtzio zehatza ekonomia solidarioaren esparruan garatzen diren esperientziak indartzea eta laguntzea delarik.

Idazkaritza 2003an eratu zen ekonomia solidarioaren esparruko aipatutako esperientzia hauek Brasilgo garapen ekonomiko, sozial eta kulturalean duten eragina eta garrantzia aintzat hartuz. Aldi berean, gobernu federalaren ahalegin zabalago baten barne koka dezakegu, pobreziaen aurka borrokatzeko eta lanpostu eta diru sarrerak sortzeko politiken osagarri bezala.

SENAES ekonomia solidarioko erakundearen funtzionamenduarentzat giro aproposago bat lortzeko asmoarekin sortzen da, ohiko menpekotasun praktikekin amaitu eta esperientzien autonomia bermatzeko, elkarre sozialaren indarketa eta garapenaren bidetik abiatuz.

Jatorria.

SENAESen jatorria Fórum Brasileiro de Economia Solidária –FBESaren sorrerarekin oso lotuta dago, biak Lehen Munduko Gizarte Foroaren ospakizunarekin (Porto Alegre, 2001eko urtarrila) lotuta dauden bezala (FBESaren fitxa dossierrean dago ikusgarri).

Topaketa honetan ekonomia solidarioa eta lan autokudeatutako gaiak parte hartzaile ugari bildu zituzten, GKE, eliz elkarre, sare eta mugimendu sozial eta enpresa autokudeatutako langileen elkarreetatik etorritakoak. Arlo honetako eginkizunak koordinatzeko Grupo de Trabalho Brasileiro de Economia Solidária taldea eratu zen, zein Ekonomia Solidarioaren 3. Nazio Osoko Bileran FBES bilakatu zen. Bilera honetan nazioko Lan eta Enplegu Ministerioaren barne Secretaria Nacional de Economia Solidária idazkaritza sortuko zela ere iragarri zen.

Erabaki hau gobernu federalaren erantzun positibotzat har daiteke ekonomia solidarioaren eremuan egindako manifestaldi eta mobilizazioak ikusita (mintegiak, asanbladak, forumak, elkartruke sareak eta abar). Bestalde, lan eta enplegu politiken aldaketa sakon baten adierazle izan daiteke ere, lan egiteko era berriak (elkarre-lana, kooperatibak) bere baitan hartzen dituzten politiken beharra aitortuz eta eskubideak langile talde osoari zabalduz.



Jarduera.

- SENAESen ekintzak *Economia Solidária em desenvolvimento* programaren barne daude. Programa hau idazkaritzak sortu zuen eratu eta 6 hilabetera eta oso esanguratsua izan da nazio mailan ekonomia solidarioarako politika publiko espezifikoak ezarri dituelako.
- Hasieratik SENAESek FBES plataformarekin elkarrizketa piztu nahi izan du, bere helburua gizartearekin harreman estua mantentzea baita. Goian aipatutako programaren ezaugarririk garrantzitsuenak *zeharkakotasuna* eta *intersektorialitatea* dira, gobernu federalaren beste lan eta diru sarrerak lortzeko politikekin, pobrezia kontrako ekintzekin eta gizarteratze programekin koordinatuta egoteko.
- Bere eginkizunen artean, besteak beste, ondorengoak daude: ekimen ekonomiko solidarioei aholkularitza eta babesa ematea; lankidetzaren sormena eta indarketa; ekimenen aukerak handitu kate produktibo eta erakunde sareen bitartez lotuta lan egiteko; azokak ospatzea eta sustatzea; bidezko merkataritza eta kontsumo kooperatiboa babestea; herri banku eta diru-zorro solidarioetan oinarritzen diren finantzak bultzatzea; bestelako aktoreekin koordinatzea eta lankidetzaren hitzarmenetara heltzea ekonomia solidarioaren esparrua indartzeko; politika publikoen inizatibaren sistematizazioa behategi baten sorreraren bitartez (*Observatório de Políticas Públicas de Economia Solidária*); arlo honi buruzko ikerketen garapena erraztea; langile, politika publikoen kudeatzaile eta administrazioen trebakuntza eskaintzea eta tokiko garapena sustatzea.

SENAESen eginkizunen artean gizarte zibileko ordezkariarekin koordinatzea dago ekonomia solidarioarekin erlazionatutako politiken lehentasunak aztertzeko eta zer ildo nagusi hartuko duten erabakitzeko. SENAESen beste betebeharren artean: sektorearekin lotuta dauden programen plangintza, kontrola eta ebaluazioa egitea; pobrezia eta langabezia kontrako eta garapenaren aldeko programak aurrera eramateko gobernu erakundeekin koordinatzea; lankidetzan, solidaritatean, gizakien eta ingurugiroaren errespetuan oinarritutako ekoizpen eta kontsumorako harreman sozialak piztea; ekonomia solidarioaren sektorearentzat sustapen-neurriak proposatzea; mikrofinantza eta finantza solidarioarako politikak bultzatzea; mugimendu sozialekin, ekonomia solidarioaren esparruko agentziekin, finantzatzaile solidarioekin eta kooperatibismoaren barne lan egiten duten erakundeekin hartutako hitzarmenak ikuskatu eta ebaluatzea daude.



Parte-hartzaileak.

SENAESen ekintzak Brasilgo ekonomia solidarioaren esparrua osatzen duten hiru atal desberdinei zuzenduta daude: (i) ekimen ekonomiko solidarioak, (ii) ekonomia solidarioa babesten duten erakundeak eta (iii) ekonomia solidarioarako politika publikoak pentsatu, gauzatu edota koordinatzen dituzten udal eta estatu gobernuak.

Idazkaritzaren lehentasuna *ekimen ekonomiko solidarioen* taldeak izan ditzakeen eskaerak eta beharrak betetzea da. Talde honen barne familia bakoitzak diren ekimen ekonomikoak sartzen dira, hala nola kooperatibak, elkarteak, enpresa autokudeatuak, truke klubak, sareak eta talde produktiboak. Kideak hiri edo baserri giroko langile bazkideak izanik, taldeak egiten dute jardueren kudeaketa eta administrazioa eta emaitza ekonomikoen parte bat jasotzen dute. Legalki erregistratuta egon zein ez egon, beraien jarduerak ekonomikoak ondareko ekoizpena, zerbitzuen prestaketa, finantza eta maileguak ematea, produktuak merkaturatzea edo kontsumo solidarioa egitea izan daitezke.



Erakundeekin lotura.

SENAEsen ekintza guztiak *Fórum Brasileiro de Economia Solidária* –FBESeko ordezkariekin batera egiten dira. Horrez gain, gobernuko beste erakunde batzuekin koordinatzen dira, adibidez *Ministério do Desenvolvimento Social e Combate à Fome* ministerioarekin, *Fome Zero* eta *Bolsa Família* programen bitartez; *Política Nacional de Assistência Social* –PNASarekin; *Ministério do Desenvolvimento Agrário* ministerioarekin *Secretaria de Desenvolvimento Territorial* eta *Secretaria da Agricultura Familiar* idazkaritzen bitartez; *Ministério de Pesca e Aquicultura* ministerioarekin eta *Secretaria Especial de Políticas de Promoção da Igualdade Racial* idazkaritzarekin, besteak beste.

Lorpenak.

Idazkaritzaren iritziz bere lorpen nagusiak hauexek dira:

- Politika publikoen sustapena, ekonomia solidariorako 16 zentro publiko sortuz; garapen solidariorako tokiko agenteen eta estatu eta nazio mailako kudeatzaile publikoen trebakuntza; nazio osoan zehar merkaturatze kate produktiboetara eta ekonomia solidarioko ekimen eta sareei (banku publikoekin batera) emandako babesak; nazio mailako bidezko merkataritza solidario baten sistemaren eraketa (*Sistema Nacional do Comércio Justo e Solidário*); langile autokudeatuek egindako enpresen berreskurapenak; hiri hondakin solidoen kudeaketan diharduten kooperatibentzat trebakuntza eta aholkularitza teknikoaren eskaintza handitzea (udalekin batera); *Sistema Nacional de Informações em Economia Solidária*ren sormena. Honetarako nazio osoan zehar 27 batzorde kudeatzaile eratu ziren eta 230 gobernuz kanpoko erakunde eta 700 ikertzailek egin zuten ekimen ekonomiko solidarioen eta beroiei laguntza ematen zieten erakundeen mapa. Sistema honen bitartez ekimen bakoitzaren ezaugarriak ezagutarazi daitezke, zabalketa askoz ere errazagoa bihurtuz.

Lehenengo puntuan aipatutako ekonomia solidariorako zentru publikoak, FBESekin mantendutako elkarriketatik abiatuz eta kudeatzaile publikoen (*Rede de Gestores Públicos de Economia Solidária*) sarearen bitartez politika publikoen instituzionalizazioaren alde egindako ahaleginen parte dira. Aktore anitzek diotenez, zentro hauek nahiko eraginkorrak izan dira nazioko gobernu eta tokiko gobernuen arteko koordinazioaren hobekuntzarako. Hala ere, nazioko udalerrri kopurua kontutan izanda, edo Brasilgo biztanleriaren gehiengoa biltzen duten 85 hiri nagusiak behintzat aintzat hartuz, zentro gutxi direla adierazten dute.



Iraunkortasuna.

Idazkaritzaren jasagarritasuna gobernuaren borondatearen menpe dago: segidako gobernuak ekonomia solidarioaren aldeko gune honekiko konpromisoa mantendu nahi izanez gero, aurrekontuetan diru-kopuruaren zati bat bereizi beharko diote. Horrez gain, neurri handi baten gizarte zibilak bultzatutako erakundea denez, bere jasagarritasuna nazioko gobernu eta ekonomia solidarioko erakunde eta babes eta sustapenerako gobernuz kanpoko erakundeen arteko harremanen sendotasunean datza. Hau dela eta, idazkaritzaren politikak eta programak indartu edo ahuldu daitezke, bere oinarriak galtzera heldu arte, gobernuaren eta gizartearen arteko (des)adostasunen arabera.²²

²² Informazio gehiago http://www.economiasolidaria.org/noticias/el_fin_de_senaes_en_brasil



Erronka nagusiak.

- Ekonomia solidarioaren sustapen politiketan lan egiten duten zenbait aktorek egindako diagnostikoak bat datoz ekimen hauek duten ezaugarri garrantzitsu bat azpimarratzean: nahiko baztertuta edo aldentuta daudela Brasilgo politika publiko nagusien testuingurutik.
- Estatu politika bihurtzeko aurkitzen duten zailtasuna dela eta, SENAESen erronken artean politika hauen sustraiak nazioaren estrukturan sartzea dago, beraien instituzionalizazioa bermatzeko, eta aldi berean bere euskarri izango diren legeak proposatzea.
- Beste erronka garrantzitsu bat ekonomia solidarioaren mugimenduak betidanik defendatutako printzipioen betetzea da, politika hauek bere sustatzaileen iritziz izan beharko lituzketen ezaugarriak zainduz. SENAESen politikak batzuetan laguntza-zerbitzu bezala funtzionatu izan dute, beraien helburua gizarte eredu desberdin baten kudeatzaile izatea denean. Horrexegatik politika hauek barrutik sortutako garapen solidarioa bermatzen duten prozesuak ahalbideratzeko zuzendu beharko litzateke, gobernuko eta gobernuz kanpoko beste erakundeekin duten koordinazioan aurrera eginez (bai udal bai estatu eta bai nazio mailan), zeharkakotasun helburuak lortu ahal izateko.



Erakundearen izena: UNISOL (Central de Cooperativas e Empreendimentos Solidários) Brasil

Lan-eremua: Ekonomia solidarioaren sustapena.

Lekua: Egoitza nagusia Sao Paulon, bazkideak Brasilgo 27 estatuetan.

Webgunea: www.unisolbrasil.org.br

Posta helbidea: Travessa Monteiro Lobato, 95 CEP 09721-140, São Bernardo do Campo, São Paulo, Brasil

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 35.000 langile baino gehiago (horietariko gehiengo txiki bat emakumezkoak direlarik) batzen dituzten 700 enpresa-garapen ekintza desberdin

Jarduerak hasteko urtea: 2004

Sarrera.

UNISOL Brasil "kooperatiba eta enpresa solidarioen zentral" bezala definitzen da, bere helburua kooperatiba eta enpresak antolakuntzan, ordezkartzean eta nazio-mailako koordinazioan laguntzea delarik. Bazkide diren kooperatiba eta elkarteak defendatzeko, beraien garapena eta langileen bizi kalitatea hobetzeko, eremu askotan (finantzak, merkaturatzea, teknologia, trebakuntza, legea eta politika) jarduerak proposatzen ditu. Erakunde honek eragin handia du Brasilgo ekonomia solidarioaren esparruan eta estatuko erakundeekin etengabe dihardu maila desberdinetan (sektore eta lurraldeen arabera) elkarte-lana eta autokudeaketa esperientziak sustatzeko politiken eta legeen bila.

Jatorria.

Batez ere 1990.eko hamarkadaz geroztik, Brasilen kooperatiba asko sortu dira lanpostu eta diru sarrera alternatiboak lortzea behar beharrezkoa bilakatu zelako langile taldeentzat, politika neoliberalen aplikazioaren ondorioz heldu zitzaizen krisiari aurre egiteko. Sao Pauloko estatuan 1999ren amaieran UNISOL Kooperatiben sorrera metalurgiako sindikatuek bultzatzen dute, ABC deituriko lurralde industrialean gogor finkatuta zeudenak. Aldi berean, Central Única dos Trabalhadores (CUT)-ak Agência de Desenvolvimento Solidário (ADS)-a sortzen du, Brasilgo lurraldeetan tokiko garapena antolatzeko eta sustatzeko asmoz. Benetako kooperatibismoaren printzipio historiko eta ideologikoak jarraituz, CUT, ADS, UNISOL Kooperatibek eta lagun dituzten sindikatuek ekimen solidarioak eta kooperatibak bultzatuko dituen zentral bat sortzea erabakitzen dute. Honen bitartez, ahaleginak bateratu eta gizarteratze proiektu handi bat bideratu nahi dute, demokratizazio ekonomikoa eta soziala lortzeko asmoz. Hala jaio zen UNISOL Brasil eta hasieratik bere helburua autokudeaketan oinarritzen diren langileen eskubideak defendatzea eta beraien interesak plazaratzeko espazioak zabaltzea izan da, elkarteak eta kooperatibak bultzatuz.

Actividades.

- Bazkide diren kooperatiben eta langilegoaren interesak defendatzea nazio eta estatu mailako espazioetan (adibidez, Conselho Nacional de Economia Solidária kontseiluan).
- Ekonomia solidarioarentzat lagungarri den legedia lortzea: UNISOL-ak lege-proposamenen prestakuntzan parte hartzen du beste aktore politiko batzuekin batera (gobernua, alderdi politikoak, elkarteak...) Ekonomia Solidarioaren lege orokor bat, Kooperatibismoaren lege orokor berri bat, beste lege bat Lan Kooperatibentzat, eta abar lortzeko.



- UNISOL-ak jarduera ugari proposatzen ditu bazkide diren ekimenen arteko koordinazioa indartzeko eta beraien artean (merkataritzaz, informazioa eta jakituriak elkartrukatzeko) sareak sor ditzaten, sendoago bihurtuko dituzten sinergiak eratuz. Zentralaren iritziz, ekimen isolatuek ezin izango dute eutsi eta konpetitibo izaten jarraitu, beraz nahi eta nahi ezkoa da sareak eta kateak sortzea.
- Bere ordezkari eta kudeaketa ahalmenak direla eta, bazkide diren ekimenen sarrera errazten du ekonomia solidarioa sustatzen duten politika publikoetan maila (nazionala, estatukoa, tokikoa) eta esparru desberdinetan (kreditu, merkatu eta formazio aukeren lorpena, eta abar).
- Finantziario behar espezifikoek dagokienez, kooperatibentzat diru publikoak lortzeaz gain, UNISOL-ak bereak diren diruak ere kudeatzen ditu (bazkideen eta lankidetzaz agentzien ekarpenak bilduz) partaideek proposatzen dituzten proiektuak babesteko.
- UNISOL-ak bere bazkideentzat aholkularitza teknikoa eskaintzen du eta baita arlo desberdinei buruzko trebakuntza espazioetan parte hartzeko aukera ere (politika, kudeaketa, merkaturatzea, legedia...)
- Bazkide diren ekimenak indartzeko asmoz, UNISOL-ak sektore produktiboen arabera antolatu ditu. Lanean dabiltzan "sektorialak" ondorengoak dira: Familia Nekazaritza, Frutagintza, Ehun eta Jantzigintza, Artisautza, Elikadura, Erlezaintza, Birziklapena, Metalurgia, Eraikuntza Zibila eta Gizarte Kooperatibak. Sektorial bakoitzak bere barne dauden ekimenen arteko bilerak antolatzen ditu momentuko egoeraren analisiak egiteko, garapen estrategiak definitzeko, politika publikoak proposatzeko eta esperientziak, ondasunak eta zerbitzuak elkarrekin trukatzeko. Orokorrean, sektorialekin sarrera-ate bezala funtzionatzen dute sare eta kate produktiboak eraikitzeko prozesuan (jantzigintza sektorean Justa Trama har dezakegu adibidetzat, esperientzia honen fitxa dossierrean ikusi, mesedez).

Parte-hartzaileak.

UNISOL ekonomia solidarioaren ekimenen zentral bat da, ondorioz, bere bazkideak kooperatibak eta elkarteak dira eta, beraien bitartez, langileak. UNISOL-aren bazkide bihurtzeko, erakunde bakoitzeko partaideen onespenez lortu behar da asanbladan. Gaur egun, UNISOL-ak ekonomia solidarioko 700 ekimen baino gehiago ditu barne, guztiak formalki eratuta. Zentralak kooperatiben formalizazio hau defendatzen du (Brasilen oraindik badaude milaka legez kanpoko ekimen), bestela ez litzakeelako posible langileen eskubideen alde lan egitea, ez politika publikoetan eragin izatea, ez kontsumo merkatuetan sartzea autonomia eta iraunkortasuna irabazteko.

UNISOL-eko arduradun eta buruzagi guztiak demokratikoki aukeratzen dira zentralaren kongresuetan (oinarrizko erakundearen ordezkarien bitartez). Kargu politikoak dira eta pertsona horien soldadak ez ditu UNISOL-ek ordaintzen, baizik eta jatorrizko kooperatibek.

Vinculación con otras organizaciones.

- UNISOL erakunde politiko bat da, argi eta garbi, nazio barneko eta nazio arteko aktore anitzekin loturak mantendu eta eraikitzen dituena.
- Esan dugunez, hasieratik harreman estua izan du ABCko sindikalismo metalurgikoarekin (CUT/ADS).
- Estatuko politiken eta legediaren inguruan egiten dituen aldaketa proposamenak direla eta, zentrala ondo koordinatuta dago Secretaria Nacional de Economia Solidária-rekin (Lan Ministerioko SENAES-arekin) eta beste ministerio federal batzuekin (Familia Nekazaritza, Garapen Soziala...) eta erakunde eta alderdi politikoekin ere kontaktuan dago.



- Zenbait proiektu nazioako erakunde garrantzitsuekin lankidetzan egiten dira: SEBRAE (Serviço Brasileiro de Apoio às Micro e Pequenas Empresas), Fundação Banco do Brasil edo Fundação Petrobras.
- Horrez gain, UNISOL-ak Forum Brasileiro de Economia Solidária-n (FBES) eta nazio mailan mugimenduaren eraiketa bateratuan aktiboki parte hartzen du.
- Azkenik, UNISOL-ak lankidetzeta eta lotuneak mantentzen ditu Kooperatibismoan lan egiten duten nazio barruko eta nazio arteko erakunde anitzekin, eta Kanada, Espainia, Italia, Holanda eta Mercosur-eko herrialde gehieneko garapen eta sustapen agentziekin.

Lorpenak.

- UNISOL-aren lorpen handienetariko bat Brasilgo sindikalismoaren esparruan ekonomia solidarioaren sektorea antolatzea izan da. CUT-aren barne eztabaida eta kontzientziazioa piztu ditu soldatapeko lanpostuez haratago dauden lana sortzeko modu desberdinei buruz eta gizarteratzea helburutzat duten langile elkarten inizatiba autokudeatuei buruz.
- Ekonomia Solidarioa sendo dagoen Brasilgo sektore produktibo gehienetako kooperatiben arteko sareak eta jarduerak koordinatzea lortu du.
- Zentzu honetan, UNISOL bere hastapenetatik etengabe hazten joan da, Brasilgo ekonomia solidarioaren eremuan erreferentzia garrantzitsua bihurtu arte. Eremua sendotzeaz gain, honek kontrako interesak dituzten sektoreko aktore boteretsuei aurre egiteko indarra ematen dio (adibidez nekazaritza negozio bezala ikusten duten kooperatiba handiei aurre egiteko).
- Legedian eta politika publikoetan eragina izatea lortu dute, nahiz eta oraindik oso garrantzitsuak diren aldaketak egiteke dauden (adibidez, orain legebiltzarrean eztabaidan dagoen lan kooperatiben lege berria).

Iraunkortasuna.

- Bazkide diren ekimen bakoitzak lortutako etekinen %1a ipintzen du UNISOL-aren funtzionamendua ordaintzeko. Bazkide kopuruaren etengabeko hazkundeak baliabide nahikoak bermatzen ditu zentralaren garapenerako.
- Bestalde, UNISOL-en iritziak, ekonomia solidarioko ekimenen iraunkortasuna lortzeko merkatu lehiakortasuna handituz lortu behar da eta horretarako beharrezkoa da araudi apropos bat izatea eta Estatuaren babesa jasotzea, behintzat hasieran.
- Erakunde bezala UNISOL-ak duen hazkundera, oro har ekonomia solidarioko ekimenen iraunkortasunaren alde dagoen faktore garrantzitsu bat izatea espero dute eta batez ere, bere bazkide diren elkarten iraunkortasunaren alde. Arildo Motta, UNISOL-aren lehendakariak dionez: “baliabide eta politika publikoak eztabaida politikoaren espazio bat osotzen dute eta hobeto antolatuta dagoena lorpen handiagoak lortuko ditu ordezkatzan dituenentzat” (Brasil Autogestionário blogan agertutako hitzak, 2010eko uztailak 4).
- Por último, sostienen que el sector de la economía solidaria debe insertarse claramente y a la vez impulsar un nuevo modelo de desarrollo nacional, distributivo y productivo, en el que los trabajadores asociados y autogestionados deben ocupar un lugar preponderante.





Principales desafíos.

- Ekimen ekonomiko solidarioen produktu eta zerbitzuei gehitutako balioa emango dieten teknologia sozialen eta berrikuntza teknologikoen garapena eta ezarpena indartzea.
- Ekimenen arteko sareen antolaketan aurrera egitea, merkatu barruan zein ekonomia sozial eta solidarioaren barne lan egiteko, beti ere ekimenak sendotuz, ahal den neurrian ekonomikoki eta sozialki babestuz.
- Bazkide diren ekimenak lagundu autokudeatutako elkarte-lan kultura berri baten eraiketan, logika kapitalistaren menpekotasunean oinarritutako lanpostuak alde batera utziz.
- Lula-ren gobernuan zehar ekonomia solidarioarentzat garatutako politika publiko espezifikoko oso positibotzat jotzen dituzte. Horregatik, UNISOL-ak duen erronken artean gobernu-politika hauek estatu-politikak bihurtzea da, epe luzeko nazioaren garapen eredian kontutan hartzen direla ziurtatuz.
- Brasilen izan daitezkeen ekonomia sozialeko ekimen eta hedapenarentzat mesedegarri den legedi baten alde borrokatzea.
- UNISOL bere bazkideen eskakizun eta beharren ordezkari denez, zentralaren erronka nagusi bat eskakizun horien norabidea eta bilakaera ezagutzea da, erantzun hobea eman ahal izateko.
- UNISOL-aren nazioarteko partaidetza handitzea: esperientzia brasildarra Latinoamerikako ekonomia sozial eta solidarioari buruzko eztabaidetara eramatea, Latinoamerikako ekimen sareak sortzea, Afrikan ekonomia solidarioaren mugimendua indartzea herrialde lusofonoetatik hasita, eta abar.
- Bere lehendakariaren hitzetan: “hurrengo hamar edo hogeit hamar urteak buruan izan behar ditugu. Non gauden eta nora heldu nahi dugun. Posiblea da lana eta diru sarrerak elkarte moduan sortzea, ez bakarrik enpresak berreskuratuz. Gaur egun espazio eta aukera berriak dauzkagu ekonomian eta ekonomia solidarioak bete behar ditu gune horiek. (...) Beharrezkoa da ekonomia solidarioarentzat sistema publiko bat eraikitzea, sektorea diru publikoarekin eta lege batekin hornituz; hau da, politika publiko multzo bat behar dugu ekimen ekonomiko solidarioak ahalbideratzeko.” (Brasil Autogestionário blogan agertutako hitzak, 2010eko uztailak 4).



Erakundearen izena: Porto Alegre-ko partaidetza-aurrekontua

Lan-eremua: Kudeaketa partizipatiboa.

Lekua: Porto Alegre hiria, Rio Grande do Sul estatua, Brasil

Posta elektronikoa: Partaidetza-aurrekontuen Gerentzia: paulosilva@gp.prefpoa.com.br

Webgunea: <http://www2.portoalegre.rs.gov.br/op/>

Posta helbidea: Prefeitura Municipal de Porto Alegre - Praça Montevideo, 10 - Rio Grande do Sul - Brasil - CEP 90010-170

Esperientzia osatzen duten kide kopurua: 3.000 erakunde sozialen inguru eta 200.000 lagun baino gehiago (Porto Alegreko biztanlearen %15a). Orokorrean, emakumeen partaidetza gizonena baino altuagoa da (%55aren ingurukoa).

Jarduerak hasteko urtea: 1989

Sarrera.

Partaidetza-aurrekontuak (portugaleraz *Orçamento Participativo*; hemendik aurrera, OP) hiritarren partaidetzan oinarritzen den prozesu sistematiko bat da. OParen bidez lan eta zerbitzu publikoetan Porto Alegreko udalak gastatzen dituen baliabideen zati handi bat nola erabiliko den erabakitzen da. Porto Alegre Rio Grande do Sul estatuko hiriburua eta eremu industrialik handiena da, 1.3 milioi biztanle baino gehiago dituelarik. OPak hiritarren partaidetza sustatzeko esperientziarik berritzaileen artean kokatzen dira, tokiko diru sarrera eta gastuei buruzko informazioa zabaltzeko balio dutelako, gastua denon artean zuzentzeko eta nola egiten den eztabaidatzeko aukera emanez. Oso instituzionalizatuta dagoen eta 22 urtez mantendu den praktika honek kultura politikoaren aldaketa nabarmen eta sakon bat ekarri du.

Jatorria.

Estatuaren desindustrializazio eta desartikulazio prozesu neoliberal garrantzitsu baten ondoren, 1989an *Partido dos Trabalhadores* (PT) alderdiak, ezkerreko beste talde batzuekin batera, Porto Alegreko hauteskondeak irabazi zituen. Orduan PTa hiritarren partaidetza eta deszentralizazioa sustatzeko espazioak zabaltzen hasi zen. 1988an demokrazia eta partaidetzarantz egindako konstituzioaren erreformak bidea zabaltu zien Brasil osoan egin ziren honen moduko berrikuntza instituzionalei. Partaidetza eskatzen zuten Brasilgo eta batez ere Porto Alegreko mugimendu sozial askoren ekintzetarako ere esanguratsua izan zen erreforma hori.

1989an ezarri zen Porto Alegren OPa hiriaren aurrekontuak eztabaidatzeko tresna bezala. Hasieran aurrekontuen zati txiki bat eztabaidatzen zen baina denbora pasa ahala eta metodologiak eta irizpideak perfektionatu ahala, aurrekontuen zati handiago bat hartuko zuten.

Jatorrian, lehentasuna eman zitzaizen inbertsioaren %70a jasoko zuten 5 barrutiei. Gero, barruti kopurua handituz joan zen eta kasu batzuetan mikro-barrutiak eratu ziren baliabideen banaketa hobetzeko. 1993an arloen araberrako asanblada orokorrak antolatu ziren, behin ikusita hiri osoarekin zerikusia zuten arloak bazeudela. Asanblada hauen bitartez hobeto ordezkari zitezkeen barrutiko esturturekin asetzen ez ziren sektore eta erakunde batzuen interesak eta baita iritziak ere. Lehenengo identifikatutako arloak Oinarrizko Saneamendua, Etxebizitza, Hezkuntza, Galtzadatzea, Gizarte-laguntza, Osasuna, Garraio eta Trafikoa eta Hiri plangintza izan ziren, gero Aisialdia eta Kirola, Argiztapen publikoa, Garapen Ekonomikoa, Kultura eta Ingurugiroa gehitu zitzaizen.



Parte-hartzaileak.

Urteroko aurrekontu sasoiari elkarrekin lan egiten duten elkarten talde batek osatzen du OPa:

- Udal Administrazioako instantziak hiritarrekin egiten den aurrekontuei buruzko eztabaida zuzentzen dute. Garrantzitsuenen artean *Gabinete de Planejamento* (GAPLAN) eta *Co-ordenação de Relações com as comunidades* (CRC) daude, azken honek gobernu eta elkarten eta komunitate buruen arteko harremana finkatzen duelarik.
- Instantzia komunitarioak: gobernuarekin zerikusirik ez duten barrutietako erakundeak dira, barruti bakoitzaren antolaketa ahalmenen arabera eratzen direnak, beraz badaude instantzia hauek ez dituzten barrutiak ere. Modu desberdinetan antola daitezke baina azken finean hiritarren partaidetzaren bitartez barrutien lehentasunak identifikatzeko balio dute.
- Partaidetzarako instantzia instituzionalak: aurreko bien artean dagoen harremana zaintzen dutenak dira. Erregularri funtzionatzen duten partaidetza komunitarioaren instituzioak dira. OParen kontseilua (COP) aktore guztiak batzen dituen partaidetza instantzia nagusia da. Bere barne
- Barrutietako Asanbladak, Barrutietako Aurrekontu Foruma, Arloen araberrako Asanbladak eta Arloen araberrako Aurrekontu Foruma daude.

Orokorrean, OParen funtsezko ezaugarria bereziki sektore herrikoiek aurrekontuen eztabaidan sartzea da. Praktikan gertatzen dena sektore oso desberdinen arteko elkarrizketa da: herria, gobernu, militante sozialak, teknikariak... Barrutietan diru sarrera eskaseko sektore herrikoiek hartzen dute parte batez ere; Arloen araberrako Asanbladetan, ordea, arlo zehatz batzuei buruz jakituria gehiago duten hezkuntza maila altuagoko pertsonak. Orain sektore kontseiluak martxan jartzen ari dira, barrutietan ordezkariarik ez zuten unibertsitate, enpresa, komunikabideei eta bestelako erakundeek ahotza emateko ere.



Jarduera.

OPak jarraian egin beharreko ekintza batzuk ditu barne:

- 1) Buruzagi herrikoiek deitutako aurretzako batzarrak: hauek barrutiek eta arloekin zerikusia duten herritarren, oinarrizko elkarten eta herri-mugimenduen eskakizunak eta aldarrikapenak batzeko balio dute. Aurrekontuen eztabaidan parte hartuko duten pertsonen hautaketa egiteko ere (martxo-apirila).
- 2) Barrutietako eta Arloen araberrako Asanbladak: aurreko urteko inbertsio plana berrikustea, elkarte eta erakundeek hautatutako arloen onspena, lan eta zerbitzu publikoen artean lehentasuna erabakitzea eta COPera bidaliko diren ordezkarien hautaketa (apirila-maiatza-ekaina) daude bere funtzioen artean.
- 3) Aurrekontuen xehetasunak zehazteko epea: hirritarren eta instituzioen eskakizunak bateratzeko, udal instantzien proposamenen analisi tekniko eta finantzarioa egiteko eta diru sarrera eta gastuen aurrekontuaren proposamen bat prestatzeko garaia da (abuztua)
- 4) Aurrekontuen botazioa: COPan eztabaidatu eta bozkatzen da; Botere Legegilearen aurrean proposamena aurkeztu azken botazioa egiteko (abuztua-iraila).
- 5) Barrutietako eta Arloen araberrako Forumeetan barne estatutuaren aldaketak eztabaidatu (azaroa-abendua)



Erakundeekin lotura.

Aurrekontuen zikloak berak etengabeko harremanak eskatzen ditu hiriko erakunde ugarien artean: gobernua eta PTa, oinarrizko elkarte eta mugimendu sozialak, enpresak, hiriko unibertsitateak, eta abar. Aldi berean, Porto Alegreko OPa aurrekontuen partaidetza lantzen duten hirien sareetan dago eta sare berriak bultzatzen ditu, bai Brasilen bai atzerrian.

Lorpenak.

- Berrikuntza instituzionala: OPak ordura arte Brasilgo sistema politikoan existitzen ez zuen barrutien ordezkari zabaldu zuen. Antolatutako hiritartasuna tokiko politika definitzeko subjektu aktibo bezala onartzea lortu zuen. Era berean, sektore eta interes anitzen ordezkari zabaldu du, baliabide publikoen erabilpenean klientelismoa eta asistentzialismoa beheratuz.
- Esperientzia denboran zehar mantendu izateak etengabeko hobetze eta egokitze prozesu bat ahalbideratu du. Jatorrian funtzio bat betetzeko sortutako erakundeak beste batzuegatik ordezkari ziren, eraginkortasun handiagoa eta interesen ordezkari zabalagoa bilatu nahian (hau da hain zuzen ere COP eta Ordezkari Forumen kasua).
- Lehentasunak aldatu dira populazioaren gehiengoarentzat onura bilatuz: herri partaidetzak komunitateen arazoak eta beharrak planteatzen lagundu zuen. Nahiz eta OPak ez lortu hiriko lan publikoak enpresari taldeen alde ez joatea, behintzat tope bat ipintzen die eta talde korporatiboaren interesak aurrez aurre jartzen ditu gehiengoaren interesekin eta justizia sozialarekin.
- Aurrekontu beharrak kontutan hartzeko prozesuaren kalitatearen bilakaera: 2002an agertzen da lehenengo aldiz hezkuntza lehentasun handiko arlo bezala. Aurreko hamarkadan azpiegitura fisikoaren beharren asebetetzea izan zen funtsezko gaia.
- Porto Alegreko zerga bilketa etengabe hazten joan da OPa funtzionatzen hasi zenetik. Agian aurrekontuen kudeaketa bateratuaren ondorioz gertatu da fenomeno hau, OPak sinesgarritasun politikoa eman baitio udal kudeaketari.
- Herri partaidetza hazteaz gain, gobernu eta gizarteko erakundeen arteko harremana sendotu da. Komunitate elkarteetan aldaketa bat gertatu da: protesta eta istiluen kultura batetik negoziaketa eta gatazken kultura batera pasa dira. Gobernuan dagoen PTa, bestalde, "langileentzat gobernu" batetik "hiriarentzat gobernu" bat egitera pasa da.
- Komunitatearen ikasketa prozesua: OPak urteetan zehar egin beharreko prozesu pedagogiko bat eskatzen du, zeinetan hiritartasuna eta bere barne dauden taldeak interes desberdinak ikusteko trebatzen diren, eztabaida demokratikorako ahalmenak ikasi eta praktikatzen dituzten eta hiri osoarentzat aurrekontu politikak dauzkan berezitasun eta ondorioez jabetzen diren.





Iraunkortasuna.

- Esperientzia honek estatu politika bihurtzea lortu du, gobernuan izan diren alderdi desberdinen txandaketa gainditu duelarik.
- Porto Alegre-ko OPa esperientziarekin konpromisoa hartu duten mota askotako elkarte sozial ugari eusten dute. Guztientzat, beraien aldarrikapenak politika publikoetan islatzeko aukera da.
- Biztanleek ere mantentzen dute OPa, bai partaidetzaren bai zerga bilketaren gorakada egon delako urteak pasa ahala.
- Azkenik, nazio arteko eta nazio barruko mailan Porto Alegreko OPak izan duen hedapenak eta eraginak esperientziaren iraunkortasuna bermatzen dute.

Erronka nagusiak.

Esperientziaren erronka nagusiak partaidetza zenbaterainokoa eta nolakoa den inguruan koka ditzakegu, eta baita bere eraginkortasunean aurrekontu publikoen hobekuntza iraunkor bat lortzeko:

- Partaidetza mantentzea: borondate hutsez egin beharreko lana nahiko neketsua izan daitekeenez, partaidetza behar izaten da eta honek hartutako erabakien zilegitasuna zalantzan jartzen du.
- “Herriaren jakituria teknikoarekin” bateratzea: beti ere konponbide zaileko gai bat eztabaidan dauden arloei buruzko jakituria espezializatua eta partaidetzaren eraginkortasuna lotzen dituen da. Ahalegin handiak egin dira jakituria teknikoa “itzultzeko” eta ordezkarien trebakuntzak ahalbideratzeko, baina arazo honek oraindik dirau. Badago botere gatazka bat (koordinazio funtzio ugari betetzen dituen eta finantza-informazioak eskuragarri dituen) gobernu eta COParen artean. Horrez gain, beharrezkoa da OPa eta Botere Legegilearen arteko harremana lantzen jarraitzea, hau da, demokrazia zuzena eta ordezkarien bidezko demokraziaren arteko harremana estutzea.
- Herri erakundeek beti defendatu izan dute ikasketa prozesu eta informazioaren hedapen zabal baterako komenigarria dela pertsona gehiago ordezkartzetan sartuta egotea, baina gobernuak beti erantzun die eztabaiden eraginkortasuna handitzeko zenbat eta pertsona gutxiago, hobe dela.
- Ordezkarien autonomia, erantzukizuna eta irekitasuna: nahiz eta estatuaren estruktura organikoetan sartuta egon, elkarte sozialek beraien oinarri diren pertsonen erantzunak ematen eta biztanle guztien interesak defendatzen jarraitu behar dute.
- Gobernu bateratu honek dakartzan gatazka eta tentsioen intentsitatea neurtu behar da, gatazka hauek prozesuak beti izango dituen ezaugarri bat direlako.
- Oinarrizko beharren eztabaida gainditzea epe luzeko gaiez eta gai estrukturalerik mintzatzen hasteko.



**Finantzaketa:****● Banco Palmas – Brasil:**

-Instituto Técnico del Instituto Palmas. Banco Palmas - 100 preguntas más frecuentes. Ediciones Instituto Palmas. Año 2010.

-En: <http://www.bancopalmas.org.br/oktiva.net/1235/nota/158585>

-Melo, Joao Joaquim de. Banco palmas. Una práctica de socioeconomía solidaria. Agora XXI/Banco Palmas. Quito. Programa de Gestión Urbana – UN/HABITAT. Cuaderno de Trabajo Nº 116. Mayo, 2003.

-Páginas web:

<http://www.bancopalmas.org.br/>

<http://www.bancopalmas.org/site.php>

● Coop57 S.C.C.L – España:

-<http://www.coop57.coop/esp/quesomos/index.html>

-http://www.economiasolidaria.org/event/2009/11/19/charla_coop57_una_economia_solidaria_para_una_sociedad_m%C3%A1s_justa_madrid

-http://www.nodo50.org/espanica/articulos/documentos/economia_social/present_coop_57mad.pdf

-<http://coop57.blogspot.com/2006/01/coop57.html> (Entrevista a Jordi Pujol, presidente de Coop57 entre 2004 y 2010)

-Fundación Inversión y Ahorro Responsable (FIARE) – España:

<http://www.proyectofiare.com/>

Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena:**● Agricultura Urbana Rosario – Argentina:**

-Bracalenti, Lagorio, Lattuca, Moreira, Ramos, Terrile (2006). *Construyendo barrios con seguridad alimentaria en Rosario*. En Revista de Agricultura Urbana Nº 15, pág. 23. IPES Promoción para el Desarrollo Sostenible, Lima, Perú.

-Calvin, Mazzuca, Ponce, Santa Cruz (2008). *“La AU como estrategia de acceso a igualdad de oportunidades y derechos entre mujeres y varones: El caso Rosario”*. Documento presentado en el Seminario Regional Género y Agricultura Urbana, organizado por IPES – RUAF. Lima, Perú, 2006.

-Juaiek, Logares, Nicolaiczuk, Palacios y Raffoul (2010). *Análisis crítico del Programa de Agricultura Urbana, Rosario*. Trabajo presentado en el marco de la materia Instituciones y Alcances de la Economía Social y Solidaria impartida por José Luis Coraggio, MAES IV, ICO-UNGS.

-Lattuca (2006). *Parque Huerta: una estrategia de uso del suelo para la agricultura urbana en la ciudad de Rosario, Provincia de Santa Fe, Argentina*. Tesis de Maestría. Instituto de Sociología y Estudios Campesinos: Maestría en Agroecología, Sociología y Desarrollo Rural Sostenible. Universidad Internacional de Andalucía, España.

-Lattuca, Lemos, Mazzuca, Orué, Ponce, Ramos, Terrile (2005). *Organizaciones Sociales de Agricultores Urbanos: Modelos de Gestión y Alianzas Innovadoras para la Incidencia Pública. Estudio de caso: Consolidación de la Red de huerteras y huerteros de la ciudad de Rosario*.

<http://www.ipes.org/au/osaup/organizaciones/rosario/Pdf/RESUMEN%20Red%20de%20Huerteras%20-%20espanhol.pdf>



-Lattuca, Terrile, Timoni (2003). Proyecto "Optimización del uso de suelos para la agricultura urbana en el municipio de Rosario, Argentina. Informe Diagnóstico de suelos con limitantes agronómicas para la práctica de la Agricultura Urbana en la ciudad de Rosario, Argentina". UNHABITAT/PGU-ALC, IPES, IDRC, Municipalidad de Rosario, Facultad de Arquitectura, Planeamiento y Diseño de la Universidad Nacional de Rosario, CEPAR. Rosario, Argentina.

-Mazucca, Ponce, Terrile (2009). *La agricultura Urbana en Rosario: Balance y Perspectivas*. OXFAM/IPES Promoción para el Desarrollo Sostenible, Lima, Perú.

http://ipes.org/au/SISTEMATIZACION_AUP_ROSARIO.pdf

Otras fuentes:

-Diario La Capital, Rosario www.lacapital.com.ar

-Municipalidad de Rosario www.rosario.gov.ar

-http://www.rosario.gov.ar/sitio/desarrollo_social/empleo/agricul.jsp

-Video Institucional del PAU: http://www.youtube.com/watch?v=9HPkY_P6LRk

● **Asociación Civil Madre Tierra – Argentina:**

-Página web www.madretierra.org

-Asociación civil Madre Tierra". Informe elaborado por los estudiantes de la asignatura Laboratorio intervenciones: Redes sociales y condiciones de vida. Buenos Aires, Argentina. Diciembre de 2010.

● **Cadena Ecológica do Algodão Solidário, Justa Trama – Brasil:**

-www.justatrama.com.br

-Entrevista realizada por María Victoria Deux. Porto Alegre, Septiembre de 2008.

-www.agrisustentavel.com/san/roupaverde.html

● **Cadena Textil Solidaria – Argentina:**

-www.cadenatextil.com

-www.textilespigue.com.ar/home.html

-textilespigue.blogspot.com/

-coopagroecolitoral.blogspot.com/

● **Centro de Investigación y Formación en Actividades Económicas Sostenible (CIFAES) – España:**

-http://www.holistika.net/vida_sostenible/sostenibilidad/amayuelas_de_abajo_la_utopia_posible.asp

-www.amayuelas.es

-<http://ruben-elfauno.blogspot.com/2009/06/sostenibilidad-en-amayuelas-de-abajo.html>

-<http://www.rtvicyl.es/fichaNoticia.cfm/CULTURA/20110201/documental/plasma/trabajo/ desarrollo/sostenible/amayuelas/abajo/E2AFDDF8-EF73-E7F8-2BD4A14D6E49337C>

● **Cooperativa de Costureras Unidas Venceremos (Univens) – Argentina:**

-Aline Mendonça dos Santos (2006): Univens- Nove anos de história concretizando uma outra economia. En Experiencias de Economía Social y Solidaria en Argentina y Brasil. Trabajos ganadores del Primer Concurso RILESS para investigadores jóvenes. Buenos Aires. Editorial elaleph.com.

-Cris Fernández Andrada (2007): Cooperativa Univens: del encuentro de la política con el trabajo, importantes repercusiones psicosociales de la autogestión. En Marilia Veríssimo Veronese (Organizadora): Economía Solidaria y Subjetividad. Buenos Aires. Altamira-UNGS

-Entrevista realizada por María Victoria Deux a trabajadoras de UNIVENS. Septiembre de 2008.



- **Cooperativa de servicios públicos, Comunidad Organizada – Argentina:**

- www.riless.org
- www.salvador.edu.ar/csoc/idicso/docs/sdti011.pdf
- www.lapostaregional.com.ar

- **Cooperativa de trabajo “Unión Solidaria de Trabajadores” limitada (UST)- Argentina:**

- Página web de UST: <http://unionsolidariadetabajadores.com/>
- Entrevista realizada por Gonzalo Vazquez y María Victoria Deux. Julio de 2010.

- **Eko3R S.Coop – Espainia (EAE)**

- <http://www.infoambiental.es/directorio/-/empresas/eko3r/2523396/6>
- www.eko3r.com
- <http://www.diariovasco.com/v/20100302/alto-deba/eko3r-asume-gestion-aceite-20100302.html>
- <http://www.diariovasco.com/v/20100302/alto-deba/eko3r-asume-gestion-aceite-20100302.html>

- **El Culebrón Timbal – Argentina:**

- www.riless.org
- <http://www.culebrontimbal.com.ar>
- <http://www.lapostaregional.com.ar/>

- **Emaús Fundación Social – Espainia:**

- www.emaus.com

- **Fábrica Sin Patrones (FASINPAT) – Argentina:**

- “Fábricas y empresas recuperadas por sus trabajadores”. Edición actualizada. lavaca editora. 2007
- “ Cuenta regresiva para Zanón? El strip-tease de los reyes”. En Publicación digital lavaca 20 Nov 2007
- “Zanon, la definición: Desalojo o expropiación?”. En Publicación digital 8 Oct 2008
- Zibechi, Raúl “Otro mundo es posible: cerámicas Zanón”. ALAI, América Latina en Movimiento. 18-01-2006. En: <http://alainet.org/active/10391&lang=es>
- INTI asesora a la fábrica Fasinpat. 31-08-2009. <http://www.rocadigital.com.ar/?id=13519&m=articulo>
- Virma Molina y Ernesto Ardito. Video “Corazón de Fábrica”. Año 2008
- Danielle Incalcaterra. Video FASINPAT fábrica sin patrón.

- **Federación Sartu – Espainia (EAE):**

- www.sartu.org

- **Ferias Francas de Misiones – Argentina:**

- Carballo, C. (2000) “Las ferias francas de Misiones. Actores y desafíos de un proceso de desarrollo local”. Documento de Trabajo N° 9, Centro de Estudios y Promoción Agraria (CEPA), Buenos Aires.

-Carballo, C. (2006) “Autoconsumo de los pequeños productores de Misiones. Fortalezas y condicionantes de un proceso tendiente a la seguridad alimentaria”, en Manzanal M, Neiman G. y Lattuada M. (2006) *Desarrollo rural: Organizaciones, instituciones y territorio*. Ed. CICCUS, Buenos Aires



-García Guerreiro, L. (2009) “De articulaciones y resistencias: La experiencia de las Ferias Francas de Misiones”. Trabajo presentado en el Encuentro de Estudios Latinoamericanos, Rio de Janeiro, 11-14 Junio, 2009.

-Mathot, O. y Rebolé, M. (2004) “Ferias Francas”. Cáritas Argentina – Foro de Trabajo

-Nirenberg, O. (2004) “Sistematización de experiencias rurales alternativas de comercialización: Las Ferias Francas”. Cuaderno de Trabajo Nº 38, Centro de Apoyo al Desarrollo Local (CEADEL), Buenos Aires.

-Ricotto, A. y Almeida, J. (2002) “Las ferias francas de Misiones, Argentina: una red de actores sociales y una nueva visión del mundo rural”. Trabajo presentado en VI Congreso de la Asociación Latinoamericana de Sociología Rural (ALASRU), Porto Alegre. Disponible en <http://www.ufrgs.br/pgdr/textosabertos/artigo%20ricotto.pdf>

-Rodríguez F., Perucca C., Kostlin L. y Castiglioni G. (2010) “La Feria Franca de San Vicente (Misiones) y sus efectos en la organización interna de las unidades familiares de producción” en Cittadini R, Caballero L, Moricz M. y Mainella F. (Comp) *Economía Social y Agricultura Familiar. Hacia la construcción de nuevos paradigmas de intervención*. Ed. INTA, Buenos Aires. Disponible en http://www.inta.gov.ar/extension/prohuerta/info/carpetas/economia_social/economia_social_y_agricultura_familiar.pdf

-Verbeke, G. (2009) “Ferias Francas de Misiones”, RILESS. Disponible en http://www.riless.org/experiencias_desarrollo.shtml?x=35888

Otras fuentes:

-Diario Misiones On Line <http://www.misionesonline.net>

-Agromisiones, sección Ferias Francas <http://agromisiones.com.ar/?cat=16>

● **Fundació Deixalles – España:**

-www.deixalles.org

-<http://www.economiasolidaria.org/deixalles>

● **Fundación Gaztelan - España:**

-www.gaztelan.org

● **Fundación Peñasal – España (EAE):**

-www.fundacionpenascal.org

● **Grupo La Veloz Cooperativa – España:**

-www.grupolaveloz.com

● **La Alameda – Asamblea Popular y Cooperativa de Trabajo “20 de diciembre” – Argentina:**

-García, Natalia. “La Alameda” - Asamblea Popular y Cooperativa de Trabajo “20 de Diciembre” de Parque Avellaneda -Ciudad de Buenos Aires-Argentina. En:

http://www.riless.org/experiencias_desarrollo.shtml?x=42383



-Sitios Web La Alameda: <http://www.mundoalameda.com.ar/>; <http://laalameda.wordpress.com/>

-Sitio web No Chains. <http://www.nochains.org/>

-Pascucci, Silvina. Dos estrategias enfrentadas. El programa político de la UTC-Alameda en la industria de la indumentaria argentina. Revista iZQUIERDAS, Año 3, Número 7, 2010 ISSN 0718-5049 Periódico La Vaca. "Ruido de rotas cadenas". Artículo, 2 Jun 2010. <http://lavaca.org/notas/ruido-de-rotas-cadenas/>

-Videla, Eduardo "Costura sin cadenas", En Diario Página 12, Domingo, 4 de abril de 2010

● **Mercado de la Estepa "Quimey Piuké":**

-Campos Salvá, M. S. y Zubizarreta, J. L. (2010): "El Mercado de la Estepa Quimey Piuké", publicado en el libro "Economía Social y Agricultura Familiar. Hacia la construcción de nuevos paradigmas de intervención", Ediciones INTA, Buenos Aires.

-Página web www.mercadodelaestepa.com.ar, consulta realizada el 12/01/2011

● **Mol- Matric S.C.C.L – España:**

-<http://www.noticiaspositivas.net/2010/08/02/mol-matric-todo-un-referente-del-mundo-cooperativo-y-de-la-economia-social-2/>

-http://www.coop57.coop/index.php?option=com_content&task=view&id=130&Itemid=299

-<http://www.molmatric.coop/mo/pages/mo1.php?id=0&n1=1&n2=2>

● **Movimiento de los Trabajadores Rurales sin Tierra (MST) – Brasil:**

-Harnecker, Marta (2002) *Sin Tierra, Construyendo Movimiento Social*. Disponible en <http://www.biblioteca.clacso.edu.ar/>

-Pinassi, María Orlanda (2008) *El MST y la completa destructividad del capital*, Revista Herramienta N° 37, 2008.

-Rocchietti, Ana María (2002) *El Movimiento de los Trabajadores sin Tierra (MST) del Brasil: sus orígenes y el carácter de su lucha*. Tierra viva, Revista Herramienta N° 18, 2002.

-Secretaria Nacional do MST (2010) *MST: Lutas e Conquistas*, 2º Ed.

-Sector Nacional de Formación MST (2009) *Método de Trabajo y Organización Popular*.

-Stédile, João Pedro y Mançano Fernández, Bernardo (2000) *Brava gente, la trayectoria del MST y de la lucha por la tierra en el Brasil*. Ediciones Barbarroja, Argentina.

Otras fuentes:

-Coordinadora Latinoamericana de Organizaciones: <http://movimientos.org/cloc>

-Documental sobre el MST: <http://cinerebelde.blogspot.com/2009/09/los-sin-tierra-por-los-caminos-de.html>

-Página Oficial del Movimiento de los Trabajadores Rurales Sin Tierra (MST), sección de producción <http://www.mst.org.br/taxonomy/term/325>



● **Movimiento de Ocupantes e Inquilinos (MOI) – Argentina:**

-Comisso, Sandra, y Heguy, Silvina. “Uno de cada siete porteños tiene problemas de vivienda”, *Dario Clarín*, Buenos Aires, , 20-04-01.

-El Informador N°3, **25 de julio de 2010, Órgano de comunicación del MOI**

-Jeifetz, Néstor. Entrevista realizada por Natalia Bauni. 19 de mayo, 1° semestre 2010. Revista OSERA del N° 3. Instituto de investigaciones Gino Germani, Facultad de Ciencias Sociales, UBA.

-Jeifetz, Néstor y Rodríguez, María Carla (2011). “Producción autogestionaria del hábitat”. Artículo publicado en la revista “Voces en el fénix” número 5.

-Rodríguez, María Carla (2009). Autogestión, políticas del hábitat y transformación social. Espacio Editorial. Buenos Aires.

-Rodríguez, María Carla. Las políticas habitacionales argentinas post 2001: Entre la gestión de la “emergencia” y la emergencia de la producción autogestionaria. Revista OSERA del N° 3, 1° semestre 2010. Instituto de investigaciones Gino Germani, Facultad de Ciencias Sociales, UBA.

-Rodríguez, María Carla y Di Virgilio, María Mercedes et al (2007). Políticas de hábitat, desigualdad y segregación socioespacial en el área metropolitana de Buenos Aires. AEU-IIGG/FSOC-UBA. Buenos Aires.

-Sitio oficial del MOI: <http://www.moi.org.ar/>

● **Movimiento de Trabajadores Excluidos – Argentina:**

Díaz Mariela. Análisis organizacional del Movimiento de Trabajadores Excluidos. (2009) (Documento confeccionado en el marco de la Maestría en Economía Social)

Entrevistas con referentes del MTE.

● **Organización Barrial Túpac Amaru – Argentina:**

-<http://www.tupacamaru.org.ar>

-<http://www.pagina12.com.ar/diario/elpais/subnotas/134056-43247-2009-10-25.html>

-Albergucci, Inés et al (2009): Trabajo autogestionado y organización política. Ediciones de CTA. Buenos Aires. Disponible en: <http://www.cta.org.ar/base/article13721.html>

Red Social Koopera S.Coop – Espainia (EAE):

-<http://www.economiasolidaria.org/koopera>

-<http://elblogverde.com/koopera-merkatua-el-primer-mercado-ecologico-del-pais-vasco/>

-<http://foro-itaca.wikispaces.com/file/view/Koopera.pdf>

● **Tinko Garbiketak S.L – Espainia (EAE):**

-Entrevista mantenida con M^a Begoña Díaz de Diego, Responsable técnica de Fundación Beti Gizartean el 14.02.2011

● **Trévol la Cooperativa – Espainia:**

-www.trevol.com

● **Usina Catende – Brasil:**

-Castilho, Monyke (2009). Empregado e patrão ao mesmo tempo, Revista Trabalho del Ministerio de Trabajo y Empleo de Brasil, mayo, junio, julio de 2009.



- De Salles Oliveira, Paulo (2008). Economía Solidária, entrevista con Paul Singer. Estudos Avançados, São Paulo, vol 22, n° 62, pág. 289-314.
- Goretti Soares (2006), Harmonia conquistada, Empregados assumem usina falida e garantem sustento para as famílias, Revista Desafios do desenvolvimento del Instituto de Pesquisa Econômica Aplicada (IPEA), Edição 27 - 5/10/2006, Brasília.
- Kleiman, Fernando (2008). Lições de Catende: a construção de uma autogestão em Pernambuco, Annablume Editora, San Pablo, Brasil.
- “MST tranca BR 101 na altura de Palmares, Pernambuco”, 19/04/2007, nota periodística, portal web del MST <http://www.mst.org.br/node/808>
- Nascimento, Cláudio (2005). Do “beco dos sapos” aos canaviais de Catende. Brasília, Senaes. http://www.mte.gov.br/ecosolidaria/prog_becosapos.pdf
- Novaes, Henrique T. y Sardá, Maurício (2009). Para onde vão as Empresas Recuperadas?. Universidade Estadual de Campinas (Unicamp), Secretaria Nacional de Economía Solidária (SENAES). Ponencia presentada en el II Encuentro internacional: *La economía de los trabajadores. Trabajo y autogestión frente a la crisis global*, Facultad de Filosofía y Letras, Universidad de Buenos Aires, agosto de 2009.
- Página oficial de Usina Catende: <http://www.usinacatende.com.br/>
- Schäfers, Astrid. Reforma agrária e economía solidária: o caso da usina Catende. Estudos Sociedade e Agricultura, abril 2007, vol. 15 no. 1, p. 62-88. ISSN 1413-0580.
- “Trabalhadores da Usina Catende - PE - exigem que seus direitos sejam cumpridos”, 12/08/2003, nota periodística, portal web del MST <http://www.mst.org.br/node/1323>

Merkaturatzea eta elkar trukaketa (trukea)

- **Asociación cultural Traficantes de Sueños – Espainia:**

- www.traficantes.net
- <http://nocionescomunes.wordpress.com/>
- <http://www.livestream.com/traficantesdesuenos>
- <http://atravesadasporlacultura.wordpress.com/>

- **Asociación Kidenda – Espainia (EAE):**

- www.kidenda.org

- **Cooperativa Educacional Olga Cossetini Ltda. – Argentina:**

- http://www.riless.org/experiencias_desarrollo.shtml?x=25725
- Plasencia, Adela y Orzi, Ricardo (compiladores) (2007): *Moneda social y mercados solidarios. Potencial emancipador y pedagógico de los sistemas monetarios alternativos*. Ciccus. Buenos Aires.
- <http://www.youtube.com/watch?v=S4Qbl8tL-rg>

- **El Trueque en Venado Tuerto “El juego de dar y recibir”- Argentina:**

- Abramovich, A. y Vázquez, G. (2003): “La experiencia del Trueque en la Argentina: otro mercado es posible”. Publicado en Seminario de Economía Social, Central de Trabajadores Argentinos, Buenos Aires.
- Abramovich, A. y Vázquez, G. (2007): “Experiencias de Economía Social y Solidaria en la Argentina”. Publicado en “Estudios Fronterizos. Revista de ciencias sociales y humanidades.” Nueva época, vol. 8, num. 15, enero-junio de 2007. Editada por la Universidad Autónoma de Baja California, México.
- Hintze, S. (edit.) (2003): “Trueque y Economía Solidaria”. Prometeo-UNGS. Buenos Aires.



-Ilari, Daniel (2007): “La experiencia del Grupo de Economía Naturalista (Venado Tuerto, Provincia de Santa Fe)”, publicado en “Moneda social y mercados solidarios” de Plasencia, A. y Orzi, R. (comp.), Espacio Editorial, Buenos Aires.

- **Espanica S.Coop – Espainia:**
-www.espanica.org
- **Fundación Aldauri - Proyecto Konekta – Espainia (EAE):**
-http://www.economiasolidaria.org/buena_practica/aldauri_fundazioa/banco_del_tiempo_on_line
-www.bdtbilbao.org
-www.aldauri.org
- **Iniciativas de Economía Alternativa y Solidaria (IDEAS) – Espainia:**
-www.ideas.coop
- **Mercado para el desarrollo y la cooperación (MERCADERCO) – Espainia:**
-www.mercadeco.com
- **Projeto Esperança/Coesperança – Brasil:**
-Página web www.esperancacoesperanca.org.br
-Material elaborado por Projeto Esperança/Coesperança

Kontsumoa:

- **Bidezko Bidean, S.Coop. – Espainia (EAE):**
-Guía de experiencias de comercio justo, Grupo Emaús Fundación Social, 2010.
-<http://saregune.net/index.php/Asociaciones/-Elkartek/Bidezko-bidean-abre-en-la-Kutxi-el-70.html>
-http://bidezkobidean.elkartek.net/?page_id=7
-http://paperekoa.berria.info/plaza/2008-07-30/042/007/lege_info.htm
-Entrevista personal con Jose de Bidezko Bidean el 14.02.2011
- **Birosta Bar Vegetariano - El Esqueje S.Coop – Espainia:**
-www.birosta.com
- **Ecogermen S. Coop de Consumo Ecológico. – Espainia:**
-www.ecogermen.com
- **La Ortiga. Cooperativa de Consumidores.- Espainia:**
-<http://www.laortiga.com/>
-<http://www.dolcecity.com/sevilla/2009/02/la-ortiga-frutas-y-verduras-ecologicas.asp>
- **Landare. Asociación de consumidores de productos ecológicos – Espainia:**
-www.landare.org



Ekonomia Solidarioaren Sustapena:

- **Fórum Brasileiro de Economia Solidária – Brasil:**

- <http://www.fbes.org.br>

- FBES (2003): Carta de Principios. Disponible en: [fbes.org.br](http://www.fbes.org.br).

- FBES (2003): Plataforma de Lucha. Disponible en: [fbes.org.br](http://www.fbes.org.br).

- **Secretaría Nacional de Economía Solidaria (SENAES) – Brasil:**

- <http://www.mte.gov.br>,

- http://www.mte.gov.br/ecosolidaria/secretaria_nacional.asp

- http://www.mte.gov.br/ecosolidaria/cons_default.asp

- **UNISOL Brasil (União e Solidariedade das Cooperativas e Empreendimentos Solidarios do Brasil) – Brasil:**

- Jornal UNISOL Brasil. Ediciones 1 a 7. Disponibles en www.unisolbrasil.org.br

- Revista Empreendimentos Solidários. Publicación de UNISOL Brasil. 2008.

- Entrevista a Arildo Motta, presidente de UNISOL Brasil, realizada el 4 de julio de 2010 por Paulo

- Marques de Brasil Autogestionario. Disponible en <http://www.brasilautogestionario.org>

- Entrevista a Marcelo Rodrigues, secretario general de UNISOL Brasil, realizada el 8 de septiembre de 2008 por Susana Hintze de la Universidad Nacional de General Sarmiento. Mimeo.

- Pagina web: www.unisolbrasil.org.br

Kudeaketa Partizipatiboa:

- **Presupuesto participativo de Porto Alegre – Brasil:**

- Alcaldía de Porto Alegre, Brasil. Red Urbal Nº 9. Documento Base. “Presupuesto Participativo y Finanzas Locales”. Segunda versión ampliada. Mayo 2005.

- http://lproweb.procempa.com.br/pmpa/prefpoa/urbal9_esp/usu_doc/db_rede_9_maio_2005_reformatado_em_set_2006_con_indice.pdf

- Costanzo, Valeria; Lafrance, Nancy; Massa, Laura (2006) El caso del presupuesto participativo de Porto Alegre – Brasil. Trabajo presentado en la materia: Alcances e instituciones de la ES de la Maestría en Economía Social - UNGS

- De Sousa Santos, Boaventura. “Democracia y participación: el ejemplo del presupuesto participativo de Porto Alegre”. Ediciones Abya-Yala. Ecuador, 2004. De Sousa Santos, Boaventura. “Reinventar la democracia, reinventar el Estado”. CLACSO. Buenos Aires, 2005

- Motta, João y Alfonsin, Betania: “Gestão Democrática em Porto Alegre: dificuldades e oportunidades para avançar uma experiência exitosa”. Portafolio de Experiencias. URBARED.

- http://www.urbared.ungs.edu.ar/experiencias_presentacion.php?expid=2